

# Putzu



TXILLARDEGI

---

**ELKARLANEAN**

AZALA

Diseinua: Jose Felix Igartua

Irudia: Borja Goitia

Azpiko argazkia: Gema Arrugaeta

Egilearen argazkia: Aitor Bayo / Jakin

© Jose Luis Alvarez Enparantza, 'Txillardegí'

© ELKARLANEAN S.L. Donostia 1999

L.G. NA. 1191/1999

ISBN 84-8331-521-1

Elkarlanean S.L. Argitaletxea

Portuetxe kalea, 88 bis

20018 Donostia

Tel. 943 31 02 67

Fax: 943 31 02 16

e-mail: [elkarlanean@jalgi.com](mailto:elkarlanean@jalgi.com)

<http://www.jalgi.com/elkarlanean>

# PUTZU


*Nafarroari,  
behin,  
eta berriz,  
eta hamaika bider,  
kanpoko arrotzek  
eta bertako ustelek,  
inkantean  
saldutako  
euskal aberri miresgarriari.*

# Urgull



# DONOSTIA

1860



Korneta-hotsek esnatu nindutenean, ez nekien nik zer ordu zen; eta egiazko korneta-hotsak ala alegiazkoak ote zirenetz ere ez.

Urduri bizi nintzen bolada hartan, eta gaueko lokamutsak eta eldarnioak, eta eguneko gertakariak eta katramilak, ez nituen beti elkarretarik garbiki bereizten.

Baina gau bitxi hartan, benetakoak ziren. Atzealdetik zetozkidan turutakadak, Urgull aldetik; San Telmo (orain "Trinidad" esan beharko, omen) kale gaineko Infanteri kasernatik zehazkiago.

Errepikatu egiten ziren, sarkor, zorrotz, asaldagarri. "Diana" tokea ere ezagutu uste izan nuen behin eta berriz, Motako Gazteluko tropak oro berehala esnatu nahi izan balituzte bezala.

Baina nik ezagutzen ez nuen beste toke bitxi bat ere bazetorren batera, dianarenarekin nahasian, berau ere behin eta berriz errepikatua.

Gertatua bide zen zerbait inguruetan (hamaikagarren aldiz!). Beste *kolperen* bat edo.

1873ko udaberri istilutsu hartan ez baitzen batere harritzekoa.

Bost urte hartan zegoen, egia esan, Espainiako egoera politikoa kinka gaiztoan.

1868az geroztik bost urte joanak ziren, bai, baina saltsa bere hartan beti.

Isabel erregina potzolo gixena, Frantzia aldera ihesi abiatu aurretixe, Madrileko gertakari larrien hasieraren garaian, Lekeition zegoen. Eta muga pasatzeko gomendatu zioten Gorteko kontseilariak.

Eta, hasteko, eta batere trikatu gabe, berehalaxe, Donostiako Aieteko Jauregira aldatzeko. Bailengo Dukesak ohore handizat hartuko zuela erregina bere jauregian errezebitzea.

1868ko irail gatazkatsu harez geroztik, bost urte oso joanak ziren ia-ia. Hori bai. Beldurra zegoen bazterretan. Gero eta nabarmenagoa. Karlistak berriro altxako ote ziren susmoa ere gora baitzihoan.

Isabel II.a, bestalde, ez zen batere amore ematearen aldekoa. Eta are gutxiago 35 urtez agintean jaun eta jabe, eta ohean amoranteen eta sexu-gutixien jostailu, ibili ondoren.

Leunkeriak batere maite ez zituen Prim jeneralak, ordea, Erregetza bera nahi zuen hankaz gora ipini; eta "Abajo los Borbones" leloa hedatzean, ez zetorren batere txantxetako asmotan.

Espainiako Armada ofizialak liberalen kontra Kordoba ondoko Alcoleako zubiaren bataila 1868ko irailaren 28an osotara galduz geroztik, aldegitia besterik ez ziztaion Isabeli geratzen.

Eta irailaren 30ean, horretara, Donostiako geltokian esan zion agur bertako Udalak. Hantxe igo ziren trenera

Francisco de Asis erreginkide farfailkoia, Gorteko kide bat edo beste; baita, jakina, Carlos Marfori ere, memento hartako maitale nabarmena.

Irunen gauza bera egin zuten. Bertako udaltaldeak bere osoan agurtu zuen Isabel II.a, Bidasoa ondoko geltokian; baita Frantziatik harrera ofiziala egitera propio etorritako Castelnau jeneralak ere.

Handik Miarrizera joan zen Espainiako Erregina. Eta Herausteko geltokian (frantsesek "La Négresse" birbataiatutakoan) askari eder ugari bat eskaini zitzaizolarik, Napoleon III.a enperadorea bera topatu zuen zain; Bonaparte erraldoiaren iloba, segizio koloretsu batekin. Baita Eugenia de Montijo ospetsua ere, beronen emaztea, erdi-bizkaitarra odolez, eta bihotzez eta etorkiz osoki karlista.

Handik hiru egunera, Karlos Setimoren aitak (Juan de Borbón zeritzon gizen hark, alegia) Parisko Laffitte Hotelean, Madrileko giro politiko arriskugarritik ihes egin nahirik, abdikatu egin zuen. Hilaren 3a zen; eta Brighton-en bizitzera joan zen, Britainia Handian.

Erregegai bakar, beraz, Don Carlos gaztea gertatu zen (orduan bere hogeigarren urtean). Isabel erregina deserri-  
ra joan berria baitzen. Eta arestian aipatu dugun Don Juanek (Don Carlosen aitak), egun haientantxe egin baitzion muzin, ofizialki eta Parisen, Espainiako tronuari.

Karlistek beren mementoa zela pentsatu zuten aho batez; eta sekulako ahalegina egin zuten tronuz jabetzeko.

Lehenik eta behin, Europa guzti-guztiko agintariei azaldu zien Don Carlosek Paristik berari zegokiola Madrileko agintea, eta ez beste inori. Eta jabetzera deliberatua zela.

Donostiako agintariek, 1868ko irailaren 30ean, Uru-  
meaz ekialdeko "Norteko" geltokira joan zirenean, baze-



kiten jakin hori guztia. Eta neronek ere bai, hein batez. Gaztea izan arren, zurrumurruak eta esamesak ez baitziren urri orduan Donostian bertan.

Ohitzen hasiak ginen, bestalde, itxuraz behintzat, al-daketa etengabe hartara: gaur Isabel, bihar Amadeo, gero... Gero Errepublika! Hau ere bai!

Hain zuzen ere, Errepublikan bizi ginen lau hilabetez geroztik. Ustekabeak eta zorabioak elkarri zerraizkion.

Pentsakor eta urduri paratzeko adina...

Kalera begiratu nuen teilatu-hegal azpiko neure gelako leihotik. Beherean inor ez ageri, itxuraz. Putzu kaleko kantoietan, ohi bezala, hori bai, farolak piztuta, diz-diz ari.

Eskuin alderantz, agian, Esnategi kaletik eta Plaza Zaharrerainoko tartean, argitutako gelaren baten arrastoa suma zitekeen lehenengo estaian.

Edo ondoko balkoian, 10ekoan, hirugarren solairuan (neure pare-parean, hortaz), begirale izuti pare bat: Mendibiltarrak. Beraiek ere jadanik zutik, egunsentiaren zain itxuraz. Nahiz berak, ni bezala, egunsentiaz batere arduratutik ez egon, eta kasernatikako hotsek eta zalapartek ez bestek kezkatutik eta ohetik jaikiarazirik.

Putzu kaleko 12tik harantzago, berriz (Urumea alde-ra, alegia), nire umetan “kalea” plaza bihurtzen zen izkinatik harat, alegia, eta Plaza Zaharreko arkupeetatik aurrera abiatuta, hamaika errege eta puntuzkoren pausaleku izandako “Parador Real”en etxaurre zuria ikusten nuen, ilunpe hartan are zuriago.

Hegoaldean, berriz, eta ia-ia nire gelarekin aurrez aurre, Martin Oteitzaren “Café de la Marina” kafetegi famatu eta dotoreko arkuak ikusten nituen; Txubilloko itsas farolako argi-bala hirukunek txandaka argituta.

Honen atzean, azkenik, eta eskuin aldera joaz, Balda-Matheu kasinoko soslai berezia eta arbelezko bere teilatu desberdina nabarmentzen ziren.

Eta berauek ere distira hirukunetan bezala agertzen eta desagertzen zitzaizkidan, argi-balek lekuko itzalkor bihurturik.

Atzerago, San Martingo kanposantuko hilarri mordoa ikusten nuen gelatik, San Bartolomeko komentutzar berriaren aurrean, eta ondo-ondoan Sebastian infante eta mariskal-ohiaren jauregia. Eta etxetik hurbilago eta ezker alderaxeago, "Teatro Circo"ren eraikin berria nekusan, bakar-bakarrik.

Mamu talde bitxia zen hura; Donostiako egunsentia-  
ren misterioan, lekuko isil.

Ulia aldetik, azkenik, ezkerretara begiratzuz, ozta-ozta sumatzen ziren goiztiriaren lehenengo argi-izpiak.

Gure etxe-sotoko ezkerretan, disimulatuz (norekiko ote disimulutan ni, ordea?) umetango "putzu" famatua bilatu nuen... Suntsitua zen, ordea, arrastorik utzi gabe: eta haurtzaroko arrain-garbitzaile zalapartariak ere, ahantzi egin dira jadanik.

Zerurantz altxatu nituen orduan neure begiak. Zohardi ederra Donostiaren gainean. Aurreko egunetako ekaitza-  
ren oroitzapena ezabatu nahiz edo...

Gaugiroa, epela oso, uda hurbilaren zantzu; eta hego-  
-haize punttuak tarteka ferekatu zituen ene masailak...

Urgulldikako kolpe-zaratak eta oihu urrunak ahuldu egin bide ziren, moteldu, eta pixkanaka iraungi. Ematua bide zen turuten sukarraldia. Zer izan ote zen asaldu ha-  
ren gakoa? Ondoko egunetan jakingo ote?

Noizean behin, halere, bazterrak berriro lehengo sukarraldiak harrapatuko bailituan, agindu ozenen baten oihartzun xume-xumea heltzen zen niganaino.

Zerua bare. Guztiz bare.

Baina nire barrunbea ez zegoen batere lasai. Erabakizuna ez zitzaidan-eta batere goxo.

Norbaitekin mintzatu nahi nuen garbiki, norbaitekin patxadan solastatu, norbaiti neure kezka larria deblauki aitortu. Zirt edo zart egin beharko bainuen berehala. Kin-ka hura luzatuz gero, ito egingo nintzela iruditzen baitzitzaidan.

Gurasoekin mintzatuko ote azkenean? Ez horixe! Inola ere ez!

Osaba Felipe izan zitekeen agian egokiena. Aitaren anaia nagusia antzematen nuen aukera bakartzat.

Ez nuke jakingo zergatik azaltzen, baina irizpidez konfiantza osokoa zitzaidan.

Apaiza zen gainera. Eta mila ezkutukeria eta itsuskeria aitorgaitzetan usatua, suma nezakeenez. Eta beste hainbeste balentriaren lekuko isil izaten ere ohitua derrigor.

Ezer inori kontatzekotan, nori hobe? Ez nuen egokiagorik topatzen neure inguruan.

\* \* \*

Hogeita bi urte nituen orduan. Ez ote nuen bada garaia, neure biziera neronek moldatzeko?

Hartuta neukan erabakia funtsean. Baina batzuetan beldur nintzen hau berau pentsatzeko ere! Hura inozokeria! Zergatik ez bada nik neure bidea neure kasa hautatuko? Nork galaraziko?

Erabaki berbera ari ziren hartzen, gainera, beste ha-  
maika gazte: bai Donostian, eta bai Donostiatik at ere.  
Nik bezain ongi ezagutzen zituzten ene gurasoek, adibi-  
dez, etxe ondo-ondoan, Plaza Zaharreko Irazu anaiak;  
guk gaixtoki geure artean “Txakurtxulo” deitzen genuen  
ostatukoak. Baita familia osoa ere, Roke adinkidea barne.

Santiago anaia, berriz, ikasle izan arren, Komandante  
gradura iritsia zen, omen. Eta Roke, gazteena, kapitain  
bihurtua ome zen jadanik. “Fakzioan” biok, alegia.

Eta Migel Irazu bera ere (aita, alegia), Plaza Zaharre-  
ko ostatua bertan behera utzi ondoren, “mugara” joana  
(liberalen hizkeran). Eta, zoritxarrez, aurki hiltzekoa Az-  
peitiko odol-ospitalean.

Gauza bera San Telmo kaleko Plazaola anaiak, laurak  
ikasteari utzi, eta “partidara” joanak; edota Esnategi kale-  
ko Plasio Santz, “Kaiku”. Eta, beste alor batean, Etxe-  
beste eta Azarola apaizak. Eta beste mila. “Desagertuak”  
denak, “unidos a la facción”...

Zergatik ni neu ere, karlistekin ados izanik, ez haien-  
gana bilduko? Hauxe zen azken asteetako ene tema nagu-  
sia, ene tema bakarra hobe. Zergatik ez?

Bai, beraz. Banoakie. Eta kito!

Baina... noiz? Nola? Hauek bai galdera zailak.

Horrexegatik, nik uste, harrigarriro astindu ninduten  
turuta-sail zorrotz haiek. Niri zegozkidala iruditu zitzai-  
dan... Nahiz ni, esan beharrik ez, errotik egon Motako  
Gazteluak adieraz zezakeen guztiaren kontra.

Oinkada militarrek azkartu ziren orduan:

–Marcando er pazo, cohoneh!!

Esnategi kalean barrena zetozen Gazteluko solda-  
duak, gero eta bertago; eta Putzu kalea jadanik gurutza-

tzen hasten. Txamarra gorri, galtza urdin, eta buruan ginbail ilun hegaduna.

–Alto... al!!! –entzun zen orduan...

–Descansen... armas... ar!!!

Eta isilune trinkoa nagusitu zen bazterretan.

Etxe ondoan tenk egindako soldaduen ilaran euskal hitz bakan batzuk errepikatzen ziren nabarmenki: “Endárlatsa... Endárlatsa... Santákrutz... Berrogei lagun hilik...”

Eta batailoiaz beste muturretik, zenbait erdal hitz ere iristen zitzaidan:

–Ha ocurrido anteayer en Endarlaza –zioen kapitain itxurako batek– durante la tormenta... una matanza horrenda...

Eta beste agintariren batek segidan:

–Tenemos que acercarnos ahora hasta Irún... Ha llegado el momento de dar su merecido al Cura... No estaremos solos además: allí nos esperan los bravos miqueletes...

Azkartu egin ziren zurrumurruak, eta hitz zantarrak ugaldtu. Eztabaida gorria sortu zen soldaduen artean.

–Koldar hutsa haiz! –esan nion orduan neure buruari–. Koldar alaena! Hi Donostian goxo-goxo...

Eta odolak zirakidalarik, beste hau xuxurlatu nuen: “horiek, zuzen ala oker, bazoazak, bai. Eta hi artean, zer...?”

Gehiegi izan zitzaidan ikuskari hura. Era jaitsei egin nintzen kalera.

Zertarako ez nekien, egia esan. Baina mugitu egin behar nuen, etxetik irten, gertatu zenaren berri izan. Nik dakita? Zerbait! Sotora orduko, ordea, abiatuak ziren berriro soldaduak. Eta Urumearen aldera joanak.

“Irun aldera zoazak horiek”, pentsatu nuen neure artean.

Eta zaratak pixkanaka itzaldtu ziren ekialdetik. Haize-  
-balak, artean, gero eta maizago gertatzen, eta gero eta be-  
roago.

Eskaileran gora egin nuen; eta neure gelara berriro  
sartzerakoan, osaba Feliperi neure barrua hustutzera deli-  
beratu nintzen:

“Bihar bertan!”, agindu nion ahapeka neure buruari.

Erabakia aspaldidanik nuen hartua.

Baina orain data ere banekien: “Ekainaren 6an. Osti-  
ral honetantxe esango!”

Ekainaren 6a: egun garrantzitsua nire bizieran. Aurre-  
rapausoa ausarki eman nuen eguna!

## II

–*On Pelipe* Arruabarrena etxen al dago? –galdetu nuen San Telmo kaleko 4an, San Bizente elizaren ondo-ondoan.

–Ez, ez dago –erantzun zidan andere xahar batek–. Joan den astelehenean “egun batzutarako” aldegithekoa zela esan zidan, bai?, eta oraindik ez da itzuli. Zer nahi duzu nik esatea?

–Esaiozu Joxe Mari Arruabarrena bere iloba etorri dela.

–Besterik ezer ez?

–Ez, ez. Aski izango du hori.

–Ederki.

Eta tarte labur baten ondoren, beste hau erantsi zuen:

–Egia esan, ikustez ezagutzen zaitut nik... Bai, bai... Zu ez al zara “Putzu” *deitze-utena*?

–Bera, bai –erantzun nion, lehor.

–Jakina! Putzu kalean bizi zara zu. Badakit! Harresiak bota artean, “putzuaren” parean zegoen zuen etxeko sotoa, Putzu kaleko 4aren aurrean edo...

–Hortxe, bai. *Iya-iya* zehazki asmatu duzu. Goi-goian, etxeko azken estaian... Alajainetan! Putzu kaleko 6an bizi

naiz, Esnategi kaleko izkinan. Putzua, beraz, gu etxetik ir-  
ten, eta pauso batzuk egin behar izaten genituen ezkerreta-  
rantz. Gaur putzurik ez baitago *azalze-izut* hau guztia.

–Gure zaharrak “Perratzaileen putzua” esaten zutena,  
desagertua da. Baina eman duzun azalpen hori ez zen be-  
harrezkoa. Inguru honetakoa nauzu, eta ongi konturatzen  
naiz, beraz. Nolanahi ere, zu *On Peliperen illoba kuttuna*  
*zera*, ene ustez... Badakit, bai, zure berri.

Ez nuen nik horrelakorik espero andere ezezagun ha-  
rengandik.

–Lasai joan, Putzu. Ez zait ahaztuko. Ez horixe!

Handik hiru egunera itzuli nintzen bertara, eta orain-  
goan bai: hantxe topatu nuen osaba.

–Zer daukak ba, Joxemai? Azalduko al didak? –esan  
zidan agurtzerakoan.

–Eseriko gara aurrenik, osaba?

Barrualdeko gela batera pasa ninduen, dena arasa eta  
liburu. Ez nekien nik osaba Felipe horren irakurle amo-  
rratua zenik. Baziren urte batzuk amarekin etxe hura az-  
keneko aldiz ikusi nuenez geroztik; eta liburu mordo ha-  
ren arrastorik ez zegoen ene oroimenean.

Osabak aitarekiko bospasei urteko aldea besterik ez  
zeukala banekien. Baina apaiz-jantzi beltz hartan, eta hor-  
man paratutako gurutze ilunak markatzen zuen gela goi-  
belean, askoz ere zaharrago zirudien.

–Tira, ba. Zer berri? Zer duk? –galdetu zidan berriz.

Bat-batean, eztarria trabatuta neukala erreparatu nuen.  
Baina atzera egiterik ez zegoela ulerturik, neure aitor edo  
barne-husketari ekin nion:

–Joan den ostiralean etorri nintzen zugana. Ez dakit  
neskameak esan ote dizun.



–Bai, bai. Baina aste-bukaerako egunak lantsuak *izate-ittuk* gu apaizontzat. Eta horregatik utzi ditiat pasatzen egun hauek. Ez nengoen ahaztuta, ez.

–Sumatu nuen nik ere zerbait. Horregatik itxaron dut gaur arte neure azalpen hau emateko.

–Ongi egin duk. Igandea joanda, orain hobeki... Ta?

–Endarlatsako gertaera lazgarriak bultzatu nau zugana. Harridura ximiko bat sumatu nuen osabaren begitar-tean:

–Donostiako prentsan irakurri dut gertakariaren albiste-a –jarraitu nuen–. Hemengo Udaletxearen agiriarekin bat eginez, “el vil asesinato de 35 carabineros en Endarlarza el pasado 3 de Junio” esaldia aurkitu dut behin eta berri-egunkarietan. Eta zure iritzia behar nuke. Behar dut, hobe esateko. Jota nago!

Osabak sakon hartu zuen arnasa; esan nahi zituen hitzak ongi neurtu nahi izan balitu bezala:

–Endarlatsakoa latza izan duk, bai. Eta adina baduk hik, ene ustez, heure hogeï urteotan...

–Hogeita bi eta erdi, osaba! –zuzendu nion garratx.

–Barka ezak! Hogeita bi urte eta erdi. Edade egokia, esaten nian, heure buruz pentsatzen hasteko: eta gure herri honetan aspaldidanik gertatzen ari diren hilketak eta deskalabroak konprenitzen saiatzeko.

–Mila esker, osaba.

–Endarlatsako borroka, hariari helduz, joan den aste-arte *gaubian* gertatu zuan; edo asteazkeneko lehen ordue-tan nahiago baduk, asteazkeneko egunsentian.

“Kolpe gogor bat eman nahi izan zian Santakruztek Gobernuaren tropen kontra.

“Iaz Don Karlosek Zornotzan sinatutako akordio hit-saren ondoren, eta karlistek burua altxako bazuten, zer-

bait behar zitean. “Zerbait behar genian”, eskapatu zaidak ia-ia... Eta “ojalatero” usteleki bizkarra emanda, eskarmen-  
tu *haundi* bat egitea erabaki zian Don Manuelek.

“Eta “girieki” Gipuzkoa-Naparroa-Frantzia muga hirukoitzean daukaten Endarlatsako aurrepostu arriskutsu eta babesgabea aukeratu zian. Eskualde hura ezagutzen baduk, berehala konprenituko duk.

–Ez, *enaiz* behin ere han izan.

–Endarlatsa hori urruti zegoek leku guztietatik. Bospa-sei kaserna-etxe, baserriren bat agian, eta kitto. Mendiz inguratuta, zuloa duk erabat; eta zaintzen oso-oso zaila. Santakruztek hau bazekian.

“Eguraldi petrara zegoan, *txarra*, guztiz *txarra*. Eta orduantxe erasotzea pentsatu dik apaizak, inork horrelakorik espero ez zuelarik.

“Beratik eta Lesakatik bateratsu, mendian barrena etorrarazi ditik bere mutilak Aritxulegitik, bideska labai-netan behera... Atera kontua! Erauntsi betean, eta euri-jasak etengabe elkarri jarraitzen zitzaizkiolarik, eta... *aurre-ra mutillak!*”

“Laurehun bat morroxko *jetxi-ittuk*, esan dutenez: Sorroetaren agindupean erdia, eta Santakruzten beraren agindupean beste erdia.

“Gizaseme mordoska bat jarri dik bestalde Irun-Behobiako errepidean, Gorrotxategi kapitainaren agindueta-  
ra; bi herri horietatik hurbil zitezkeen tropa liberalei bidea oztopatzekeo...”

Arreta osoaz jarraitzen nuen nik osabaren azalpen zehatz hura.

–Errepidearen ondoan, artean, Bidasoa ertzeko kaserna-etxearen barruan, setiatutako berrogei karabineroak zeudean.

“Kasernaren aurrez aurre, eta mendebal aldeko kaxko baten gainean, dorretxo borobil zahar-zahar bat zegok, aspaldixko honetan zaharrakatzen hasia.

“Bere bi pisuak hortxe omen ditik oraindik, halaz ere, zutik. Eta dorre-gaztelutxo hau inguratzen duen pareta borobilean, bi leiho ilara oso ageri dituk, elkarren gainean paraturik. Hogeï bat goikoan, eta beste hogeï bat behekoan.

“Gure mutilek karabineroen kaserna osoki inguratuko bazuten, *gaikaldeko* dorretxo horretaz jabetu behar. Eta bertara igotzea erabaki dik Santakrutzek.

“Gureak orduan, isil-isilik, harkaitzei bi eskuez helduta, gorantz abiatu dituk.

“Bidezidorra, blai-blai eginda, labain zegoan oso, eta harritsu ere bai tarteka. Ezin okerragoa ilunpe busti hartan. Hura bai malkarra, munduan malkarrik bada!

“Eta igotzeko arriskua, gaitza! Inolako babesik ez beheko kasernatik etor zitezkeen tiroetatik gerizatzeko...

“Eta egon horretan *pasa-ittuk* orduak, mende luze iduri! Ez arre, ez iso.

“Gauzak horretan, eta tiro-andanak oraindik entzuten ez zirelarik, goizeko lauretan-edo, lehenengo argi-printzak Bera aldetik hasi dituk sumatzen.

“Santakrutzen *Sekretariyo* egiten zuen Juan Felix Kaperotxipik, izkribu bat prestatu dik Don Manuelen izenean.

“Eta karabineroei proposamen hau egin ziek: hedeak, munizioak eta iskiluak emanaz gero, ezer ez ziela egingo. Preso altxatu bai. Baina bizia salbu.

“Bestela, berriz (zioen Kaperotxipiren mezuak), hantxe zeukan kanoiaz erasoko ziola kasernari, eta denak akabatuko zituela.

“Erantzunik ez, ordea; zantarkeria eta birao batzuk izan ezik.

–Kanoiak baditu Santakruztek? –nik galde.

–Bakar bat zeukak, oso arina, eraman-erraza; “Medio-Mundo” izenekoa. Isidro Ortiz de Urruela karlista amerikano aberatsak Frantzia erosi, eta Don Manueli oparitua. Endarlatsan estreinatzekoa, hain zuzen.

“Meazuriko “Mina-Palaziyo” izeneko etxearen ondolan paratu zitean kanoitxoa, errepide ondoko kasernatik ez urruti...

“Eta *bapatian*, kanoikadak eta fusil-hotsak nahasirik, Endarlatsako bazter guztia lehertu omen duk, gerra-gune ikusgarria sortuaz...

“Endarlatsako kasernaren gaineko dorretxo zaharra, gotorleku tiki bihurtu ditek gure gazteek, bere leiho-ilara bikoitzetik batera ari, *suba* eta balak etengabe barreiatzen zituztela.

“Eta erdi ahaztutako leiho zeken baketsu haiek, *ifer-nuko* ataka bihurtu dituk. Han ez zegoan, benetan, gerrahotsa eta bolbora-kiratsa besterik. Eta are okerrago, jakina, ibaiaren ondoko belazeetan; Aritxulegitikako gehien-gehienak han gelditu baitziren, erasotzeko desiratzen.

“Karabineroen egoera, horretara inguraturik, batere eroso ez. “Giriek” Irundik eta Beratik laguntza bidaltzea agindu bazuten ere, laguntza horren arrastorik ez parajeetan.

“Eta orain –moztu zuen osabak–, eta segi aurretik, ohar bat egin behar diat, Joxemai... Ez gatzela karlista guztiok Don Manuelekin bat. Ni neu ere ez, egia esan.

“Gerrillari bikaina duk Santakruz. Hori bai.

“Baina ez dik inoren agindurik errespetatzen. Ezta erregerenik ere. Gurean “ojalatero” arrotzek agintzen dutela-eta, ongi deritzona *egitte-ik*.

“Eta hori ez duk posible. Horregatik kondenatu dik hiltzera Lizarraga jeneralak joan den martxoaren 17an: “con-

denado a ser fusilado donde quiera que sea cogido, con dos horas de tiempo para disponerse... y dando al acto toda la solemnidad posible...” Seguru aski bahekien hik hau...

–Bai, baneukan, bai, horren berri; horren zehazki ez banekien ere.

Eta bere hitzaldia laburki eten ondoren, haria hartu zuen berriro:

–Sei bat ordu pasa ondoren, eta eguerdi irian, errenditzea erabaki ditek Endarlatsako karabineroek; eta, honen erakusgarri, fusil baten punttan, maindire zuri bat zintzilikatu ditek kasernako leiho batetik, beren burua ematen zutela adierazteko.

“Hurbildu dituk orduan kasernara Santakrutzen mutiak... eta orduantxe bai *sospresa*: barruko karabineroak tiroka hasi baitira, Errenteriako Arandia hilez (gure artean “Txango” bere gaitzizenaz ezagunagoa).

“Santakrutzek, orduan, koleraturik, “kuartelik gabe” erasotzeko agindua eman dik. Eta barruko 35 karabineroak banan-banan atxilotu ondoren (buru egiten zuen Valentin Garcia izeneko tenientea barne), Berako errepidean fusilatu ditik segituan: tenientea, bi sarjentu, bi kabo, are Olaizola izeneko euskaldun bat, hemengotar bakarra dirudienez. Denak garbitu...! Latza, benetan!

“Teniente gizajoak, belauniko jarririk, Santakrutzi zangoak besarkatu omen zizkiok. Otoi eta otoi, ez hiltzeko erregutuz.

“Don Manuelek orduan bere bandera gorria erakutsi zio, kaskezur famatua eta guzti, eta bertan agertzen ziren hitzak *letuarazi* zizkiok: “No hay cuartel”...

Dardarizoak hartu nau gorputz osoan:

–Denak hil ditu, beraz?

–Denak, bai, bost izan ezik. Bi karabinerok, batetik, jauzi egin ditek dexente hazia zetorren Bidasoara; eta Frantzian *salbatu-ittuk*. Beste hirurak, itxura denez, estolda batean ezkutatu dituk, eta horretara irten dituk bizirik.

Zurtuta nengoen.

–Eta... Don Manuel Santakrutz... apaiza da?

–Hernaldeko erretore egona, bai, Tolosa alde horretan. Elduingoa duk, oso ezaguna. Gerrate hau eta hilketa hauek berak ez dituela hasi *esate-ik*. Gerra egitekotan beste biderik ez dagoela. Eta kitto. Ez zio inori men egiten.

Izututa ikusi bide nau osabak:

–Lehenago ere esan diat, Joxemai. Nik ez diat jokabide hori onartzen. Eta Antonio Lizarraga jeneralak ere ez. Hots, Lizarraga hauxe duk gure buruzagia Gipuzkoan, eta Don Karlosen konfiantza dik...

Hautzarroan (eta gartzarroan gero, osaba Praixkuri Aki-ze aldean egindako bisitaldian) entzundako izugarrikeria berberak berrentzuten nituela iruditzen zitzaidan.

Donostiako prentsak, hitz batez, ez zuen segurki egia osoa esaten. Baina gudu errukigabea berriro gurera iritsia zela garbi zegoen.

–Ebroz bestaldetik etorritako tropak hemen dituk berri-  
z –esan zuen osabak.

Eta horrelaxe esan zuen, baita errepikatu ere: “Ebroz bestaldetik”.

Eta honek sekulako zartakoa eman zuen ene erraietan.

–Berrogei urte joan dituk, bai, Joxemai –argitu zuen–. Eta betikoan gaituk. Izurritea hemen zegok.

Eta etenune baten ondoren: “Hangoak dena lapurtu eta xehatuko diguten segurantzian bizi gaituk hemengo-  
ok; datorrena sumatuz. Baina ezin ezer baztertu. Gogorra duk, bai!”



*Santakrutzen sarraskirik ospetsuena agian: Endarlatsako Kaserna-ko 35 karabineroren fusilatzea (1873-VI-4), Carlos VII.ak muga pasa baino lehenago gertatua. Lapurdi-Gipuzkoa-Nafarroa arteko mugan dago Endarlatsa.*

“Lapurtu”, “xehatu”, “hangoak” hitz horiek garunean gelditu zitzaizkidan, oinaze ikaragarria sortuz.

–Bada ni, osaba Felipe, berri on bat ematera etorri naitzaizu gaur, eta oraindik ez dizut esan. Gure mutilekin bat egitera etorri naizela. *Propiyo* horretara. Nik ere, zuk bezala, eta aitona Blaxen anaia Praixkuk bezala, Foruak galduz gero, gureak egingo lukeela uste dut. Luzaz pentsatu ondoren, hori erabaki dut.

–Foruak gabe... eta Jainkoa gabe esan nahi duk. Ezta? –zuzendu ninduen.

–Bai. Agian bai... –erantzun nion batere berotasunik gabe–. Nik borroka egin nahi dut, osaba. Konprenitzen nauzula uste dut. Mendira, kalera, edo nahi duzun lekura. Baina banoa *Donostiya* ustel honetatik. Parte hartu nahi dut borrokan.

–Et, et, et!! Gu biok ere donostiarrak gaituk!

–Egia, bai. Donostiarrak gara. Baina gutxitxo jarrera honetan. Motako “Matxo” gaztelu itsusi horretan sartuta dauden “fazioso” batzuk (berak bezala hitz egitekotan), “desagertu” diren beste batzuk, eta...

–Ez dituk horren gutxi... *Ezkaittuk* gutxi, ez. Asko gaituk. Madrilen bazekitek.

–Nor duzu gogoan, osaba, “asko” horren barruan? “Frascuelo” zure kidea, agian...? Mesedez!

–Kontuz, Joxemai! Kontuz! Ez diat onartzen San Bizenteko erretore agurgarria horretara hik iraintzea. Aita Aristizabal erretore jakintsua, Don Jose duk denontzat.

–Ez dute ba horrela deitzen *Donostiyan*... Ezta? “Frascuelo” maizago... Zergatik ote? Beltza delako, bel-beltza; eta ez abituaz bakarrik.

–Ez diat onartzen, Joxemai –haserre antzean–, hizkera lotsagabe hori. Eta are gutxiago herrikide eta apaizkide



dudan bati buruz. Esana zegok. Eta *enikek* hirekin hase-  
rretu nahi.

–Bego, beraz. Eta barka, osaba. Baina hemengo jauntxoak... ustelak dira. Lehen Isabelen alde zeuden; gero Amadeo italiarraren alde; gero Serrano jeneralarekin bat eginik, omen, adore berberarekin; eta gaur egun, errepublikazale sutsu. Eta bihar, auskalo! Baina, hori bai, beti jauntxo. Eta beti Madrilen agintzen dutenen alde... Eta barka, osaba, Aita Aristizabal horietakoa da. Lasai bizi da hemen, gerra betean, bi parrokiatan jauntxo, eta Parisainoko itzulitxoak ere ez ditu bakandu.

Ez zuen kontrakorik ezer erantzun. Beharrik! Zer esan ziezadakeen?

Donostia maite nuen nik, baina... donostiarrak ez sobera.

Gainera nik neure mandatua egin behar nuen, inora desbideratu gabe:

–Bego hori –esan nion–. Zuk badakizu, edo jakin dezakezu behintzat, nola, non, edo noren bidez elkar naitekeen ni “gure mutillakin”. Aditzen nauzu, ezta?

–Eta amak, zer?

“Hori galdera!”, neure artean.

–Hogeita bi urte ditut! Amak konprenituko nau. Haren osaba Praixkuk ere 1833an, Tío Tomásekin elkartzera joan zenean, 18 urte besterik ez zuen. Ez naiz ni familia-ko lehenengoa izango.

–Nolanahi ere, nik ez haut Santakruzekin harremanetan jarriko. Egon hadi etsita! Nik, nahi baduk, Lizarragaren gizonekin jarriko haut harremanetan! Besterik nahi baduk, heure kontu.

Nik neuk, egia aitortuko badut, Hernialdeko gerrillariarekin nahi nukeen elkartu. Baina ez nuen deusik esan.

Eta osabaren ezezkoa aurreikusita, eta Endarlatsako sarraskia ezaguturik, baiezkoa eman nion:

–Jar nazazu harremanetan, hortaz, Lizarragaren gizonekin.

–Hobe duk, bai. Baina bazegok besterik hire erabakia hobesteko.

Eta isildu egin zen harrigarriro.

–Egun hauetantxe pasako duk honantz (Espainia aldera, alegia), tropa guztien buru jartzera... Don Carlos gure erregea. Isilpean zetorrek, noski. Eta hobe duk beraren zerbitzutan jarri.

Hura hotzikara nirea! Don Carlos bigarren aldiz gure artera...

–Ederki... Zure esanetara...

–Emaidak horretara aste pare bat; eta borroka-postu egoki bat bilatuko diat. Ez dizkiat nik ez eginkizuna, ez lekua aukeratuko. Baina kasu egingo diat, eta zerbait proposatuko. Foruen aldeko borroka gogor honetan, heure laguntza eman ahal izan dezaan.

–Mila esker, osaba. Bihotzez, mila esker!

–Azkeneko ohar bat: honetaz ez dugula zipitzik esango. Ezertxo ere ez. *Aitzen dek?* Ez hik, ez nik.

–Hitza beteko dut.

Santakrutzekikoak tristura pittin bat eman zidan; gazte jendeak, baita nik neuk ere, Santakruz miresten baikeen. Lizarraga jeneral hura, berriz...? Ezagutu ere ez!

Eta etxe aldera abiatu nintzen; batera beldurrez eta pozez beterik. Belaun-koxkorretan, ustekabeko ahuleziak jo banindu bezala.

Ate-joka genuen uda, bezperan baino ere ederrago iruditu zitzaidan goiz hartan.

### III

Biharamunean, egunsentia ozta-ozta mamitzen hasten zelarik esnatu nintzen. Eta beste ezer baino lehenago, neure gelako leihora hurbildu.

Donostiatik aldegin behar nuela sumatzen nuen, joan egin behar nuela, betiko agian... Banekien, jakin; aitortu nahi ez banuen ere. Eta iraganak tematzen ninduen. Eta loak hartzean, ez nekien benetan zer zeri nagusitzen ote zitzaion. Eta esna nengoen orduetan beretan ere, ez beti.

Eta sumatzen nuena baietsi nuen: begien aurrean neukanak, gaueko ametsean hain gardenki ikusitakoa ez zuela beti osoki estaltzen.

“Bulebar” berri zabala neukan etxe azpian, eta ez aspaldiko Putzu kale meharra, gurdiz eta astoz mukurru egoten zen hura...

\* \* \*

... Espaloian, inor ez, itxuraz.

Eta errealitatera itzultze horrek, halako arbuio ezkutua piztu zuen nigan.

Gaueko lilura iheskorra suntsitua zen. Besterik zen egia: harresi beltzek inguratzen zuten Donostia zaharra, benetan desagertua zela; eta neure leihotik begira, harresiari erantsitako txabola ilararik ez zela ageri.

Haurtzaroan eta leiho honetatixe hamaika aldiz ikusitako (eta beste hamaikatan gaitzetsitako) harresi beltzaire ilun itsusia, arrastorik utzi gabe joana zela, nahiz neure barnean oraino tinko iraun.

Eta sototik irteteen ere, putzuaren inguruan sakabana-tutako arrain-puska ustelen kirats sarkorra norabait alde-gina zela era berean.

Eta eskuarki etxe aurre hartantxe topatu ohi izan nituen neskame gazte alaiak (San Telmo kaletik, suilak buruan orekan erori ez erorian, guganaino iritsiak, eta gero putzuaren inguruan txanda zain kalakari) joanak zirela betiko.

Orain, etorbide berri zabal bat besterik ez neukan neure aurrean; Frantzian bezalaxe gure Donostian ere... "bulebarra" bataiatua.

–Jakina! –pentsatu nuen neure artean–. Ametsa izan duk! Putzuarenak egin dik. Bederatzi urte joan dituk geroztik, motel...! Zer ikusi nahi huen, ba, leiho horrexetatik...? Putzu hura? Zertarako, bestalde?

Kezkagarria ere bazitzaidan.

Egun gutxi barru Donostiatik aldegingo nuela bane-kielako agian, neure barruko Putzu kale zaharrari eutsi nahi bide nion; nire begiek bat-batean ezer erakutsiko ez balidate bezala... kanpokoekiko nire begiak bat-batean itsu bihurtu bailiran...

Gaueko ametsa, edo lokamutsa, edo dena-delakoa, neraman neure barruan nagusi. Hain zuzen... neure barruan bakarrik ote gailen...?

Eta ustez erabat gorroto eta gainditurik neukan hiri militarraire hura, Matxoko bere presondegi lizunduak, eta bere bandera harroak eta tronpetaldi higuingarriak, nire barne-muinetan zeutzala erreparatu nuen. Eta begi aurrekoak berak lausotzeko heinean neramala tinko neurekin!

Zumardiaren kale zabal berriari, haurtzaroko murrundoko Putzu kale estu zaharra nagusitzen baitzitzaien harrigarriro. Are nire zentzua koloka jartzeko moduan ere.

... Eta neure gela parean umetan izandako txapitulak, tximiniak, teilatuak, denak berrikusten nituen, gardenki.

... Eta hauen gain-gainetixe, zaindari, batera eta bestera paseiari, Gaztelutikako militarrek ere bai, baionetak agerian, fusilak ordu laurdenero-edo besaburuan pausatzen zituztela; kapeluak eta galtzak gorri, eta txamarrak urdin.

Nire nerabezaroan eraitsi zuten murrutzar zikina, hitz batez, hantxe zegoela berriro, bere luzera guztian zutik; harresiaren eraisketa, preseski, ametsa izan balitz bezala. Eta ez murrutzarraren berragerketa...

Erotu uste nuen. Ez zen posible!

Neure gelatik eskuin aldean, Plaza Zaharreko zabalunearen hegoaldean, "Cubo Imperial" izenekoaren itxura beldurgarria berrikusten nuen. Baita umetan ikara sortu ohi zidan pareta triangulu-aire oker hura.

Teilatuak eta txapitulen, eta murrundoko beltzaren beraren gainetik, "Errege-Soro"ko zelaian atzerago, aspaldiko urte urrunetan ezagutu nuen San Martingo zezen-plaza agertzen zitzaidan. Baita kanposantu zaharra ere. Eta honen itxitura-hormari ia-ia itsatsia, Don Sebastian infantearen "Gaztañaga" jauregia.

Bazeuden eskualde hartan beste lau zapabost jauretxe dotore, ez askoz gehiago, hondar-muino idorren arteko belargune zekenetan nabarmen.

Aldapetakoa abiapunturantz, berriz, Martin Jose Oteiza txapelgorrien buruzagiaren ostatu “paradore” apaina berragertzen zitzaidan, laino bitxi artean; eta “Mainueta-ko” hondartzaren erdi-erdian, eskailera bikoitzaren gainean, Errazu alkatearen jauregi txapal ezin ederragoa kokatzen zitzaidala, ametsaldi dirdaitsuaren ardatzean. Eta hondartzarako lekunean, nortasunik gabeko etxez osatutako auzo kaskarra.

Dena hain gardenki agerturik, berriro ere tema bera sendotu zen nigan eldarnio gaiztoan: “ez al daude oraindik hor zutik, egon, horiek guztiok...?” Baietz egingo nukeen postura.

Antigua alderago, errepide zaharraren aldapan gorakoan, “La Fe” kare-fabrikatza zatarra ere aurrean izan uste nuen, beti bezala kea eta kiratsa zerizkiolarik.


Huraxe bai, ni mundura nintzenez, ezagutu nuen hiri, ukitzeko eta usaintzeko moduan berpiztu zen nigan.

Murru arteko Donostia hartara itzuli nahi nuen nik. “Neure Donostiara”, eta Putzu kaleko “neure gelara”: Mar txel anaiarekin erdibanatzen nuen hartara.

Eta bertatik, zinez, “gure putzua” berriz berrikusi nuen ezkerretan. Eta Putzu kaleko beste muturrean, eskuinekoan, Guardetxea.

Eta “Xangrenekua” espartingilearen denda pasata, Plaza Zaharrea sartu nintzen: jendeak, gaixtoki, eta zehazki ere bai, egia esan, “hiru kasernen plaza” birbataiatu zuena.

Hiru baitzeuden bai, Matxokoak at utzita. Ai, ai, ai... gure *Donostiya* zaharraren kutsu leun hura... Lilurak beti agintzen.



Lehorreko Atea (erdaraz "La Puerta de Tierra") Plaza Zaharretik ikusia eta hegoaldera begira. Erdian nabarmen agertzen den murrerri triangulua "Cubo Imperial" delakoa zen; ezkerretik, berriz, doi-doia ageri, Putzu kalearen hasiera; ezker alderago, ikusten ez dela, Lehoiaren Iturria legoke. Ateaz bestaldera, San Martinen zezen-plaza ikus daiteke; eta eskuin aldetik, gorantz, Hernanirako errepidea, gaur Aldapeta.

Neure ezkerretan, murrutzar beltzari erabat itsatsirik, txabola mordoa ikusi nuen ilaran.

Oso txabola zaharrak omen. Eta oso zaharrakaturik bederen, hau ziur. 1813ko sutean ez baitziren hiriarekin batera erre.

Eta Putzu kaleko 19. zenbakia zeraman azkenekoa gaindituz, eta Guardetxerainoko tartean oso-oso ilun, "Lehoiaren Iturria" berraurkitu nuen. Donostia barrukoe-tan aspaldikoena, eta urte luzetan bakarra ere izana. Gaztelukoak militarren zerbitzutan egon ohi ziren-eta.

Hantxe zegoen, bai. Lehorreko Atera ni iritsi baino lehenago topatu nuen...

Nik umetan ezagutu nuen "Lehoiaren Iturria", egia esan, hirukoitza zen.

Hortxe, Guardetxearen lehenengo estaiako balkoiaren parean, kasernatxoaren saihetseko paretaren kontra, burdinazko lehoia zegoen. Gain-gainean, eta bere atzaparraz bola bat zapaltzen zuela, eta ahutzetatik ur-xirripa etengabe eta ugaria zeriolarik.

Ingelesen okupazioa baino lehenago, lehoi hura harri urdinezkoa izan zela esaten zuten donostiar zaharrek. Baina nik neuk bederen ez nuen halakorik inoiz ikusi. Nik burdinazkoa bakarrik ikusia dut neure begiez.

Lehoiaren azpialdean, berriz, ur-xirriparen biltzaile, harlanduzko ontzi barroko bat ageri zen.

Zaindari txano-gorri eta txamarra-urdinen kasernatxoaren aurretik pasa; eta hiri-atariko pasabidean, ezkerretan, eta Tito jaunaren etxe txukunerainoko tartean, hirirako sargunean alegia, arku txapal zabala gurutzatu dut.

Harresian bertan kokatua, bi gas-farolek ematen zioten argi etengabe.

"Cubo"aren azpiko karrajoan, ganga zabal bat.



Eta barruan, oihartzun ozenetan beti harrotuta, ezkerreko atetik, eskailera bat gorantz, harresi gaineko pasabidera bultzatzen.

Hantxe, haurtzaroan bezalaxe, eta halako balkoitxo baten gainean, kriseilu batez gau-ta-egun argitua, Donostiara etortzen ziren bisitari guztiek (Urgull-Gazteluko soldaduek izan ezik!), “Aita Gure” batez bederen, gurtzen zuten gurutzea.

Gartzela barrutik presoek irteerako atea begiratu ohi duten bezala begiratzen genuen guk ere, donostiarrok, Lehorreko Atearen aurreko zubi altxagarri hura. Dudarik gabe... maizegi hetsita.

Eta hartaz bestaldera sumatzen nuen nik ere Askatasuna, bete beharreko ordutegirik eza, etxera korrika ta muturka itzuli beharrik ez izatea. Militarrek, honetara edo hartara, behin eta berriz oztopatua zeukaten askatasuna berreskuratzea...

Atetzar madarikatu hura igarota, guk donostiarrok ere: “Libertatea, zoin den eder” kantatzen genuen.

Kanpora! Libre!

Eta zubi altxagarria jasota, zangaren gainetiko pasabide bihurtzen zenean, Loiolara abiatzen ginen, eta Astigarragara, eta Igeldora. Eta Mendizorrotzetik itsaso zabala begiratzen.

Nork estima zezakeen hori guztia zinkiago preso bizi ginen donostiarrok baino? “Askatasuna”? Nork zekikeen guk baino hobeki, militarkeria arrotzen jopu bizi beharra zertsu den?

Zahar edo gazte, horretan denok ados: “Murruak eraitsi eta porroskatu”. Eta, horretara, denok bihotzez Lehorreko Atea eta murrutzar beltzarekiko gorrotoan.

Eta halere, osaba Feliperen deiaren zain egon behar izan nuen egun haietan, harresiaren barruko Donostia zaharra gal-tristuraz harrapatu nuen behin baino gehiagotan neure burua!

Hain zuzen, neure barruan arrapizten ziren irudiak eta usain-aztarnak hobeki dastatzekotan, bi begiak hesten nituen, eta bi belarriak gortzen...

Eta miraria mamitzen zen nigan.

Ni leihotik begira paraturik ere, lipar batez behintzat, joandako denbora bestaldera isurtzen zen-eta...

\* \* \*

... Eta umea nintzen egun bitxi hartan osotara murgiltzen bainintzen.

Hamabi urteko umea, preseski.

Eta atzo gertatu balitz bezain ongi oroitzen naiz gaur orduko gertakari hartaz.

1863ko maiatzaren 4an, militarrengandik eta Madrileko gobernutik batera, Donostiako harresiak botatzeko baimena Fermin Lasala semeak (Doña Rita Colladoren senarrak, hitz batez, Mandasko Duke aberatsak), lortua zuela zabaldu zen bazterretan.

Ni adin hartan ez nintzen gertakariaren garrantziaz batere jabetzen. Noski.

Baina bai neronen etxean, eta bai Donostia barruko etxe asko eta askotan, jendea pozkariotan zegoen nabarmen.

Arratsean gauza garrantzitsu bat ikusi behar genuela esan zigun aitak, eta Lehorreko Atera eraman gintuen.

Arratsero bezala, eguneko zaindari-ordezkapena egiteko tenorean, beti bezalako komedia egin zuten soldaduek, fusilak besaburura eta lurrera behin eta berriz aldatuz aginte-oihu zakarren arabera.

Baina oraingoan truke-talderik edo ordezeko konpainiarik ez zen Lehorreko Atera azaldu.

Egun hartan bai Lehorreko Atean, bai San Felipe baluartearen, bai Horna-bequean, eta baita gainerako gotorlekuetan ere, eguneko soldadu zaindariak joan egin ziren. Hori beti bezala. Baina oraingoan... betiko!

Ez baitziren ordezekatuak izan. Azkeneko zainketa-trukea ikusten ari baikinen.

Donostia militarri betiko agur t'erdi!

Ezin sinetsia.

Eta Udalak, Don Ramón Fernández de Garaialde y Otálora jaun txit agurgarriaren (eta "Jefe Nato de la Fuerza Ciudadana de Voluntarios de la Libertad" delakoaren) erdal bertso miresgarri hauek zabaldu zituen barra-barra hiritarren artean, harresi barruan eta harresitik kanpoko auzoetan ere, donostiar guztiok bero-bero kanta genitzan:

*Mirad a todo un pueblo  
de júbilo embriagado,  
cantar alborozado  
su fausto porvenir...*

Ez nituen nik orduan hitz arrotz eta anpurus horiek oso ongi konprenitzen.

Baina horietxek izan ziren gure puntuzkoek proposatu zituztenak. Eta donostiar jendeak, ulertu edo ez, txalotu egin zituen txintxo-txintxo; eta buruz ikasten saiatu ere bai:

*Brilla el iris al fin en tu cielo  
blanca Easo, cautiva paloma,  
ya tu negra prisión se desploma  
libre ya vas el vuelo a tender...*

*Todo en ti es hoy blanda armonía  
que se eleva al azul firmamento,  
cual aroma que esparce el viento  
de tu dicha la flor al nacer.*

Horixe izan zen Donostiako puntuzkoek hedatu zuten “bellísimo himno” bataiatu zutena.

Baina bego hori. Nik orduan urte gutxi bainuen.

Biharamunean, 1863ko naiatzaren 5eko eguerdian, euria ari zuen. Eta okasiorako prestatuak zeuden koroa eta banda, maingu gelditu ziren.

“Blai” gelditu zirela esatea hobe!

Eta ni, neure gelatik beretik, eta busti gabe, gauzak hobeki ikusiko nituelakoan, hantxe gelditu nintzen, gelatik so. Militarkeria haiek batere gogoko ez banituen ere.

Baina “betiko adioa” mamitzen ari zenez...

Benito Canella gobernadoreak hartu zuen aurrea. Eta Lehorreko Ate barruko gangako ezkeraldetik (Guardetxearen aldetik) eskaieran gora abiatu zen motel samar.

Orpoz orpo zerraikion Eustasio Amilibia Donostiako alkatea, are motelago, erabat akiturik antza. Eta seguru asko Eugenio Abiraneta liberalaren aginduetara pasatako mentura-egun harrigarri eta ausarditsu haiekiko urrutimik jota.

Harresi gaineko pasabidera segizioa iristean (berrogei bat lagun bai, nor baino nor distirant eta harroputzago), nire gelako leihoaren parean egin zuten denek geldiunea.

Ikusi eta entzun egiten nituen bertatik ezin zehazkiago...

Zilarrezko palankatxoa eman zion Canella gobernadoreak Amilibia alkateari, eta honek orduan, sekulako txalo eta oihuen artean, lehenengo harresi-puska bota zuen lurrera. Harri mokor itsusi zahar bat.

Hura zalaparta!

Hasia zen Donostia mendetan barrena gartzela bihurtu zuen murru madarikatuaren eraisketa. Lanak, dirurik ezaz, urtebetez eta 1864ra arte berriro gelditurik egongo baziren ere...

\* \* \*

... Ohiko arrain-ustel kirats azkarra falta zen, ordea.

Eta kiratsik ezak berak iratzarri ninduen.

–Non da arraina? –galdetu nuen garrasika neure gelan–. Non da perratzaileen putzua?

–Baina, zer diok, Joxemai? –galdetu zidan anaiak.

Ez nengoen bakarrik gelan. Jakina! Eta lotsatu egin nintzen.

Zinez zegoen eraitsia murrutzar beltza; eta etxe aurreko putzuaren aztarnarik ez zegoen...

Kordea galduko ote nuen ere pentsatu nuen, osotara erotu ote nintzen...

Zeren-eta, nigan elkar ukatzen zuten bi ikuspegi haien artean, zein ote zen egiazkoa funtsean? Harresiaren eraisketarena, eta azkeneko zaindari-truke bitxiarena? Ala Gaztelutikako turutaldi errepikakorrena? Ez nekien...

–Esna hadi, motel! –erregutu zidan anaiak.

Amorrazio etsiaren unean, txapelgorriak eta mikeleteak madarikatu nituen:

–Zergatik mozorrotzen zarete, *txapelgorri alubok*, eta euskal jazkeraz jazten...?

Eta segidan:

–“Todo en ti es hoy blanda armonía” –behin eta berri; kakatua koloretsuek egiten duten bezala, nik ere,

esaldi bakar hura errepikatuz, eta buruz banekiela erreparatu gabe.

–Zer duk, ordea, Joxemai? Zer armonia eta zer debru? Bakarrik ari haiz hizketan!

–Bai. Hala duk. Jota nagok!

Eta orduantxe zabaldu ziren azkarkiago Urgulldik korneta-hotsak eta danbor-dunbadak. “Karlistak berriro inguruan ote?”, otu zitzaidan.

Txabola ilarako teilatuen eta txapitulen arrastorik ez agerian.

–Zer da hau guztia? –galdetu nuen.

–Gerra hotsak! –anaiak.

Liluraldia kitto.

Oteitzaren kafetegi berria neukan aurrealdean, eta Matheu-Balda Hotel gaitz arbelduna atzeraxeago. Eta ez umetango murrutzar beltza eta hari erantsitako txabola-ilara xumea.

Bestea zen lokamutsa, beraz. Joandako urteen hutsunea, ezin kolpez gainetik ezaba.

1873ko ekainean bizi nintzen, ez 1864ko udaberrian. Putzurik ez jadanik Bretxa aldean.

Osaba Feliperen erantzunaren zain nengoen ni. Hauxe zen goiz hartako egia bakarra. Donostiatik joatekotan nengoela, eta zer proposatuko zain.

Etsi egin nuen pixkanaka.

Baina tristura apur batez etsi, bai. Egia aitortzeko.

## IV

Horretara, osaba Feliperen erantzunaren zain egon nintzen egun ezin luzeago haietan, tema bat izan zen nigan nagusi.

Betiko joatekotan banengo bezala, nire oroitzapenik zaharrena zein ote zen neure kolkorako hausnartzen nuen, behin eta berriz. Eta data hori banekiela iruditzen zitzaidan.

1854ko azaroaren 8an zehazki, gure amak 26 urte bete zituen egunean, hain zuzen, eta nik bost eskas nituenean, eliz-dorre guztietako kanpaiek batera eta luzaz jo zuten Donostian.

Gipuzkoako agintariek Ama Birjinaren “Sortze Orbangabearen misterioa” dogmatzat hartzea erabaki zuten.

Ospakizunaren gakoaz ez nuen egun hartan ezertxo ere konprenitu. Pentsa! Baina geroztik ere, gauza handirik ez.

Kanpaialdi azkengabe hartaz oso ongi oroitzen naiz.

Ederra izan zitzaidan, hunkigarria, oso urrutikako oihartzun ahuletan oratua. Ez zait sekula ahaztuko.

Frantziako Enperadore-Enperadoresaren lehenengo bisitatxoa ere gogoratzen zait gardenki. Bikote famatua Miarritzetik iritsi zenean, oraindik Donostiako harresitzarra zutik zegoen.

Ilunabarra zen; eta segizio gaitzaren ospe-maila ez zen makala izan.

Hala ere, handik hiru urtetara, eta gertakari hau bestea baino askoz beranduago mamitu bazen ere (1857ko irailean, nik ordurako zazpi urte banituelarik) Napoleon III.ari eskaini zitzaion bigarren harrera-egun horretaz, ez naiz aurreko bisitalditxoaren eguneko kanpai-hots andana harri-garriaz bezain ongi oroitzen.

Beharbada, Napoleon III eta Eugenia de Montijo bikote erregetiarra gehiagotan ere itzuli zelako; eta irudiak nigan elkargainka ezabatu direlako. Ez dakit zergatik.

Baina ondoko bisita anpurusak, ilunago gelditu dira nigan, lehenengo iheskor hura baino.

“Café de Comercio” zeritzonaz ere oroitu naiz, Plaza Zaharreko arkupeetan kokatua. Lehorreko Atea eta Guardetxearekiko aurrez aurre.

Hantxe dastatuak bainituen nik lehenengo aldiz, txokolate katiluaren ondoren, “ura eta eskonfa” famatuak. Hura bai goxoa!

Harresia eraitsi aurreko urteetan ere, eta beraz ni oso umea nintzenean, gurasoekin eta beren lagunekin gertatu nintzen haietako batean izan zen. Eskonfa zuri harroa urtu egiten zen pixkanaka, eta ura gozatzen.

Eta irakurtzen ikasten hasi nintzenean, zazpi urterekin edo, oso harro ahoskatzen nuen lehengusuen aurrean, Lehorreko Atearen atzealdean, sei lerrotan idatzirik, agertzen zen izkribu famatua: “CIUDAD / DE / SAN SEBASTIAN / CAPITAL / DE / GUIPUZCOA”.



Beste batzutan, Lehorreko Atean mutil multzo handi bat osatuz elkartzen ginela gogoratzen zitzaidan, ondoko egunetako festetan hil behar zituzten zezenak errezebitzekotan.

Eta ni ez nintzela neure lagunak bezain alai egoten, zezenaren hil-beharrak tristura ematen zidalako.

Hiri barnean, berriz, gauetan, ordua kantatzen zuen serenoak ozenki; maiz xamar esnatu ere egiten ninduelarik:

*–Las tres y media, y nublado...*

Beste zenbait aldiz, berriz, Ulia aldetik egunsentia sumatzen zelarik, goizeko lehenengo mezara zihoazen nes-kame goiztarrei begiratzen nien gelatik. Kriseilua esku-tan, andere berantiarrei etxeraino argi-neska gisa lagundu behar izan ondoren...

Bizpahiru ilunabar bitxi haietan, aiduru nengoelarik, kolore askotako espainiar armada-zainak ikusi nituen, harrisiaren gaineko beren erronda-bidean kanoien artetik ibiltari.

Eta arreta gaitzez ikertu beren joan-etorri irringarriak, beren bat-bateko geldiu-neak, eta gainerako bitxikeriak.

Gazteluko barrukietan, berriz, eta Gaztelupeko kaserna eta gotorlekuetan, hamar milatik gora soldadu bizi omen zen! Sinesten lanak izan nituen lehendabizikoz entzutean. Soldaduak gehiago ote ziren hiri osoko biztanleak oro baino?

Txikitandik, eta urteetan barrena gure hirugarren pisu hartatik ikus zitekeena, kaserna kutsuko bista izan arren, erreparatu ere egiten ez niola konturatu nintzen.

Aldapeta ikusten nuela, esate baterako, eta San Bartolomeko muinoa, edota Adarra eta Onddi tontorrak atzealdean. Urrungo horiek guztiak ikusten nituela, alegia.

Baina parean neuzkan gizaseme unformatu haiek, ez nituela batere erreparatzen, eta ez ikusten ere.

Putzu kalera begira nengoenez, gela egokia neukan, egutera betean. Etxeko hoberena, nik uste. Martxel anaia gazteak eta biok egiten genuen lo bertan, ohe banatan eta elkarren ondoan.

Gurasoek eta Kaxilda arrebak, berriz, Esnategi kaleko gela bitan.

Etxeko gazteena Kaxilda zen, dagoeneko esan ez badut.

Arrebak leihotik burua aterata bakarrik, eta ezkerretara begiratu, ikus zezakeen murrutzar beltzairearen zerrenda bat, Esnategi kalearen amaieran; baita berorri erantsitako etxe txapal pare bat ere, Putzu kalean.

Eskuinetara begiratu, berriz, San Bizenteko elizako kanpandorrea ageri zitzaigun, puntta batean bakarrik.

Gurearen behean, bestalde, aita gazte-denboran Igeldotik jaitsi eta kalean irekitako pentsu-denda genuen.

Egia esan, ez genuen aziendarentzako pentsua bakarrik saltzen. Kaskabilak ere izaten genituen zintzilik, salgai; baita aizkorak, mailuak, uhalak eta arranak ere.

Baina gurera inguratzen ziren baserritarrik gehienek, aziendarentzako jaki bila egiten zuten.

Zurezko ontzi karratu-sakonetan sailkatzen genuen alea (metro bat bai sakonean): garia honetan, artoa horretan, oloa hartan, zekalea hurrengoan, eta garagarra; eta basartoa, eta artatxikia, eta zalkea. Eta abar.

Eta egurrezko goporretan neurtzen genuen gero, eta saltzen.

Gurasoek dendan laguntzera behartzen gintuzten hiru anai-arrebok. Eta lagundu-behar horri esker genekien guk euskaraz (guk, Arruebarrenatarrok, alegia) Donostiako

kalekume harroxko, arrunt eta erdaltzaleek jakin ohi duten baino hobeki.

Gure dendaren aurrean, galtzara gaineko zaldi-gorotz pusken kiratsa eta denda barrutik itzurtzen zen laboreena nahasten ziren, harrigarriro. Eta beste inon aurkitu ez dudan usain-egurats berezia hatsartu ohi zen gure sotoaren espaloian.

Umetango egun urrunetan, ordu umeletan batez ere, eta putzu-ingurua blai zegoenean, nabarmendu egiten zen urrin-ortzadar anizkun hura.

Harresia eraitsi aurreko Putzu kale mehar-zabarra, oso oso bizia zen.

Orain, berriz, harresia desagertuz geroztik, eta dotoretzea eta “bulebar” gradua ematea erabaki zutenetik, soldadurik gabe gelditu ginen, eta kirats harrigarrikerik gabe. Eta Bulebarra, hitz batez, ez da Putzu kalea. Ez zabaleraz, ez giroaz.

Bulebarra dotorea da, bai, baina motel halakoa ere bai. Piperrik gabea. Biba Putzu kale zaharra!

Nire haurtzaroko urteetan, Plaza Zaharraren inguruak izaten ziren zalapartatsuenak; Lehorreko Atea baitzen (erdaldunek “Puerta de Tierra” deitu duten hori) hiriak zeukan sargune bakarra.

Jaki-denda aurre guztietan (eta ez gurean bakarrik) usain berezi eta bitxiak egon ohi ziren.

Zenbaitetan, gurpilak bailiran, zutik hormaren kontra paraturik, sardinzarrez betetako tabala borobilak egoten ziren. Eta hauetatik, benetan, kirats-bala atsekabeak isurtzen ziren. Baita eulitzar berdeak eta urdinak jira-bueltaka ibiltzen. Baina tabalarik gabeko Donostia berria, ez da Donostia. Ene ustez.

Sagardo usaina ere ez zen falta izaten gure inguruetan, tarteka nabarmen, etxazpi ilunetatik itzuria.

Esnategi kaleko “Korreopia” izeneko sagardotegia nuen nik maiteenik. Ikatz kaleko izkinakoa. Batez ere Donostiara heltzen ziren dilijentziak hantxe gelditzen zirelako; eta birrindutako zaldia eta txorabiatutako andereen zabukak ikusteko parada ematen zigulako.

Bertan uzten ziren bidaiariak, pardelak eta gutunak. Eta zaldia ere, azkeneko bi legoa hartan nekaturik, hantxe jaregiten zituzten beren andaitzetatik, eta ukuiluetara gidatzen.

Guk, mutikook, dilijentzien etorrera-ordua bagenekien. Eta Lehorreko Atean, soldadu zaindarien begia kentzen ez zigutela, beha egoten gintzaizkien.

Eta Aldapetan behera zortzi zaldik tiratutako traman-kulutzar hura bazetorrela ikusten genuenean, urduri ere jartzen ginen, noiz iritsiko zain.

Nik neuk, isilean, eskuineko zaldiaren gainean etorri ohi zen “postilloi” mutikoa miresten nuen bereziki.

Berak zabaltzen baitzien bidea, itxuraz bederen, bai ondoko beste zazpi zaldiei, bai dilijentziari berari, eta bai barruan nola-hala bizirik heltzen ziren hemeretzi bidaiariei... askotan burua arras galdurik, eta laguntza-behar gorritan etorriak.

Dilijentzia haiek sarrerako zubi altxagarria pasa eta, Plaza Zaharra gurutzatu orduko, Eskotilla kalean barrena jarraitzen gintzaizkien gu, korrika eta oihuka.

Zarata hura entzutean, leihoetara agertzen ziren atso zaharrak, eta zakurrak zaunka hasten.

Eskotillan barrena zalapartaka San Telmo kaleraino iristen ginen, eta han eskuinetara egiten; eta Donostiako

jauntxo guztien etxeak uzten genituen bi aldeetan: Rocaverderena, Peñafloridarena, Etxaguerena.

Gartzela bera ez genuen korrikaldi horretan ikusten, jakina; Gazteluaren ondo-ondoan, eta etxe-ilaraz bestaldean zegoelako.

Kaserna bai, ikus genezakeen, puska batean bederen; San Telmo kaleko 13aren pareko etxartetik ezkerretara begiratuz.

Eta han, “sooo!” luze-luze bat entzuten genuen San Bizente elizaren parean, eta kaskabilen txilinaldi etengabea isiltzen zen; eta “Korreopia” sagardotegia gure aurrean agertzen.

—Los viajeros descien den del carruaje —entzuten zen orduan.

Eta gu, dilijentziaren xehetasunak oro luzaz miatu ondoren, etxe aldera abiatzen.

Zergatik ote, egun luze bukagaitz haietan, eta osaba Feliperen erantzunaren zain egondakoetan batez ere, oroitzen horietzek baztertzeko ezinezko tema bihurturik?

Besterik nahi izango nukeen nik. Benetan! Eta areago egun haietan. Gerra-hotsez elikatuak, gorrotoz oratuak, herrak gorituak, nik dakita?

Eta geroari buruz tematu. Gorrotoz mukurru bete, agian. Baina ez malenkoniaz!

Baina bestela gertatu zela esango banu, gezur galanta esango nizueke.

## V

Eguraldia berehalakoan aldatzera balihoa bezala, larunbateko egunsentian, antxeten eta kaioen karraka errepikakorrek esnatu ninduten.

Esnatu, egia aitortzekotan, ez ninduten itsas txoriok esnatu. Berantegi oheratu, eta oso nekez eta arrunt gau minean loakartu bainintzen (benetan loak hartu ninduela esan badaiteke bederen).

Zeren-eta biharamun hartan burutu behar nuen urratsa, ez bainuen ordura artean nehoiz eman, ezta antzekorik ezer ere.

—Nola esango diot? —galdetzen nion nik neure buruari—. Zein aitzakiatan? Zer lekutan? Nola...?

Hura zorabio etengabea!

Itsas orroa urruna, artean, azkartuz zihoan, eta bertaratur.

Eguna ozta-ozta argitzen hasi orduko, zaratarik egin gabe hurbildu nintzen leihora; eta Martxel anaia, beharrik!, ez zen itzartu. Bestela, galderak hemendik eta handik; eta ongi ezagutzen nauelako, ezin gezurrik esan. Eta

azkenean larrugorrian azaldu behar. Batere atsegin ez zaidan gauza bat.

Putzu kaleko ondoko tximiniaren gain-gainean paraturik, kaio handi bat topatu nuen, niri begira antza.

Antxeta aldra batek, zalaparta gaitzetan, San Martin auzo aldera jo zuen; haratago abian itxuraz, Egia, Loiola eta Ametzagañaruntz.

Donostiaren gaineko zerua batetik bestera gurutzatzen zuen hodei luze bikoitzaren marra morea, gorri bihurtu zen azkar, baita laranja distirant ere gerora.

Eta gaueko nire temaldiak azkarturik, zauskada batek astindu ninduen:

–To! Bi hodei luzeok Loiolara begira...! Zantzu gisa ote? Ikur harrigarria! Zerbait adierazi nahi balidate bezala... Sinetsi ezina! Loiolara behar baitut.

Eta, gainezka barrena, eta beti ere hitzik gabe neure kolkorako mintzo:

–Esan egungo zioat... bazekiat, bestalde, bera gaur non topatuko dudan... Eguerditik aurrera, bazkaritarako zerbitzari arituko duk “Joakiñene” tabernan, Loiola auzo horretantxe.

Eta dardarizo ezkutu batez begiratu nuen Ametzagaña tontorrerantz.

Inguru hartantsu ari baitziren jiraka Donostiatik alde-gindako antxetak eta kaioak, goiztiriarekin erotu bailiran.

Eta halako patu-seinale kutsua hartzen nion ikuskariari. Eta lastu ere egin nintzen lipar batez, harrigarriro...

Egia esan, zein zen nire asmoa? Maiteminduta nengola ez nion esan behar; ez baitzen egia. Baina ez nuen beste inorengandik despeditzeko beharrik sentitzen. Hau-xe zen desberdintasun bakarra.

Hala ere, bestetan baino arreta handiagoz hasi nintzen bizar mozketan. Eta hobeki egin nahi hartan, labankada-txo baten ondorioz, zarratada pare bat egin nuen masailan; eta odolez gorritu zuen horrek nire aurpegiko xaboin-  
-apar zuria.

Goizegi zen oraindik: goizeko... bederatziak eskas! Baina odol-jario ñimiño hura gelditzen ez zela erreparaturik, zainetan jarri nintzen.

Alkandorarik politena hautatu nuen (ustez politena, bederen!), eta jantzi egin nahi nuen. Ezin, ordea! “Odolez zikinduko zait lepokoa” neure artean...

Esan behar niona esan gabe aldegitako ia-ia prest egona nintzela ohartzean, arrotz topatu nuen neure burua:

–Ezer adierazi gabe joango ote hintzen bada hi, txo-txolo hori...? Esan egingo zioat, bai horixe! –errepikatzen nion neure buruari, bizkortu nahirik agian...– Ez zekiat zergatik esango diodan hau berari, eta ez beste inori... Ez dik batere funtsik, bazekiat... Baina Donostiatik aldegin baino lehenago, neure berri berari emateko eskatzen zidak barrenak.

“Berari”, bai... Ez bide nuen beraren izena neure arte-rako ere ahoskatu nahi! Hori zozokeria!

–Zer esan behar diot, gainera...? Oso gutxitan izan diat parada, gaur arte, Bixentarekin buruz buru ezertaz lasai mintzatzeko. Tabernako barran hitzerditxo bat edo beste, zirtoren bat agian, hutsa! Eta beti erdi txantxetan.

Baina berehala lotzen nintzaion beste batzuetan pentsatutakoari:

–Oraingoan, bai. “Berari”, bai... “berari” kontatuko zioat banoala... eta jakin ez dakidala... sekula itzuliko ote naitzen ere...



Eta bat-batean, beste mundurako abian banengo bezala, neure buruaz urrikaldu nintzen:

–Datorkidana azalduko zioat Bixentari; gerta dakidakeen okerrena bera ezkutatu gabe. Alegia, litekeena ere badela inkontru odoltsu horietako batean, azala hor non-bait uztea!

Eta haren aurpegi ederra ikaraturik niri begira sumatzen nuen.

–Egoerak berak –jarraitu nuen neure artean– erraztuko zidak esatekoa eta beharrezko pausoak aurkitzen, eta hitz egokiak neure ahora bideratzen.

Eta Urumea zeharkatuta, “Konkorrene” eta “Olivasene”ko gaina inguratu, eta “Aldakoene” ezkerretan utziz, Loiolako “Joakiñene” taberna aldera abiatu nintzen. Eta disimulutan hurbildu nintzen; bera bertan ez aurkitzekotan lehenengo aldiz oso kezkatuta.

Tarteka azkartzen hasi ziren haize-bala beroak. Eta ostarte urdinak, hodei zuri harroen zuriak berak ilundurik itxuraz, sakondu-edo egin ziren beren urdinean. Ilundu ere bai, agian.

Galerna ote zetorren?

Egiatik jaitsi ahala, “Iradiene” baserria utzi nuen goian; “Aldapa” izenekoa gero, beheraxeago, errepidearen gainean, ezkerretan. Eta guztiz beherean, laiotzean, Urumearen ertzeko “Astiñene” misteriotsura iristean, bizpahiru txalupa hegian estekaturik ikusi nituen. Eta berehala, harrizko zubia gurutzatu.

Mendetan barrena irekitako malkorraren gainean “Tturko” eta “Lorentziyo-ene” baserriak nituen neure ezkerretan, labarraren gainean; atzerago “Uba” eta Ametzagañako tontorra ikusten nituelarik.

Ibaiaz bestaldetik zihoan bidea, ordeka zen arrunt; eta ebaki berriak ziren belazeak gurutzatzen zituen. Eta udako eguratsa horditzeko adinako usain liluragarritz dena blai jartzen.

Taupadak nabarmenki azkartzen zitzaizkidala sentitzen nuen.

“Matxiñene” eta “Atarieder” ilaran, eta Loiola auzoa aurreraxeago. Donostiako harresiak eraitsiz geroztik, “bera” ikusteko esperantza ezin ezkutuagoan, makina bat bider ikusiak.

Hots, hantxe, neure aurre-aurrean, Loiolan bertan sartu baino metro batzuk lehenago, nire “Joakiñene” ostatu apala zegoen.

Etxe hartan “nirerik” ezer ez bazegoen ere... Bixenta bera barne, esan beharrik ez... Hura bai amodio haragigabe eta “platonikoa”, Donostiako señorito sasi-jakintsuek esaten zuten bezala esateko.

Baina, nolabait bederen, halere... “nirea”.

Sartu naiz bertara. Eta baserritar mordoxka bat upel arteko mahaiaren inguruan kalakan topatu. Mahai luze hartako beste muturrean etzanda, lekuko isil, katu bel-beltz bat, lozorro goxoan gelditi.

Ilunpe ilun hartan ozta-ozta sumatu dudanez, burua pittin bat altxatu dute, eta niri begira txintik esan gabe geratu.

–*Atsalde on!* –esan diet.

–Bai zuri ere! –berek aho batez. Eta horretan gelditu da gure arteko elkarrizketa. Eta beren artean ere, hortik aurrera hitzik gurutzatu ote duten, ez dakit.

Eta berehala, barraz bestaldean agertu da “bera”; neure oroimenean atxikitzen nuen irudian baino ile-horiago eta begi-urdirago.

–Zer ari zara zu, Joxemai, inguru hauetan? –galdetu dit.

Maite, ez nuen nik Bixenta Galdona pertxenta hura maite, esana dut. Hitz azkar hori ez letorke egoki kasu honetan. Horrenbestearainoko sentimendua ez zen nirea.

Baina neure inguruan “bera” antzeman orduko, hala ere, halako barne-ximikoa sentitzen nuela, eta urduri antzean paratzen nintzela, eta ttentteago zutitzen, eta abar: bai. Nabarmenki. Neska hura ez zen niretzat “beste neska bat”. Aztoratu egiten ninduen.

–Hementxe bada –nik, ahalean behintzat hotx antzean erantzule–. Zuri agur esatekotan etorria nauzu goiz epel honetan.

–Hara! Mila esker...! Gaur epela baino, sargoria esango nuke nik –berak.

Barraraino iristen zen argi-errainu azkar batek itsutu egiten ninduen ia-ia. Bestetan baino musugorriago antzeman uste nuen, eta ederrago ere bai. Eta ordurarteko neure zalantzak eta izutikeriak madarikatu nituen:

“Orain berandu duk! –neure artean–. Damua garaiz, Putzu!”

–Beltza aterako al didazu? –galdetu diot–. Kanpoaldeko harrizko mahai horietako batean eseriko naiz.

–Ederki. *Oiñtze aterako'izut.*

“*Aterako al didazu, Bixenta eder horrek*” esan behar niokeen, jakina. Baina beste edozeini esango niokeena, Bixentari menturatu ez. Hura lana!

Eta sukaldetik irten orduko, “oraingoan bai” erabaki nuen. Eta, ez bat eta ez bi, nekarren arazoa berehala azaltzera deliberatu nintzen.

Gure ondoan, senton pare bat, isilik, guri begira.

–Harritu egingo zaitut, beharbada, Bixenta –ni ahapeka ari–. Baina zerbait esan nahi nizuke. Aspaldidanik dabilkit katramila hau barrua nahasten, eta gaur... esan egingo dizut.

Muzin agertu da bat-batean. Iruditu zaidanez, behintzat.

–Bota, ba. Zer da gauza ikaragarri hori, Joxemai? Beldurtu egingo nauzu azkenean!

–Hemen ez, Bixenta. Buruz buru esan behar dizut.

–Noski! Banengoen ba, ni!

Eta barre algara ozena itzuri zaio.

–Ez, ez, Bixenta. Ezetz. Ez dela zuk uste duzuna. Nahiz eta hori ere... Bego! Gaurko hau ez da batere barregarria. Ikusiko duzu jakitean!

–Zer da, ba? Irrikitan naukazu! –adarra jo nahian edo–. Zer duzu? Ene, ene!!

–Ez dela txantxetakoa, benetan.

–Tira, ba... Baina orain ez, dena dela. Orain ezin dut. Zergatik ez zatoz berriz geroxeago, bazkaritakoei zerbitzen amaitu ondoren edo? Aitari ez zaio gustatzen lan handia dagoen garaian ni bertan ez egotea.

Pozik entzun ditut hitz horiek. Ez dit ezezkorik eman. Ez baitzen batere segurua nirekin horrelako mixteriotan eta buruz buru mintzatzeko prest egongo zenik: buruz buru biok, zergatik, edo zertarako? Erantzun hau ere posible zen.

–Zatoz hiru t'erdietan edo –proposatu dit–. Afariak prestatzen hasi arte horretan, ordu pare bat gutxienez izango dugu.

–Ederki! –nik–. Gero arte!

Eta oso maite nuen Urumea inguruko ibar geldi leuna ertzetik berrikustera abiatu nintzen.

Loiola auzoa gurutzatu nuen aurrenik; beti ere ezkerretan, eta gainean, Ubako etxadia Ametzagaña aurreko mazelan begirale neukalarik.

Urumean gora jarraitu nuen “Txusenenea” ondotik, ibai ertzeko bidetik beti. Eta “Patxillardegi” dotorea, bere ibai-kaia eta guzti, atzean utzi nuen.

Han Urumearen arroak bezalaxe, nik neuk ere ezkerretara jo nuen; eta ibaitik, “Kristobaldegi”eneko etxe-mulztoa ikusi nuen.

Hura bakea inguru haietakoa! Gabarra batean hiru gizaseme ageri, zirudienez arrantzan ari.

Urgain geldiak ispilua zirudien; Urumea bera lakua bailitzan, eta ez ibai isurkorra.

Hitzartutako tenorean, “Joakiñene”ra inguratu nintzen. Eta handik apur batera nik uste baino kirruago, eta ibileraz nik uste baino arinago, Bixenta hurbildu zitzaidan, bere edertasun gaztean kilikagarri:

–Kaixo, eder! –nik aurretik aukeratutako hitzez, eta begiradaz egarti laztantzen nuelarik.

Eta Donostia aldera polliki-polliki joatea adostu genuen.

Oraingoan “Lorentziyo-ene” eta “Tturko” baserriak eskuineko gure aurreko muino-labarrean ageri, Loiolako zurbia laga, eta “Errotaberri” ondoko belazean eseri ginen.

Aurrez aurre, Urumearen ertzean bertan, “Mundaitz” etxea genuen.

Bixentaren ezkerreko besoak, nire galtzarbean ezkutatuta antza, nire eskuineko besoa ukitzen zuen ozta-ozta, bere luzera guztian. Hura bai sekula sentitu ez nuen laztandu-nahi bizia!

–Ez dakit zergatik, Bixenta. Ez nago hau egitera bate-re behartuta. Badakit. Baina zurekin hitz egin nahi nuen gaur...

–Gaurtxe? Oso larri ikusten zaitut.

–Bai, ongi igarri diozu. Larri nago. Datorren astean banao gure mutilekin, karlista boluntarioekin, alegia. Eta, ez dakit...

–Bazoazela...? Baina joan, nora? Nola horretara?

–Badakizu gauza nola dagoen. Eta nik ere... neure alea eman nahi dut.

Bixentak izututa entzuten ninduen: “zu ere, armetara?”

–Bai, hauxe nahi nizun esan. Eta zuri esan, hain zuzen, Bixenta... Ez dakit zergatik. Baina... esan egin nahi nizun.

Berriro isilune lodia sortu zen gure artean:

–Enee!! Beldurra ematen didazu, Joxemai. Beldur *haundiya!* Gure ama ikusi duzu tabernan?

–Nor da zure ama?

–Nor dan ez dakizu oraindik ala?

–*Eztakit, pa.*

–Bada beti ere sukalderako ate ondoan kuxkurtuta eta beti ilunpean egon ohi den emakume xahar hori... horixe duzu gure ama. Oraintxe ere hor zegoen. Ez duzu erreparatu?

–Orain ez. Beste batzuetan, bai. Ez nekien zein zen.

–Bada, bera da. Eta ez pentsa horren zaharra denik. Gure amak, egia esan, 51 urte besterik ez du. Baina zahar-  
kituta dago erabat; betidanik etsita eta gogogabetuta bizi izan delako. Hor esertzen da, zerorrek erreparatu izan duzun bezala. Eta askotan hortxe egoten da egun osoan, inora aldatu gabe, ordutan barrena geldi, tabernako atera adi.

“Noiztenka, bakarrik dagoenean, “*Patxi neria!*” hitzak *esate'ittu*; eta berriro isilpe osora bihurtzen; ozta-ozta tabernan dagoen jendea begira dagokiola erreparatzen duelarik.

–Eta nor da Patxi hori?

–Anaia. Gure anaia zena, zazpi senideotan zaharrena, ni neu baino hamar urte zaharragoa.

–Zure anaia “zena” esan duzu?

–Bai. Orain dela hamahiru urte hil zen Marokoko gerrakoan. Eta heriotza atzo gertatu izan balitz bezala jasaten du egunero gure amak, inolaz ere etsi ezinik.

–Latza benetan! Gaixoa bera!

–Bai, halaxe da. Batez ere gure familian ez dela lehenengo kasua izan. Zazpi urteetako karlistada amaitzear zegoenean, inguru hauetantxe hil zitzaigun gure osaba Laxarro. Gure amaren anaia zen hura. Eta orain semea... Ba... gehiegi izan da amarentzat. Eta ez du gainditu, eta gaindituko ere ez.

–Semea Afrika urrun hartan galdu behar gainera...!  
–nik–. Donostiako gazte batek zer pintatzen zuen Marokon?

–Niz ez dakit ezer politikaz eta gerraz, Joxemai. Baina galdera bera egiten diot neure buruari. Gipuzkoako Junten agindua zela-ta, “*mutillak armetara*”; eta Etxague donostiar mariskalarekin joan zen haruntza... “*Con los gloriosos Tercios Vascongados*”...

–Ederki moldatzen zara erdaraz, Bixenta!

–Beharko...! Alai joan omen ziren gureak Afrikara, bidean etengabe bertso famatu hori kantari:

*Ai, ai, ai, mutillak,  
biba mariskala...*

“Espainiar bandera harro altxatu, eta moroak akabatzen; mordoka bada, hobe... Ez dituzu doinu horiek inoiz entzun? –galdetu zidan.

–Bai horixe! –nik erantzunez–. Nola ez? Nork ez gurean? 1860... Hamar urteko mutikoa nintzen ni orduan. Baina zerbaitez konturatu nintzen, bai.

–Bada, Patxi anaia ere... moroak akabatzen joan zen orduan, kantari...

“*Moroak akabatzen kantari*”... Muzin keinu bat egin baitzuen Bixentak hitzok esatean. Ederra izateaz gain, bere buruz pentsatzen zuen. Ez nuen nik, kaletar harroko honek, kulturarik gabeko emakume gazte batengan, horrelakorik sekula sumatuko.

–Ta? –nik galde.

–Ba, badakizu gutxi gorabehera. Euskal mutilak, Algecirasera iritsi zirela jakin genuen halako batez; eta handik Ceutara pasa zirela... Gero, ordea, arrastorik ez. Gure Tertzioak Muley-ez-dakit-zer famatuaren kontra aritu zirela zabaldu zen bazterretan, eta euskaldun jende asko eta asko hil zela inguru hartan Espainiaren defentsan. Gero Tetuanen, sarraski gaitza egon zela...

–Eta Patxi anaiari, zer?

–Gero... Ez dakit ongi... Baina, *kitto*... Berririk ez, eta gaur arte. Patxi ez da inoiz Loiolara itzuli. Hori da kontua! Eta horretxek ondoratu du gure ama betiko.

Ametzagaña geneukan geure aurrean. Eta arratsalde bero hartan, eta desberdin zitzaidan neska hura despeditzerakoan, eta Marokori buruzko aipamen hits haiek, ba, egia esan, Donostia Tetuanen ondoan balego bezala... lokamutsa ziruditen.

Egia da, eta banekien, euskaldunok, legez, nik etxen askotan, eta osabari ere entzuna nionez, eta hain maiz



hauek eta haiek aipatzen zuten “Foruaren” arabera, ez genuela guk euskaldunok ezertara Euskal Herritik kanpora armak eskutan irteteko inolako obligaziorik. Ohitura zaharra zela, bai.

Nork eman zuen agindua, beraz, gure mutilak armetara deitzeko? Nork horrez gain Afrikaraino bidaltzeko?

Barruan neraman harra, gero eta barrurago ari... Ia-ia mina nabaritzen nuen erraietan; eta Bixentaren kondairak, sutan utzi ninduen:

–Foruak kendu ez balizkigute, Patxi zure anaia ez zen Afrikara joango. Horregatik noa mutiletara. *Karlistak defenditze’ittuzte Forubak*, ene ustez. Liberalak, zernahi esanda ere, ez eta ez. Nire erabakia zuzena izan da. Banoa partidara, Don Carlosen alde.

Baina ni banindoan Donostiatik. Eta Bixentarekin egoteko aukera, bakarra zen.

Eta gure mintzagaia aldatu beharra ikusi nuen. Nola edo hala, eta gure arteko elkarrizketa, bestetara eraman.

–Barka, Bixenta. Ez dakit nik gauza triste horietaz gaur eta hemen hitz egin behar ote genuen. Ez dut uste. Gaur zurekin nago. Eta beharbada ez zaitut... luzaz ikusiko...

–Ixo, Joxemai! Ezta txantxetan ere horrelakorik!

Eta “Errota-berri” ondo hartan nengoela, bat-batean, Bixentaren begirada urdinarekin egin nuen topo, eta dardarizo berri bat sentitu nuen, eta lotsa gorria ere bai. Zer Afrika eta zer Afrika ondo?

–Eta hala ere, egia horixe da –Bixentak hobekiago. Eta lehengo hariari heldu nion:

–Bada, beste hau ere, egiaren parte da, Bixenta: banoala mendira, borrokara, foruak maite dituztenekin bat eginez; arestian esan dizudan bezala. Gerrara noala, bai.

Eta hitza entzundakoan, zirrara bat sentitu genuen biok.

–Enee, enee Joxemai!! –berak hitza entzuterakoan erabat aztoratuta–. Baina... gerrara diozu... nola? nora? noiz?  
–Oraindik ez dakit. Datorren astean jakingo, nik uste. *Bidalduko'izut* neure berririk.

Ondoren isilune luzea sortu zen gure artean, oso luzea. Espero ez nuen isilune astuna.

“Mundaitz” aurreko txalupako hiru gizonek eutsi egin zioten beren lanari.

Tarteka urrungo trumoi-hotsen oihartzuna hedatzen zen inguruetan. Eta gabarrako arrantzaleengandik gugainaino, hitz erdi bat edo beste iristen, bakandurik, ulerkaitz.

–Berehala irabaziko dugu. Lasai joan, beraz, Joxemai. Zure erabakia, bene-benetan, txalogarria da osoki. Ni neu ere Karlos Setimoren aldekoa naiz; nire bi aitonak beren garaian karlistak izan ziren bezalaxe. Kasu egingo al didazu aldegin baino lehenago?

–Bai horixe, Bixenta!

Eta konturatu orduko gure ezpainak elkarri itsatsita zeuden, eta sukar ezezagun batek harrapatzen ninduela. Ez genekien zer esan, ez Bixentak ez nik.

–Mugitu egin beharko, Joxemai. Bestela busti egingo gara!

Eskutik lotu ginen; eta nik uste eta nahi baino lehenago zeharkatu genuen Loiolako etxe-mordoa, eta “Joakiñene”ra iritsi.

Agur izuti bat elkarri esan, eta ostatura sartu zen bera.

Ni, berriz, harrigarriro asaldaturik, eta tanto lodiek bustitzen nindutelarik, aldapan gora abiatu nintzen Egia-runtz eta Donostiaruntz.

Uste ez nuenean, hautsia zen zerbait nigan.

Ordurarte dastatua ez nuen haustura bitxi batez.

## VI

Igande goizean aldizkako kanpai-hots andanek iratzarri ninduten.

Zutitu, eta gure logelako mahaiaren gainean zegoen pardeltxo batek harritu ninduen:

–Zer da hau? –galdetu nion goraki anaiari.

–Hi, hi! Polikiago, ezta? Esnatu egin nauk, eta ez zekiat zertaz ari haizen ere...

–Barka, Martxel. Baina, zer da hau?

–Bart ere hortxe zegoan. Baina ez hion erreparatu ere egin. Aztoratuta etorri hintzen nonbait...

–Zer da? Erantzun!

–Bai, motel. Bai... Gure dendan utzi zitean bart arratsean, hiretzat. Eta hona igo nian.

–Nork ekarri zuen? *Ezagutze-ek* hik ekarri zuena? Gizasemea zen? Emakumea? Esan zerbait.

–Lasai, motel! Lasai! –anaiak niri–. Oraintxe azalduko diat.

Egia da urduri nengoela; eta bezperan etxerakoan, Loiolako gertakaria nekarrela gogoan, eta ez besterik. Eta beharbada ez nintzela konturatu.

Baina berehala ulertu nuen osaba Feliperen partez berderen ez zetorrela pardel hura, eta honetxek lasaitu ninduen dexente:

–Gure adineko gaztea zuan bera –Martxelek argitu zidan–. Eta hiri emateko esan zidaan. Besterik ez.

–Ezagutzen huen bera?

–Ez, ez. Ez nian behin ere ikusi. Donostiarra ez zela esango nitek.

Paketea zabaldu dut; eta bi atal-edo topatu ditut barruan, biak paper lodi zakar banatan bilduak.

Batean, zuri-beltzez inprimatua, paper mordoska bat hartu dut eskutan. Orria zabala zen, izan. Baina erditik tolesturik zetorrenez, lau plauma itxura hartzen zuen paskinak. Hogeï bat ale bai.

“Gero irakurriko diat”, pentsatu nuen neure artean. Eta bigarren paketetxoa zabaldu nuen.

Tamaina handiagokoa zen hau, zabaleraz; nahiz mehe-mehea. Kartoi pare batez osatua balitz bezala.

Bi foto zekartzan soilki!

Lehenengoan, bizar ugari eta beltzeko gizon bibotedun sendo bat ageri zen, bere 25 bat urteetan; txapela zuri zabala, eta urrezko borla bat zintzilik.

Paparrean, berriz, katenbegi itxurako “Toison” laukuna nabarmentzen zen. Eta beronen gainean, beste hiruzpatalau domina, txikiagoak eta apalagoak hauek. Txamarrako botoiak, urreaireak ziren kolorez.

Eta fotoaren behealdean, azkenik, ezkerreko besoak helduta, ezpata dotore apain baten kirten landua sumatzen zen.

Etta hiru lerrotan izkribu bakar hau: “*Carlos de Borbón y Austria-Este // Carlos VII // Rey de España*”.

Bigarren fotoan, berriz, adin bertuko emakume ahul bat ikus zitekeen, ilea hori, begiak urdin, izuti apala itxuraz, belarritakorik batere gabe. Oihalezko xerrenda ilun batek inguratzen zion lepoa, eta mantelina beltza ikus zekiokeen sorburuen gainetik. Baita izkribu soil hau ere: “*Margarita de Parma // Reina de España*”.

Segundo batzuetan arretaz errege-erreginen irudiei begiratu ondoren, arrabildu egin nituen bi pardeltxoak, eta mesanotxeko kaxoian sartu.

–Zer? –galdetu zidan orduan Martxel anaiak–. Paper interesgarriak dira?

–Ez, ez. Ezer ez... ez dituk ezer...

–Zerbait *ikusi-ek, pa*, pardeltxoa askatzean. Ez da hala?

–Emaidak bakea. Ez diat ezer esango.

–Neskatila politen bat tartean?

–*Etziok neskarik*. Kitto! Aditu al duk?

Isildu egin nintzen. Eta eskaileran beheraino joanda, fotoak eta paperak Putzu kaleko gure dendan ezkutatzera jaitsi.

Igandekari denda itxita zegoenez, leku egokiagorik ez paskinaren irakurketa lasai egiteko.

Etta hantxe aritu nintzen horretan, lasai, egiteko horretan; gure denda hutsean lasai eseri, eta burutik buru mezu laukoitza edoskiz.

Erdara hutsez zetorren paskina.

–1872ko maiatzaren 4an –irakur zitekeen bertan– *Madriilen Amadeo de Saboya “italianoa” errege zegoelarik, Nafarroako Orokietan gertatutako deskalabruaren gakoa ausarki azaltzeko tenorea iritsi zaigu.*

38 karlista bolondresek galdu zuten bizia borrokaldi hits hartan –aitortzen zuen deplauki paperak– eta beste 749 Moriones jeneralaren eskuetan erori ziren, berauek gero handik Cubara deportaturik joateko.

Egun hartan –jarraitzen zuen– arrastirian, kanoiaz eta guzti, eta sospresa osoaz, eraso zion Morionesen armada liberalak Orokieta herriskari (ehun bat biztanle).

Ultzama-aldeak ezagutu zuen, horretara, gertakari ezin tristeago hura. Bertara bildutako karlistetan (1.400 inguru), bi herenek gutxienez batere iskilurik ez zeukaten.

Karlos Setimo bera ere bertan erortzeko zori-zorian egon zen; eta biharamunean bertan, tarrapataka, Lantz erreka arroan gora iritsi zen Frantziako Alduderaino, Nafarroa Beherean.

Handik astebetara, berriz, maiatzaren 15ean, bakeakordioa sinatu zuten Zornotzan Serrano jeneralak, batetik, Madrileko gobernuaren aldetik; eta Bizkaiko Diputazio karlistak, bestetik, Carlos VII.arenetik.

Amaitua bide zen, horretara, bigarren karlistada...

Baina ez zen horrela gertatu. Eta berriro piztu zen gerra.

Oraingoan –letra nagusitan irakur zitekeenez– horrelakorik ez da gertatuko: *Esta vez no ocurrirá un nuevo Oroquieta –azpimarraturik– ni un nuevo Amorebieta. Llegaremos victoriosos hasta Madrid, e instalaremos en el Trono a la única persona que tiene legitimidad para ocuparlo: a D. Carlos de Borbón y Austria-Este, a nuestro admirado y querido Rey Carlos VII...*

*En 1872 gritábamos “Abajo el extranjero”.*

*Y efectivamente el intruso ya se fue, sin dejar rastro.*

Ahora tenemos a la impiedad republicana en el Poder. Pero también ésta caerá pronto, y se restablecerá en Madrid la legitimidad monárquica.

Vasco-navarros leales: ¡no habrá otro Oroquieta!  
¡Con Dios y con el Rey, hasta la Victoria!”

Arrotz kutsu itzela hartzen nion nik hizkera horri. Banatu behar al nuen nik desagokitzat neukan panfleto hori? Erdaraz ez zekiten baserritarrei, bestalde, zertarako banatu?

Erdiak irakurtzen ez zekielarik gainera, ez euskaraz eta ez erdaraz...

Armetara joateko prest nengoelarik ere, eta hala nengoen, zalantza handiak sortzen ziren nigan: hori al zen euskal Foruak beren osotasunean berreskuratzeko bide egokia?

Oraindik “politika” arloan batere ikasia izan ez arren, gure mutilak “karlistetara” *helburu horiek* defenditzera omen zihoazela-eta, sinets ezina zitzaidan.

Eta ni neu ere ez nindoan horregatik mendira, eta, beharbada, odola isurtzera.

Baina barrenak agintzen zidan oso azkarki, “beltzei” galbidea oztopatzekotan, Don Carlosen alde borroka egitea zela ezinbesteko abiapuntua. Oso desberdinak omen ziren Amadeo de Saboya erregea, batetik, eta Estanislao Figueras errepublikar presidentea, bestetik. Baina berdin zitzaizkigun biok guri. Ez genituen ezagutu ere egiten. Ez bata, ez bestea.

Santakrutz apeza, berriz, “etxekoa” zen, ezagutu egiten genuen nola-hala.

Jaun horiek, ez.

Karlos Setimo bera ere, bestelakoa zela iruditzen zitzaidan.

Eta gogoan genuen gure zaharrek, arratiarrekin ikasita zabaldu zuten kanta hura:

*Don Carlosek emon dau errege-berbia  
gura dauela gorde euskaldun legia.*

Eta sinetsi egin genuen. Eta Don Carlosen zoritxarrak gureak bihurtu ziren; eta Don Carlosen pozak, gure pozak.

Aurreko egunotan, hain zuzen, Konporta-aldeko sagardotegi zahar ilun batean gertatu nintzen, Donostiako Antiguan, igande arratsalde batez.

Eta gazte mordo batek hauxe kantatzen zuela erreparatu nuen:

*Bát / eta bí-i,  
íru / eta lá-u,  
bóst / eta séi / zazpí;  
Kárlos / setímo  
Óro / kiyétan  
ibi / llidá / gaizkí...*

Galdera mordo bat neukan, prest, osaba Feliperi egitekoko. Eta hainbeste egunez harengandik deusik jakin gabe, berantetsia nintzen jadanik tarteka.

Baina Donostian bertan ez zegoela gauza segurua zen. Non ote, ordea? Ez nekien.

Zurrumurruek etengabe ziotenez, beste alde batetik, 1872an bezalaxe, edozein mementotan zen Nafarroara etortzekoa Don Carlos bera.

Eta zenbait aldiz Erregea bera... nire osaba Felipe baino lehenago iritsiko zela hasi nintzen pentsatzen!



Bi fotoak eta paskin mordoxka hura txukun-txukun bildu, eta gorde egin nituen. “Egin behar dena jakitean banatuko ditiat, ez lehenago. Non banatuko, gainera?”

Hortaz, egon egin behar.

Noiz arte egongo, ordea?

## VII

Astlehenean abisu bat eman zidaten dendan: “Bihar, goizeko hamaiketan, osaba Feliperen etxera azaltzeko”.

“Beharrik! Bazen garaia!”. Eta arnasa hartu nuen sakanon.

Eta ekainaren 17an, hantxe nengoen, San Telmoko kaleburuan, San Bizente elizaren ondoko bere etxean, aldaba joka.

Igo, eta hantxe zegoen, lasai asko:

–Zertan habil, Joxemai? Berantetsita, ezta?

–Berantesten hasia behintzat bai, esaba.

–Bai, bai. Konprenitzen haut. Baina kanpo aldean ibili nauk. Ezin!

–Horrelako zerbait sumatu nuen, bai.

Eta zekarzkidan berriak, “beharbada denak ez hire gustukoak”, lasai hartzeko eskatu ondoren, mezuaren mami azaltzen hasi zitzaidan:

–Hire galderari zegokion pertsonarekin hitz egin diat azkenean. Eta hiretzako lan egoki bat topatu dugula irudi-

tzen zaidak. Baina, hori bai, hik inori ezer salatuko ez dioala jakitea duk ezinbestezko abiapuntua.

–Agindu beharko al dut ba hori, osaba? Noski!!

–Hola hobe, iloba. Alde batetik hori entzun nahi nian. Eta bestetik, beste hau adierazi: Don Carlos aurki izango dugula hemen geure artean.

“Ez omen dik inolaz ere ojalateroek bezala jokatu nahi: Gortean goxo-goxo bera, eta esamesa alferretan borrokatik urruti. Mutilekin osoki bat eginda jokatu nahi omen dik Erregek. Eta eskain lekizkiokeen abantailak oro alde batera utzita, Nafarroara al bait azkarrenik azaldu.

–Noiz hori? Edo... noiztsu bederen?

–Ez zekiat, Joxemai. Eta baneki ere... ez nitek esango.

–Jakina! Galdera zozo bat egin dut!

–Etorri egingo duk. Horretaz ziur *natxiok*. Baina noiz, nola, eta abar, benetan ez zekiat.

–Bego, beraz, hori bere horretan.

–Don Carlos honuntz etortzea (ez zekiat konturatzen ote haizen), ez duk hutsaren hurrena. Zazpi Urteetako gerrakoan iritsi genuen borroka-maila, aurki gaudituko diagu oraingoan. Hago ziur!

–Eta, orain, non da bera?

–Don Carlos? Frantzian. Mugaz bestaldean. Baina besterik ez zekiat, benetan. Frantses polizia etengabe orpoz orpo daukalarik, beti ihesi bizi duk; eta hiruzpalau aldiz frantses jendarmeen atzaparretan erortzeko zorian egon duk. Broma gutxi. Eta non ezkutatu den jakiterik *etziok*.

–Noski! –nik.

–*Estoy dispuesto a vivir una tragedia, esaten omen dik, pero no estoy dispuesto a vivir un sainete.*

“Madrileko gobernuak agintzen dik muga inguruetan; eta Don Carlosek berak, errege izanik ere, mozorroturik

mugitu behar izaten dik askotan, batetik bestera aldatzean. Eta, hobe beharrez, beste nornahik bezalaxe hartzen dik trenan han eta hemen, kontrol txikiagoa izango duen ustean...

–Mozorroturik bera?

–Normalean, orrazkera aldatuz, esate baterako; edo itxura honetara edo hartara egokituz... Mintzatzerakoan, eta atzerritar doinuaren aldetik, hobeto moldatzen duk Frantzia, hain zuzen, Espainian baino. Hau bahekien hik, noski.

–Ez. Ez nekien.

–Ba, hala duk. Urte pila pasa dik atzerrian, eta jaio ere, Ilirian jaio zuan. Baina erdaraz ere ongi ikasi dik.

Eta Don Carlosi buruzko berri ematen jarraitu zuen:

–*Izelonbria* ere, maiz aldatzen dik. Orain dela urte pare bat, bizileku nagusia Dax inguruan finkatu zuen garaian...

–Akizen, ezta?

–Bai, Joxemai. Barka. *Akizen* egon zan garaian, “Leon Guzman” jauna bihurtu zuan. Eta Margarita erregina, berriz, seroraz jantzita ibiltzen ez zenean, “Madame Candalle” anderea zuan.

“Frantses poliziak bazekian zerbait honetaz, eta Estibeaux-ko gazteluan bilatu zian, ez beti oso nabarmenki; Barrauteko eta Arribahauteko puntuzko karlista ezagunenen jauregietan aurkitzea pentsatu zian. Baina Akizen egon zuan luzaz.

“Ez diat xehetasun askorik emango, hortaz. Gerran *gatxeudek!* Eta isiltzen ikasi behar diagu.

–Jakina, osaba... Baina niri dagokidanez, zer berri?

–Don Carlosek ondoko hilabeteotan gobernu oso bat antolatzeko asmoa dik, ministerioak, bankuak eta guzti. Oraingoz Euskal Herrian bertan kokatua (“en el País Vas-

co-navarro” esan ohi ditek goikoek beren hizkera ofizialean), Lizarran seguru aski. Madriler aaldatzea geroago etorriko duk; gure tropak Espainiaz nagusitu ahala.

Ez zitzaidan Madrilerako asmo hau oso bidezkoa izan. Baina isildu egin nintzen.

–Eta, hasteko –jarraitu zuen–, Gortearen ondo-ondoko Zuzendaritzak prestaturik, geure Egunkari Ofiziala argitaratuko diagu. Izena ere erabakita zegok: “El Cuartel Real”. Moldiztegia prest egon bezain laster aterako diagu lehendabiziko alea. Aurki, nolana ere. Datorren hilean bertan, seguru aski. Edo abuztuan beranduenik.

“Eta hortxe pentsatu diagu hi kokatzea: Egunkari horren prestakuntza lanetan. Hik frantsesez ondo dakik...

–Ondo al dakit bada?

–Ongi samar, Joxemai. Akize aldean emandako bi udetan ikasitakoa, ez zaik batere ahaztu. Hots, albiste asko, artikulua asko, gutun asko, frantsesez *etortze-ittuk*. Eta erdaratu egin behar *izate-izkiagu*...

–Et, et, osaba. “Frantsesetik erdaratu” esan duzu? Baina frantsesa ez al da beste erdara bat?

–Bai. Arrazoi duk. Ohitura txarra diagu, bai.

“Hots, frantsesez jasotzen ditugun berriak, gaztelaniaz jarri beharko diatigu, itzuli. Eta gero, geure modura prestatu ondoren, “El Cuartel Real”eko orrietan argitaratu.

–Eta, non inprimatuko da? –nik galdetu.

–Ez zekiagu seguru. Carlos Maria Isidro bere aitonak hautatutako gorte-hiri famatu berean argitaratzea nahi likek Don Carlosek. Lizarran, alegia; beste gauza eta zerbitzu asko han kokatzeko asmoa dagoen bezala.

“Baina oraingoz (“oraingoz” esan diat) Lizarra “gieren” eskuetan zegok... Eta beharbada Zugarramurdiko Peña Platako gotorlekuan hasi beharko diagu, Frantziako

muga ondo-ondoan. Eta gero Tolosara aldatuko gaituk, edo Oñatira; eta, azkenean, ahalik eta azkarrenik, Lizarrara.

“Moldiztegi kontuetarako teknikari “tipografo” on pare bat bazeukaagu. Hik testuak prestatu egin beharko dituk. Gainerakoa, bidean...”

–Zehazkiago?

–Hik bi gauza. Alde batetik, atzerritik jasoko ditugun berriak eta kazetak, itzuli...

“Baina hor bazegok koska bat, koska handi bat; eta ez zekiat erreparatu ote duan...”

–Zein?

–Albisteak normalean telegrafoz jasoko ditugula...

–Baina ba al dago, egon, oraindik, gurean zutik dirauen telegrafo-tantairik bat ere? –galdetu nuen–. Aita Santakruztek (baita Lizarraga jeneralak berak ere) “posteriorik batere ez barkatzeko” emandako mila aginduen ondoren, ba al dago alerik ere tente?

–Gutxitxo zegok, egia. Baina beste eragozpenik ere izango duk. Mezuak Morse alfabetoz izkiriaturik jasoko ditugula guk...

–Alajainkoa! Ez diat Morse sistema hori ezagutzen. Eta dagokion tresneria ere ez. Ondo jaioa nago!

–Lasai, Joxemai. Horiek, gogoia izanez gero, berehala *ikaste-ittuk*. Eta hik, gazte gordin horrek, are errazago.

Ez nekien zer esan. Baina ez nuen batere garbi ikusten nik, *derrefentian*, telegrafilari-lanetan ongi moldatzea.

–Hemen daukak –esan zidan horretan osaba Felipek, orrialde bakarreko paper bat eskuetarutzen zidalarik–. Hemen dauzkak sinboloak. Ez duk batere zaila, motel! Segituan ikasiko dituk!

–Nahi bai...

Hantxe neukan zerrenda amorragarria neure begien aurrean:

A: puntu / marra.

B: marra / puntu / puntu / puntu.

C: marra / puntu / marra / puntu. Etab.

Baita alderantzizko zerrenda ere, ikasten zailagoa omen:

puntu / marra: A.

marra / puntu / puntu / puntu: B.

marra / puntu / marra / puntu: C.

Hura zorabioa!

“Noiz menderatuko ote nik saltsa hori?”, neure artean.

—Gaur badakik —osabak niri—. Etxera joan; eta Putzu kalera, Plaza Berriko arkupeetara, edo Kamingaintxoko igerilarietara hurbildu beharrean, “Morse” apurtxo bat egin ezak; eta gero ohera. Eta bihar beste apurtxo bat marra eta puntuekin. Eta berehala, txapeldun! Eta hori ere... egun gutxitan barrena.

“Lantokia ez duk Donostian izango. Honetaz, gutxienez... egon hadi etsita...”

“Ez baitakit noiz deituko hauten egunkariaren ofizinetara, lanean bertan hasteko...”

—Saiatu egingo naiz behintzat. Hori bai.

—Bigarren lan mota bat ere proposatuko ditek. Kanpoko frantsesdun puntuzkoren bat gugana etortzean (edo kazetariren bat, besterik gabe), hik egingo diok harrera. Hik lagunduko duk hona eta hara, hik erakutsiko dizkiok erakustekoak.

“Eta frantsesez ez dakitenekiko, hik egingo duk itzul-tzailearena; eta eskatuko dituzten azalpenak herorrek emango dizkiek... *Cette fois-ci, tu vas te mettre à jour en français!*”

–Ez dakit ba zer esan, osaba. Moldatuko al naiz?

–Moldatuko ez haiz bada? Noski!

Goitik behera eta behetik gora miatu ditut Morse-ikur ilara haiek. Eta luzeegi iruditu zaizkit.

–Baneukaan beste zerbait hiri kontatzeko –erantsi du orduan osaba Felipek–. Baina betekadak ez dituk onak izaten; eta biharko utziko diat.

“Bihar, bai. Hator hona ordu berean, eta azalduko diat.



## VIII

Enarak aldratan txioka ari esnatu naiz gaur.

Betetasun zantzu hunkigarria beti enara goiztarrena.

Egun bikaina heldu.

Giroa ere epela zegoen; eta zeruaren urdina, aratz, orbangabe.

Eta jaiki orduko, gaueko tema errepikakorrari nolabait erantzun nahiz, osabak eskainitako alfabeto berria eta kidetza bedeinkatuen ilara hartu dut eskuetan, eta pareak bilatzen hasi:

p = puntu / marra / marra / puntu.

u = puntu / puntu / marra.

t = marra.

z = marra / marra / puntu / puntu.

u = puntu / puntu / marra.

Bospasei aldiz irakurri dut hitza; eta gero, ez dakit zenbatetan, neronen izena Morsez izkiriatu.

Hori bederen buruz jakin behar! Ez da hala?

“Joshemari” hitza ere ikasten saiatu naiz apur batez. Eta “Donostiya” hitza. Eta segidan, isil-isilik, barne-zirratxo batez, “Vishenta” nola eman begiratu dut.

Gero gosaritara, eta osabagana abiatu.

Sototik irtenda, eta guk ohiturari jarraituz “Plaza Zaharra” deitzen dugunetik (nahiz aspaldiko plazakorik ezer ez egon, “Comercio”eneko arkupeak besterik) eta “Putzu kale” berrituan barrena (gaur egun “bulebar” delakoan gosaldua zehazkiago), gure denda aldera zetozen Pello eta Jerbasiyo lagunak.

Agurtu egin ditut, eta eskuinera joz Esnategi kalean gora abiatu naiz; Urgull aldera, alegia. Eta San Bizente eliz atari pareko “Korreopia” sagardotegiraino joan naiz, Ikatz kaleko izkinan.

Beronen gaineko horman zulatutako posta-kutxak lagun gutxi daukala erreparatu dut, eta neska gazterik bat ere ez... Gaizki ez banago.

San Telmo kalean eskuinera jo dut, Urumearantz.

Eta azken hurreneko sotoan (San Telmo 4an, alegia), lehenengo solairura igotzekotan nengoelarik, osabarekin egin dut topo:

–Egun on, osaba Felipe!

–Hara! Hemen al hago dagoeneko?

Hamaikak laurden gutxi markatzen zuen San Bizenteko erlojuak.

–Egun on zuri ere! –agurtu du orduan osabak aurreko espaloitik zihoan bere adineko gizon bat–. Zer? Bizi al gara?

Ohiko galdera arinak egin dizkio segidan, eta gu biok gorantz abiatu gara.

Gelan sartu. Eta bere mahaiaren gainean, “El Diario de San Sebastián” egunkari giri-zalea aurkitu dut, agerian.

–Ez duk hau, ez –esan dit eztenka nahian– batere gure aldekoa! Bazekiat. Eta nire gustukoa ere ez... Baina *Donostiya* honetan, gaur zer erosiko? Egunkari bakarra duk

hemen. Aukerarik ez guretzat... Eta, nolanahi ere –erantsi du– ale hori ez duk gaurkoa.

–Ez, ez; joan den igandekoa dela ikusten ari naiz.

–Hik ez duk hau normalean letzen, ezta?

–Ez, ez.

–Nahi duk gaurkoa ere bilatzea?

–Ez, ez, osaba. *Eztu baliyo*. Nondik nora doazen jakiteko, aski dut ale hau.

Eta irakurtzeari ekin diot. Orrialdearen gainaldean, letra larritan, hau ikus zitekeen: “*Diario de San Sebastián // Periódico de noticias // 15 de Junio de 1873; Domingo*”.

Eta aurreraxeago, eguneko berri nagusia: “Ha sido elegido Presidente Salmerón”.

–Ederto! –nik neure kolkorako–. Eta guri zer?

Endarlatsako kaltetuen aldeko zerrenda gero, oraindik zabalik. Santakrutzen etsai guztiek eskatu eta nahi bezala.

Osaba isilik niri begira.

–Hauek ere ez dira aise ari –nik esan–. Entzun hau, osaba: “Hoy no se ha recibido correo de Madrid; no sabemos si ha sido a causa de un descarrilamiento en Nanclares, o por haber sido cortada la vía”. Aitortu egiten dute behintzat beren ezina! Hau irakurrita, zer ote diote donostiar jauntxo liberalek?

–Azkenetan gaudela sinesteari eusten ziotek, eta kitto.

–Baina egunero dituzte ia-ia berri berberak. Nola ezkuta dezakete hori? “Giriek” ezin dute-ta Gipuzkoan ezer ere egin.

“Eta beste hau? –ni ia-ia garrasika ari– “Incidente en el muelle, a las dos de la mañana, entre los carabineros de servicio y 3 individuos armados”. Bazenekien hau, osaba? Nik neuk behintzat ez nekien ezer. Eta entzun ere, ezer ez nuen entzun. Putzu kaletik kaia... urrunsko!

–Kai aldean zerbait gertatua zela banekien. “Voluntarios de la Libertad” delakoak, oso harro ari dituk.

–Zertaz harro? –nik galde-. Harro edo umil, hau guztia aitortu beharrea badaude...

–Hori *egiya dek*. Baina gauza bat izan duk penagarria kaiko tirokaldian: txokearen ondorioz, iskilu pila bat eman behar izan diotela gutarrek Ramón Fernández Garaialde donostiar Alkate sasi-poeta ustelari.

Baina handik pixka batera, berriro irakurketak ukiturik, eta oraingoan zuzen-zuzenean, oihuka hasi nintzaion:

–Et, et, osaba! Entzun beste hau arretaz, arren: “Ayer fueron rotos por una partida carlista, los postes y los hilos telegráficos desde Gainchurisqueta hasta cerca de Rentería”. Nola osatuko dugu geure egunkaria, osaba? Lanak izango ditugu. Nik neuk behintzat koloka sumatzen dut neure lana...

–Lasai, Joxemai. Lasai!

–Eta non argitaratzen da “Diario” hau? –galdetu nion.

–Ez dakik, ala?

–Donostian agertzen dena bai. Baina besterik?

–Ba, hortxe, Plaza Berrian, Juan Osésen moldiztegi-liburutegian. Hau seguru ezagutzen duk. Ez da hala?

–Ez.

–Zoko horretantxe egon zuan urte askotan Escala Kafea, Motako Gazteluko soldaduek hain maiz bisitatua... Txokolate beroa katiluan zerbitzatzten zitean; paper finetan bildutako eskonfa txuri harro galant bat, batera; eta pitxar bat ur, fresko-freskoa. Eta dena erreal batean... Merkea, ezta?

–Bai, bai. Hori bai.

–Bada, Escala Kafe hark sartzea bazeukaan ikatz kaletik ere. Ez haiz gogoratzen? Plaza Berriko zazpian, mo-

tel, Esnategi kaletik sartu, eta 1 arkupeko lehenengoa eskubi aldean. Orain dela oso gutxi arte egon duk ba hortxe.

–*Ezez-pa*, osaba. Horren gutxi, ziur ezetz. Ez dudalarik “Escala” delako hori martxan ezagutu. Zu baino dextente gazteagoa naiz, barka atrebentzia...! Eta ez diot antzik ere ematen. Benetan.

–Hau lana, motel! Eta Osésen liburudenda bai?

–Hori bai. Jakina.

–Tira, bada! Biok ezagutzen dugun zerbait bazegok amankomunean! Ba, hortxe *egote-ek* salgai “Diario” hau, baita “kolore” bereko liburuak eta aldizkariak ere... “Aurrera” liberala ere, hortxe saldu izan duk Amadeo etorri baino lehenago.

–Horrexegatik baharbada, ez naiz sekula denda horretan sartu.

–Hain zuzen ere, ezagutu al duk arestian agurtu dudanjauna?

–Ez, ez.

–Bada agurtu dudanjaun hori, egunkari horrexen zuzendariaren osaba propioa duk. Don Jose Manterola gaztearen osaba, “Don Peperen” osaba.

–Don Bizente famatuaren anaia edo?

–Ez, ez! –berak irribarrez–. Amaren aldetik Don Peperen osaba. Sarasola duk hau, deituraz. Don Bizentek ez dik anaiarik. Donostiako kalonje famatua, Castelarri Gorreetan erantuna eman ziona, eta abar, Ikatz kalekoa duk. Eta Donibane Lohitzunen bizi duk gaur, Frantzian.

“Don Bizente hau, beraz, zuek biok baino askoz ere zaharragoa duk, berrogei bat urtekoa gaur, eta Don Tirso Olazabal irundar aberatsaren ondo-ondoan ari duk...”

–Ari duk lanean... ari da “konspiratzen” –nik.

–Don Carlosen alde borroka egitea ez duk “konspiratzea”, Joxemai. Kontuz! Hizkera hori beltzengandik ikasitakoa duk.

“Nahi baduk, beraz, Don Carlos erregerekin harreman estuan ari duk. Hori bai.

“Don Pepe Manterola, alderantziz, orain agurtu dudan jaun horren iloba dena, liberala duk. Hire etxeko izkinan bertan bizi duk, Esnategi kaleko batean... Eta hire adinekoa duk gutxi gorabehera, eta... ez duk apaiza! Beraz, ez esan ezagutzen ez duanik...

–Ikustez agian. Donostiako jende gutxi ezagutzen dut nik. Zuek, apaizok, izugarriak zarete! Baduzue denen berrri, eta sarrera erraza etxe guztietan... Guk, berriz, ez. Nik pentsu-dendara etortzen diren baserritarrak *ezagutze-ittut*, eta arrantzale batzuk. Eta kitto.

“San Telmo kaleko jendea, eta Apaiz kalekoa (Puyuelokoa hobeki esanda, omen...), eta Plaza Berriko asko, lehenengo pisuetakoak batez ere, gurutzatu egiten ditut batzuetan. Eta nor diren jakiten ere bai. (Berek ni ez, noski!). Zuek, apaizak zaretelako, maila eta “gradu” guztietako jendea tratatzen duzue. Guk ez. Guk bertako handikiak (eta Donostian ez dira hauek eskas) “ikustez” ezagutzen ditugu agian. Tratua, berriz... beren artean egiten dute.

–Bego hori. Arrazoi pixka bat baduk. Baina zergatik ezagutzen dut nik Don Bizente? Biok parrokia bereko apaizak garelako. Aita Aristizabal ere, Antiguako eliza zaharreko nagusia, erabat “beltzen” aldekoa, horregatik *ezagutze-iat*. Parrokia berekoak gaituk. Besterik ez

“Ni ere koskeroa nauk... Hi ere bai, Joxemai! *Etzak ahaztu!* Erakutsi egingo diat hurrengoan Manterola libera-la zein den. Oso euskaltzalea duk, eta euskal kontuetan

oso-oso ikasia. Askotan gertatzen ez dena, hau egia duk...!  
Baina foruzalea ere baduk.

–Eta nola esplikatzen da nahaste-borraste hori?

–Heuk konprenituko duk hori urteetan barrena... *agiy-yan!* Isil nadin! “Giri” guztiak ez dituk berdinak.

–Eta gure aldekoak ere ez! –nik garraxko.

–Joxemai, Joxemai! Kontuz!

Eta, gure arteko hizketa-haria errotik etenez:

–Eta Morse-letra horiek, zer moduz? Begiralditxo bat bederen eman al diek?

–Bai, bai. Zerbaitxo ikasi ere bai.

–Bada nik besterik zeukaat gaur hemen hiretzat. Begira ezak hau.

Eta gutun eta paper mordoska batetik bat hautatu, eta eman egin dit eskuetara:

–To! Hasteko letu ezak hau oraintxe. Eta gero hitz egingo diagu.

Hartu dut; eta orriaren buruan, azpimarraturik, hau irakurri: “*Convenio del Ferrocarril // 14 de Junio de 1873*”.

–Berri-berria da, hortaz? –galdetu diot.

–Bai, horixe! Joan den larunbatean *firmatu-ittek*, orain dela hiru egun. Frexko-frexkoa! Oraintxe hasiko duk bazterretan zabaltzen eta ezagutarazten. Letu ezak, bai, lasai. Ez duk luzea. Zortzi puntu besterik ez dik. Baina zortzi puntu mamitsu.

Izenpetzaileen izenak begiratu ditut hasteko.

Don Tomás Ibarrola ageri zen, batetik, “Administrador y Presidente de la Compañía del Ferrocarril del Norte de España”. Eta, bestetik, Carlos VII erregeren izenean, Don Guillermo Estrada izeneko bat.

Banekien nik, nola ez, Madriletikako trenak nekez ibiltzen zirela aspaldisko hartan Gipuzkoan barrena; eta

inkontruak eta istiluak maiz zirela gertatuak, odola ere isurtzeraino.

Akordioaren helburua sumagarria zen, beraz, eta garbi agertzen zen Itunean: “Mirandatik Irunaino (eta bestaldera, jakina) trenen igarotzea segurantziaz burutuko zela bermatzea”.

Famak zioenez, Santakruz apaiza hasi zen trenei erasotzen iaz (“ez trenik eta ez telegraforik etsaiaren esku”, esan ohi zuen Hernialdeko erretoreak).

Baina trenen zirkulazioa oztopatzea, karlista aginte osoaren helburua izan zen hasieratik. Ez “Apaizarena” ba-karrik.

Ekainaren 14ko Itun bitxi eta berri-berri hartan, garbi agertzen zen kezka nagusi hori:

“Art. 1 - La Compañía del Norte de España se obliga a no transportar en ningún sentido, sobre esta parte de su trayecto, ni tropas republicanas, ni material de guerra o municiones”.

Txunditu egin ninduen honek, benetan. Madrileko Gobernu mota ofiziala, Errepublikak baitzen otsailaren 11z gerroztik.

Hots, gualoste *errepublikarren* igarotzea debekatzen zen espreski...

“Art. 2 - La Compañía se obliga a hacer activas diligencias cerca del Gobierno de Madrid a fin de obtener la retirada de las tropas que ocupan la vía, y la demolición de las fortificaciones que se han levantado”...

Tropak burnibidean bertan ez egotekotan, trenak ezin Araba eta Gipuzkoa gurutzatu...

“Art. 3 - La Compañía remitirá a los agentes carlistas el cuadro de marcha de los trenes”...

Horretan eten egin nuen irakurketa:



–Baina –nik osabari galdetu– nola onartu du horrelakorik Madrileko gobernuak?

–Segi, segi bukaeraraino...

“Art. 6... Art. 7... Art. 8 - Mediante estas condiciones, las fuerzas carlistas respetarán a los empleados de la Compañía, los trenes, la vía, los edificios, los trabajos, el material fijo y móvil”...

Sinets ezina zitzaidan erabat.

... “en fin los aparatos e hilos telegráficos”... (“Hau niri zegokidak”, neure artean)

–Zer iruditu zaik, Joxemai? –galdetu zidan osabak.

–Harrigarria, osaba. Txundigarria.

–“Beltzek” *izkutatu egite-ittek* gertatzen ari dena. Baina egia hauxe duk: Euskal Herrian jadanik gu nagusi gaudela! Ez ditek irabazi, eta irabaziko ere ez.

Orduan mahai gaineko paperetara itzuli zen, eta hila-bete lehenago sinatutako beste izkribu hau hautatuz (Amadeo Erregea erori aurrekoxea), hauxe irakurri zidan:

*“Dios, Patria, Rey — Comandancia General de Guipúzcoa.*

*Como Comandante general de esta Provincia, nombrado por S.M. Carlos VII de Borbón y Austria-Este (q.D. g.), teniendo que emprender un movimiento general que libre a España de la esclavitud en que la tiene un extranjero, hijo del carcelero del Papa, del inmortal Pío IX”...*

–Azaldu egingo diat, enkas –esan zidan– izkribu hau Amadeo atzerritarraz mintzo dela hor; oraindik ere beste hilabete batez Madrileko tronuan egotekoa...

Eta irakurketari jarraitu zion:

*“Considerando que la circulación de los trenes y comunicaciones telegráficas son el arma más poderosa con*

*que un ateo cuenta, he creído conveniente ordenar lo siguiente:*

*Art. 1: A las seis horas de recibir esta mi comunicación, deberán quedar desocupadas y cerradas todas las dependencias de la vía que están a su cargo.*

*Art. 2: Pasadas las seis horas serán hostilizados todos los maquinistas que conduzcan trenes, y fusilados todos los empleados que sean aprehendidos en el servicio de la vía férrea, previa identificación de sus personas, convicción de la falta de cumplimiento a esta mi orden, y después de recibir los auxilios espirituales.*

*Art. 3: Transcurridas las seis horas, principiará el deterioro de la vía, cuya indemnización jamás podrá tener la empresa derecho a reclamar.*

*El que sea católico español ante todo, obedezca mis órdenes, si es que ama a su patria y no desea sumergir en llanto y luto a su familia y a la de sus descendientes.*

*Lo que comunico a usted para su conocimiento y demás exacto cumplimiento.*

*Dios guarde a usted muchos años. El brigadier comandante general de la provincia*

*Antonio Lizárraga Esquíroz*

*Desde el Campo del Honor, a 6 de Enero de 1873”.*

–Borroka-mota horiek, beraz, “Apaizak” erakutsi zizkigula-ta, ipuinak dituk.

–Santakrutz apaiza kupidagabea dela entzun izan dut hamaika aldiz –esan nion orduan– baina Lizarraga “beatoa” ere, ez da askoz leunagoa...!

–Noski! Bando hori, gainera, fetxari ongi erreparatzen badiok, orain dela bost hilabatekoa duk, Endarlatsa baino lehenagokoa. Hemen gerra zegok, eta gogorkeria bi alde-

tatik. Horretaz ondo jabetu arte, ez zegok ezer konprenit-zerik. Santakruz hasi baino lehenago ere, bagenekian.

“Eta beste gauza bat gainera: sarraskiak eta hilketak, “girik” hasi zituztela orain dela berrogei urte Zumalakarregiren garaian. Hau guztia ez duk gaurko kontua.

“Gure beldurra, nolanahi ere –argitu nahi izan zuen– eta Lizarraga jeneralarena bereziki, hauxe duk: Santakruz apaizak ez duela akordio hori errespetatuko. Orain arte bezala, bere kasa eramango duela borroka.

“Eta hori *eztek posible*. Hilabete eta urte gogorak zeto-  
zok; eta elkar hartuta jokatu behar diagu inoiz baino tin-  
koago.

–Horretan ni ere bat nator.

–Hik ba al dakik, Joxemai, orain dela hiru hilabete, adibidez, Ikaztegietan zer gertatu zen?

–Bada... egia esan...

–Egia esan –osabak brauki moztuz–, ez dakik.

–Zerbait *aittu det*, bai. Ikaztegietako hilketa hori ere Santakrutzi leporatzen zaiola-ta...

–Hori duk. Hitz gutxitan azalduko diat.

“Joan den martxoaren 14an bazetorreen Madril-Irun “expresoa” Irun aldera. Eta, bertako tunelerakoan, 591 ki-  
lometroan, tuneletik irten eta zubia hartzerakoan, burnibi-  
dea erauzia zegoela erreparatu dik makinistak.

“Gureak egin dik, pentsatu dik segurki. Frenatzeko berantegi, ordea. Eta hantxe joan duk trenea hankaz gora, ibairaino hamaika puskatan, bertan behera bai makinistak eta bai bi frenuzale laguntzailek bizia galdu zutelarik. Nor ote ekintza asto horren buruzagia? Asma ezak!

–Santakruz –nik.

–Bera, bai! Santakrutzen gizonen ekintza izan duk hori.

“Eta inkontrua ez duk horretan amaitu. Bidaiariak, batzuk zauriturik, beste batzuk gogorki kolpaturik, ahal bezala irten dituk bagoietatik, gertatzen zitzaiena ezin ondo konpreniturik.

“Hots, Santakrutzek orduan, zubiaz bestaldetik tirokaldi latza hasi dik, eroturik hona eta hara ari ziren bidaiari gizajoen kontra...

–Eta?

–Euskal Herria gurutzatu behar duten tren guztiek, hau ere badakik noski, zaindaritza armatu berezia *eramate-ittek* aspaldisko honetan. Eta Ikaztegietako tren hark ere bazeramaan berea: 23 karabinero, zehazki.

“Hauek, fusilen puntetan baionetak jarrita, eta triskantza mendekatzera deliberaturik, Santakrutzen gerrillarien bila abiatu dituk zartatutako zubiaren hondakinen inguruko mazeletan gora.

“Gudukaldia luzatzen hasten zela-ta, beste tren batean, eta Tolosatik oraingoan, bidalitako errefortzu liberalak iritsi dituk. Eta Santakrutz desagertu egin duk orduan mendian; beste askotan bezala, oinazea eta garrasiak bertan utzita.

Gerrako xehetasunak horretara ezagututa, zurtuta nengo. Jakinda ere, ez nekien. Gerraren doilorkeriak izutzen ninduen. Ez Santakrutzenak bereziki.

–Zer iruditzen zaik? –galdetu dit orduan osabak.

–Ba... barka ezazu, osaba. Gauza horiek ez zaizkit baxterere gustatzen. Jakina. Berari ere ez, seguru asko. Eta hona etorri den ejertzitoak, ez digu beste biderik uzten. Eta Santakrutzek hori osoki ulertu du. Eta, azken buru, barruko zerbaitek apaiz gerrillaria... konprenitzera bultzatzen nau.

–Baina, baina... nola esan dezakek hik horrelakorik? Astakeria horiek “konprenitu”? Faborez, Joxemai!

–Eta Lizarragarenak bai ala? Oraintxe ikusi dugu Lizarraga, askotan errosarioa errezatzen eta errezarazten duen gizona, ez dela aingerutxo errukior bat. *Alajaiñetan!*

–Ez suk gauza bera. Lizarragari Don Carlosek eman zioz aginpidea. Santakrutzi, nork? Santakrutzek ez zekik talde-lana eta diziiplina zer diren. Nor da bera, Don Manuel, horrelako hilketak eta triskantzak bere buruz erabakitzeko eta agintzeko?

“Batailak ikusten ditik Santakrutzek, baina gerra ez. Euskal Herria dik bere gogoan gehienez; baina Espainia eta Eliza-Ama ez. Xirikitu batetik *ikuste-izkik* gauzak, eta ez beren osotasunean.

Osabaren ahots-doinua gora zihoan; bera sekula eza-gutu ez nion haserre bizian sartzen zelarik.

–*Eztakit-pa*, osaba. Baina Santakruz, bere astakeriak eta guzti, barkagarri gertatzen zait... maitagarri ere bai, agian...

–Enee, enee, Joxemai! Mesedez! Jainkoak barkatuko ahal hau! Nola pentsa dezakek horrelakorik? Jesus, Maria eta Jose!

–Santakruz etxekoa da, osaba... Etxekoa!

–Eta Lizarraga ez ala? Faborez! Lizarraga iruinxemea duk, ausarta ausartik bada, pertsona ona, elizkoia, kristau ezin hobea. Don Carlos aitonaren zerbitzutan 1833an ibili ondoren, orain berriro, berrogei urte beranduago eta zahar-rago, Don Carlos bilobaren zerbitzari leial hutsezin. Euskaraz ere polito ikasi duen nafar jatorra duk gainera. Besterik zer behar du, hortaz, “etxekoa” izateko?

–Ez nekien, osaba, Lizarragak euskaraz dakienik.

–Ba orain badakik!

–Baina arazoa ez da, azkenean, Lizarraga jenerala; bere ondoan dauden ojalateroak baizik. Hauek beleak di-

ra; erroitzar beltzak, hobe. Eta, zoritxarrez, hauexek *agintze-ute*. Ez Don Antoniok.

–Nola dakik hik hori?

–Sumatu egiten dut.

–Sumatu...? Jakin egin beharra zegok! Hik ba al dakik, esate baterako, gaur goizean zabaldu denez, Trenaren Akordioa dagoeneko Santakrutzek hautsi duela?

–Ez.

–Ba Beasaingo estazioa erre dik. Horra!

–Egia esan, Trenaren Akordio hori ez du Santakrutzek izenpetu.

Hots, zainak lehertzekotan, isilune bat utzi du osabak bere baitatik aterea zela ez erakusteko:

–Honetaraz gero, Joxemai, zuhurrena hau izango duk: gure artean Santakrutz buruz ez hitz egitea. Gainera gure buruzagia Karlos Setimo duk. Ala ez?

–Bai, bai. Jakina.

–Kontatu behar ez niakeen xehetasun bat emango diat, dena dela. Eta agian ez zaidak damutuko...

“Isidro Ortiz de Urruelaren bidez lortu omen zuan akordio hori gaur jasaten dugun gerla honen hasieran...

–Ez dut ezer esango, ez.

–Santakrutzekin lehendabizi, orain dela aste batzuk, mintzatu ondoren, Lizarraga jeneralarekin elkartu duk, eta tratu bat egin, omen.

–Tratu bat?

–Tratu isil bat, bai, apaizaren geroaz. Beste askok onartuko ez lukeen bitartekari-lan arriskutsua onartu dik Lizarragak. Eta, baserritar jantzita, Bidasoa gurutzatu dik. Eta Donibane Lohitzune inguruan elkartu duk Don Isidroekin.

Dar-dar aditzen nituen azalpen haiek.

–Areago. Muga segurkiago igarotzeko, Don Isidroren beraren bi alabatxo gaxteei heldu ziek eskutik Espainiako aldean. Isabel koxkorrena, eta Concha haurrena. Eta, horretara, aita prestu baten itxuran, Behobiako zubia gurutzatatu ditek hirurek, bertako zaindaria osoki nahasiz, eta Donibaneraino inguratuz.

–Eta zer proposatu dio Don Isidrok Lizarragari?

–Hori ez zekiat, Joxemari.

Lizarraga bera ere... isilpean!

–Istilu hau, gainera –erantsi du osaba Felipek– aurki konponduko duk. Beraz, utz dezagun hau alde batera. Denborak erakutsiko dik hiri (eta beste askori) Santakrutz zer den, eta karlismoarentzat nolako deskalabrua izan den gizon hori. Eta nolako bidea aurkitu behar izan den bere inguruko arazoa konpontzeko.

Ez du beste azalpenik eman. Eta ni harra barruan gelditu naiz: zer ote da “konponbide” hori?

Osabak begiralditxo bat eman du San Bizente elizaurreko zabalunetxora, eta lehengo hariari heldu dio:

–Nolanahi ere, hi prest egon hadi. Aurki *etorriko-ittuk* hire bila Don Carlosen gizonak, eta esandako telegrafistalana *proposatuko-ittek* zehazkiago. Zita bat, eta abar. Prest al hago oraindik? Ala irizpidez aldatu haiz?

Osaba oso kezkatuta antzeman dut.

–Lasai, osaba. Eztabaidan ni bixi agertu banatzaizu ere, ez dudarik izan. Hitza eman nizun. Eta euskal esaera zaharraren bidetik jokatuko dut: “Hitza hitz”. Agindutakoari eutsiko diot!

“Esaidazu nora joan behar dudan, eta noiz. Eta hantxe izango nauzue.

–Pozten nauk, Joxemai. Hauxe espero nian higandik.

## IX

Dendara jaistean kartazal horixka bat eman dit Mar-txel anaiak. Barruan bilduta zetorren paper muturrean, are horixkago eta zatarragoa, eskuz izkiriaturik, hauxe irakurri dut hitzez hitz: *“Kaisho, Putzu: // Hoy a las diez de la mañana, es decir, dentro de un rato, estaré esperándote en la estación de Tolosa. Intenté darte anoche este mensaje por otro medio. Pero hice kale. No lles nada contigo. Guero arte // Chomin”*.

Zausk egin dit barrenak: “oraintxe bertan joan behar, hortaz? Aspertu ere egin nauk zortzi-hamar egun honetan zain. Eta orain, derrepente, korrika eta muturka”.

–Eta ez al du besterik ezer esan?

–Ezer ez. Kartazal hori utzi, eta joan egin duk. Lehengo egunean etorri zen gazte berbera zuan. Ez diat uste donostiarra denik.

“Zer esan behar diet nik orain etxekoei? Agurtu ere gabe aldegingo? Dirurik ez zeukaat neure gainean... eta gelan ere ez... Ezer ez hartzeko igoko al naiz...? Eta... Bi-xenta...? Agurtu ere gabe joan beharko?”



Igo egin naiz hirugarren pisura; eta arnasestuka eta marmarrean neure gelan sartu:

–*Aluba...! Aluba...!! Kakazarra...!!!*

Ama ez zegoen etxen, eta arreba ere ez. Aita dendan zegoenez, bera eta anaia neuzkan bakarrik agur esateko moduan:

–Atsekabe gaitza emango diok amari –ni neure burua-rekin mintzo– baina oraintxe joan behar duk. Beste auke-rarik ez zaik gelditzen.

Urgulldikako korneta hots zorrotzak berriro heltzen ziren niganaino Donostiako teilatuen gainetik.

Ezustean, neure gela utzi beharrak hunkitu nau; eta nigan zerbait urratzen zela erreparatu dut.

Leihotik begiratu, eta neure Putzu kale zarpailduari (“zarpaildua” baino okerrago, ederturik agertu arren; gihargabetuta baitago zalantzarik gabe) agur esan diot isi-lean. Baina barne ximiko batez ere bai. Ezker aldeko mi-radore bikunean, inor ez begira; ezta Xotera anderea ere, hainbestetan hantxe, kuxkuxero, ikus-min.

Eskoletako Plazatxorainoko balkoi, miradore eta lei-hoetan ere, inortxo ere ez. Etxaurre osoa hutsik. Espal-loian zakur galduren bat, zabor piloetan bilaketa alferre-tan ari...

San Martin auzoko etxeen gainetik, berriz, urrunean, Aldapetan behera, dilijentzia zaratatsu bat zetorren.

–Gaurkoa ere egun bikaina izango Donostian –neure-kiko.

Neure ohea erreparatu dut orduan, Martxelenarekiko ukituan...

Aurrerantzean, eta betiko agian, anaia gabe ez dakit zein bazterretan lo egin behar izatea, bitxi gertatuko zi-tzaidala pentsatu dut.

23 urtez neure eldarnio eta ezkutukien gordeleku izandako txokoari, agur.

Parean zintzilikaturik, familiako boston fotoa berraurkitu dut lipar batez: Plaza Berriko Diego Campiónek 1869 aldean egina... Haserre antzean ageri da bertan Martxel; ni neu, serio oso; Kaxilda, berriz, irribarrez; eta aita eta ama, biak, gutaz harro nik uste, zutik gure atzean, gu hiru anai-arreboi begira.

“Ez duk mementoa gogoeta horietarako!”, moztu dut brauki. Eta poltsikoan sartu dut Morse alfabetoaren zerrrenda-kartoitxo. Eta dendara abiatu.

–Beste modu batera esan nahi nizuekeen zuei hau guztia joan baino lehenago –esan diot aitari urduri samar–. Baina goian ez dago nehor. Eta, zoritxarrez, oraintxe joan behar dudala esan didate. Emaiezu besarkada bana amari eta Kaxildari... eta... kitto! Martxeli oraintxe esango diot buruz buru esatekoa.

–Baina... oraintxe... baina, nora hoa, ba?

–Ez egin harrituarena, aita. Lehengoan nahiko garbi konpreniarazi nizuen, nik uste, Partidara noala *mutillakiñ*, Lizarragaren aginduetara.

–Ez diguk sekula horrelakorik esan, Joxemai.

–Esan, eta hitz horiexekin, beharbada ez. Baina adierazi, bai, eta askotan. Besarkada bana eman amari eta arrebari. Nire berri izango duzue. Joan egingo naiz, beraz, besterik gabe. *Ariyo*, aita!

Aitagana hurbildu naiz horretan; eta berak oso-oso esatu besarkatu nau, eta oso-oso luze. Askatu nahi ez banindu bezala. Eta ez zidala hitzik batere esaten erreparatu dut.

–Amak kolpe latza hartuko dik, seme. Konturatzen haiz behintzat? Ez duk besarkada bat emateko ere aukerarik izango? Hik ez dakik ama horrela uztea zer den.

–Bai, aita... Baietz uste dut. Baina gauzak honetara gertatu dira. Eta ezin!

Martxel anaia besarkatu dut orduan espanturik gabe dendako atarian:

–Suerte ona izan, Joxemai –esan dit–. Berriro elkartuko gaituk aurki.

–Baldinba! Hori espero diat!

Eta eztarrian oinaze bitxi bat hasten zitzaidalarik, es-tazio aldera jo dut.

Asaldatuta nindoan. Aztoratuta.

Arrobigaineko dorre zaharra begiratu dut, eta farola berria mazelaren erditsuan; eta Mendizorrotz eta Arratzain atzerago. Urumea gainetik, hegaz jira-bueltaka ari ziren antxeten karraka errepikakorrek lasaitasun apur bat eman didate.

Ategorrieta aldetik heldu zen trenaren txistukada zorrotz etsiak, eta bagoien tankateko zakarrek, errealitatera erakarri naute. Eta Norteko burdinazko barrukia azkarki betetzen zuen ikatz-ke usain sarkorrak, eztul eragin.

–Banoa ni Donostiatik...

Abiatu gara. Urumearen gaineko zubia eta segituan Loiolako tunela igarotzean, hau dela eta bestea dela, Bixentari azkenean bisitaldi berezirik egin gabe nindoala konturatu naiz... muxu leunik batere eman gabe... Are okerrago: agindutakoaren kontra, “Joakiñene”ra bereziki azaldu eta kasurik egin gabe!

–Nola izan da posible ezin agurtu izana?

Trena tabernaren ondotik pasatzean, atarian inor ez zela ageri ikusi dut. Bertako atea zabalik zegoela, hori

bai. Baina “bera” ikusi... ezin. Barruan agian? Barkatuko ahal dit, behintzat! Bat-batean aldegin behar hark, gero eta min handiagoa ematen zidan eztarrian.

Uda-giro bare eta argitsu hartan, liluragarri zeuden Urumea ibarreko inguru baketsuak... ertzeko ikuzleak zalapartan lixiba jotzen, eta belazeak lorez mukurru.

Ilunabarrik gabeko eguna eskatzen zuen hark.

Hernani utzi dugu atzean, Urnieta gero, eta Andoain biak, eta Villabona.

Eta horretan estazio zabalago batera iritsi gara. Teila-tuaren gainean, halako burdinazko hesi tankerako zerbait erreparatu dut, eta lau ttonttor izkinetan. Eta estazioko horman, “Tolosa” hitza.

Gauzak kartazal horixkako mezuan iragarri bezala gertatuz gero, hantxe egon behar zuen, nasan nire zain, oraindik ezagutzen ez nuen “Txomin” izenekoak.

–Kaixo! –entzun dut orduan bizkarretik–. Ni nauk Txomin. Ongi egin duk maletarik gabe eta ezer gabe etorrira. Badakik aspaldisko honetan trenak nola dabiltzan; eta esku hutsik etortzia izan duk zuhurrena...

–Euskalduna, beraz? –galdetu diot.

–Noski! Andoaindarra nauk.

–Baina... nola ezagutu nauk?

–Putzu kaleko 6ko hire dendan izana nauk pare bat aldiz.

–Hi hintzen, beraz, dendara azaltzen zena? –galdetu diot.

–Bera. Behin ikusi ere egin hindudan nik, atetik. Baina hik ni ez.

Gizon gazte sendo bat neukan begien aurrean, azalez beltzarana, begiak ilun, bera ere esku hutsik.

–Ta...? zer moduz inguru horietan? –galdetu dit.

–Istiluak maiz, gero eta maizago. Tiroka ere bai lehen-goan kai aldean. Prentsak dena kontatzen ez badu ere. Eta zuek nola Tolosa honetan?

–“Giriek” ez ditek hiriburu hau (“kapital” hau esaten ditek berek), aise galdutzat emango. Eta gu hemen gehiengoa izan arren, lanak izango ditiagu. Bestetik ere indar handia hartzen ari dituk “errepublikazale federalak”; eta, badakianez, Donostiaraino jendea bidaltzeko adina-koa izan ditek.

–Eta gu? Gureak?

–Eraulgoa ederra izan zuan. Hura bai! Han nengoan ni joan den hilean. Geroztik, berriz, zer? Hurrengo garaitzapenaren zain jendea. Gauzak hozitzen ari. Baina gu ez gaituk inoren gustukoak, Putzu; eta oso kontuz ibili behar diagu... Hator orain nirekin. Oinez joango gaituk *harutza*.

–Nora?

–Ez diat xehetasunik emango. “Palaziyora” joango gaituk orain, Tolosan bertan; eta han topatuko ditiagu gainerakoak. Bilera izango diagu gaur. Eta bileraren ondoren, bakoitzak nora eta zer egin behar duen esango zigutek.

Estazioaren aurreko zabalunean, bidaiari zain, dilijentzia maila iristen ez zuen “carruaje” txiki mordoska bat topatu dugu, lauzpabost; eta zaldi mordo bat ere bai, berorien garraiatzaile. Eta zaldi-gorotz usaina, nabarmen. Usain atsegina niretzat, Putzu kaleko usain bera...

Bakar bat zegoen bere gurdi-haga gora, itxuraz bertan gelditzekotan.

Gainerakoak, trenbidetik at gelditu diren herrixka eta auzoetara segidan abiatzeko prest bide zeuden: Hernialde-Alkizara bata, Ibarrara bestea; eta lau zaldirentzako kos-

korrago bat, dilijentzia tamainakoa, “Baños de Betelu”rainokoa.

Abiatu gara oinez geltokitik Tolosako hiri-barnerantz, geure ezkerraldean trenbidea ikusten genuela.

–Gure aurrean ikusten duan mendi zorrotz hori –esan dit orduan Txominek– Uzturre duk. Izan al haiz inoiz ton-tor horretan?

–Bai zera...! Ez, ez. Ni donostiarra nauk. Eta orain arte ez nauk asko mugitu. Aspaldi honetan Frantzian deser-riturik bizi den osaba zaharrari egindako bisitaldietan ez bada... bat ere ez.

“Hara bai. Akize aldean bizi duk aspaldi honetan. Amaren osaba *kuttuna* eta *apaidiña* duk. Tipo gogorra izandakoa, famak dioenez. Orain zaharra duk: hirurogeita bost urte baditik ia-ia. Baina itxuraz laurogeikoa *emate-ik!* Higatua zegok erabat, gastatua...

–Beterano horietakoa, beraz.

–Hori duk. Amarekin joan izan nauk hara gaztetan, eta bi uda oso bertan eman ere bai. Frantsesez jakitea beti interesgarria izan daitekeela-ta... seta hori jarri zaiok bu-ruan aitari... eta joan egin behar... Eta Frantziara...! “Bon-jour, Monsieur... Bonjour, Madame...” Dena arrotz, nik neure burua barne!

–Eta Akize-edo hori non da?

–Akize, Dax duk frantsesez, eta ez duk Baionatik urruti. Hirurogei kilometro eskas.

–Aditzera badiat, bai. Baina izan, inoiz ez.

Konturatu orduko, trenbidearen hegoaldetik Tolosa-rantz hirurehun bat metro egin ondoren, burnibideaz be-heko zelaigunean dagoen jauregitxo horiska batera iritsi gara.

Barrualdetik, indar handiz eta bi ahotsez txukun emana, karlista boluntarioen artean modan jartzen ari zen kanta berri hau entzun zitekeen:

*Borla berdiarekin  
txapela zuriya,  
zaldi gañian dator  
Don Carlos guria...*

–Esana zieat, ordea –esan dit Txominek haserre antzean–, oihuka ez ibiltzeko. Baina alferrik! Tolosa honetan batez ere kontuz ibili behar dugula, Gipuzkoako hiriburua izan zenez geroztik etsai asko dugula; nabarmen-tzea kaltegarria izan daitekeela, eta zuhur jokatzeko. Baina alferrik duk. Kontu horiek... “ollokeriyak” direla *esate-ittek*, eta ozenago eta hobeto, dirudienez.

–Harrotuta?

–Aurki izango gara nagusi, azaldu zieat behin eta berri, bai Tolosan, eta bai Euskal Herri osoan. Eta orduan bai, nahi duzuen guztia esan eta kantatuko duzue. Orduan izango diagu harro ibiltzeko garaia. Oraindik ez... Baina... jai!

Gelditu egin ginen orduan.

–Hortxe daukak, Putzu, “Palaziyo” *deitze-uten* etxea, gaurko gure bilgunea. Konde baten etxea omen duk. Eta gure eskuetan jarri dik. Besterik ez zekiat. Galderak egi-tea, alfer lana!

–Jakina –nik.

Harrizko mailadi baten ganean, hegoaldera begira zeukan ataria, trenbidea jauregiak iparraldean utzita.

Lau leiho eta atari zabal baten aurretik, burdinazko eskudel luze batek inguratzen zuen etxe guzti-guztia; eta lehenengo solairuan ere, burdinazko bost zutabe trinko-

ren ganean pausatua, gain-balkoi gisa, bigarren eskudel luze batek ere egiten zuen jauregitxoaren inguru guztia.

Etxurreko lorategiaren erdian, azkenik, ura etengabe zeriola, harrizko iturri dotore bat topatu dut, lizunak eta goroldio bustiak berdatzen hasia.

–Zoragarria duk jauregi hau... –jaulki zait erraietatik–. Eta ganean barrena xuxmur etengabe hori ari eta ari... Ongi bizi dituk konde hauek. Ez duk uste?

–Hala duk, bai. Baina honen jabea hemengoa izan ez arren (ez baita euskalduna), gure alde zegok osotara; eta arriskuak behintzat hartzen ditik bere etxea guri eskainiaz...

“Baina gu geurera, halere –moztu du Txominek–. Gozemak barrura, lagunak ezagutzera.

Hots, sartzera, eta lur gorrian eserita bospasei mutil mardul topatu orduko, dei-oihu bat iritsi zait zutitu berria zen kapitain batengandik:

–¡A sus órdenes! –nik.

–Putzu!! –berak orduan.

Eta neure sospresa nekez gaintuz, Irazueneko Roke ezagutu dut, Plaza Zaharrekoa. Eta neroni ere modu berean erantzuten saiatu natzaio:

–Iraxu...! edo Roke... edota, hobe, eta barka ezazu, Irazu kapitaina!

–Faborez, Putzu. Ekintza ofizialetan-edo ez bada, niri “Iraxu” esan, edo Roke. Nahi duana. Badakik, beraz.

–Iraxu?

–Iraxu hemendik aurrera.

–Baina hi ere hemen al hago? Eta kapitain graduan, gainera? Zerbait entzuna nian egia esan. Baina kapeluan hiru izar horiek ikustean, ba harridura sentitu diat. Eta errespetua ere bai, jakina!



–Tira, tira, Putzu. Zer ari haiz hi hemen?

–Erraza duk asmatzea. Hik egiten duan gauza bera egiten. Ez hindudan aspaldi honetan *Donostiya* aldean ikusten. Eta orain... kakoa ikusten diat! Hi ere... hemen! Hau poza!

–Gauza bera esaten diat nik ere, Putzu. Orain dela hamabost hilabete egin nian hanka Plaza Zaharra leko gure famili etxetik. Ni ere... *paziyoso* horietakoa nauk!

–Noski! Baina ostatuko zuen bi pisuetan, zer?

–Itxi egin diagu etxe osoa, goitik behera. Eta gure aita bera ere, Frantziara joan duk.

–Eta hi non ibili haiz bolada luze horretan?

–Kontatuko diat, bai. Denbora apur bat izango diagu, nik uste. Etxe honetan egongo garen bitartean *behiñi-pehiñ...* Bada... non ibili naizen? “Giriak” izorratu nahian...! Hamaika lekutan, motel! Iaz, *gomazio* baterako, Beran izan ninduan; Karlos Setimo mugaz alde honetara lehenengoz etorri zen egun hartan harrera egiteko. Egungoangoangarria hura!

–Hala entzun diat, bai. Ikusgarria izan zela.

–“Amorebietako Pakea” bataiatu duten deskalabruaren aurrekoa, zoritxarrez.

Eta ez ondokoa.

Eta zehatz-mehatz azaldu dit goiz historiko hartako gertakaria:

–Maiatzaren bia zuan. Osteguna. Eta bezperan Larrun mendiko mazelan, “Txapa” deritzon baserrian eman zitean gaua Don Carlosek, Manterola kalonjeak eta beste hamar bat buruzagik.

“Egunsentian, segurantziz arrazoiengatik, binaka taldekatuta (bikoteetako bat Bizente Manterola kalonjeak eta

Don Carlosek berak osatua, hain zuzen), Bera aldera –Berá esanda– *abiyatu-ittuk* mendian behera.

“Eta biharamunean, goiztirian, Berako, Altzateko eta Bortziri guztiko eliza eta komentuetako kanpaiak *hasi tuk* indar bereziaz jotzen.

“–Heldu duk, heldu duk –entzun diagu bazterretan.

“–Nor da heldu? –galdetu dik bere leihotik emakume xahar batek.

“–Errege! –erantzun ziok kale-kantoitik agure zaintsu ilezuri batek, makuluei esker tente.

“Soldadu mordo bat azaldu duk aurretik, mila bat omen, Agirre bertako koronelaren manupean.

“Ez beti eta denak iskilu distirantez horniturik. Ez pentsa... Makila soil bat eskutan zetozenak ez baitziren urri, zorigaitzez, nahiz gogotsu den-denak eta borrokarako prest. Armarik ez, ordea!

“Ziatik, Zalaindik, Malaustetik, Illukuetatik, Kauletik, Elzaurdi eta Garaitarretatik, trumilka jaitsi dituk bideetara gizasemeak eta emakumeak, esku-zartaka eta oihuka.

“Malkoak zerizkiela ikusi ditiagu Zazpi Urteetako gerratean borroka latza egindako sentonak, berriro ere odolak zirakielarik, eta txistuek eta dultzainek airea inarros-ten zutela.

“Garaño bizkor baten ganean itziorik agertu duk orduan Karlos Setimo gazte-gaztea, txapel zuri zabala bere urrezko borlaz hornitua. Eskularru argiak besoetan gora, eta txamar eta longain ilunaz jantzirik.

“Ospakizun nagusietan ez bestetan eraman ohi zuen aginte-ezpata ospetsua lotu zian gerrikotik.

“Beste zaldi baten ganean, Erregeri orpoz orpo jarraikiz, Manterola bera zetorreatan, Deputatua, Don Carlosen konfiantzako gizona...

–Manterola hori ezagutu egingo nuke nik, bai –esan dut nik segurantzia handiegiaz– nahiz gizon hori normalean Donostian oso bakanka baizik ez azaldua izan... Bera ere donostiarra duk, gu bezala.

–Bai. Baina ez huke ezagutuko. Ziur. Sermoiren batean edo geroztik ikusi ez baduk, San Bizente gure parrokan edo... Bestela, pentsatu ere ez. Betidaniko koronel zaildu horietakoa ematen dik.

“Berako enparantzara iritsita –jarraitu zuen Iraxuk– bere gradua sentiarazteko nonbait (eta zeukan doinu arrotza ezkutatzeko ere bai, nik uste) bere meneko kapitain bati irakurrarazi zizkiok Don Carlosek, Nafarroara sartzerako prestatutako bi Agiri luzeak. Hementxe zeuzkaagu, hain zuzen ere, “Palaziyoan”.

“Eta eta nahi izanez gero, hortxe dauzkak.

–Bai, bai. Gogoz irakurriko ditiat –nik.

–Paperak begiratu beharrik gabe, hitzez hitz akordatzen nauk oraintxe ere esaldi batzuez:

“¡Españoles! ¡Ya estoy entre vosotros...! Víctimas sois de una minoría audaz, que os ha impuesto el yugo de un extranjero... Yo vengo a salvaros, a devolveros vuestra independencia nacional... ¡Españoles! ¡Venid todos a mí! El Rey os llama a todos sin excepción. ¡Abajo el extranjero! ¡Al rugido del león español huirán espantados los instrumentos de la revolución!”

–Barka, Iraxu: baina nola esan zuen lehoiaren zer hori?

–Ez adarra jo. Kapitaina nauk... Berdintsu duk, Putzu. Horrelako zerbait esan zian, anpurus, harroputz... Eta bukatzeko, honetaz bai ziur nagok: “Desde Otumba hasta Lepanto, por Dios, por la Patria, y por vuestro Rey”.

Eta irribarrez begiratu zidan.

“Nork esan du hortik –nik neure artean hausnarketan–boluntarioen armada zarpail bitxi hori, besteak bezalako-xea denik? Otoi! Kapitain bat mintzo zitzaidan horretara. Hura ez zen beste armada bat. Ez eta ez”.

–Beratar askok, pentsa –jarraitu zuen Iraxuk–, base-  
rrietakoek batez ere, ez zitean hitzaldi hartaz gauza han-  
diegirik konprenitu. Ene uste apalaz behintzat.

“Baina jendea esku-zarta azkengabeen abiatu zuan  
bero-bero.

“Gero letuko duk dena. Lasai...

“Eta hi, zer moduz, Putzu, Donostia aldean? Nola doa  
gure kale berria?

Eta aurpegiaren keinua aldatzen zuelarik:

–Kuttunen bat negarrez utzi al duk hango aldean?

Zerbait erantzun nahi izan diot. Baina ezin hitzik ba-  
tere atera. Harrigarria!

–Barka, Putzu! *Enetxekian* ezer!

Eta neure izua disimulatu nahiz, lehengora aldatu dut  
hizketagaia:

–Putzu kale berriia, “Bulebarra”? Kalea, geza... Gure  
kalea, akabo...

“Bigarren galderari erantzuteko, berriz, bada... gero  
eta istilu gehiago hilabete hauetan. Donostian, liberalak  
beldurrak akabatzen; gu indarrean noiz sartuko zain. Gero  
eta jende gehiago “desagertua” han eta hemen. Ingurueta-  
ko auzoetan batez ere: Egian, Lugaritzen, Aieten... Baina  
kalean bertan ere bai. Toribio ezagutzen al huen?

–Ez, ez.

–Bai, motel. *Toribiyo*, Tomaxenekoa!

–*Enak konturatzen*.

–Bada hori ere, *paziyoso*!

–Baserritar jendea, hala ere, eta oro har, nagusi gure artean.

–Ez beti, baina... bai. Baserritarrak, odola eskaintzen. “Kankailluak”, badakik. Eta gero, gu bezalako kaletar ero batzuek, berei *erantsita*...

Eta etendura bat eginez, eta niri besotik helduz:

–Zer iruditzen zaik, Putzu, lehendabizi etxea hik nirekin ikustea, eta ondoko egunotan lo egingo duan logela begiratzea? Ez pentsa hemen bakarka eta ohe leunetan lo egiten dugunik! Ez horixe! Beheko gela nagusian hamabi koltxoi kaxkar jarri ditiztek, eta hik ere horietako batean egin beharko duk lo.

–Zure esanetara, nire kapitaina!

–Tira! Bakea behar diagu Joxemai...! Otorduetarako ere, taldeetan egiten diagu. Beraz, eta aurpegiz bederen, gaurtxe ezagutuko duk hemen dagoen jende guztia: hamaika lagun. Donostiarrik ez zegok talde honetan. Gu biok gaituk bakarrak. Orain arte... bakarra ninduan ni!

–Ederki! Hori egingo diagu.

Mahai zabal baten gainean, Don Carlosen aldeko propaganda orri mordo bat topatu dut.

–Amorebietako Itunari buruzko txosten hori pozik le-tuko diat gauean. Banian gogoaz zehazki ezagutzeko.

–Tira, ba. *Hartzak*, lasai. Partidara datorren jende jator askok, bestalde, letzen ez zekik. Eta guri tokatzen zai-guk (eta hiri ere tokatuko zaik, beraz!) izkribu horiek guz-tiak bolondres analfabetoei irakurtzea eta azaltzea. Gai-nerakoa bihartik aurrera ikusiko duk. Lasai.

Etxe barruko kantuek eta orroek arestian ikusitako ur-xuxurla leunak estaltzen zituzten.

Jauregitxoaren ondo-ondotik noiztenka pasatzen ziren trenen ke-usainek eta tankateko sailek, zakarki gogoraraz-

ten zidaten Donostia urrun nuela; eta menturaz luzerako izango nuela.

Eta, benetan, bizi-aro berri eta labain batetik abiatua nintzela.

## X

Biharamunean, Palazioko gela nagusian neure burua boluntarioz inguraturik esnatzean, eta leihotik Uzturreren gailurraren hegia hodei gorriskien aurretik ilunago gailendurik topatzean, atzerriko bazter miresgarriren batean ametsetan ari ote nintzen zalantza sentitzeko parada izan dut.

Baina berehala itzuli naiz neure baitara:

–Tolosan nagok atzoz geroztik. Egia.

Eta berehalaxe, areago pentsatzeko aukera ezabatuz, neure ondo-ondoan hitz hauek entzun ditut:

–Kaixo, Joxemai! Ondo lo egin al duk?

Iraxu zen, niri mintzo.

–Zein... kamainatan egin duk lo hik? –galdetu diot.

–Kamaina... Ni kapitaina naizenez, goiko gela batean egin diat lo. Eta ohe batean: zatarra, baina ohea. Guk, ofizialok (etxe honetan bi gaituk orain: Oskotz komandantea, eta ni neu bigarrena) ohea badiagu, nork berea! –eztenka nahian doinua ikusita.

–Alajainkoa! –irten zait barrutik–. Ez ninduan konturatu, motel, hemendik bart irtena hintzenik ere...

–*Ezte* *harritzekua*. Denaz gain, berandu oheratu nintzelako. Komandantea iritsi zain egon gintuan kartetan sukaldariarekin. Gaur egun hamalau lagun gaituk. Bihar... auskalo! Hik heuk ere, argi ibili, berehala aldegingo bide duk hemendik... Uste diat.

–Atsotitza dela-ta, “ustea ustel” esan niezaake nik orain. Baina kasu honetan ez duk gauza bera... Nora joango naiz, hire ustez? Eta noiz? Zer dakik?

–Gaurtxe jakingo omen duk hori. Egunero bezala gosalondoan izango diagu Oskotz komandantearen bisita. Eta berak azalduko dik azaltzekoa. Eta ez kexa: hemen egunero egiten ditiagu hiru otorduak, behar bezala, eta *amosua* barne...

–*Ezpaita* beti duguna! Mendi aldera joanez geroz, despedi hadi! Hemen egotea, alde horretatik mauka galanta duk!

–Hori bakarrik ez: bart tirokaldi luzea entzun omen duk Arrameleko zubiaren aldetik, Tolosako sarreran. Beltzak azaldu omen zituan gureen kontra, eta zauritu batzuk ere izan omen dituk.

Hotzikara sentitu nuen, eta gerraren amildegirantz ari ginela ulertu. Eta bezperan bezala kanta hau iristen zitzai-gula barnealdetik:

*Armak lepora,*  
*guztiok batera;*  
*goazen, mutillak,*  
*Lizarra aldera...*

Lizarra aldera...

Eta Iraxuk iragarri bezala gertatu.



–Egun on, Arruabarrena! Egun on, Irazu kapitaina!  
–agurtu gaitu orduan txapel zuria zeraman ofizial mardul  
eta adinez heldu batek. Txamar urdina, galtza gorriak, eta  
uhal dotoreak aurrealdetik gurutzaturik.

–Tente, Joxemai! –esan dit Iraxuk, bera ere bat-batean  
zutiturik.

Eta, berehalakoan, etorritakoari begira, hau erantsi:  
“¡A sus órdenes, mi comandante!”. Eta niri: “Putzu: Os-  
kotz komandantea duk”.

–Ya lo siento, Arruabarrena, pero no hablo vasco. Soy  
de Unzué, junto a Tafalla. Mis padres sí lo hablaban siem-  
pre, entre ellos. Y así siguen haciéndolo a sus setenta y  
tantos años. Pero yo apenas lo entiendo... *Antzia dut...* ¿no  
se dice algo así para “lo he olvidado”?

–Exacto, mi comandante –esan dio Iraxuk–. Horrela-  
xe esaten da, bai: ahantzi dut, *aztu det* guk giputxiok, edo  
*aztu zait...*

–¡Vosotros sabéis hasta demasiado...! Si no sabes cómo  
decirme algo en castellano –esan dit komandanteak–  
erradazu euskaraz! Entiendo bastante.

Eta erdaraz jarraitu du; ondoren datorren hau hemen  
guztia euskaraz azalduko badut ere.

–Hasieratik hasita –esan du– hementxe daukazu uni-  
formea: txamar lodia, galtzak, txapel gorria (bere borla  
eta guzti, jakina: gu ez gaituk “Txapelgorriak”!), bota pa-  
re bat ere bai, apreta pare bi... Askotan bolondresei eman  
ezin diezaiekeguna, zoritxarrez!

“Lizarrara iristean –jarraitu du–, eta hango bulegoetan  
lan egingo duzun bitartean, hauxe egunero zertan jantzi  
beharrik ez duzu izango. Baina hangoek esango dizute  
han zer egin. Egiozu orain marka bat denari, eta hor utzi  
sokaz lotutako pardel batean. Guk eramango dugu hara.

–Nik ez dut, beraz, neure gainean ezer eraman behar?

–Ez. Ezer ez. Tolosako inguruak ez daude brometarako. Beltzak han eta hemen. Baina arrastoa hurbildik segitzen diegu. Ongi ordaindutako salatariak ere badituzte, erruz zoritxarrez. Kontuz jokatu behar.

“Pardeleko jantzi horiek guztiok, hantxe jasoko dituzu berriz. Eta dena azalduko dizute. Zu, lasai.

“Bihar goizean, hortaz, egunsentia urratu baino lehenago, eta beste boluntario batzuekin, Tolosatik irtengo gara Nafarroa aldera. Tolosako mikeleteak non dauden zehazki dakigu. Zaldiak, zalgurdiak, iskiluak, munizioa, dena dago prest.

–Sí, mi comandante –irten zait barrutik, nola ez dakidala.

–“El Cuartel Real”en argitaraketa –azaldu dit– aste pare batez edo atzeratu behar izango dugu oraindik.

“Baina edozein egunetan sartuko da berriz Don Carlos Nafarroan, eta Lizarra aurki egongo da gure eskuetan berriro. Urederrako hiria bigarren aldiz izango da gure erdigunea, Zazpi Urteetan izan zen bezalaxe... Eta oraingon –ahotsa goratuz– oraingon... Lizarratik Madrilera!!

Orduan besotik heldu dit Oskotz komandanteak, eta itxuraz nirekin buruz buru hitz egiteko behar hertsia eraginda, jauregiaren aurrealdeko harmailadira eraman nau:

–Banuen gogoia zu buruz buru agurtzeko, Arruabarrena –esan dit erdaraz–. Zure osabaren historia miresgarria ezagututa, gogoia nuen zu beraren iloba ere ezagutzeko. Bi aldiz larriki zaurituta, Zumalakarregirekin berarekin Amezkoan ibilita, gerra amaitutakoan Frantziara ihesi joanda... zertan da orain?

Eta berriro ere besotik helduz, eta nik erantzuteko betarik eman gabe, belarrira mintzatu zait:

–Sekretu bat: bi oriotar beterano miresten ditudala nik: Aita Makatzaga gerrillari famatua bata; eta Frantzisko Sagardia zure osaba, bestea.

–Pozten naiz. Baina osaba Praixku orain dela zazpi urtez geroztik ikusi ez dudala aitortu behar dizut.

Gaztetan osaba oso tipo gogorra izana zela esan zidan. Ez zuela Bergarako Besarkada sekula onartu; eta geroztik (34 urte jadanik!) Frantzian bizi dela. Eta Don Carlos gabe (edo bere oinordekoa gabe) Espainiara inoiz itzuliko ez zela agindua zeukala. “Inoiz ez!”, errepikatzen zuen.

Eta horretan zegoela. Baita hil arte bertan egongo ere.

–Zenbat urte du orain? –galdetu dit.

Kalkulu txiki bat egin dut:

–Gaur egun, eta gaizki ez banago, 65 urte inguru. Arestian aipatu duzun Aita Makatzaga bere lagun minaren adin bertsua du, nik uste... Zahartzen hasia, beraz. Baina beti tente, zalu eta gordin.

–Horrelako pertsonak ez lukete inoiz hil behar –erantsi du etsipenez.

–Alargundu egin da berriki –esan diot–. Bazenekien?

–Ez. Ez nekien! Noiz hori?

–Orain dela lau urte hil zen ene izeba Arroza (han “Tante Rose” esaten zutena). Eta bera, osaba alegia, bakar-bakarrik gelditu da.

–Seme-alabarik ez zuen, ala?

–Bi alaba, bai. Baina biak ezkondu zaizkio bateratsu, eta bakarrik utzi dute Préchacq-en.

Eta orduan, egin zizkidan galderei erantzunez, Sagar-diatarren berri eman nion...

... Bata, zaharrena (urtebetez zaharrena, kasu!) Itziar, 1866ko udazkenean esposatu zela Mont-de-Marsanera,

Donzacq izeneko batekin. Eta hurrengo urtean, 1867ko udaberrian, gazteena, Amélie izenekoa; eta Akizera be-  
rau, Madame Caussade bihurtuta. Biak bateratsu!

Noizean behin Préchacq-era agertzen zaizkiola biak esan nion. Amélie bakanago, dena dela, nolazpait esanda “ondoan” bizi izan arren. (Akize ez baita Préchacq-etik urrun!).

Itziar, berriz, Mont-de-Marsandik, eta bere bi neskati-  
la gazteekin etorri behar izan arren, maizago etorri ohi de-  
la, osaba Praixkuren bizigarri eta pozgarri.

–Lekuak ez badituzu ezagutzen, nekez konturatuko  
zara. Famili saltsa hauek gainera...

–Segi, segi. Oso ongi azaltzen duzu. Aurrera, beraz.

–“Bakarrik utzi naute”, errepikatu ohi zuen osabak.  
“Bakarrik deserri honetan ahaztu”.

Amélie Sagardia, ene izeba txikia nolabait esateko  
(izeba-amona delako), eta Amaren lehengusina propioa,  
Akizen bizi dena, ni baino sei urte zaharragoa bakarrik,  
kirrua da, ile-horia zehazkiago, eta oso mehea. Beti irudi-  
tu izan zait nire lehengusina txikia dela, eta ez nire izeba.  
Are gutxiago amonaren belaunkidea. Garratza da izaeraz,  
zakarra, bere amaren ezpalekoa erabat.

Itziar, berriz, Mont-de-Marsangoa, beltzarana, eta  
biotan zaharrena, gaurko Madame Donzacq izenekoa, po-  
ttoloa da, berritsu samarra, alaia, barre-algara ugarikoa,  
atseginagoa, nik biotan maiteen dudana eta lehengusina-  
tzat daukadan bakarra.

Frantsesez ikastera Landetara 1865 eta 1866ko udetan  
egindako egonaldietan, Itziarrekin lortu nuen konfiantza  
apur bat.

Baina Itziar hau lehengusina bazitzaidan ere, Amélie,  
berriz, beronen ahizpa... izeba arrotz.

Préchacq-en egon nintzen garaian, elkarrekin bizi ziren laurak oraïndik. Etxeko jauna, hasteko. Aitona Blaxen anaia izan arren, denok Donostian “osaba Praixku” deitzen genuena.

Bazegoen, bigarrenik, Rose Cazenave anderea, Donostiako ahaideontzat “Izeba Arrosa” zena. Eta berorien bi alabak, bukatzeko, Itziar eta Amélie nire bi izeba txikiak, oraïndik ezkongai.

Cazenavetarren etxaldearen ondoan, egurrezko mainu txabola apal bat ezarri berria zeukan Caulet lehen auzoak. Beti lurrunen artean galduta, “Bains Caulet” izkribu kas-karra irakur zitekeen noiztenka.

Cazenavetarrek ez zuten mainuen moda berrietan sobera sinetsi, eta antzara hazkuntzari eutsi zioten. Etxe hartan, belaunez belaun, foie gras famatua maneatzan zen; eta osaba Praixkuk ere, bertan eskolaturik, bere gain hartua zuen aspaldidanik antzara-lumaz edredoiak prestatzeko lan-atala, eta gero beroriek Akizen saltzea.

Aturriz bestaldean, berriz, Lescouarre auzoa genuen: lau etxola txiro.

Osaba Praixkuk, 30 urte hartan bizieraz arras etsirik, antzaren artean erabiltzen zituen bere indarrak onenak. Eta areago bi alabak ezkondu eta handik gutxira emaztea hil zitzaionez geroztik.

Osaba eta “Tante Rose” 1841ean esposatu ziren oso gertu dagoen Notre Dame de Buglose-ren kaperatxo arku-dunean. (“Mirarien Kaperan” bertakoen esanetara).

Cazenave jaun zaharrak, barrenak hori eskatuta, sermoia kaskoineraz aditu nahiago izan zukeen. “Pour quoi pas en patois?”, galdetzen zuen.

Batez ere, batzuetan hizkuntza horretan, kaskoineraz, egiten baitziren zeremoniak kaperatxo hartan. Hamaika txapelen beila-egunetan bereziki.

Baina emazteak eta alabak amorru biziak egin zioten kontra, eta frantsesez egitea lortu ere bai: “Nous, ici, on n’est plus des paysans abrutis... Allons!”, erabaki zuen Tante Rosek. “On fera tout en français... comme il faut!”

Eta Cazenave zaharra, “ce pauvre vieux paysan”, isildu egin zen. Eta osaba Praixku “suhi espainola”... kontua atara!

Nik ez nuen ezer konprenitzen. Horren miresgarria omen zen nire osabak, bestelako traturik merezi bide zukeen izeba Arrosarengandik. Egondako bi udaldietan, ordea, ez nuen nik osabarekiko zakarrera eta mespretxua besterik sumatu.

Donostian pasatako urteez eta karlista gerrateari buruz osaba zerbait esaten hasi orduko, adibidez, berehala zetorkion izebaren arrapostu doilorra:

—Nous nous foutons pas mal, nous tous, de tes histoires politiques. Ne nous emmerde pas, François!

Ez nuen ulertzen orduan osabak atso txatxu harengan zer xarma debru atxeman ote zuen; eta orain ere galdera bera egiten diot neure buruari.

—Mon mari François est un Espagnol typique —errepi-katu ohi zuen bisitak etortzen zirenean—. Il est un Espagnol fier, comme le sont tous les Espagnols. Et il est aussi un vrai légitimiste!

Horra! Hizkera hark, zergatik ez banekien ere, nazka ematen zidan.

Eta gauza bera ni neu ere, Tante Rose arrotz harroko hark “mon brave petit-neveu Joseph” deitzen ninduenan.

Ezin “Joxemari” esanarazi, alajainkoa! Eta “Arruabarrenaz”... bego! Saiatu ere ez!

Nik neuk ere, egia aitortuko badut, hau esan behar dut: bertako baserritarrek bezala, eta osaba Praixkuk berak bezala ere, “très mal” ahoskatzen omen nuela Rose izena:

–Mais non, Joseph –esaten zidan berak–. “Le R roulé, est un R espagnol!”...

Frantsesez ikasten egon nintzen uda pare hartan, hitz batez, ondorio hau atera nuen: osaba ez zela Préchacq-en bere etxean bizi, “chez Madame SagaRdiá”-renean baizik. “Avec un R bien grasseyé”.

–Mais, papa, je t’en prie. Ne parle pas en patois devant Joseph! Il est venu chez nous apprendre le français! Allez, allez...!

Eta horrelako ohar gaixtoak etengabe.

Penagarri zitzaidan, eta ulerkaitz ere bai. Osotara!

Beste puntu bitxi bat.

Donostiako gure familian horrela esaten bazen ere, eta jadanik azaldu dudanez, Sagardiatarrak ez ziren Akizen bertan bizi, handik 16 kilometrora dagoen Préchacq herrixkan baizik (orduantsu, hain zuzen ere, eta modari amore emanez, “Préchacq-les-Bains” deitzen hasia). Zergatik ezkututzen zuten hau? Zergatik zitzairen hain ahalkegarria Préchacq aipatzea?

Akizen bertan, beraz, gutxitan izana naiz; eta Préchacq-en pasa nituen bi udetan ere, ez nintzen askotan hiribururaino hurbildu..

Zerbaitez oroitzen naiz Akizen halere. Bai. Nahiz gutxitxo.

Donostiako harresiak gogorazten zizkidaten murruez oroitzen naiz, adibidez; txikiagoak hangoak, nolana ere,

Putzu kalean neure gaztaroan ikusitako murrutzarra baino. Eta ez Donostiakoak bezain ilunak.

Akizekoak, tarteka, hormari erantsitako zilindro-erdi borobilak zirela-ta, leunagoak ere zitzaizkidan Putzu kaleko zahar beltzak baino.

Haurtzaroko Donostian bezala (honetan bai bi hiriak antzeko) belaze ederra zegoen Akizeko harresiaren aurrealdean, Aturri ibairainoko zelaian.

Eta Katedralaz ere oroitzen naiz, zerbaitxo behintzat. Eta zubi nagusiaren ondoko ikuzleez, Urumean bezala Aturrin, eta Akizen bertan, harrikoa egiten ari.

Orain dela hiru urte, eta Aturriren gaineko zubi horretxen ondoan, sekulako egoitza “thermal” horietako bat ireki dute.

Eta hantxe ibiltzen dira erromes berriak. Alegia, beren txabusina marradunetan bilduta, hara eta hona, ilaratan paseiari, kapusai eta guzti. Lokatz beroa ezartzen dute mainuzaleek junturetan bizpahiru aldiz egunean, eta hantxe agertzen dira, fraile triste gisa, gelarako abian behin eta berriz...

Hauek modak!

Baina ni, normala denez, beti lurruna darion “Fontaine Chaude”az oroitzen naiz batez ere (Cazenave zaharrak Préchacq-en beti-beti “La Néhé” deitua).

Halako batez neure eskua jarri bainuen, iñoxo honek, harrizko arkuetan dauden bederatzi iturri horietako zorrotada batean; eta dexente kiskaldu baininduen. Segurtatu ohi zenaren aurka... ura aise beroago baitzeturren Akizen, ene uste apalaz, Préchacq-en baino!

Orain dela lau urte izeba Arroza hil ondoren, etxe huts hartan gaur egun zer giro ote dagoen ez dakit. Osaba zaharra gabe, hitsa, segurki.



Baina izebaren heriotza sobera sentitu nuela ezin esan. Deplauki aitor dut.

Aitona Blaxek, berriz, Praixku bere anaia Donostiara etortzeko erregutzen zion. Baina osabak ezetz: *“Tristia da atzerrian hil biharra, bai –errepikatu ohi zuen–. Baiña are trixtiagua halere norberaren gaztarua zahartzaruan erosokeriyaz likistia”*.

Antzaren hazkuntzako egitekoetan pasatzen zituen egunak, beraz; eta luma-bilketaz edredoien betetzeoetan ere, lan eskerga burutzen zuen.

Horrez gain, ezer gutxitarako gogorik ez, eta auzoe-kin petanka saio aspergarritan (nire ustez aspergarri, jakina, baina ez horrelakorik esan landesei) amaitzen zituen egunak. Osaba gizajoa!

“Je me fous pas mal de tes histoires politiques”... Oraindik ere Tante RRRosereren hitz gupidagabe horiek berriro entzuten ditudala iruditzen zait. Hura bai sorgintzarra!

Eta Landetako zelai bustian osabak jasandakoaren bi-detik, zorabioa sentitzen nuen nigan hazten ari:

–Futxo!! –atera zait ustekabean. Oroitzaldi luze horretan segundo bakar bat ala bi ordu paseak ote nituen ezin inondik neurturik.

–¿Qué? ¿Malos recuerdos? –galdetu dit Oskotz komandanteak, bat-batean neure oroitzapenetako mundutik erakarri ninduelarik.

–Ez, ez... Barka. No es nada, mi comandante.

–Ez al duzu zeure osaba maite? –galdetu dit, beti erdaraz. ¿No quieres a tu tío?

–No, no es eso... Oso barruan daramat osaba Praixku, hain zuzen. Neronek uste baino barrurago... Orpoz orpo jarraituko ote natzaion beldur naiz, preseski. Horra ene “futxo” horren gakoa.

Komandanteak ez zuen nire kezka ulertu.

Baina ez nintzaion neure burua haratago azaltzen saiatu. “Geroak erranen”, pentsatu nuen.

–Barka, Komandantea, nire azalpenen luzera. Zergatik ez didazu moztu?

–Ez, horixe. Beterano askoren patu hitsa ezagutzea oso garrantzitsua da, ene ustez. Mila esker zuri, hain zuzen!

“Baina bego hori horretan. Gaur beste hau baita garrantzitsuena. Don Carlos berehala iritsiko dela gurera, hemendik egun gutxitara hemen izango dugula geurekin eta geure artean... Arazotxo batzuk badaudela. Bai. Baina konponbidean daudela, eta hurrengoan polikiago azalduko dizudala dena garbikiago. Lasai egon! Aurki berri inportanteak izango ditugu.

Eta “Buen viaje a Estella” esanez, goiko bere gelara erretiratu zen.

## XI

Palazio-eneko gure egonaldia luzatu egin zen, hala ere. Eta horri esker izan nuen aukera Oskotz Komandanteak utzitako “Convenio de Amorebieta” delakoa bere osotasunean irakurtzeko.

Urtebetea joana zen jadanik Serrano jeneralak, Madrilen aldetik, eta Bizkaiko Karlista Diputazioak, bestetik, izenpetu zutela tratua; eta madarikazioak biltzeko ez bazen, ez zuen gure artean inork sekula aipatzen. Hura bai gorroto orokorra!

Boluntarioen arteko kanta honetan garbi agertzen zenez:

*Arginzonizek egin ei deutse  
bizkaitarrari tranpie,  
orregaitikan entregatu eben  
gure mutillek armie.*

*Merezi luke kokotatikan  
iru balazo emotie,  
beste guztien eskarmentutzat  
esegita imintie...*

Gureek ez zuten ontzat ematen hasitako matxinada Arginzonizek eta gainerakoek eten izana.

“Ziri ederra, bai, Serranok iazko maiatzaren 24an sartu ziguna!”

Ez nekien, bestalde, Don Carlosek ez zituela bizkaitar buruzagiak Bordelen errezebitu nahi izan... “Marotista” ere deitu omen zituen gordinki, eta kanpoan jarri. Afruntu gaitza. Bizkaia Espainiaren eta Erregeren aurretik jarri omen zutela-ta.

Eta papera irakurri ondoren ere, lehengo zalantza berberekin gelditu nintzen.

Nolanahi ere, hiru puntutara bil zitekeen Amorebieta-ko Akordioa:

1) Madrileko gobernuaren kontra armetara joandako guztiei amnistia osoa bermatzea, militar profesionalentzako bereziki;

2) Madrilek 1870ean izendatutako Diputazio “anti-foralaren” dimisio orokorra, eta ordezkoren baten ezarpena segurtatzea;

3) zer gerta ere, Foruen onarpen osoa ongi finkatuta uztea.

Honegatik bestegatik ez balitz ere, interesgarritzat hartuko nukeen Palazio-eneko neure egonaldi luzakorra.

Gero eta garbiago ageri zitzaigun, beste alde batetik, jauregitik ez irteteko agindu hertsia jaso genuenez geroztik, han umezurtz gu utziz, Oskotz komandantea “nora-bait” joana zela tarrapataka; eta “zerbaitetara” joana zela. Argi eta garbi aitortu nahi ez ziguten zerbaitetara.

Gure taldean lagun bakar batek zeukan Tolosaraino hurbiltzeko baimena: “Zotaltxiki” izeneko artzain xahar batek. Berau Zazpi Urteetako “beteranoa” zen. Erauskin izeneko dendariarengana erosketak egiteko izendatua, han

biltzen zuen jatena goizero, eta “Palaziyora” luzatu gabe ekartzen.

Ekainaren 22an, igandea zelarrik, danbor hotsek eta oihi alaiak esnatu gintuzten. Zotaltxiki inguratu zen kaleraino; eta segidan helarazi zigun eguneko albistea: Tolosako Udalak “Errepublika Federala” aldarrikatu berria zuela.

–Eta zer adierazten du horrek? –galdetu genion Zotaltxikiri–. Foruen berreskurapenaren aldetik, zer? Gauza bera ezagutu baikenuen Donostian orain dela aste pare bat –argitu nuen nik– eta bertakook *ezpaikendun* ezertxo ere nabaritu: ez onik, ez txarrik.

–Zer dakit nik? Hori goikoek zekitek. Guk ez zekia-gu. Guk gerra egiten diagu Foruak berreskuratzeko. “Errepublika Federala”... zer da hori?

–Ez horrek, eta ez guk –errepikatu zuen beste taldeki-de batek garraxko–. Itxaron egin behar. Baina honek ez dik itxura onik.

“Denek *aipatze-izkittek* hemen Libertadea eta abarrak –jarraitu zuen–. Baina Euskal Herri osoko Foruen kontrako lehenengo ostikada 1839an eman ondoren, eta 1841ean Nafarroaren kontra bigarrena emanda, orain Baskongadetakoa zeukaagu gainean... Dudarik ez egin!

“*Forubak maite-ittuztela*, liberalek berek ere errespetatu egingo dituztela... Ipuinak! Erregerekin edo Errege gabe, federalak izan zein konstituzionalak, hemen Espainia legebakar isabelinoa zetorkiguk.

–Gauza bera *sumatze-iat* nik ere –erantzun nion nik Antton zeritzon gazte sendo hari.

Taldeburuarena egiten zuen Zotaltxiki orduan, gure arteko elkarrizketa ezkutuari erreparatuta, gugana hurbildu zen oso serio, eta ahapeka:

–Ez zekiat zertaz ari zareten. Hobeto esan, jakin baze-kiat. Eta ados nauk zuekin. Baina ez zalaparta handiegirik atera behintzat. Baldintza hori jarri ziguan etxejabea den kondeak; eta orain arrazoi *haundiyaguak* baditiagu zuhur ibiltzeko. Ea bada...!

Astelehenean, Sanjuan bezperako suak piztu zituzten Uzturren, Hernion, eta gainerako mendietako mazeletan.

Eta tolosarrek sanjuanak ospatzeko duten grina eza-guturik, eta kaleetan jendetza gaitza bilduko zela-ta, bate-re nabarmentzeko arriskurik ez zegoela pentsatu genuen; eta ilunpea baliatuz, irten egin ginen “Palaziyo”enetik.

Hura gaua!

Laino trinkoa zegoen Tolosan arrastiri epel hartan; eta gure kinka labainean, halakoxe eguraldia komeni zitzai-gun lasai mugitu ahal izateko.

–Saldiasko “Ijitua” garbitu dik Santakrutzek gaurko egunsentian –entzun genuen–. Beltzen zerbitzuko salata-ria emen zuan.

–Ordubete eman omen dio Don Manuelek arimako prestaera egiteko, eta Lesakan hil omen du.

–Santakrutzekin jai diagu! –esan du batek.

Baina hori entzun ez-ahal du, segituan erantzun dio beste taldekide batek, eta oso haserre:

–Santakrutz gabe izango genikek jai!

Eztabaidaren doinua gorantz joan da berehala, eta gu-re Zotaltxikik brauki moztu du:

–*Ezkaittuk* honetarako irten! Eta are gutxiago herri errepublikano “giri” ustel honetan, puntu hori kale go-rrian garrasika geure artean eztabaidatzera. Gehienez, ahapeka! Bestela, denok etxera orain!

Eta isildu egin gara. Beste ezeri ez izatekotan ere, adinari eta bizitza oso baten barreneko tinkotasunari egiten baikenion men.

Eta ahapeka behar hartan, ilintien, txinparten eta suzarren artean, besterik ere entzun genuen.

Ba omen zihoala ihesi Santakrutz Frantziara! Eta azken mendeku gisa, hain zuzen, fusilatu zuela “Saldiasko Ijitua”.

Zurumurruak denak, jakina.

Baina besterik ere entzun genuen irteera ezkutukoaren gau lanbrotsu hartan.

Bezperan Zugarramurditik etorritako *boluntariyo* baten ahotik ikasi baikenuen, Valdespinako markesa bera egona zela Lesakan egun haietan, konponketa baten bila; eta, Makatzaga Orioko apaizaren beraren bitartekaritza medio, Santakrutz bera ere Beraraino gutxienez hurbildua zela.

Zer ote zegoen tartean? Zenbait egunez mintzatuak zirela isilpe osoan Don Manuel eta Don Juan Nepomuceno Orbe markesa. Eta Beran, Igantzin eta Lesakan, mugimendu harrigarria zegoela.

Olazabalgo Don Tirso irundar aberatsa ere, artean, Donibane Lohitzunetik Parisa propio joana zela; Don Carlosi Santakrutzen erretira osoa irmoki eskatzekotan.

–Berori Espainiara sartuko bada –esan behar omen zion Olazabalek Erregeri–, aurretik Santakrutzek egin behar du gure artetik alde. Eskualde berean biok, Santakrutz eta berori, ezin. Bata ala bestea!

Bestela esanda: “*Santakrutz kanpora!*”. Horra hor garbitan Donibaneko Juntakoen eskaera.

Eta ekaineko egunetan aurrera jakin dugunez, aldegi-tea onartu du azkenean apaizak.

Oskotz komandantea, hain zuzen, espero ez genuelarik, “Palaziyora” agertu zaigu. Eta zain ginen hamaikoi, beheko aretoan elkaturik, burututako itunaren izkribu hau irakurri digu:

“Reunidos los señores Marqués de Valde-Espina, General Jefe de E.M. –general del Ejército Real del Norte, y Jefe de la columna en operaciones en el Baztán y Cinco Villas; y Don Manuel Santa Cruz en la casa-alojamiento de S.E., han acordado hacer constar que:

El señor Santa Cruz se somete a la voluntad de su legítimo Soberano Don Carlos VII (que Dios guarde); resigna el mando que tenía, entregando toda la fuerza y la fortaleza de Arichulegui, con su artillería y pertrechos de guerra, al referido Excmo. Sr. General Valde-Espina, y se retira al Extranjero.

El Excmo. Sr. Marqués de Valde-Espina concede por su parte al señor Santa Cruz un salvoconducto y las seguridades necesarias para que en su viaje no sea molestado por ninguna autoridad carlista.

Igual concesión hace S.E. a los señores Don Félix Caperochipi, Don Francisco Arbeláiz y Don Esteban Indart, accediendo a los deseos del señor Santa Cruz, y bajo la palabra de honor de éste, de que los primeros no volverán a España sin autorización de S.M., y de que nunca atizarán el fuego de la discordia en las huestes del Rey Nuestro Señor.

En garantía de la entrega de Arichulegui y de las fuerzas, el Sr. Santa Cruz se compromete a que dicha entrega se verifique sin conflicto alguno, empeñando al efecto su palabra de honor de no hacer uso del salvoconducto hasta la realización de la referida entrega.



Y para que conste lo firman ambos interesados,  
en Vera, a 9 de Julio de 1873.  
El Marqués de Valde-Espina /// Manuel Santa Cruz”.

Harrituta geratu gara denok, zurtuta. Posible ote da?  
Zeren truke erabaki ote zuen Hernialdeko apaizak Euskal  
Herritik aldegitia?

Gure artean isilpe osoa sortu da, astuna, iraunkorra.

–Zerbait hautsi duk hemen... –esan dit isilka Iraxuk–.  
Ojalateroek irabazi ditek!

–Ixo!! –nik

–Zergatik ixo? Egiaren beldur?

–*Etzekiat-pa*, motel –erantzun diot–. Baina berri ho-  
nek jota uzten nau, eta luzerako beharbada.

–Ni ere bai.

Azalpen gehiago emateko eskatu diogu Oskotz ko-  
mandanteari.

... Sotana jantzi omen du berriro Don Manuelek, ho-  
rretara. Eta konfiantza osoko bere bi ofizialek lagundurik,  
Zugarramurditik gora abiatu omen da. Aitxuri tontorretik  
aurrera, mugarantz, Peña Plata alderantz.

–Eta beltzen batek ezagutzen bazaitu? –esan omen  
diote.

–Ez dira gu hiruron kontra tiroka ausartuko. Giriak  
ustelak dira. Eta tiro egiten badidate ere, bestalde, nola  
lortuko nuke nik heriotza hoberik? Hiltzea, aldegitia bes-  
terik ez da. Eta ni banoa betiko. Badakit! Hortaz?

Don Manuelek, Valdespinako markesarekin eta Ma-  
katzaga apaizarekin hitzartutako adiaren xehetasunei mu-  
zin eginez, atzerrirantz abiatu da Frantzian barrena.

Eta Peña Platako kasernaren inguruetatik, agur egin  
omen die eskuaz bertan zeuden mutilei, agur luze bat. Eta

gero beste bat eskuineko besoa altxatuta, eta gero beste bat, eta beste bi.

“Erregeri egin diot men”, errepikatu omen du hiru aldiz gotorlekutik. “Erregeri ez besteri. Bestela ez nintzai-zueke gaur hemendik joango”.

Eta gero, kaserna-barruti militarreko mugan bertan iparraldera paraturik, hitz gogoangarri eta ilun hauek bota omen ditu: “Gaur, atzo, eta beti, beti-beti, katolikotasunaren garaipen osoa bilatu dut Espainiarentzat... Baina, Erlijioa eta Euskal Herria defenditzen omen dituzten gezurti traidore batzuek behartu naute gaur atzerrira”.

Gerra “behar bezala” eta “goitik behera” gidatuta eraman nahi zutenak nagusitu zitzaizkien, hitz batez, Santa-kruzten kastako euskal basa-gudari kementsuei.

1873ko uztailaren 9 harez geroztik, Gorteko sasi-militarrek eta sasi-politikariek, eta alfer mordo zabal batek, lasai egin zuten lo beren ohe leunetan. Bazen garaia! Euskal basoetako piztia madarikatua, menderatuta erretiratzeko zen komentuetara eta damu-erretiroetara.

“Palaziyotik” hanka egiteko behar gorria sentitu dut bat-batean:

–Zer ari ote naiz ni, orain dela astebete, etxe dotore honetan zain? –galdetu diot neure buruari–. Zergatik utzi gaitu Don Manuelek hemen, hain maite zituen mendi hauetan galdurik? Zenbat bolondres gizajo ez ote da, arte horretan, sufrimendu ikaragarritan mendi zokoren batean ahantzirik hil? Zenbat azkeneko amets pozgarri bat lortu nahian ezintasun osoan hor nonbait hilko?

“Noiz arte ni hemen zain egongo, hitz batez?”

“Ito egingo naiz!”

“Bihar bertan banoak hemendik!”

## XII

Honetakoan ez zen nire itxaron-beharra luzatu. Bihamun goizean goizik, hauxe esan baitzidan Oskotz komandanteak:

–Tolosatik goaz Nafarroa aldera.

–Beharrik!

–Muga aldera goaz –erantsi zuen, erdaraz beti ari–. Hots, muga hori, badakikezunez, oraintsu arte beltzen eskuetan egon da osotara. Zuhur ibili beharra, hortaz, azpimarratu beharrik ez daukat. Gutxiago jakin, eta hobe. Ez dakiena ez da mintzo. Dakiena, berriz, eskuburdinaren oinazearen arabera bakarrik isilik.

–Nora goazen ere ez dugu jakingo?

Zalantza unetxo bat izan ondoren, nigana hurbildu da oso serio:

–Zure osabaren ezpalekoa zaren esperantzan, zerbaitxo esango dizut. Baina aurretik gauza bat agindu behar didazu hertsiki-hertsiki: zer gerta ere, ez duzula ezer esango.

–Zin egiten dut, ene komandantea!

–Ederki... Ba, gauzak horretara... Zugarramurdira goaz –argitu dit Oskotz komandanteak–. Frantziako muga alde-

ra. Gertakari historiko baten lekuko izateko zoria dugu. Iganderako egon behar dugu han, “para el domingo sin falta”.

–Gaur osteguna –nik neure artean–. Hortaz... hiru egun barru.

Eta nik ziplo galdetu:

–Errege dator?

–Gaur-gaurkoz ez dizut ezer zehaztuko. Baina ukatuko ere ez. Hau agindu digute guri: hango mendietan egoteko 13 iganderako. Ordurako, hantxe. Handik hara segidan, gero, bolondres-oste handi baten barruan, Lizarraraino! Haraz gero, nor bere sailera; eta zu zeu, beraz, “El Cuartel Real”en moldiztegira. Hori dakit.

–Lizarrara bertara?

–Lizarrako moldiztegiarena ez dago oraindik prest. Beharbada egun batzuk eman beharko dituzu Aitxurin zain, Peña Platako kasernan. Zugarramurdin. Ez da leku txarra.

–Dena prest, beraz, “El Cura” madarikatua uxatuz geroztik? –galdetu dut gaixtoki. Eta berehalaxe neure ausarkeriaz damutu naizelarik.

–Den-dena ez, zerorrek ikus dezakezunez. Egun hauetantxe erre du Beasaingo estazioa, esate baterako!

“Gauza asko, bai, halere, polliki-polliki. Telegrafoa ere bai, bidenabar... Eta gainerakoak ere, konponbidean.

“Igandea baino lehenago, bihar agian, edo etzi beranduenik, “legitimista” frantses batzuk iritsiko omen dira gurera. Zugarramurdira alegia. Eta, Lizarrara gabe ere, itzultzaile lanik ez bide zaizu faltako!

–Zuek bazoazte, beraz? –galdetu dit ustekabeen Iraxu adiskideak atariko atetik sartzean, oraindik ere ni “Palazi-yoko” beheko aretoan nengoelarik.

–Hara! Hemen al hago oraindik? –nik galde–. Kaixo, motel! Bada... bai! Gu behintzat *bagatxiatik* Tolosatik.

–Ta, ba al dakik nora?

Eta ni, gezurretan ez batere ohitua:

–Ez, ez... Oraindik ez zekiat... –ume bat bera ez gezurtaratzeko moduan.

–Ba ni ez bide nauk oraingoan hirekin joango –Iraxuk niri.

–Bada ni neu, Lizarra aldera joatekoa nauk. Baina ez segituan. Itxura denez, muga inguruan pasa beharko ditia-gu egun batzuk. Nire lanerako tresneria oraindik ailegatu ez omen delako. Eta hi, Iraxu, zer?

–Nik, gutxi gorabehera bederen, bazekiat zertan ibiliko naizen, eta zeinekin, eta nola. Gaur Nafarroa aldera abiatuko omen nauk; eta, etzirako, larunbaterako, Arizkunen egon behar omen diat. Ba al dakik Arizkun hori non den?

–Ez –nik.

–Baztan ibarrean, Elizondotik gora.

–Ni *enak* sekula inguru horietan izan.

Iraxuk horretan etenune labur bat egin ondoren, hariari eutsi dio:

–Nik neuk, besterik ere bazekiat. “Destino” eman zidatek.

–Eta, hori zer da? –galdetu diot.

–Ba orain badakidala, gonbarazio baterako, zein batailoitan ibiliko naizen. Bart esan zidaan Oskotz komandanteak.

–Eta zeinetan ibiliko haiz?

–Hirugarren Batailoian, “Doña Blanca” izenekoan.

–Eta izendapen hori –galdetu diot nik–, Don Carlosen alaba kuttunaren ohoretan-edo emana?

–Horixe bururatu zaidak niri ere. Baina jakin ez zekiat. Nolanahi ere, batailoiko buruzagiaren izena ere bazekiat: Enparan komandantea. Berau ere, jakina, Lizarraga jeneralaren agindupean ari delarik.

–Azpeitiarra ote Enparan hori?

–Balitekek, bai. Bainan ez zekiat. Ez diat oraindik eza gutzen.

–Beldurrak hago, Iraxu?

–Beldurrak...? Orokietako deskalabrua bertan jasan ondoren, eta bizirik gertaturik, ba... egia esan, ez! *Enatxiok* beldurrak. Borroka egitera etorri gaituk gainera, ezta?

–Bai, bai. Hori egia duk. Baina...

–*Etziok* “*bañarik*”. Gaur bertan abiatuko omen gaituk Baztan aldera. Eta ni desiratzen ari nauk.

–Suerte on izan, Iraxu!

–Bai, Putzu. Bai. Ez zaidak faltako. Lasai!

“Palaziyo” barruko giroa, desberdin bihurtu bide zen goiz bero hartan.

Pardelen bilketa azkartu egin zen, eta jendea isilago gertatu. Gerra-zantzuak, azkarki sentitzen genituen etxe baketsu hartan (nik behintzat!), geure buruen gainean eta oso gertu baileudean.

Zenbait egunez, Euskal Herria gerra betean zegoela erreparatu gabe egon ginen lasai asko.

Eta, esan eta egin, sei laguneko talde txiki bat osatuz, Gipuzkoa-Nafarroa mugako mendietan barrena abiatu ginen oinez uztailaren 10ean. Berastegiraz gero, segurtasun arazorik izango ez bagenuen ere, Oskotz komandanteak ibilbide zehatz hau eman digu: Berastegitik Leitzara joatetik hasteko. Handik gero Ezkurrara eta Doneztebera. Hemen gaua pasatzeko zailtasunik ez: ostatua franko bertan eta inguruetan.

–Ezagutzen al duk inguru hori?

–Batere ez.

–Berdintsu duk. Biharamunean iparralderantz, eta Iganztziko Bentaraino bide nagusitik segi. Berrizaundik berehaxe ekialdera hartu, eta Etxalarreraino; eta hortik, azkenik, Gorosurreta auzotik, eta oso gora ez dagoen Urbiako lepotik, Zugarramurdiraino jaitsi.

“Asteleheneko gaua han pasa, eta biharamunean, atzera, berriro aldapan gorantz, eta han...”

–Han, zer...?

–Hangoa... han ikusiko!

\* \* \*

Asteartean Karmengo Ama Birjinaren bezpera izanik, joan-etorri handia nabarmendu zen inguruetan.

Jai-bezperako giroaz gain, bazegoen besterik uztailearen 15 hartan.

Ugaldu egin ziren zaldien irrintziak egunsentia baino lehenagotik, eta korneta-hots urrunak gugana hurbiltzen hasi gau minean.

Goizean jakin genuen, Lizarraga jeneralaren hiru batailoi gipuzkoarrak (Iraxuren “Doña Blanca” izenekoa barne) Bidasoa gurutzatu eta, muino-kaxkoetan barrena, iritsi berriak zirela Malkor, Mendibil eta Aizparatzako mazeletara. Eta agindua zutela, Zugarramurdin sartu gabe, gora jo, eta Atxuelako gainetan itxaroteko.

Valdespinaren indar bizkaitarrak, berriz, eta nafartar batzuk ere berdin, harantz ziren joatekoak goiz hartantxe.

Bero sapa genuen goiztiritik.

Uniformeak urdin, eta txapelak gorri eta zuri, puntuzko multzo handi bat agertu da San Estebango ermita parean.

Aurretik, taldeburu, zaldi gainean nagusi, gizon gazte bat.

Orpoz orpo, Dantxarinetikako errepidetik gorantz, soldadu ilara trinko bat ikusi dut, koloretsu, zalapartan Zugarramurdirako bidetik igotzen ari.

Atzerago, multzo handi bat, nagusia memento hartan, bertako nafartar baserritarrez osatua, nik uste; eta ondotik beste bolondres mordo bat.

Multzo laxoagoa zirudien azkeneko honek, bere ilaran tarte hutsak uzten zituelarik. Hegal zabaleko txapel beltzeko “frantses eskualdunez” osatua zen. Ainhoa, Ezpeleta eta Kanbo aldetik Errege eta bolondresak laguntzera propio etorria.

–Nor da? Nor da ba?

–Errege!

Eta aurreko urteko etorrerakoan bezala, errepidera jaitsi dira baserrietatik:

–Errege dugu geurekin! Biba Karlos Setimo!

Uztailaren 15eko gaua Kanbon eman ondoren, bazetoren bigarren aldiz Nafarroara Don Carlos erregegai gaztea.

39 urte luze zain igaro ondoren, Zazpi Urteetako geratean euskaldun askoren idolo (are jainkotxo ere) bihurtua izan zen Carlos M. Isidro “xantu” biltzaile gurenaren biloba ausarta zetorren oraingoan zaldi gainean.

Kapitain Jeneralaren jazkera anpurusaz jantzirik, Don Carlos bera zen heldu. Buruan txapel zuri zabala zeraman, urrezko borla batez apaindua; eta, lepotik paparreraino zintzilikaturik, urrezko “Toison” laukunaren domina.

Ondo-ondotik, beste zaldi batean itzegorik, gauean zaindari eta eskuarki sekretario lana egindako Ponce de León jauna zetorren.



Berorien ondoren, hamaika egitekotan eta kinka gaiztotan ibilia eta zaildua, Erregeren lankide leial ikusi izan dugun Iparragirreko Isidoro. Baita bi konde ezagun ere: Almenarakoa bata, eta Faurakoa bestea.

Espainiara Don Carlosekin azaltzea ohore handitzat izango zutela-ta, baimen berezia lortu, eta hantxe zetozen bi frantses aiton- seme ezagun: Dubrocq eta Durand jaunak, “legitimista” porrokatuak biak.

Horretan, Zugarramurdiren gain-gaineko Aitxuriko gotorlekutik, hasi dira Don Carlosen ohoretan kanoi-salba azkengabeak botatzen; eta mendi gainetatik zetorren zaratata burrunbatsu ozenari, elizako kanpandorretikakoa erantsi zaio:

–Karlos Setimo geurea hemen dugu!

Eta Zugarramurdiko biztanleak oro, kantoi gorriko eliza zuri zabalera eta Mukurustako iturri freskora hurbildu dira, aurrealdeko plaza mukurru beteaz. Barrualdetik, artean, “Marcha Real”aren notak hedatu dira Urdazubiraino eta Otsondoraino.

Denek nahi zuten Zugarramurdin Karlos Setimorekin batera meza aditu; eta eskainiko zitzaion “Te Deum” ospetsuan partaide izan.

Elizatik irtetean, bere Errege-Dei berezia irakurrarazi du Don Carlosek herriko plazan. Eta isilpe osoan entzun dute.

Gero, bertan bazkaldu dute buruzagi guztiek, Valdespinak eta Lizarragak barne.

Eta oturuntzaren ondoren, goraka abiatu gara, zaldiz buruzagiak, oinez gainerakook, Atxuela aldera; aldapa luze, nekagarri eta erpinean gora.

Gure eskuinean, Aitxuriko gotorlekuko kanoiak ari izan dira berriro ere; mendebal aldeko mazela harritsua

latz astinduz. Eta kanoikadaren agur andana zaratatsuari karlistek gogoz eusten zioten bitartean.

Geroxeago, eta kostata, gu gradurik gabekook ere, Basakaitz gaina geure ezkerretan utziz, goiko zelai gune-txora iritsi gara, Eskisaroi izeneko lepora; Atxuelako ton-topera berera, Etxeto baserriaren ondoko inguruetan.

Gure mutilak artean, Alkurruntz-pean, goiztiriaz ge-roztik formaturik zeuden, tinko; Don Carlosen segizioko buruzagiak hara agertu zain.

Ordu gogorrak izan dira, benetan, sapapean eta mo-kaurik batere hartu gabe pasatuak.

Hamaika lekutatik iritsiak ziren bolondresik gehie-nak, asko eta asko iskilurik batere gabe, makila triste ba-na lagun; eta presaka eta muturka batailoi zarpailetan el-karturik.

Lesaka, Etxalar eta Orizki auzotik mendiz etorriak zi-ren bezperatik.

Eskisaroirira Errege azaldu ez-ahal da, pozkariotan bere burua ezin sosegaturik, bere zalditik tarrapataka jaitsi; eta *boluntariyo* ilara luze haietan, txapel gorriak buruetan ehunka eta milaka, bere zain hain leial eta zindo aurkitze-an, oihuka hasi zaie euskal mutilei, eroturik antza:

–¡Viva España! ¡Viva España!

Eta Euskal Herriko karlista gazte haiek, orduan, bero-bero errepikan:

–¡Viva el Rey! ¡Viva Carlos Séptimo!

Une hunkigarri horretan, Don Carlosek goizean Zuga-rramurdiko elizaren aurrean irakurrarazitako Erret Mezu berbera irakurrarazi du bigarren aldiz; baina batailoien aurrean oraingoan:

*“Pobres de recursos, pero ricos de fe y de heroísmo, habéis sabido sostener a gran altura una campaña inve-*

*rosímil, fabulosa; y en medio de privaciones y fatigas sin cuento, no pedíais otra cosa: ¡armas! Mis esfuerzos para procuráros las no han sido del todo infructuosos. Y satisfecho aquel deber, en cuanto me ha sido posible, vengo hoy a cumplir otro mucho más agradable a mi corazón: el de combatir, como vosotros, por nuestra Patria y por nuestro corazón. No seré yo quien detenido por consideraciones de conveniencia política, asista cruzado de brazos a esta lucha heroica y reparadora”.*

Baztan-Ibar gaineko kaxko hartatikako bista ederrean, eta eguzki galdatan hitz horiek entzuterakoan, hunkidurazko malkoak isuri dira boluntario askoren masailetan behera:

–Errege gure artean! Hau poza!

Banan banan agurtu nahi izan ditu orduan denak Don Carlosek.

Baina hori ezina izanik, batailoietakoa bat aukeratu du, zoriz, soldaduekin horrela zuzenki mintzatzekotan eta koaitak solastatzekotan.

Eta Azpeitiko multzoari egokitu zaio buruz buru Erregerekin hitz egiteko hautu hori.

Don Carlosek orduan prediku gaitzak bota dizkie honi eta hari, eta aholku zuhurrak txit eta ugari eman ditu.

Baina soldaduen multzotik erantzunik ezin urriago etorri.

–Yo represento aquí –bota du memento horretan oso goraki– la garantía de unión de la Monarquía con el Pueblo.

Txintik ez morrosko ilara luze haietan.

Harritu egin da Errege.

Azpeitiar haiek euskaraz besterik ez dakitela azaldu dio memento horretan segizioako Burutaran koronelak. Eta

horretan lasaitu egin bide da apur bat Borbon eta Austria-  
-Esteko jaun txit gorena.

Eta bere burutazioaren sakonaz eta larriaz apika ongi jabetu gabe, hauxe erantsi omen du, hitzez hitz, eta Otsondoren agerian:

–Creo que empiezo a entender lo que pasa aquí.

–Perdón, Majestad –proposatu du Burutaran koronelak–. Yo les traduciré sus palabras.

Eta Kondaira errepikatuz, bere gain hartu du itzultzailearen lana.

Eta seguru aski hau ez zekielarik, 1839an Lardizabal jeneralak ere, Bergarako Besarkadakoan, Don Carlos María Isidrorekiko itzultzaile lana bere gain hartu zuen bezalaxe, hartu zuen berea Burutaranek Atxuelako lepoan.

Eta morrosko saiatu haiek bibaka hasi dira pozarren.

Ordubete luzea joan zaie horretara Eskisaroiako kaxko kiskalgarri hartan.

Eta gero, arratsaldea bere amaierarantz ari, aldapan behera abiatu gara kantari:

*Biba Karlos Errege,  
biba Jaime, aurrera!  
Españian ditugu  
goizetik gabe.  
Etortzen diranian  
baguez kalera,  
altxatubaz guziok  
Karlosen bandera,  
esanaz jendiari:  
Españolak gera!*

Eskisaroi eta Atxuela aldetik Erratzura jaisterakoan, Azpilkueta herri koxkorra gurutzatu dugu; eta gurekin ze-

torren baztandar bolondres haietako batek, bertako muino baten gaineko “Dorre-zaharra” jauregi karratu gorri ilunaren historia azaldu digu laburki:

—Etxe horretantxe jaio zen mundura —esan digu— orain dela lau bat mende, Maria Azpilkueta eta Aznar anderea; Jasoko Johaneseekin ezkondu, eta Xabierreko Frantses izango zenaren ama. Ba al zenekiten?

Gugana Europatik bildutako bi “légitimiste” haietakoek ezetz erantzun dute, eta azalpen haiek erdipurdi baidarik ez ulertuta ere, interes handia erakutsi dute gehiago jakiteko. Eta jauregiaren historia, frantsesez azaltzeko eskatu didate.

Eta Azpilkuetako jauregia guk gaua pasako genuen Arizkun herritik urruti ez dagoela-ta, biharamunean bertan, eta Elio Ezpeleta jenerala oraindik iritsia ez zelako, gure Komandanteak hartarako baimena emanaz gero berderen, berriro hara hurbilduko ginela hitzemanarazi didate.

Neronek ere, egia aitortuko badut (eta gauza bera gehientsuek, iruditu zaidanez) ez nekien ezer ere Jaso eta Azpilkueta nafar familia ospetsuez.

Baina gauean, taldekide genuen Sasoeta “jakintsuari” esker (Sasoeta Arizkungo seme zelako agertzen zitzaigun gai hartaz horren “jakintsu”), zerbait gehixeago ikasteko esperantza sumatu nuen, eta berriro bertaratzeko asmoa onartu nuen. Gogoz onartu ere.

Eta, txistua eta dultzaina lagun, beherantz egin dugu denok.

Harzubitxo bat Bidasoa erreka gainetik pasa, eta Erratzura eta azkenean Arizkuna iritsi gara.

Gure buruzagiak “Iturralde” jauregi ederrean sartu dira, eta gu Arizkungo kaleetan sakabanatu.

Beharrik giroa hasia zen ordurako pittin bat freskatzen.

Eta hozkirri heze hartan, sarkorrago eta ñabarrago bilakatu dira Baztango belazeetako usainak.

Eta ibarreko bake geldiak eta etxeetako kolore leun xarmagarriek azkarki hunkiturik, betiko gelditu naiz Baztan ibarraz maitemindurik. Gutxienez Astigarraga inguruko Urumeakoez betidanik nagoen mailan.

Don Carlos Arizkungo plaza luzera sartzerakoan, goizean Zugarramurdirakoan bezalaxe, suziriak berriztatu dira, oihuak eta kantak ozendu, eta herri osoaren harrera ezin beroagoa mamitu da.

Elio jeneral patxadatsua iritsi zain ostatatu gara bertan, nola-hala; hiru egun ederrez, herritarrek, eskuzabal, errazio galantak eskaini dizkigutelarik.

Eta, zinez, Arizkun harrigorriaren herriska zoragarritik aldegeteko ezin uzkurrago etorri zaigu handik “partitzeko tenoria”.

Ondikotz!

## XIII

Arizkunen bi egun Elio jeneral zaharraren zain eman ondoren, niri Zugarramurdiko Peña Platara joateko agindu zidaten.

Nafarroan zehar joatekoak ziren borrokakideei esan nien agur ostiral arratsaldean. Oskotz komandanteari bereziki, eta ez graduari zegokion aldetik bakarrik. Eta larunbatean bertan, Aitxuriko gotorlekuan nengoen.

“El Cuartel Real”en agerketa berehala abiatuko zela koan, moldiztegitxo garraiarri horietako bat eskaini zidan Cristóbal Pérez zuzendari teknikoak, Zugarramurdiko gotorlekura propio bidalia; eta artikuluak prestatzeko agindu zidan egunkariko zuzendari orokorra izendatu zuten Valentín Gómez delako batek.

Aurrerantzean bi jaun horietxek izango ziren nire nagusiak.

Inprimagailu hura oso oso makina txikia zenez, eta bezoz mugitzekoa, Peña Platako gelatxo batean kokatu genuen, kasernako atariaren ondoan.

Gela berean, metro bete gora pilaturik, inprimaketarako neurritan ebakitako paper orri mordo bat ipini genuen, eskuragarri. Eta ondoan, tinta-lata batzuk, eta makina-olio ontzi pare bat.

Telegraforik ez genuen oraindik. Kasernako buruzagitzak, bai. Ezkutuan. Baina “El Cuartel Real”ek berak, oraindik ez.

Eta albisteak ahal bezala jasotzen nituen Dantxarinetik, Kanbotik eta Baionatik batez ere. Atzerritikako kaze-tak ere, frantses batzuk bakarrik egun haietan, trenez jasotzen nituen Frantziatik.

Gauzak berehala aldatuko zirela agindu ziguten; eta Don Carlos bera Lizarrara iristea egun gutxiko kontua izango zela.

Nolanahi ere, eta karlista armadari buruzko gorabehe-rez, informazio on samarra izaten genuen, fidagarria eta zehatza, Peña Platako militarren bitartez. Zuhurki eta zentzuz erabiltzeko hamaika aldiz errepikatzen baziguten ere, eta zenbait kasutan espreski zentsura bazegoen ere.

Eta, egia esan, uztailen barrena iritsi zitzaizkigun berriek, bizkortu egin gintuzten behin eta berriz.

Uztailaren 23an, tiro bat ere bota behar izan gabe, Lekunberrin sartu zen Don Carlos bere 2.000 soldaduekin; larraundarrek harrera ezin bihozkorragoa eskaini ziotelarik.

Biharamunean, ostegunez, Ibero herrian sartu zen Karlos Setimo Errege, bere jarraitzaile ugariekin.

Interes berezia genuen guk Ibero, hain zuzen, “bel-tzengandik” jaregiteko; gero eta nabarmenkiago Tío Tomás-en (Zumalakarregiren) oinordeko agertzen baitzen Nikolas Ollo (Nafarroako gure Jeneral-Burua).



Hots, Ollo Iberokoa zen, Iruñerrian. Eta Ibero herria gure eskuetara pasatzea... ohorezko kontu bihurtu zitzaizgun!

“Giriak” kikilduta zeuden erabat. Eta Don Carlosen gerrillariak hara hurbiltzen ari zirela ikastean, bertako 140 karabineroak joan ziren ihesi Iruñe aldera. Arrakasta bera lortu zuen Dorregarai jeneralak San Adriango gazteluan, bertan zaindari zeuden 150 karabineroek beren burua eman zutelarik.

Bere garaitzapena Don Carlosek segurutzat emanik, askatu egin zituen denak: “id a vuestras casas, y contad lo que habéis visto”.

Biharamunean, uztailaren 25ean, gure eskuetan erori zen Arrasate hiria, Gipuzkoan; eta egun bereko arratsean, Bergara abandonatu zuten beltzek. Eta gurek orduan, ez bat eta ez bi, dinamitaz bota zuten hankaz gora “Bergarako Besarkadaren” oroitzapenetan herrian eraikitako oroitarrria (“Saldukeriaren” aldare ahalkegarria). Nik neuk, behintzat, sekulako poza hartu nuen.

Larunbatean Urantzia berreskuratu genuen, Nafarroako Erriberan. Ofizialki egin zigun harrera bertako Udaltaldeak, bere osoan, kanpaiak luzaz joaraziz, eta eskualde oso-osoak gure etorrera ezin beroago txalotzen zuen bitartean.

Igandean, uztailaren 27an, Altsasun sartu ziren gure bolondresak, Lizarraga jeneralak berak zuzendurik operazioa.

Biharamunean, uztailaren 28an (astelehenez) Urizaharra berreskuratu genuen, Araban. Eta 30ean Elgoibar, Gipuzkoan; eta Urduña, Bizkaian. Biak argi, suziri eta ospaketa harrigarritan murgildurik.

San Inazio egunean, garaitzapenen katea luzatuz, Lu-xaondo herria erori zen gutarren eskuetan, Araban.

Elkarren segidan erortzen ziren auzoak, herriak eta eskualdeak, ilara harrigarrian. Eta geure garaitzapena gainean genuela sinetsi genuen.

Aitxurin ez zegoen beste mintzagairik: “esto es el Paseo de la Victoria”, esaten zuten ahobatez buruzagiek. Inork ez zuen honetaz zalantza izpirik.

Don Carlosi Foruen Zina egiteko mementoa etorria zitzaiola zabaldu zen. Eta Gernika euskaldunon hiriburu sinbolikoa izanik, gure oldarraldiari indar berria erantsiko ziola bide, ospakuntza hori berehala eta handikiro burutu behar zela erabaki zuten.

Ospaketa zeremonia, hurrengo larunbaterako utzi zen, abuztuaren 2rako. Eta prestaketa lanak aurrera zihoazela jakin genuen.

Hots, orduantxe izan nuen nik neure lehenengo ezuste nagusia: Zugarramurdi segituan utzi, eta abuztuaren lein bertan Gernikan zain egon beharra gaztigatu baitzidaten. Bidaia egiteko erraztasunak oro emango zizkidatela; baina ospakizun garrantzitsua zetorrela Gernikan, eta han egoteko. “Es además, y ante todo, una orden”.

“El Cuartel Real”, Zazpi Urteetako gerratean Oñatin argitara zen “Diario Oficial” delakoaren ordezkoa izango zena, zoritxarrez oraindik agertzen hasia izan ez arren, “egun gutxi barru” kaleratuko omen zuen bere kehenengo alea.

Eta lehenengo zenbakiarentzat, Gernikako Ekintzari buruzko artikulu bat prestatzeko agindu zidan Valentín Gómez zuzendariak (nire bataioa!); eta frantsesez besterik ez zekiten puntuzko frantximentekiko itzultzaile lana egi-ten hasi behar nuela ere bai.

Zugarramurdiri agur esan behar, horretara.

Peña Plata kaserna-gotorlekuan pasa nituen egunetan, bi eginkizun nagusi bete nituen batez ere: bata, zaldiz pittin bat bederen ikasi; nik, kaletar honek, zaldiei buruz ez bainekien deusik, berentzako pentsu saltzen besterik... Eta gainean jarri eta itzegoten, are gutxiago. Beldur galantak pasa nituen Zugarramurdira begira! Baina zaldiak oso otzanak dira.

Eta, bestea, iskiluak ere, hein batez erabiltzen ikasi nuela. "Remington" kaxkar bat eman zidaten; eta goizero egiten nuen saialditxo bat, Borda tenientearen eskutik, tiroketa ordu erdi batez Aitxuriko mazela harritsuan "pratikatzin". Belarriak gorturik gelditzen zitzaizkidan, eta eskuineko besaburua zeharo mindurik. Horiek zartakoak!

Korneta-tokeak, berriz, ez zitzaizkidan batere arrotz gertatu: Urgulldik Donostiako kalera iristen zitzaizkigun berberak ziren-eta. Etxen bezalaxe...

Abuztuaren lean, arratsalde bero batean, Bilbotik ahalik eta urrutienetik iraganez, Elorrio eta Durangon barrera iritsi nintzen Gernikara.

Bidean ez genuen "giririk" bat ere ikusi. Non ezkutatutu ote ziren?

Zornotzaraino hurbildu zen Don Carlos. Eta deputatutalde osoa, Bizkaiko karlisten errespetua Erregeri erakustekotan, bertara zen: Arrieta Maskaruako Lorenzo, korrejidorea; Piñerako Pedro deputatua, Tollara eta Saratxu aholkulariak, eta Olaskoaga sekretarioa.

Eta arren eta arren, Gernikan Foruaren Zina tradizioaren arabera egitea erregutu zioten.

Bilboko ateetan aurkeztea, ordea, ezinezkoa zenez, berriro ere ahalik eta azkarrenik hara agertzea hitzeman zien Erregek. Eta bigarren agerraldi horretan usadiozko

xehetasun guzti-guztiak beteko zituela agindu ondoren, Gernikako Arbola agurtu nahi zukeela adierazi zuen.

Gernikarako bidean, bi soldadu ilara antolatu ziren errepidearen bi aldeetan; eta Don Carlos bion artetik pasa zen zaldiz Santa Maria elizaraino.

Arbolapean ezarritako aldaretxoan, Ama Birjina Orbangabearen imajina bat zegoen. Eta beraren aurrean egin zuen otoitz Don Carlosek.

Bizkaiko Deputatuek oro begiratzen zuten arretaz gertakari ospetsua; eta, beherexeago, karlista armadako jeneralek, eta segizioan etorritako beste agintariek ere, Erregeren keinuetan eta urratsetan zeukatzen jarrita beren arreta guztia.

Zutik jarririk, orduan, buruhas eta bere txapel zuria eskuan helduz, ondoko hitz hauek esan zituen Don Carlosek:

*“Ansiando mi corazón cumplir la providencial misión que Dios me ha encomendado, de restañar las profundas heridas que la impiedad y el despotismo han abierto en el seno de mi querida España, comienzo hoy mi obra por vosotros, nobles y honrados vizcainos; porque al pisar vuestro leal y heroico suelo, no he podido prescindir, cediendo a los impulsos de mi corazón, de venir a saludar a vuestro venerando árbol, símbolo de la libertad cristiana que os ha hecho felices durante tantos siglos, y a aseguraros con la solemnidad que las circunstancias permiten, que de hoy más quedáis reintegrados en la plenitud de vuestros fueros; y que el día que el Señor tenga a bien premiar nuestros esfuerzos con la pacificación general de España, os prometo solemnemente cumplir con toda exactitud, según es mi deber, las prescripciones forales del juramento, conforme lo hicieron mis augustos antepa-*

*sados; y es mi voluntad que esta mi declaración quede consignada en un acta”.*

Isilpe trinkoa sortu zen elizaurrean. Eta orduan, berori urratuz, bere indar guztiaz bota zuen Karlos Setimok bere oihu laukoitza:

*¡Viva la Religión!*

*¡Viva España!*

*¡Vivan los Fueros!*

*¡Viva Vizcaya!*

Benetako orroa gorgarria gauzatu zen lau bider jarraian. Eta begiraleen artean, esaldi hau errepikatu eta nagusitu zen osotara:

“Don Carlosek emon dau errege berbia...! Don Carlosek emon dau errege berbia!”...

–Qu’est-ce qu’ils disent? –galdetu zidan Lavallée legitimistak harrituta, eguneko gertakarien azalpenetarako nire eskuetan jarrita zegoelarik.

–Que le Roi a donné sa parole –itzuli nion–. Une parole de Roi pour garantir qu’ils respecteront la Loi Basque.

Konprenitzen zuela esan zidan.

Berak konprenitzen omen zuen. Bai.

Baina nik alderantziz... gure herria sekula baino gutxiago konprenitzen nuela pentsatu nuen ustekabean.

–J’oublierai très difficilement ce spectacle –gaineratu zuen zeharo hunkituta. Nekez ahaztuko zuela han ikusitakoa.

–On n’avait jamais vu ça –erantsi zuen orduan berarekin zegoen beste jaun frantses batek, begien aurrean zeukana ezin sinetsirik–. C’est vraiment incroyable. Vous, Basques, vous avez un peuple réellement exceptionnel.

Harrotu egin ninduen honek, eta ez nekien nola erantzun. Baina bihotzaren erditik, esaldi hauxe bakarrik bururatu zitzaidan:

–Notre peuple croît, Monsieur!

(“Peut-être trop” erantsi nahi izan nukeen. Baina, beharrik, ez nuen egin).

–Et vous n’avez pas peur? –galdetu zidan.

–Parfois, oui –nik erantzun.

Bitxi gertatu zitzaidan jarrera hura “légitimiste” bategan. Eta esan egin nion, frantsesez jakina, neure galdera multzoari jarraipena emanaz:

–Barka ene atrebentzia, jauna. Baina galdera bat egingo dizut zuzenki. Don Carlosen aldekoa zara?

–Bada, zuk ere barka nire atrebentzia: ez. Ez naiz Karlos Setimoren aldekoa. Baina hemen gertatzen ari dena ez dugu Europan batere ulertzen. Eta lekuko izatera bidali nau neure kazeta-zuzendaritzak.

–Kazetaria, beraz?

–Bai. Parisko “L’Illustration” astekariarentzako kronikak bidaltzen ditut.

Eta bere dokumentazioa erakutsi dit: “Michel Malesherbes - Paris - Journaliste - 38 ans”.

–Mila esker anitz zure konfiantzarengatik –esan diot–. Ni neu Jose Maria Arruabarrena nauzu. Donostiarra (“né à Saint Sébastien”, argitu behar izan diot). 23 urte, sale-roslea. Baina orain, eta gerra honetan, kazetaria ere bai. Baina ni karlista aldizkari baten zerbitzutan... Oraindik kalera ez bada ere.

–Nola deritzo?

–“El Cuartel Real”, eta Nafarroan agertzen hasiko da aurki.

–Ederki. Lankide gara, nolazpait.

–Bai horixe!

–Katalunian ere izana naiz aurtengo hasieran –jarraitu zuen–. Eta Madrilen ere bai 1869an, orain dela lau urte. Eta, sinets nazazu, Arrua... Arrua...

–Arruabarrena. Baina hori zailegi zaizu. Esaidazu “Putzu”. Edo “Puzu”, bestela. Berdin da.

–Mila esker. Ba, hemengo egoera, Puzu lankide hori, desberdina da osoki, nire ustez. Ni atzerritarra naiz. Jaki-na. Baina honetxek ematen dit agian zorroztasun handiagoa. Ni euskalduna banintz, ez nintzateke karlista izango.

Txundituta utzi nau esaldi honek, eta barne-muineta-raino hunkitu eta kezkatu.

–Euskal Herritik at, Puzu, Don Carlosek ez du popu-lua inarrosten. Han dirudunak mugitu dira Don Carlosen alde, beren ondasunak gal beldurrez.

“Baina hemen ez da gauza bera. Gaurko ekintza si-nesgaitz horretan ezin garbikiago ikusi dugunez, hemen herria dago Don Carlosen atzean. Han ez.

“Gerra hemen dago. Han ez.

Zeharo pentsakor utzi nau honek. Ez baitzait iruditu Malesherbes hura oso desbideratuta zebilenik.

–On en reparlera demain –esan diot.

Gernikako gertakariaren albistea, berehala hedatu zen: bai Bizkaian, eta bai “probintzietan” ere.

Euskaldun bolondresak, prestago agertzen ziren Ger-nikako Agintzaren ondoko egunetan inoiz baino bizia be-ra Don Carlosen alde emateko.

Beraz, agintza xumeari gerokoan Zin guztizkoak ja-rraitzean... Atera kontuak!

Eta bolondresen artean, azkartu egin ziren arrunt, Ma-driletikako armada ofizialaren kontrako amorru zornatua eta borroka latza.

Eta ni neu ere, Gernikan bertan gau hartan, eta ondoko egunetan hemen eta han, neure adimenetik ikusitakoak eta entzundakoak ezin bazterturik ibili nintzen.

Herri honek sinetsi egiten du, eta borroka latzean azala uzten. Baina ondoko herriek, Malesherbes lankideak gardenki azaldu duenez, ez. Zergatik?

Areago: zergatik ez zuen inork gure artean galdera hori egiten?

Eta tematu egin nintzen ideia horietan.

Inoiz baino zalantza handiagoak piztuak zituen nigan... paristar batek!



## XIV

Gernikatik Zugarramurdira mendiz itzuli nintzen. Donostia gurutzatu gabe. Noski!

Hantxe zegoen, nire zain, Peña Platako gotorlekuan, Valentín Gómez, “El Cuartel Real”en Zuzendaria. Militar jantzita topatu nuen; eta ginbaileko izarretan ikusi nuen, Koronel gradua emana zioten.

Sartu naiz, eta lehenengo atean, ezkerretan, letrero bat: “El Cuartel Real // Coronel Director”. Izen-deiturarik ez.

–A la orden de Usía, mi Coronel –agurtu dut ahalik eta militarrenik.

–Buenos días, Arruabarrena. Baja la mano.

Eta erdaraz jarraitu:

–Ni kazetaria naiz, ez militarra. Baina kasernan lasai ibiltzeko, eta kanporako ere bai komeni omen delako, Koronel gradu hori eman didate. Gehiegizkoa, nik uste. Baina, gure eginkizunetatik bertago, zer moduz Gernikakoa?

–Ikusgarria izan zen –erantzun diot–. Ahazten ez diren egun gogoangarri horietakoa. Benetan.

–Notak hartu zenituen?

–Ez nuke behar. Baina ohar batzuk jarri nituen paper mutur batean.

–Ederki, ba. Hemen gaude, beraz, geure lan berriari ekiteko prest –erantsi zuen Gómezek. Eta berehala galde-tu zidan–: Eta zu, zer?

–Gauza bera. Jadanik dexente luzatuak garela iruditzen zait. Eta hasteko gogoia dut. Eta lehenengo zenbakia neure begiez irakurtzeko irrikan.

–Ongi. Eta uniformeia non duzu? Hemen (kaserna barruan, alegia), gu guztiok militar jaztea erabaki baitu Zuzendaritzak. “Zona Militar”ean gaude. Ez dugu ahortzi behar.

–Ez, ez. Oraintxe askatuko dut neure pardela, eta jantzi egingo naiz.

–Edonola ere, joan den astean berrezarri egin dugu telegrafo-tantaien ilara. Eta hasiak dira guretzako mezuak etengabe iristen. Morsez, jakina! Zer? Ahaztuta?

–Bai, nik uste! Baina eguneratzen saiatuko naiz. Eta ariaren ariaz, menderatu egingo dut.

–Noski!

Egoera militarren berri eman dit laburki. “Lau hiriburuak oraindik liberatu ez baditugu ere –esan dit– gauzak oso ongi doaz Euskal Herrian”. Zehatza izatekotan, “van muy bien en la Región Vasco-Navarra” esan dit, hitzez hitz, eta pare bat aldiz.

–Lizarra aurki eroriko da gure eskuetan: bi aste barru gehienez. Auzo batzuetan, egia esan, gu gara dagoeneko nagusi oso. Baina bertako gaztelua jaregitea falta zaigu. Hots, hor gogor egingo dute “girik”, eta ez dute aise laxatuko.

“Guk izkribu guztiak prestatu behar ditugu. Eta oso bereziki lan bat argitara behar dugu geure lehenengo ale-

an: Don Carlosek Don Alfonso bere anaia gazteari egin dion gutun interesgarria. Badakikezu, nik uste, erlijioaren eta Vaticanoren defentsan, Aita Sainduaren Armadan sartu dela “zuavo” gisa.

“Horrez gain, albistek baditugu, ugari. Eta “El Cuartel Real” oso itxura eta tamaina apalean argitaratzen hasiko denez, arazorik ez dugu izango orrialdeak betetzeko.

\* \* \*

Azkenean, kaleratzeko data gisa abuztuaren 23a hautaturik, bost mila aletako tirada egitea erabaki du Gómezek.

Gure aldizkariak ez zuen batere itxura dotorerik, eta luzeraz lau orrialde besterik ez. Mehexko gertatzen!

–Gerra garaietako kazeta da hau –gogorazi zigun Gómezek.

Baina hain nekez osatutako paper-pilotxo haiek ikusi nituenean, harrigarritzko poxak bete ninduen:

–*Hemen dek! Hemen dek!*

Eta “Zorionak” eman nizkion bero-bero Don Valentíni:

–¡Ya lo tenemos! –esan nion garrasika–. “Se publicará dos veces por semana”, agindu dugula ikusi dut... Agian bai!

Eta bai berak, bai nik, baita une hartan gurekin zeuden bi soldadu laguntzaileek ere, irribarre zabalaz agurtu genuen mundura berria:

–El Cuartel Real...! Konturatzen zarete?

Aurrealdeko plauman hauxe irakur zitekeen: *El Cuartel Real* hitzak, letra handitan. Eta txikiagotan, eta bigarren eta hirugarren lerroetan beste hau:

*Periódico Bisemanal // Dios-Patria-Rey.*

Ondoren, data zetorren: *23 de Agosto de 1873.*

Eta beherago, argitaralekua: *Peña de la Plata.*

Nik “Peña Plata” jarriko nukeen. Jakina. Are “Aitxuria” ere, egokiago.

Baina Zuzendaria, “el conocido escritor y periodista” Valentín Gómez zen; eta ez ni, Joxe Maria Arruabarrena, pentsu-saltzaile gizajo hau.

Hasteko, eta hortik aurrera ieki guzti-guztietan esaldi berbera gailen eta letra larrixeagoetan agertzen zelarik, ondoko hau irakur zitekeen: “*S.M. el Rey (q.D.g.) (alegia, ‘Su Majestad... que Dios guarde’) continúa sin novedad al frente de su leal y valiente ejército*”.

Eta behereago, beste bigarren ohar aldakaitz hau: “*S.M. la Reina, y sus augustos hijos, continúan sin novedad en su importante salud*”.

Memento hartan hiru seme-alaba “guren” zituen Erregek: Doña Blanca, seme-alabetan zaharrena, eta aitaren kuttuna; lau urtekoa orduan. Don Jaime oinordekoa, eta errege-gai gerora, hiru urtekoa; eta Doña Elvira, gazteena, orduan bere bigarren urtean.

Hamaika fototan ikusiak nituen hirurak (nahiz Putzu kaleko pardeltxo hartan gurasoenak bakarrik etorri!). Eta sekula buruz buru gurutzatuak izan ez arren, ia-ia Don Carlos eta Doña Margarita bi gurasoak bezain ongi “ezagutzen” bide nituen.

Ondoren, eta bagenekienez, bere osoan zetorren Don Carlosek Don Alfonso-Carlos bere anaiari bidalitako eskutitz irekia: “Carta de S.M. a su Augusto hermano el Sermo. Sr. D. Alfonso de Borbón (‘serenísimo’, nik uste) para que los españoles todos sepan lo que quiere y se propone el joven y esclarecido Príncipe”.

“*A ti, hermano mío, que tienes la dicha envidiable de servir bajo las banderas del inmortal Pontífice... No sólo hablo en ella al hermano de mi corazón, sino también a*

*todos los españoles, sin excepción alguna, que también son mis hermanos”.*

Ageri denez, hemen Karlos Setimo bilobak, Carlos V bere aitonaren hizkera elezuri eztitsu bera hartzen zuen. Gerra odoltsua egitera deliberaturik egon arren.

*“La corona de España –jarraitzen zuen– está ya puesta sobre mi frente por la santa mano de la Ley. Mi obligación es consagrar a este pueblo todos mis pensamientos, todas mis fuerzas; es morir por él, o salvarle”.*

Eta, aurreraxeago, berak gerra irabaziz gero, egingo lukeenari buruzko lerro hauek aurkitu nituen; nolabait bereziki niri, eta euskaldun guztioi, zegozkigunak: *“Así como el espíritu revolucionario pretende igualar a las provincias vascas a las restantes de España, todas éstas se semejarían o se igualarían en su régimen interior con aquellas afortunadas y nobles provincias”.*

Don Carlosek ez zuen Euskal Herria espainiartzea proposatzen, alderantziz beste hau baizik: Espainiako probintziak oro, “Laurak Bat” osatzen dutenen bidetik lerrotzea.

*“El pueblo español y yo hemos de hacer grandes cosas”*, zioen. Ni baino pittin bat zaharragoa, Don Carlosek 25 urte besterik ez zuen orduan.

Obeditu behar zioten jeneralak (askotan Zazpi Urteetako Beterano zailduak), zaharragoak ziren Errege baino. Karlos Andetxaga Enkarterriko jeneralak, esate baterako, 70 urte zituen; Arizkunen ikusi berria genuen Elio Ezpeleta jeneralak, 67; Santakrutz apaizaren arerio nagusi izandako Lizarraga Eskirotz jeneralak, 66; Juan Nepomuzeno Orbe, Valdespinako bigarren markes famatuak, 56; Ollo Bidaurreta jeneralak, 57 jadanik; eta orain dela hiru urte kausari uko egindako Cabrera jeneralak, “Morellako Kondea” bilakatutako traidoreak, 67 zituen.

Zaharrago denak. Miraria zirudien, beraz, Don Carlos gazteak aitona ere izan zekizkiokeen beterano ohoretsu haiengandik, hain osoki aginpidea eta errespetua bil-tzea. Halaxe zen, ordea.

Bide beretik, ahula eta umezurtza zen gure aldizkari-txoa Espainiako (are Europako) kideen artean. Nondik nora lortuko ote genuen guk irakurlegoaren itzala?

Gure “El Cuartel Real” aldizkaria, kaxkarra zen itxu-raz eta luzeraz, eta basakazeta apala benetan; eta ez inon-dik ere Austria-Este dinastiako Erregerengandik espero zitekeen mailakoa. Guk bagenekien.

Eta aitortu ere deplauki egin genuen ondoko aleetan: “Hacemos el periódico en una pequeña imprenta de cam-po”. Erakutsi egiten genuen geure eskasia. Ez genuen ez-kutatzen, hain zuzen.

Malesherbes-en harridura, hitz batez, nirea ere bazen: “votre peuple croit”...

Zalantzen ilunpeetatik irten ezinik ere, gure askatasu-na nahi nuen nik, militarrek eraikitako harresi guztien erorketa. Horrelako zerbait. Eta Forua zitzaidan askata-sun horien berme eta baradera ziurra; eta Don Carlos, hain zuzen, osaba Felipek errepikatzen zuenaren bidetik, Foruaren defendatzaile bakarra:

*Gure fuero maite ta  
usantza ederrai,  
jende aek ez die  
batere ongi nai;  
eziñ iñola kendu  
fusillak karlistai;  
au egiñ al balute  
agur fueroak, ai!*

Hori kantatzen zuten karlista gazteek.

Ez nintzen bakarra susmo horietan. Baina Donostiatik irten ondoko egunetan, egunetik egunera, nire katramilak eta kezkek azkartu egin ziren.

Bart, hain zuzen ere, Aitxuritik jaitsi arratsean, eta horixe, Zugarramurdin, Peña Platara itzultzerakoan entzun nuen-eta:

*Gizon aek daukaten  
ustea gañera  
da kentzea aiñ maite  
guk degun euskera,  
ta itzegiñ erazi  
guzioi erdera;  
ta atrebitu dira  
ori esatera!*

*Kendu nai dizkigute  
gañera apaizak,  
zuriak bialdu ta  
ekartzeko beltzak,  
euskeraz ez dakiten  
pertsonek arrotzak!  
Zenbat beneno diuan  
beltz oen biotzak!*

*Karlos zazpigarrena  
nai degu errege,  
ez degu nai pakerik  
au tronuan bage.*

“El Cuartel Real”en Seu d’Urgellgo Apezpikuaren etorrera aipatzea erabaki genuen. Gurean egon ondoren, Elizondo aldera aldatu baitzen.

Izendatu berria zen Nafarroako Gobernu-Batzarraren albistearen eman genuen: Cesáreo Sanz buru, Pérez Tafalla, Maritxalar, Etxeberria, Cancio Mena eta Marta Oneka kideek osatua. Ez ditut ezagutzen, jakina.

Eta Batzarrak argitaratutako Agiriaren pasarte batek hunkitu ninduen bereziki: *“Esta guerra que provoca necesidades... en el sufrido y heroico pueblo navarro, que la mantiene a costa de inmensos aunque gratos sacrificios”...*

“En el sufrido y heroico pueblo navarro que la mantiene”... Urdazuriko Agirian uztailaren 30ean argitara emana. Non dira gainerakoak?

Aitxuri behean Zugarramurdi herriska txuria egunero agerian neukala, lehenago Donostiako Gaztelua izaten nuen bezala, nigan barneko zerbait urratzen ari zitzaidala nabaritzen nuen. Bakarrik geundela, alegia.

Eta Morsezko mezuek eta Frantziatik zetorkigun prentsak ez zuela nire bakardade susmo hauetaz ezertxo ere esaten.

Kantak entzuten nituen nigan. Kantak bakarrik, bakardadean iraungitzen ari.



## XV

Don Carlosen garaitzapena gero eta nabarmenago agertzen zen. Egunetik egunera, auzoak, herriak, eskualde osoak, ilaran eta etendurarik gabe, erortzen ziren karlisten eskuetan.

Eta guk, Zugarramurdiko kaxko urrun hartan, pozkarioz bai, baina ezintasunez eta bekaizkeriaz ere jarraitzen genituen gertakariak.

Lortzen genituen albisteen bilduma nola-hala eginez, jadanik Nafarroa osoa (Iruñea, Tutereta eta Erriberako beste herri batzuk salbu) gutarren eskuetan zegoela ondorioztatzen genuen. Eta beltzen ahalegina ere, halakoa zen: aste hartan bakarrik, 28.000 kartutxo bota zituzten liberalek gure aurka Lizarraldean.

Geure “El Cuartel Real”aren tresneria eta bulegoak Lizarrara eraman nahi genituen ahalik eta azkarrenik; eta beroriekin batera, jakina... geure burua ere bai!

Urratsa emateko, ordea, gauza bat falta genuen: Lizarra bera “beltzei” kentzea. Ez baitzen hutsaren hurrena!

Guganaino heltzen ziren berriek adierazten zutenenez, Lizarra hiriko parte nagusia gure eskuetan zegoen hilaren 18az geroztik.

Nafarroako 2. Batailoiaren eskutik, Rada jeneralak (gure artean “Radica” deitzen genuenak) Kale Nagusia eta San Juan Plaza menderatuak zituen erdialdean; baita Lizarrako San Pedro parrokia eta Puikoa ere, Ega ibaiaz ezker aldean.

Eta Egako ibar eskuinean, bide beretik, eta hauek ere aurreko egunetan eta bateratsu harturik, San Pedro auzoa, Rua zaharreko alderdi gotikoa, eta Ega eskuineko alderdia, hiriko hego-ekialdean.

Bi eskualdeon artean, eta frantziskotarren baratzeak Ega ibairaino iristen zirelarik, mila leihotako San Frantziskoren komentutzar gotor, gaitz, beldurgarria gelditzen liberalen manupean, inguratzen zuen murrutzar altuaz bestaldean.

Gure indarrek inguraturik, bai.

Ba al zeuden, egon, ehun metro ere gutarren lerrotik eta komenturaino? Baina sendo, zindo, menderakaitz itxuraz. Zazpi Urteetako gerratean bezala, oraingoan ere Lizarrako gotorleku nagusi bihurturik.

Behin-betiko oldarraldia prestatzekotan, bateria bat jarri zuten gutarrek Klarisen Monastegian, “Los Llanos” deitzen ibarrean (oso ederra omen, baina anartean nik sekula ez ikusia!); Ega ibaiak inguratzen duen zelai gune batean, eta aldameneko Beneditarren komentuariaren eskuarrean.

Ega ibaiaz bestaldera, berriz, Ruako San Pedro eliza-peaz bestaldean, nolazpait azaltzeko, beste bateria bat paratu zuten gutarrek Egako Granadako Dukeen jauregi zahar eta famatuaren lurraldean.

San Frantziskoren monastegia, horretara, hertsiki inguratua eta setiatua genuela azaldu beharrik ez dago. Zinez geneuzkan harrapaturik barruko soldadu errepublikarrak, beren gotorleku monastikotik inora ezinik.

Telegrafoa etengabe ari, Villapadierna jeneral liberala Erriberatik harantz zihoala jakin genuen guk Zugarramurdin. Laguntza ematera, Iguzkitza aldera heldu zela bere sei batailoiekin eta kanoi mordoarekin.

Besterik ere jakin genuen Morse bidezko bataila ez-kutu hartan: Don Carlosek eta Buruzagitza guztiak ere bazekitela hau guztia Lizarra inguruan.

Eta Villapadiernari Lizarrarako bidea oztopatzea erabaki zutela.

Elio jeneralak 3. Batailoiarekin, Ollo jeneralak 4. Batailoiarekin, eta Karlos Setimok berak 1. Batailoiarekin, helbidea moztu, beltzen etorrera galarazi, eta atzera eragin behar zieten liberei, gehienez Sesma inguruan tenkaraziz.

Jurramendiz bestaldeko mazelan kokatu zuten karlistek beren “kaserna orokorra”. Deikaztelun zehazki. Gure tropak Arellanon, Arronitzen, eta Allon barrena barreiatzen zirelarik.

Artean, Lizarra Erdiko San Frantziskoren gotorlekuak, etengabe jasan zuen Radaren eta Dorregarairen soldaduen eraso ezin bortitzagoa. Laurehun granadak egin zuten ez-tanda bost egun eta gaez monastegiaren harresi gora eta gotorren kontra, beretan arraildurarik batere ireki ezinean... Haiek bai murrutzar gaitzak!

Ega gaineko “Gartzelako Zubi” konkorr zaharra, bestalde, Gobernariaren Jauregiaren inguruan ibaia gurutzatzen zuena, Ramón Nouvillas “Norteko” jeneral-buru liberalaren aginduz, zartatua izan zen zakarki. Eta kitto.

Komentuaren barruan, berriz, bizirik irteteko batere esperantzarik gabe, 600 giri zeuden: iskiluz eta munizioz lepo, bai. Baina etsi-beharrak hartuta.

Zulo-galeria luze bat prestatu zuten orduan karlistek komentuaren zoruetaraino, zulo-buruan sekulako mina bat lehertzekotan. Baita sekulako leherketa lortu ere. Baina urrun xamar. Eta gotorlekua ez zen osoki birrindua izan.

Aste osoa joan zen tirabira burrunbatsu eta latz horretan, nola bukatuko inork sumatzen ez zuelarik.

Hots, kinka hartan gutarrak zeudelarik, abuztuaren 24an, igandean, bat-batean beltzek poto egin. Eta beren burua eman egin zuten. Eta San Frantziskoren monastegi-gotorlekua gurera pasa zen.

Barrutik defentsa amorratuan borrokatutako Sanz koronel-ordea, bere agindupeko 3 kapitainak, 7 ofizialeak eta 475 soldaduak, preso altxa genituen.

Horrekin batera, harrapakin gaitza ere bai: “Berdan” markako 1.200 fusil, 400 granada, espartin mordo handi bat, burusiak dozenaka... Garaitzapen aparta gurea!

Komentutzarreko zokoetan galdurik, eta jadanik biz-pahiru egun hartan kirasten hasirik, zazpi soldadu libera-len gorputzak zeutzan. Eta han-hemenka oinazetan garra-sika, bestalde, hiruzpalau dozena giri entzun zitezkeen, larriki zauriturik, eta aieneka ari.

Biharamunean, preso guzti-guztiok, Iruñe ondora gutarrek garraiatuak, eta Don Carlosen aginduz, askatuak izan ziren! Beste “kolore” bat eman nahi zion gerrari Erregek! Eta libro utzi zituen. Ez baitzen lehenengo aldia.

Sekulako zartada eman ziguten albiste zoragarri haiek Zugarramurdiko mugan zain geundenoi.

Eta neure barruan nerabilzkien, taigabe, sekula zapalduak ez nituen bazter haien irudi nahasiak. Eta kiskali egiten ninduen bertara ezin joateak.

Hots, joan nahi hartan erretzen ari nintzelarik, uste-kabea, deitu egin nau Valentin Gómez Zuzendariak halako goiz batez Peña Platako Buruzagitzara; eta Lizarrara behar nuela esan dit:

–Noiz hori? –galdetu diot.

–Gaur bertan –izan da arrapostua–. Ez dugu memento bat ere galtzekorik. Eta Lizarra gure eskuetara pasa denez, hauxe erabaki du Erregek: “El Cuartel Real” aldizkaria bertan argitara behar dela berehalatik.

–“El Cuartel Real” debe reemplazar desde ya –esan dit– y con creces, la célebre y gloriosa “Gaceta Oficial”. Esta “Gaceta” que se publicaba en Oñate, como sabrás, cuando estuvo allí la Corte de nuestro gran Don Carlos María Isidro, abuelo de nuestro amado Rey, y de feliz memoria... La Gaceta se publicó durante la Guerra de los Siete Años. He ahí nuestro objetivo actual en Estella: no desmerecer de nuestro glorioso predecesor.

Ez nuen nik, egia esan, “Gaceta” haren berririk. Baina ez diot horrelakorik aitortu.

–¡A sus órdenes! –erantzun diot bakarrik eta brauki. Eta irten egin naiz.

Hura poza nirea!

Lizarraga jenerala ere jadanik Lizarran zegoela jakindut, bere bost Batailoi gipuzkoarrekin. Eta astelehenean, abuztuaren 25ean, Jurramendiz bestaldetik itzuli zela Don Carlos Lizarrara. Arratsean. Eta San Juan elizara inguratu zela. Eta bertan Jainkoari eskerrak eman zizkiola.

Biharamunean, San Juan Plaza zabalean, zortzi bat mila soldadu bolondresi (giputxiak eta naparrak bakarrik,

esan dutenez, bizkaitarrak eta arabarrak oraindik ez baitira Lizarrara ailegatu) errebista ikusgarri hunkigarria pasa ziele Don Carlosek jakinerazi digute telegrafo bidezko parte etengabeek.

–Eta nik ikuskari historiko horiek ezin ikusi! –errepikatzen nuen neure artean, hamaika madarikazio zantarren artean.

Lizarran hiru egunez jai osoa egitea erabaki du Karlos Setimok; eta kaleak eta enparantzak gauez hamaika zuziz argitzea.

Ni Lizarrara iristean, beraz, hiriko giroa ez zegoen malenkonia alferretarako egokia. Ez horixe! Dultzaina entzuten zen bazter guztietan, eta “joticak” ere ez bakanago:

*Dicen que viene Don Carlos  
y que en la mano trae una flor;  
es la Reina Margarita  
que es la rubia más bonita  
que se ha criado bajo el sol...*

Eta Lizarrara 28an iritsi eta berehala, “El Cuartel Real”en gure bulegoa izango zenera hurbildu naiz.

Kale mehar luze bateko erditsuan aurkitu dut Kale Nagusiko 45eko sotoa. Eta lehenengo pisuan, “principal”-ean, letrero hau atean: “El Cuartel Real. Redacción e Impresión”.

Gela nagusian, “minerva” arin pare bat topatu dut: Peña Platakoaren oso antzekoa bata; gehi beste bat, frantsesa hau eta berriagoa. Tinta poto ilara oso bat apal baten gainean, eta disolbakin botila pare bat, bere usain azkar bereziarekin.

Aldameneko gelatxo batean, leihorik gabea, burdinazko pieza batzuk eta “resma” dozena batzuk, estraza pape-retan bildurik.

Hirugarren gelatxo batean, berriz, zortzi-hamar kaxa txapal. Eta berauetan, erlauntzaren gisako egituran, berrogei bat tartetxo, letra-moldez beterik.

–Berunezko moldeak dituk horiek, konposiziorako letrak, hain zuzen –argitu dit orduan bertan lanean ari zen gazte batek–. Berunezkoak baino, berun-antimoniozkoak direla esan behar nitek. Ikus dezakeanez, alderantziz agertzen dituk letrak: ‘b’ak, ‘d’ ematen dik, eta alderantziz. Baina beren kaxetan multzotan soka batez estekaturik ipintzean, eta minerban tindatzean, paperean bahar bezala agertzen dituk.

Morse-telegrafo tresneria osoa beste leku batean aurkitu dut. Kalera begirako gelatxo batean txukun-txukun jarrita...

“Nirea izango ote?”, pentsatu dut. Ez litzateke gaizki...

–Mila esker azalpenengatik –esan diot.

–Ez duk ezer, motel. “El Cuartel Real”eko kajista nauk. Tolosan ikasi diat ofizioa. Hemendik aurrera lankide izango bide gaituk.

–Bai. Hala uste diat.

–Ba, urte askotan izan dadila! Ni Kaximiro Mendia nauk, zaldibitarra.

–Eta ni neu Joxemari Arruabarrena, “Putzu” gaitzizenez. Donostiarra.

–Ederki. Orain bazekiagu biok elkarren berri.

Aurrez aurreko horman, etxeko areto nagusia zirudien gelan, moldura dotore batez inguraturik, Carlos VII.aren foto gaitz bat ikusi dut.

–Dena prest, hitz batez –esan diot Kaximirori.

Eta “bihar arte” esanez agurtu dut.

Don Carlosen etxebizitza non zen eta nolakoa zen jakiteko irrikan nengoen. Noski. Plazan zegoela banekien. Baina hori bera non zen ez nekien! Hala ere, ez diot hori galdetu. Lotsa ote?

Lizarra hiri zaharrean barrena ibiltzeko gogo handia nuen. Hori bai.

Baina berantegi zen. Eta biharamunerako utzi nituen denak. Eta etxe bereko izkinan bertan eman zidaten gelarra joan naiz. Etxe zaharra, gela iluna. Baina... nirea!

Jurramendiz bestaldean, iristean bertan Kaximirok azaldu didanez, liberalak zeuden nagusi. Ez gu. Baina Lizarra gurea zen. Eta handik iparralderanzko bazterrak ere, gureak.

–Geure burua hemen seguru sumatzen diagu –esan dit Kaximirok. Benetan.

Puiko Ama Birjinaren mendiska famatua ere, hiriaren gain-gainean, karlisten mende dagoela esan dit. Baina, zoritxarrez, logelatik ez nuen ikusten; eta lantokitik ere ez. Kaleak estuegi.

–Bihar bertan –pentsatu dut–, tristuraz eta gorrotoz itoko banaiz ere, gora igoko nauk, eliza eta muinoa bertatik ezagutzera. Eta bakarrik joan nahi diat.

Arrats beroa genuen. Eta arnasa hartu nuen sakon leihotik.

Abuztuaren 27 hartan, besterik behar al nuen, bada, zoriontsu sentitzeko?



## XVI

Ostiraleko gau osoan zehar, tema bikoitz batek hartu ninduen.

Edozer baino lehenago, larunbat hartan bertan, abuztuaren 30ean, Puiria igotzea erabaki nuelako. Geure etxean hainbestetan gogoratutako fusilaketa latza gauzatu zen lekua ezagutu nahi nuen, eta neure oinez zapaldu.

Lizarran Don Carlos non bizi zen ere, bigarrenik, zehazki jakitea, xehetasun interesgarria zen niretzat.

Eta horretara, jaiki orduko, jantzi; eta gorantz abiatu nintzen.

Santz, Uritz, Guergué, Karmona eta Garzia bost nafartar jeneralen ibilbide tragikoa nahi nuen neure haragian bizi.

Baina asmo horretantxe abiatu eta berehalaxe, lehenengo oztopoa gertatu zitzaidan. Abuztuan burutu berria zen setialdian, karlistek berek jaurtikitako lauhun granaden leherketek eta lurrazpiko galerian ezarritako minartzarrek, apurturik eta barrutik ikuskatu ezinik utzi baitzu-

ten frantziskotarren monastegi eskerga Frutaren Azokaren inguruko belazean.

Hots, 1839ko otsailaren 18an, Monastegiko gela ilun banatan pasa zuten beren azkeneko gau hits eta hotza bost jeneral haiek; egunsentian lanbrotan Puirra igo aurretixe. Urrats hori, beraz, ezin osoki errepika. San Frantziskoren komentu zaharra, karlisten minatzarraren leherketak egun haietantxe errotik erauzi berria zelako.

“Comercio” kaleko neure sototik irtenda, ezkerretara joz, goruntz abiatu nintzen. “Galbahearen kalean gora esatea hobe”, Kaximirok bezperako hitzaspertuan argitu zidanez.

Gero Lizarra karrika harritsutik hurbildu nintzen San Pedroren elizara, bi pisutako etxe eder zaharkituen artetik pentsakor; eta kaleburuan elizaren ondoko zumar fama-tua topatu nuen, aspaldidanik urteen poderioz goitik behera pitzaturik.

Egako hiriari izena bera eman zion antzinako auzoaren arrastoak nituen begien aurrean, gainbehera nabarmenean.

Eta arrastiriaren etorrerarekin azkarturik nonbait, gorrotoz eta urrutiminez oratutako sentimendu garratza nigan azkartzen ari zela nabaritu nuen.

Arriluzko dorretxo karratu lerdnaren soslaia gailentzen zen zumarraren adaburuaren gainetik. Behere hartan, berriz, nekez ikusteko moduan, “La Gallarda”ko atari arkudun eskerga zegoen.

Handik berehala iritsi nuen gailurra; eta bertan barne zauskada azkar batek astinduta, Puiko Basilika ospetsura joan nintzen, bihotza nabarmenki estututa.

Eta, ez bat eta ez bi, atzealdeko belardira eta hormetara jo nuen. Batimenduaren iparraldera, bestela esanda, baina ekialdeko kantoitik, eskuin aldetik.

Eta leiho karratu bakar bat erakusten zuen pareta-puskara hurbildu nintzen, gainaldean ia-ia teilatuarekiko ukitu.

Eta hormako bala-zulo haiek ukitu eta eskuztatu nahi izan nituen. Harri zahar haiek neure eriez ukitzean, eroturik antza, mirari batez agian mintzatuko zitzaizkidan esperantzatan itxura zenez.

Nire herraren herra zornatuak zoraturik antza:

–Madarikatua izan hadi Maroto traidorea sekulorun sekulotan!! –bota nuen oharkabean.

Bergarako besarkada-emale faltsuaren irudi okaztagarria edozein mementotan gorpuztuko zitzaidala iruditzen zitzaidan.

Eta bost izen zetozkidan ilaran, behin eta berriz, etengabe, etsimenduaren ezintasun errepikakorrean: Santz... Uritz... Guergué... Karmona... Garzia... Gizagaixoak!

Bost nafartar jeneralak horma haietantxe orain 34 urte, negu minean, Marotoren saldukerian partaide gertatu nahi izan ez zutelako... eskarnioaren leize-zuloan hil baitzituzten. Puiko pareta haietan... bizkarretik, berak fusilatutak...!

Préchacq-eko deserriko osaba Praixku zoritxarrekoaren kondairaz oroitu nintzen orduan, ezin azkarkiago. Berak ere, Puiko jeneralek bezalaxe, ez baitzuen atzerrialdiko 34 urte luzeetan amore eman; ez baitzuen marotisten saldukeria inoiz barkatu.

Eta fusilaketa hitsaren pasadizoaz uste baino zehazkiago oroitzen nintzela erreparatu nuen. Frantzisko Garmendia nire osaba zaharra nigan pizten zela eta Pui hartan jadanik izana nintzela nabaritzen nuen.

Basilikaren atzeko hormak kanpo aldera koska bat bezala marrazten zuela esaten zigun osaba Praixkuk. Eta

bostak fusilatu zituzten pareta-bao hark, iparralderako ir-  
tenune moduko zerbait zeukala.

Eta halaxe zen metro batez edo.

Irurtzungo Haizpean arrestatu zuen Rafael Marotok Uritz brigadierra. Tolosan atxilotu zuen, ustekabean, Pa-  
blo Santz Baeza jenerala. Frantzisko Garzia jenerala, be-  
rriz, Nafarroako Buruzagi gorena, zetorkion saldukeriaz  
berantegi jabeturik, apaiz jantzirik saiatu zen Lizarratik  
ihes egiten; baina zentinelak konturatu, eta preso eraman  
zuten atzera Marotorengana.

Era bertsuan harrapatu zuten Teodoro Karmona ere,  
ustekabean, Ziraukiko bere etxean; eta Juan Antonio Guer-  
gué jenerala ere, Legariako bere etxean, azkeneko bidaia-  
rako abian.

Karmonak eta Garziak, azken mesede gisa, buruz bu-  
ru Marotorekin mintzatu ahal izatea eskatu zuten. Baina  
Marotok jaramonik ez eskabideari, eta ezetz erantzun.

Puiko fusilaketa burutzeko egin behar zuenaz Maroto  
guztiz ongi jabeturik, hilketa gauzatzeko Nafarroako Le-  
hen Batailoiko hiru konpainia hautatu zituen. Hain zuzen  
ere, fusilatuak izango ziren jeneralek beren manupean  
izan zituzten konpainia berberak...!

Eta bost jeneral gogor haiek, matxinadaren ardatza  
izandako hirian, Lizarran preseski, hiltzea erabaki zuen,  
eta ez beste inon. Fusilaketaren gertalekuaren karga sin-  
bolikoaz txit ongi konturaturik.

Hormaren aurrean paraturik, Uritz jeneralak ez zuen  
txintik ere atera; eta isilaldi betean zain zegoelarik jaso  
zuen iskiluen deskarga bortitza.

Otsailaren 18an, goizeko seietan, inolako epaiketarik  
gabe, eta beren azkeneko gau luzea oraintxe zartaturik  
ikusi dugun San Frantziskoren Monastegiko gela heze ba-

tean eman ondoren, Puirra igo bostak, eta hantxe fusilatu zituzten.

Egunsenti latz hartako desarra oraindik entzun daitekeela iruditu zitzaidan.

Eta eserita luzaz egon ondoren, Lizarrarako bidea hartu nuen; eta zuzenean San Juan Plazara hurbildu nintzen.

Don Carlos, Fermin Iribarren jaunaren etxean ostatatu zela nekien. Eta, Plazara iritsita, etxe hori zein zen galde-tu beharrik ez nuen izan.

Hantxe, mendebaldeko arkupe ilararen erditsuan, berehala erreparatu nituen eguneko zaindariak, armaturik, alabardero jazkiekin, txapel gorri borladunekin, hantxe egiten eta egingo zuten zainketa aurrerakoan.

Lizarra etsaietatik jaregin eta berehala antolatu zen bolondres sail berezi hau.

120 soldaduk osatzen zuten. Eta Zumalakarregiren Armada “Vasco-Navarra”ren arabera, lau partetan sailkatua zen.

30 nafartarrek osatzen zuten 1. eskuadra; honetako “kaboá”, Don Jaime haurra (Karlos Setimoren semea, noski) hautatu zutelarik.

Bigarren eskuadra beste 30 bolondresek (arabarrak oraingoan) osatu zuten. Hirugarren eskuadra, era berean, 30 giputzek. Eta laugarrena, azkenik, 30 bolondres bizkaitarrek.

Txandaka egiten zuten beren zainketa Don Carlosen etxe arruntaren aurrean. Urrun zen Karlos Setimo erdi militar erdi erromantiko porrokatu hau, Carlos María Isidro bere aitona xantu-jale eta anpurusaren espantuetatik.

Nolanahi ere, nafartar eskuadraren eguna bide zen larunbat hartakoa; etxe aurreko arkupeetan bandera gorri katedunak ez baitziren eskas...

Aurrez aurre, Plazaz bestaldean, San Juanen eliza izanda, erlijiozko zeremoniak eta armada karlistaren paradak, etxetik beretik begiratzeko deliberoa hartua omen zuen Erregek: “neure soldaduak ikusi nahi ditut goizean”.

Banekien, beraz, Don Carlos non zegoen: nire etxetik eta nire lantokitik ehun bat metrora gehienez.

Eta banekien Puiko horma hitsa nolakoa zen. Zenbat karlista gaztek ez luke bizi erdia emango Erregegandik horren gertu bizitzeko?

Eta ideia hauekin bizkorturik, Galbahe kaleko neure gelatxora inguratu nintzen.

Aurretik, dena dela, Nabarrerria kaleko “El Requeté” jatetxe apalean mokautxo bat karlista bolondres zalapartari batzuen ondoan afari-lege gisa apalki hartu ondoren.

## XVII

Lizarran eman nituen lehenengo hamar-hamabi egunak, oso bereziak izan ziren.

Nik, kostatar huts honek, kresal giroa ezagutzen nuen, eta amairik gabeko langar isila, eta sargori egunetako bat-bateko galerna bortitza.

Baina barrualdeko landare iharraire usaintsuen mundua zer zen, ez nuen Donostian sumatu ere egiten. Lizarran aurkitu nuen, eta Lizarrako inguruetan batez ere. Eta neure gaztaroan adigogor ibili nintzela konturatu nintzen.

Naturarekiko sentiberatasun berri honetan, baita Ega ibarraren aurkikuntzarenean ere, laguntzaile bikaina izan nuen Faustino Erro. Jatorriz Basaburukoa, Beruete-koa preseski ("Béutekoa" esaten zuen berak), nik gurutzu orduko erdi lizarratarra zen (hiru laurdenetan halakoa zela esatea hobea); familia osoarekin txiki-txikitandik aldatu baitzen Lizarrara.

Faustinok, jakin ere ez zekien ezer telegrafiaz. Morsezko testu bat irakurtzen edo izkiriartzen ere ez. Gure aldikariaren inprimaketaz arduratzen zen. Letra-moldeen

berun-mokorra ematen zitzaion berari, sendo irazki-liza batez inguraturik. Eta berak minerban pausatu, eta inprimatu egiten zuen.

Lankide kidea, “kideago” hertsiki mintzatzekotan, Kaximiro zaldibitarra neukan. Berehala nire adiskide min bihurtua, atzerritar jendearekin askotan itzultzaile gisa nik lan egin behar izaten nuenez, nire ordezeko gisa hartu zuten bera, hain zuzen, “El Cuartel Real”eko lantegian; eta askotan neronek egin behar nuen telegrafista lana betetzen zuen.

Bai Zugarramurdiko Aitxuriko gotorlekuan emandako azkeneko egunetan, eta bai Lizarra gutarrek berreskuratu ondoren, aldizkari osoa Egako hirira aldatu zenez geroztik, Kaximiro izan nuen ondoan langelan eta lanondoko aisialdian.

Makina bat aldiz ibili nintzen Lizarran zehar, kalez kale, eta hemendik eta handik txokoak Faustinoren eskutik miatzen. Askotan nafar hiri zaharraren edertasunaren zaharkitzeaz eta zabartzeaz negargura nire barrunbean sortzen zelarik.

Zinez esan dezaket Lizarrak liluratu egin ninduela uda amaiera hartan. Eta gainerako guztiaz ahantzarazi.

Hiriak bakarrik ez. Arrastirian Santa Klara eta San Benitoren komentuen inguru lauetatik ibiltzen nintzen pasieran. Eta begirada ipar-mendebaldera jasotzen teilatuen eta kanpandorreen gainetik; eta Urederraren arroan gaindi Bargagorria eta Lazkua (Eraulgo bi haitz gorri bikiak), zoraturik begiesten.

Zenbait aldiz malenkonia leunak betetzen zuen nire arima.

Irailaren 4ko arratsa, ordea, desberdina izan zen.



Neure gelara sartu orduko, kartazal bat topatu bainuen neure ohearen gainean. Eta bertan, “Sr.” edo “jauna” aurre-izkiriorik gabe, hitz soil hau irakurri bainuen: “Jose Mari Arruabarrena”.

Arrapaladan ireki. Barruan ohartxo bat topatu dut paper mutur batean. Eta ondoan beste kartazal bat, kanpoko baina txikixeagoa. Eta izkribu bakar hau: “Sr. Jose María Arruabarrena - Telegrafista - El Cuartel Real - Estella”.

Honetan bai, beraz: “Sr.” letrak, agiri.

Laburra zen oharra:

*“Donostian, 1873ko irailaren 4an.*

*Kaixo, iloba Joxe Mari maitea:*

*Lagun handia dudan Jaxinto Olalde apaizak (gaur egun Loiolako erretore dagoenak) gutun hau hiri helarazteko eskatu zidak. Emakume gazte batek eman omen zioz hiretzat. Eta hortxe daukak.*

*Hortik aurrerakoa, hire kontu.*

*Donostian aste hauetan berri handirik ez. Karlistak noiz etorriko beldurrez, inguruak gotortzea erabaki ditek. Eta harrizko dorretxo borobil batzuk eraiki ditiztek, bertan zaindaritza egiten duten soldaduak gerizatzeke.*

*Horietako bat Hernanirako aldapan eraiki ditek, Aldapetan, “Pintore” etxearen parean. Beste bat Konkorranean omen, Egian. Eta beste bat Antiguako sarreran, Loretopearen gainean, elizaren ondoan, herorren gelako leihotik ikusteko moduan.*

*Ez duk ezagutuko ere egingo “giriek” gotortutako Donostia hau...!*

*Hire gurasoak, hire ama batez ere, triste oso, noski. Eta oso kezkatuta. Tiroak eta kanoi-hotsak maiz entzuten ditiagu hemen; gero eta bertago, itxuraz.*

Zergatik ez diek zerbait idazten? Posta normalaz bidaltzeaz fio ez bahaiz, egin ezak "El Cuartel Real"ek dukeen sistemaren bidez. Ba omen dituzue zuek bestelako helbideak eta loturak. Egin ezak, bai.

*Besarkada handi bat.*

*Osaba Felipe"*

Ondoko kartazala begiratu dut orduan:

–Bazekiat, bai, eskutitz hori nondik datorren... Bixenta! –esan dut neure artean.

Eta barne-zauskada nekez menderaturik, irakurri egin dut:

*"Agur, Joxemai!*

*Eskutitz honek trabak eta eragozpenak sortu badizkizu, barka nazazu. Baina neure berri eman nahi nizun.*

*Bi hilabete joan dira Loiolan azkeneko aldiz ikusi zintudanez geroztik. Eta oso triste bizi naiz zure arrastorik izan gabe.*

*Joan aurretik, "Joakiñene"ra azaltzen zinen garaietan, hitzerdika bederen, barraz bestaldetik behintzat, ikusi egiten zintudan. Eta nola-hala mintzatzeko aukera izaten nuen. Ez zen gutxi.*

*Orain, berriz, ezer ez. Behin ere ez.*

*"Agur" esan gabe joan zinen azkenean Donostiatik, gainera. Aldegin baino lehenago kasu egitea agindu bazenidan ere. Gogoratzen zara?*

*Arrazoi sendoren bat izan zenuela sinetsi nahi dut, eta agurtzera etortzea ezina izan zitzaizula. Horrela ez bada, bestalde, egia ez jakitea nahiago. Ez dakizu, horretara joanda, nolako mina egin zenidan.*

*Baina beste minik ere izan dut azkeneko bolada honetan. Ama hil zait. Oroitzen zara gure tabernan beti baka-*

*rrik eta isilik egoten zen andere xaharkitu hartaz? Eten-  
gabe "Patxi neurea!" errepikatzen zuen gaixoak, dakizu-  
nez. Eta ezpainetan hitz horietxek zituela hil zitzaigun le-  
hengo astean.*

*Ostegunean eman genion lurra gure auzoaren gaine-  
an dagoen kanposantu berrian.*

*Ene anaia zenarekiko tristurak eraman du beste mun-  
dura.*

*Ez dizut besterik esango gaurkoan. Zer kontatuko ni-  
zuke gainera? Nire bizierak ez du ezer interesgarririk, eta  
nik neuk ere ez. Badakit.*

*Baina maite zaitut.*

*Eskutitz hau On Jaxintok idatzi dit zuretzat. Apaiz ja-  
torra da, gutarra erabat; eta ez dio gureaz inori ezer  
esango. Konfiantza osoa dut berarengan.*

*Ongi izan, neure kuttuna.*

*Lizarra alde horretan, zer? Zuek bai mutilak!*

*Ahal baduzu, esaidazu zerbait, eta lerro pare bat bidali.*

*Loiolatik, muxu goxo bat zuretzat.*

*Bixenta"*

Sinaduraren letra zen Bixentarena: zalantzarik ez, han-  
dikotea, zabarra, ozta-ozta irakurtzeko modukoa.

Gainerako izkribu guztia, berriz, nabarmenki, Don Ja-  
xintoren eskuaz izkiriatua.

–Idazten ere ez daki! –pentsatu nuen.

Eta berriro ere, gupida olatu bat sentitu nuen nigan,  
hazkor:

–Ez gara elkarrentzako sortuak... –itzuri zitzaidan aho-  
tsik gabe–. Ez dut uste posible ere izango litzatekeenik...

Posible, zer, ordea?

Ez nekien erantzuten. Eta ez nuen erantzun nahi!

Gustatu egiten zitzaidan Bixenta. Hori bai. Bere edertasuna ezagututa, ez baitzen ulertzen batere zaila.

Baina... maitatu... ezetz! Ez nuen maite. Jadanik esana dudanez. Eta espero ez nuen eskutitz hark garbiki erakutsi zidanez.

Poztu egin ninduen, bai. Baina areago piztu zuen nigan Bixentarekiko errukia, areago berarekiko gupida, nola edo hala, barrenak eskaturik, berrikusi eta laztandu nahi errabiatua baino. Merezi ez zuen erantzun eskasaren damuak betetzen bide ninduen.

Nire erraietatik, oinazea eta “Gaixo Putzu!” amorrutitzak baino, “Gaixo Bixenta” gupida-hitzak zetozkidan.

—Eta hori ez duk maitasunaren hastapenetan abiatu berria denak sentitzen duena. Ezetz! Maitasunaren hastapenean maite duenak (egun haietan uste nuenez bederen), galbario bat darama barruan. Hori bai.

Baina berak darama galbarioa, ezinez, bere buruan; eta ez maitatuaren ustezko sofrimendu errukiorrez oratua. Maitatzen hasi berria dena, berekoia da.

Ni, alderantziz, oso urrikalkor agertzen nintzen. Urrikalkorregi maiteminduta egoteko.

Ostirala zen. Arrastiri leuna zetorren, eta hodeiak ekialdetik gorriska.

Lizarrako kaleak, more ilunean blai. Monastegietako horma zaharrak, ilunpean beltzago, arkaikoago; antzinatasunaren lekuko idor.

San Juan Plazara jaitsi nintzen. Handik Ega ibarrera; inguruetan “Ibarra” jatorrizko izena trukatu, eta hiritarrek erdaraz “Los Llanos” bataiatu duten eskualde baketsura hurbildu nintzen.

Monastegien artetik pasa nintzen ibaiaren aldera. Santa Klarakoa neukan ezkerretan, eta San Benito zaharrak-

tua eskuinetan. Bi barruotatik serora otoitz-egileen erre-  
gu-eresi fin errepikakorrek hedatzen ziren nekagaitz aire  
epelean.

Zaldi baten irrintzi zorrotza iritsi zen niganaino.

Ur-Gaziaren eta Longinos-Harpeen parean, zumar mar-  
dulen artetik batimendua ikusteko tarte bat eskainiz, leiho  
luzeska gotikoen “Casa Blanca” dotorera iritsi nintzen.

Behinola errota izana, bere antepara eta guzti, hantxe  
neukan neure aurrean, Egaren ertzean bertan; Onzinedako  
malkortxora so, eskuinaldean harri bizi eta zuriskaz oratua.

Arietako eskualdean, Santa Barbara ermita. Eta ermi-  
tapean, hamaika amodio-aitorren ingurune izandako Ega-  
ren bihurtune ospela.

Bat-batean harrigarriro hunkitu ninduen bakardade  
uhin isil hark. Ezagutzen ez nuen mundu misteriotsu ba-  
tek dei egin balit bezala.

Atzetik, eta goitik behera begira gisa, Ruako San Pe-  
droko hormatzar lodietako kanpai hotsez oratutako intzi-  
rin metalikoak inarrosi ninduen:

–Gerran ote gaude zinez?

Bixentaren eskutitza hartu nuen eskutan berriro, eta  
lerro haiek poliki edoski. Baina hein batez ukiturik ere, ez  
nuen amore eman nahi izan. Eta nire begietatik ez zen  
tantorik bat ere jalgi:

–Belaxkeriarik ez, otoi!

Zugarramurdiko Aiturian hiru astez egunero gainean  
jarri behar izan nuen jazkera militarra beharko al nuen nik  
ere, bada, gerran geundela sinesteko? Madrileko Armada  
ofiziala orain dela bi aste bakarrik uxatua baitzen Lizarra-  
tik euskal odolaren poderioz...

Giza kastaren eskasa!

Eguna bazihoan. Isisilik.

Eta Ega ibarretik, eta atzerago Urederraren arrotik, Bargagorri eta Lazkuako harkaitzen atzetik, ilunabarraren ubela zetorkidan gainera ezari-ezarian.

Los Llanos-ko gariaren eta oloaren uzta jadanik bilduta, ezkiak, zumarrak, makalak eta lizarrak pilatzen ziren nire inguruan; eta ibai ertzeko ezpondetan ere, oraindik ere gorritu gabe ikus zitezkeen zumake-mordoeak, bezalazea eta lurgorria gerizatzen.

Saguzarren aldrak agertu ziren, dozenaka, ehunka agian, ilunabarreko argitan hegaldi nahaspilatsuan.

Mementoaren xarma paregabeak lagunduta, are Santa Maria Jus-eko Sinagoga zaharra sumatu nuen, eta bertako judu gorrotatuak. Eta Santo Domingoko elizatzarra eta Hilobi Sainduko batimendu idor beltzairia agurtu.

Erdi-Aroko erromesak sumatzen nituen aise, Puiko basilikarantz, eta Lizarrako eta Ruako San Pedroren bi elizetara ilaran igotzen ari.

Eta Lizarra Santiago bideko pitxi bikaina dela ulertu nuen betiko.

San Juan Plazatik pasatzean, mendebaldeko arkupe ilaran irmo, eguneko errege-zainketa egiten zuten alabareroak topatu nituen. Bizkaitarrak ziren egun hartan. Gernikako Arbolaren irudia, gurutzea eta guzti, barra-barra agertzen baitzen Carlos VII.aren sotoaren inguru guztian.

Urrun zegoen Donostia. Zinez.

Etxe aldera hurbildu nintzen.

Barrutik zerion afari usaina oso kilikagarria bazen ere, ez nintzen “El Requeté” tabernara sartu.

Ez nuen jateko gogorik batere.

## XVIII

1873ko irailean dexente iraungita iristen ziren gerra-hotsak gure bulegora. Baina eskualde osoak berreskuratzen ari ginela garbi zegoen. Eta honek halako baikortasun olatuak sortzen zituen gure artean.

Eskualdeak bakarrik ez.

Bost urte lehenago, liberalek harro-harro “Gloriosa” bataiatutako mugimenduaren garaian Espainiatik kasatutako jesuitak, egun haietantxe itzuli baitziren Loiolara, gertakari hits haien zauriak sendatu nahi bailiran.

*“Un Carlos les despojó a Vds. de la casa de San Ignacio de Loyola –datzi zion Don Carlosek Loiolako erretore zegoen Aita Cabrerasi–. Otro Carlos tiene el gran honor de devolvérsela. Pida Vd. a su General permiso para venir con los padres que quieran acompañarle y establecer aquí su noviciado, que yo defenderé con mis armas”.*

Hortxe dugu geure Errege gehien maite zuen erretolika: tronua eta iskiluak aldarearen zerbitzutan, eta bera Jainkoaren zerbitzari leial. Eta horixe erakutsi behar genuen, jakina, geure “El Cuartel Real” aldizkarian.

Irailaren 21eko 5. zenbakian jator aitortu genuenez, “campaña”ko tresneria kaskarrak inprimatzen genuen kazeta oraindik. Baina eutsi egiten genion geure ahotsari, eta honek zuen munta garai hartan.

Agur berezia egin genion Lizarra herriari: “¡Salud ciudad de Estella!” irakur zitekeen letra handitan. Eta hitz ederrak eskaini zitzaizkion Erregeren aitona izan zen Carlos V. María Isidrori: “Tú acogiste con entusiasmo –izkiriatu zuen Gómez gure kazetari buruak– hace 38 años, a aquel bondadoso Rey”.

Puira egin beharreko bisita ere ez zen luzatu; gure Idazkaritza osoa Basilikaraino igo zelarik.

Etengabe lanean ari zen telegrafoaz gain, Europako aldizkariak hasi ziren egunero-egunero atzerapenik gabe etortzen. Lau frantsesak nik neronek burutik buru eta arretaz irakurtzeko agindua eman zidan Gómezek: “Paris-Journal” izenekoa zen bata, “Le Moniteur” bigarrena, “Le Temps” hirugarrena, eta Aturriko hiritik iristen zitzaigun “Le Courier de Bayonne” deritzona laugarrena.

–“Morning Post” ingelesa irakurtzeko gauza izango ote zinateke? –galdetu zidan Gómez zuzendariak.

–Ez, egia aitortzeko –erantzun nion.

–Ongi da. Hor badugu, beraz, arazo bat. Ingelesez dakien norbait behar genuke hemen.

“Bigarren kajista bat ere inguratzea, ez litzaiguke gaizki etorriko –erantsi zuen handik pixka batera–. Langile fina da Faustino. Baina gero eta lanean itoago ikusten dut. “El Cuartel Real”en bertan jarri beharko dugu iragarki bat. Lizarrarako bisitariak ugaldu egingo bide dira ondoko egunotan. Eta zu hartuta egonik ere (eta lanpetuta ibiliko zara, nik uste), astekariak aurrera egin behar du.



“Kale Nagusiko 45eko gure lanleku hau, beste alde batetik, txikitxo geldituko zaigu aurki. Ikusiko duzu. Eta baliteke (baliteke, diotsut) uste baino lehenago aldatu behar izatea Kale Nagusi bereko 73ra. Etxea ikusten egon naiz, eta hemen baino lasaiago ginатеke han. Gela handiagoak ditu. Hau, horretara, geure gordailu gisa atxik genezake.

Azaroaren 3an iritsi zen Lizarrara Don Alfonso Carlos, Erregeren anaia gaztea. Kataluniatik ihesi bide zetorren.

Iritzi ofizialak nabarmenki ukatuz, hango kanpaina ez zen batere distiratsua izan guretzat. Eta paraje haietan ez zuen Infanteak bere burua oso seguru sentitzen.

Batailoietan emandako kontsignaren ondorioak berehala nabaritu ziren Lizarrako kalean:

*Espanoles,  
Viva España,  
y Don Carlos  
de Borbón*

entzuten zen kale kanto guztietan.

Karlos Setimoren santu-eguna anaiaren ondoan, eta Lizarran, handiro ospatzekotan omen zetorren Alfonso Carlos. Carlos Borromeo saildua, jakina denez, azaroaren 4an gogorazten baita, garaiz heldua zen.

Baina ele gaiztoek ahapeka ziotenez, Savall jeneral-buruarekin izandako uztar gehiegiek ere sendagailua behar zuten. Eta urruntasuna izaten da ematzeko erremedio segurua.

Braganzako María de las Nieves bere emaztearekin etorri zen. Baita Freixa brigadierrarekin ere; berau zenbait urte lehenago Guardia Zibilaren buruetakoa izana, eta bi-daiarako kudeatzaile gisa hautatua.

Eta hirurok Lizarrako plazan ostatatu zituzten, Don Carlos bizi zen etxe berean. Telesforo Iribarrenenean, badakigunez, mendebaldeko arkupeetan.

Karlos Setimok gauza bat erakutsi nahi zion batez ere bere anaiari: Lizarra Espainiako hiriburu “normala” zela; nahiz gerraren irautearen ondorioz militar kutsuak galanki ukitua.

Nola edo zertarako disimulatuko ote ziokeen, adibidez, aurreko abuztuko liskarrean (bost aste eskas geroztik!) gertatutako erreketak, hondamendiak eta fundiketak, oraindik ere Lizarra osoan zauri ezabagaitz ageri?

Deplauki aitortzea bidezkoena.

Erregeren Onomastika eguna zela-ta, azaroaren 4an kaleratzekotan, ale berezia prestatu genuen “El Cuartel Real”ean.

Eta jai-egun pare bat ospatzea erabaki zen Egako hiriburuan. Txistua eta dultzaina entzungo zen han eta hemen, eta dantzak antolatuko, eta enbor-kukainak erakutsiko, eta buru-handien eta erraldoien ibilketak karriz karriz egingo.

Asteazken arratsaldean, horrez gain, eta festaburu, zezenketa bat antolatu zen San Juan plazan.

Eguraldi oso txarra tokatu bazen ere, arkupeen aurretik, eta plaza inguru guztian, zurezko hesi-sail luzea eraiki zen. Eta zerua ilun, eta euria etengabe ari, Funestik eka-rritako zortzi zezen suhar toreatu ziren.

Hura ustekabea kanpotar handiki guztiena! Don Alfonso Carlos eta Doña María de las Nievesek berek ere, lehenengo aldiz ikusten zuten beren bizieran (Erregek bigarrenez zehazki, zenbait egun lehenago Urantzian ikusi baitzuen korrida bat lehendabizikoz) zezenketa bat plaza-ko balkoietatik.

Jurramendiz bestaldean, artean, ez zen batere festa girorik... Hain zuzen!

Moriones eta Primo de Rivera jeneral-buru "giriek", nola-hala eta kosta ahala kostarik, Lizarra Errepublikarentzat berreskuratuko zutela agindu zuten: "O bien recuperaremos la ciudad –esan omen zuen bigarrenak– o bien la arrasaremos. Pero jamás toleraremos que siga en manos de los facciosos y otros enemigos de la República".

Primo de Riverak zehazki "arrasar" erdal hitza erabili zuela, gauza segurua da. Armada ofizialaren mendekubeharra agirian zegoen-eta.

Eta hitz hutsak ez zirela nabarmen zegoen. Jurramendiz bestaldean, iskiluz erruz horniturik, egundoko armada bildu zen, Lizarrari erasotzeko prest.

Normaltasun itxurari gogor eusten bazitzaion ere, gure buruzagiek bazekiten (eta guk "El Cuartel Real"era helzen ziren mezuak irakurtzen genituenok ere bai) arriskua hantxe zegoela, oso hurbil. Eta edozein mementotan gerta zekigukeela inoiz ezagutu gabeko oldarraldi bortitza.

Azaroaren 3an preseski, Moriones eta Primo de Riveraren agindupean, tropa liberalen elkarketa munstroa antolatu zen Sesman: 16.000 infante, 1.000tik gora zaldi, eta 24 kanoi astun (Krupp markakoak gehienak). Kopuru gaitzak!

Guk, berriz, erasoari erantzuteko, 8.000 bolondres genituen, Elio zaharra eta Olo gaztearen manupean; 200 bat zaldi bakarrik, Pérula sesmatarrarenean; eta dozena erdi bat kanoiren laguntza.

Erdia ere ez ginen! Eta beldur handia zegoen bazterretan, nahiz ongi disimulatua.

Hori zela-ta, bihotz-altxagarri gerta zitezkeen kantuak ugaldtu ziren gure artean, erdarazkoak batzuetan:

*Lo dice un anciano:  
en la lucha por la idea redentora,  
la muerte es lo de menos.  
El triunfo de la Idea es lo que cuenta.  
Sucumbir de un balazo  
en lo alto de enemiga trinchera,  
¿cuál mejor muerte?  
¡Por la Fe y por España!  
La muerte es lo de menos.*

Lizarran bertan, hiria zaintzeko, hiru batailoi zeuden: arabar bat, eta nafartar bi: 7.a eta 8.a.

Deikazteluko defentsa-lerroan, aldiz, beste hamabi.

Bost batailoi nafartar. Doneztebe-Deio “Monjardín”-en zegoen Nafarroako 5.a, berehala Karlos Setimoren beraren manupean. Arronitzen, berriz, Elio zaharra, Nafarroako 1.arekin. Barbarinen 2.a, Deikaztelun 3.a eta Arellanon 4.a.

Bizkaitar bolondresez osatutako hirurak, honetara: Lukinen 1.a, Urbiolan 2.a eta Iguzkitzan 3.a.

Aiegin, Jurramendiz Lizarra aldean, arabarrek osatutako hiru batailoi: 1.a, 2.a eta 3.a.

Eta Azketan, azkenik, kastellanoz osatutako batailoi bakarra.

Allon, aldiz, Argontz eta Olloren aginduetara, gure zaldiak.

Zortzi bat mila soldadu guztira, esan dudanez.

“La Ville de Bayonne” ontzian Ondarroan harrapatutako iskiluak (fusilak milaka, eta miloi bat bala) egoki iritsi zitzaizkigun bene-benetan Jurramendi inguruetako karlista umezurtzoi.

Ondarroa herria (ondarrutarrek asmo hauen berririk orduan bertan izan ez arren), “La Esforzada” bataiatu nahi izan bide zuen karlista Buruzagitzak, Don Carlosen izendapen ofizialaren ildotik...

Horrela, Andres Badiola kapitain ausarta ohoratu nahi omen zuten goikoek. Urriaren 29an burututako ekintzari esker (Badiola ondarrutar ausarditsua baino lehenago inor ez baitzen menturatu, iskiluz lepo beterik zetorren kontra-bando-ontzi “huts” eta fantasma hartara sartzen), arma haiek bolondresengana bidaltzeko modua izan genuelako.

Ohoretzat hartuko ote zuten ondarrutarrek, ordea, izen-aldaketa trakets hori? Inork ez zekien.

Hots, miraria gertatu zen. Biharamunean Urantziara erretiratu ziren liberalak presaka eta muturka.

Baina “mirariak” bazuen bere odol-sari latza. Hilak eta zaurituak, Jurramendiko mazeletan gelditu ziren, beleen eta putreen bazka. 40 hilik eta 170 zauriturik, ondoko egunetan geure “El Cuartel Real”en orrialdeetan beretan azaldu genuenez. “Girien” galeren laurdena gutarrena halere, omen.

Baina, nolanahi ere, beste berrehun bat ama gaixo, gutxienez, gure herrietan eta baserrietan, beren seme maitatuen galeraz sofrikario gogorretan kolpaturik.

Gure bolondresen adore neurrigabearen poderioz garaitu omen genuen Jurramendin. Buruz buruko inkontruetan, batez ere, baionetazko kargetan garbiki, gutarrak urrundik hoberenak izan zirelako.

Azaroaren 9an harrera ezin beroago eta bihozkorragoa egin zitzaien Lizarran Don Carlosi eta Elio jeneralari, eta “Te Deum” ospetsua eskaini San Juan elizan. Eta tropei errebista pasa zieten bi buruzagiek.

Bertizko bere ondasun zoragarrian, artean, Baztanen, jai bikainak antolatu ziren, urrungo borroka gogorrean berriro ere dena arriskatu zuen jeneral beterano eta zahar-raren ohoretan.

Don Alfonso Carlos eta Doña María de las Nievesek Katalunian kontatu behar zutena benetan... han sinetsiko ez ote zieten beldurrez.

Eta parada bukatzeaz zelarrik, eta Lizarraga jeneralak inposatutako ohiturari jarraituz, euskaraz ongi zekitenek eta erdipurdi baizik ez zekitenek bat eginda, kantatzeari ekin zioten ozenki Lizarrako bazterrak oro inarrosiz:

*Iñaxió  
gúre pátroi háundiá,  
Jésusén konpáñiá  
fúndatú éta dézu ármatú,  
éz da éz étsairík  
járriko zátzuník,  
íñoláz áurreán gáurko égúneán,  
náhiz betór Lúzifér déabruá  
útzirík inférnuá...*

Carlos Zazpigarrenak eta bere etxean zeuzkan gomitatuek, eskuzarta luzea jo zuten balkoietatik.

Eta orduan Urgelgo Artzapezpiku eta Armadako elizaburu zen Caixal Estradé agurgarriak berrikerien eta liberalismoaren kontra hitz ezinago gogorrez oratutako sermoi beldurgarria bota zuen, eta amaieratzat soldaduei “urbi et orbe” bedeinkazioa eman.

Garaipenaren oroitza gutarrengan betiko itsatsi behar zela bide, metalezko domina berezi bat prestatzea erabaki zuen Don Carlosek; dominontzako burdina Eraulgo kanoi famatuaren galdaketaz lortuko zelarrik.

León Abadias kanpaina-desinatzaileari eskatu zion domina-zirriborroa; eta berak "*Medalla de Montejurra*" izeneko bat aurkeztu zion Erregeri. Xerrenda gorri batez zintzilikaturik eramateko asmatu, gurutze itxura zuen; eta erdi-erdian batailaren data bat erakusten: "1873 / XI / 8". Eta behean izkirio hau: "*Patrocinio de la Virgen*".

Gaineko bi gurutze-besoetan, azkenik, hiru hitz hauek: "Dios, Patria, Rey".

Jurramendin egun haietantxe gertatutakoa ezaguturik, gudaketaren eta dominaren arteko loturarik ez nuen inondik ere ikusten.

Baina isildu egin nintzen. Nori neure kezka salatuko?

Handik bi egunetara, azaroaren 11n, joan egin ziren Alfonso Carlos eta Maria de las Nieves Lizarratik Katalunia aldera.

Hango gerra-egoera zela-ta, hiru hilabete osotan beren helbururaino itzultzerik izan ez bazuten ere.

## XIX

Ondoko asteetan, baretu egin zen pixkanaka Lizarrako giroa.

Ezari-ezarian, eta leherketek eragindako deskalabruak egunero toki eta itxura beretan topatzen ohitu ahala, hiriko zauriak hastapenetako beren oinaze-pozoi hura galduz joan ziren. Eta San Frantziskoren monastegitzarraren orubea, adibidez, batimendu zaharraren irudia gugan ezabatzen zelarik, gapirio-puska sakabanatu eta belztuz mukurru topatzen usatu ginen.

“El Cuartel Real”en bulegoak, lantegiaren bikoizketaren ondoren, berezitu egin ziren, zeinek bere kutsua hartuz. Bulego nagusia eta informazioaren tresneria (egunkariaren idazkaritza, nolabait esateko, telegrafoa barne), Kale Nagusiko 45ean kokatu genituen.

Paperen eta liburuen gordailua, berriz, txostenak eta gutuneria, esate baterako, kale-muturreko biltokira eraman genuen, 93ra.

Hots, nik espero ez nuena gertatu zen. Urte haietako hanka-trabak eta azpi-jokoak ezagutu ahala, harritzeko



moduan piztu zela nigan haratagoko jakin-mina. Eta, benetako historialaria bilakatu nahi banu bezala, neure telegrafi lanaz gain, irakurri besterik ez nuela egiten Lizarran.

Amorru biziz hasi nintzen konturatzen, funtsean ezer ez nekiela. Ezer ez nekiela gure begien aurrean gertatzen ari zen gerrateaz. Eta are gutxiago nekiela, noski, gure etxeetako aitona zaharrei lehenagoko Zazpi Urteetako gerratean gertatu zitzaienaz.

Gure bulegoko lan-liburutegia eta txosten-altxorra, gero eta aberatsago bihurtzen ari ziren, gainera. Eta letu-ahalako mordo baneukan han, baita gehiago ere.

Jasotzen genituen egunkarien kopurua, alde batetik, gora zihoan egunetik egunera. Gero eta nekezago mendera nitzakeen neure lanerako hertsiki irakurri behar nituenak berak ere: frantsesezko egunkariak, alegia.

Baina bulegoko apalak, bestetik, gero eta beteago gertaturik, gero eta zailago gertatzen zitzaidan, baita gaingiroki ere, karlismoari buruz irakurri nahi nituzkeen izkribu eta liburuen ikerketarik apalena ere burutzea.

Eta ezintasun honek egarri emagaitza pizten zuen nigan.

Sekulako zartada eman zidan, esate baterako, sinadurarik batere ez zeraman panfleto-gai labur haietako bat irakurtzeak.

“Del Puy a Vergara: seis meses de traición” zeritzon. Orri mordo ximur hark, eskuz izkiriaturako hogeit bat folio besterik ez zuen. Eta inprentaturik ez dut inoiz ikusi.

Banekien nik, jakin, Bergarako Besarkada gutxi gorabehera bederen zertsu izan zen. Eta hamaika aldiz entzunik nituen etxen Rafael Maroto jeneralaren aurkako mardarikazio motak oro.

Lizarrako gure artxibategi apal hartan, halaz ere, bi kartoiren artean eta xerrenda hori batez loturik aurkitu nuen orri-sorta hura irakurririk, eta bertan ematen ziren xehetasunak, zertzelada itsusiak eta xehetasun hits batzuk ikastean, erraiek benetako mina ematen zidatela nabaritu nuen.

Orduan hasi nintzen hobeki neurtzen Marotoren azpikerien nardagarria eta maltzurra. Eta berarekiko eta “giri” guztiekiko gorrotoa, nigan beldurtzeko heinean hazten zela erreparatu nuen.

Donostiako harresiaren eraisketakoan, Putzu kaleko neure gelatik ikusitako gertakariaren irudiak arrapiztu eta pilatu egiten ziren nigan. Hamar urte lehenago Lehorreko Ateko eskaileretan gora abaildurik nekez igo zen Eustasio Amilibia alkate hura berrikusten nuen gardenki neure barruan.

Baina neure haurtzaroan Putzu kaleko gelatik jaun baldartu hura ia-ia gupidaz begiratu banuen ere, panfletoa irakurri ondoren, herraz eta gorrotoz oroitzen nintzen jauntxo hartaz.

Txosten zarpail hura Kale Nagusiko bulegoan irakurri arte, ez bainekien nik –eta deplauki aitor dut– Don Eustasio donostiar famatuak zer paper zikin bete zuen Marotoren zerbitzutan; Eugenio Abiraneta eta gainerako traidoreekin konspirazio beltzean eskuz esku.

–Alu zerria! –oihukatzen nuen neure artean–. Hau guztia orduan jakin izan banu!

Eta odolak burua hartzen zidan.

–Baionako azpi-jokoen bulego ezkutu nazkagarri haren jukutriren berri garaiz izan banu... Zeren-eta nork ordaintzen zuen hura guztia? Zeren truke? Nola ez zituzten gure buruzagiek galdera hauek egiten? Nolatan ez zuen

nire inguruko inork hau galdetzen? Ezer ez nekien inozo honek. *Ezer ez genekien*, hobeki. Eta odola emateko prest zeudenek ere ez.

Nola uler halako txotxolokeriarik?

Garai onean jakin behar, ordea! Berantegi, zertarako? 34 urte beranduago, zer gerra eta zer gerra-oste gida edo burura liteke egokiro? Itsutasuna, gidari txar!

Gauean ezin lorik egin. Hura sua eta ezin-egona negu minean...

“Seis meses bastaron para culminar la mayor traición de que ha sido víctima el País Vasco-Navarro”... Sastagaien zorrotza! Gertakarien data-alderaketak baietsi egiten baitzuen irizpide hori.

Ikus bestela.

Fusilaketak 1839ko otsailaren 18an, eta “Bergarako Besarkada” zeritzona urte bereko abuztuaren 31n, gertatu ziren. Egizu kontua: erraza da. 6 hilabete eta 13 egun joan ziren zehazki denbora tarte horretan.

Euskal karlismo gogorraren itoketa, dena dela, lehenagotik prestatu zen Madrilen. Eta bost militar nafartar gogorren fusilaketa burutu eta astebetara (astebetara, bai, alajainkoa!), otsailaren 25ean, Madrileko gobernuak ordainduta, sasi-bulego bitxi bat zabaldu zen Baionan. Adierazgarria, nik uste...

Madrilen bizi zen euskaldun bat agertu zen bat-batean Lapurdiko hiriburuan, bertako nagusi eta zuzendari orokor. Nor hala? Eugenio Abiraneta Ibargoien.

Hau lotsa! Jatorriz ezin euskaldunagoa zen aberkide batek prestatu zuen Puiko eta Bergarako likidazioa. Eta maltzurki prestatu: bi pausotan.

Euskal karlismoaren itoketa burutzeko, Madrilek azpitik dena ausarki koipeztaturik, giputx “giri” mordoska bat

topatu nuen. Eustasio Amilibia, hasteko, luzaz Donostiako alkate egon zena, operazioan lepo-hezurretaraino sartuta.

Bigarrenik, luzaz ere Donostiako Udaleko Sekretario ibilitako Lorenzo Alzate izenekoa. Eta hirugarrenik, nik batere ezagutzen ez nuen Dionisio Orbegozo delakoa.

Baita beste batzuk ere. Tartekoa, adibidez, eta txosten hartan ikasi nuenez, Goierriko Jauregi “Pastor” gerrillari ospetsua zegoen, 1808az geroztik partida mota guztietan partaide sutsu izana.

Lotuta zetorren dena. Ongi lotuta. Eta euskal kolorez lotuta. “Ez baitago ziri gaiztoagorik –gure zaharrek esaten zuten bezala esateko– ezpal berekoa baino”.

Baionako bulegoaren eginkizun nagusia, oro har, espioitza-lana zela ikasi nuen.

Baina baita propaganda-lana ere. Propaganda oso berezia, hori bai: gezurraren eta esamesa faltsuen poderioz, edo beste edozein sistemaz, Baionakoen multzoaren helburua hauxe zen: euskal karlismoaren batasuna puskatzea; nafartarren eta baskongadoen arteko herra axatzea eta azkartzea; bigunen eta gogorren arteko liskarra piztea; eta, ondorioz, nola-hala, “bakea” bultzatzea.

Euskal Herriko baketzea lortuta, gainerako eskualdeetako (Kataluniakoa, funtsean) “berez” eta azkar etorriko zela uste zuten denek.

Eta horrelaxe gertatu zen Bergarakoaren ondoren, denok ongi genekienez.

Eskutitz faltsuen banaketa bultzatu zen Aturriko hiri-burutik, azpitik sustatutako sasi-matxinadak eta sasi-bakezalekeriak prestatu ziren goitik behera, albiste faltsu etsigarriak hedatu ziren etengabe, mutilen gurasoengan beldurra eta etsipena erein ziren... Eta sei hilabeteren bu-

ruan, kitto: “Pakea! Pakea!” entzun zen Bergarako inguruetan bolondresen ahotik.

Eta “bakea” egin zen. Bai horixe!

Baina (xehetasunaren apurra, omen!), “sin perjuicio de la unidad constitucional del Estado español”.

Eta “bakearen” helburua lortuta, hanka egin zuen Marotok tarrapataka Ameriketara.

Eta hantxe hil zen, Txileko Valparaíson, 1853ko abuztuaren 25ean, eta Bergaraz eta Euskal Herriaz oinazetik gabe osoki ahaztuta; eta bertako andere aberats batekin esposatu ondoren.

Paira igo nintzen biharamunean, herio-suhar. Eta malcoen isurketa benetan ezin menderaturik begiratu nituen, eta bigarren aldiz eskuztatu, Basilikako paretako bala-zuloak.

–Madarikatuak izan zaitezte! –bota nuen arratsalde epeleko bakardadean–. Madarikatuak, bai, behin, eta berri, eta mila bider! Gure anaien eta semeen odolaz trufatu baitzineten!

Kanpai-hotsak entzun zitezkeen tarteka; eta emakume kezkatuen dei asaldatuak, eta zakur zaunkaldiak. Baita, halako batez, mazela beheko Lizarra hiritik, ozta-ozta entzungarri, Gipuzkoako boluntario gazteen kantu ozenaren oihartzuna:

*Azpeiti Azkoitiko  
boluntariyoak,  
eztira faltso eta  
gezur-jariyoak...*

–Ez dituk horiek, ez, Donostiatik oso urrutikoak –pentsatu nuen neure artean.

Baina Puitik jaitxi, eta Lizarrako Plazara iritsi nintzerako, isilik zegoen dena, eta kantu arrastorik ez zen bazterretan aditzen.

Afari usainak hazkor. Hori bai. Eta kristalezko basoen talka etengabea, soinu bakar. Pittin bat Loiolako “Joakinenean” bezala...

Zertan ote zen Bixenta? Erabat ahaztuta neukala erreparatu nuen, eta ez nuela haren eskutitza oraindik erantzun...

Korneta-hotsek orduan lotarako agindua zabaldu zuten. Urgullen bezalaxe...

Eguberri gainean neukan.

Eta ni neure gelara bihurtu baino lehenago, gure moldiztegiara jauzi bat egitera deliberatu nintzen.

Arkupeetan, Erregeren zaindari, “Guía” giputzak ziren egun hartan. Haiek ere, gizajoak... ni bezalaxe, han edo hemen taldetxo bat “hator mutil etxera” kantari entzuteko... beldurrak!

Gerrari buruzko berriak behar nituen arrats hartan, inoiz baino beharrago. Baina Zazpi Urteetako gertakariei buruzko berri ere behar nuen, behar gorria.

Sartu naiz bertara. Eta apaletan begiralditxo bat eman orduko, biziki interesgarri gertatuko bide zitzaidan liburu ezezagun bat topatu dut: “Cabrera el Traidor”.

Eta, ez bat eta ez bi, liburuak bulegotik ateratzerakoan bete ohi genuen txarteltxoak sinatu ondoren, eta gau hartanxe irakurtzekotan, gelara eramane nuen:

–Belaxkerietatik urrutira eramango nau honek gaurko gauean.

Ireki orduko, eta lehenengo orrialdean bertan, foto eder bat plauma osoan, eta izkirio hau oinean: “Antes de la traición”.

Hiru gizaseme agiri, hirurok dotore oso jazkeraz eta jarreraz.

Karlos Setimo Errege, zutik ezkerretan, oso gazte: bere hogeitau urteetan edo. Karratutako soinekoaz, betiko bibotea-ekin, eta bere onddo-kapeluari eskuineko eskuaz helduz.

Alfonso Carlos Infantea, berriz, eskuinetan, mutikoa ia-ia, zutik era berean, eta ginbailari ezkerreko eskuaz heltzen ziolarik.

Eta bion artean, eserita, hankak gurutzaturik, paperen bat eskutan, Don Ramón Cabrera jeneral katalana, “El Tigre del Maestrazgo” gaitzizenez, adinetan osoki heldua, eta saihetsetako bi gaztetxoan aitona izateko modukoa (berrogei bat urte zaharragoa, nire kalkulutxoan arabera).

Lizarrara arte ez nekien nik, egia aitortuko badut, Cabrera ospetsua ere zenbait urtez geroztik “salduen” ildotik abiatua zenik. Eta liburuaren izenburua irakurtzeak, tusteko galanta eman zidan.

“Kataluniako Zumalakarregi gogor eta gupidagabea bera ere, saldua? Ez duk posible!”, neure artean ari. “Zer ari da gertatzen?”

Eta petrolioari zerion kirats itogarriaz ahal neurrian ahazturik, osoki irakurri arte egon nintzen mahaiaren aurrean, orduari jaramonik egiten ez niola.

Eta Lizarrako eliza eta komentu guztietako erloju-kanpaiak entzun nituen ilara azkengabea.

Zurumurru kezkarri batzuk entzunak nituen jadanik Donostian: aspaldi Cabrera jeneral erradikala ingeles protestante batekin ezkondua zela, kristau fedea bera alboratu zuela, eta karlista izateari ere bai.

Baina zurumurruei kasurik egin behar ez zaienez, deusik sinetsi ez. Eta, belarriak eta begiak hetsiz, aurrera egin nuen.

Gau mingarri hartan ikasi nuenez, ordea, egia zen Cabreraren “jaka-trukearena”. 1870eko apirilean (bi bilabete geroago, hitz batez) otsaileko dimisioa berretuz (“decisión irrevocable” zioen Morerako jeneralak), Veveyko Biltzar Gorenaren eskabideari uko egin ziola egia zen. Nahiz tartean, eta erregu egile, Karlos Setimo bera ibili.

Gero eta nabarmenkiago, oinak non pausa ez neukala erreparatu nuen. Nire munduaren zimentarriak oro koloka jarri balira bezala.

Eguberri bezpera zen. Eta zeharo tristatuko ez banintzen, gelan sartu, eta afaldu ere gabe oheratzea erabaki nuen.

Kostata lorturik ere, loak hartu egin ninduen azkenean. Eta biharamunean lokamutsik jasan gabe esnatu bide nintzen: lanerako prest, eta arnasa berriturik antza.

Itzarri orduko, bezperako liburua zabaldu nuen berriro. Eta goragalea sentitu nuen, azkar, garratz, higuigarri:

–Gure mutilak artean, han, dena galdua...

Kaleak hutsik, dena geldu Lizarran, eta barneko nazka olatuak menderatuz, Kale Nagusiko gure bulegorantz abiatu nintzen, pentsakor.

–Buenos días, compañero, y Feliz Navidad –agurtu ninduen sartzean “El Cuartel Real”eko Raúl Martínez zuzendari-ordeak. Palencia-ko semea zen, eta Lizarrara iritsi berria.

–Sí. Buenos días y Feliz Pascua –erantzun nion hotx antzean. Ozta-ozta ezagutzen nuen Martínez hura. Bigarren aldiz mintzatzen ginen elkarrekin, ene ustez-. Nosotros trabajamos hasta en los días de fiesta más sagrados –bota nuen...

–Gaur salbuespen eguna da –esan zuen, erdaraz, noski-. Gaurtxe gurtuko dute Don Carlos Loiolan, eta “Rey



de las Españas” izendatuko. Eta adi egon behar dugu etor daitezkeen albisteez jabetzeko.

“Euskal Herriko Errege” egingo zutela entzuna nuen. Baina ez nion kontrarik egin.

–Zeremonia bikaina izango da –jarraitu zuen–, nahiz oraingoz, eta zoritxarrez, dagokion lekuan eta moduan ezin burutu. Madrilen, alegia –“en Madrizz” bere ezpainenetan.

–Bai, jakina –erantzun nuen, batere berotasunik gabe. Eta Raúl Martínezek muzin harrigarri batez begiratu zidan, nire hizkera gaitzetsi nahi balu bezala.

–Akituta nago –moztu nuen orduan–. Buruko min gogorra ere badut.

–Zer? Bardako afaria edo?

–Bai. Horixe izan daiteke. Eta ohera noa.

–Telegramak begiratu al dituzu?

–Biharko utziko ditut. Hobe honela, nik uste.

–Alferrik etorri zara, beraz. Egon hemen, motell! Berehala hasiko dira Loiolatikako albisteak etortzen.

–Ez, ez. Ohera noa. “¡Hasta mañana!”.

–Ve con Dios a dormir, José María –entzun nuen.

Eguberri eguna beti triste gertatzen. 1873ko hura, lehenengo aldiz Donostiatik urrun eta senitartekoak gabe, areago.

Ez nuen kalean inor gurutzatu nahi.

Amaz oroitu nintzen lipar labur batez, baina brauki ebaki nuen burutazioa:

–Gaur ez, ama! Barka!

Kaleetan inor ez. Leiho guztiak hetsita.

Zinez, idorra izan arren, hotz hark ez zuen kalerako kitzikatzen.

Eta ni neu ere ez.

## XX

Oso negu hotza 1873an Lizarran eman nuen lehenengo hura.

Hiru hilabete osotan barrena, zuri egon ziren Jurramendi, Azantza eta Lokiz mendietako gailurrak oro. Eta bertago genituen muino apalagoak berak ere, elurpean ikusi genituen luzaz.

Bide beretik, kaleetako istilak eta potxingoak, hormaturik topatu genituen ez gutxitan.

Baina donostiar arrotz honen ustez bederen, Urbasaren hegia zen denon artean ikaragarriena.

Urederraren arroaren gainetik bizkarra konkortutako munstro eskerge gisa, edozein mementotan gain hartatik behera amiltzekotan bailegoan, mehatxu itxura nabarmena hartu zuen. Eta nik neuk behintzat, bizpahiru aldiz ikusi nuen neure lokamutsetan, biziak harturik antza, eta nire gainera basaki erortzen.

Artean usatu ere egin nintzen ni neure bizimodu berrian: telegrafoari beti adi, parte militar hotzetan murgildurik, neure ondoan aspaldisko hartan emakume-irribarre

leunik gabe idorturik, eta labur esanda, negua bezain hotz gertaturik, ahaztu ere egin nintzen biziaren gozagarriez.

Beltzak etsai nagusi, beltzak eta beltzak, eta neure tema bihurtu zen gipuzkoar bolondresen kanta ausarta:

*Eta tiro eta tiro,  
eta tiro beltzari,  
eta tiro eta tiro  
belarrimotzari.*

Gauero gauero, bi, hiru, lau, hamaika orduz, eta nekearen akidurak lotara artean, bulegoko liburuak eta izkribuak oro miatzen nituen, eta karlismoari buruzko lanak hausnartzen eta uxtiatzen. Sukarrak hartuta bezala irakurtzen nituen txosten, izkribu eta paper ezezagun haiek.

Eta alde horretatik, sekulako aukera izan nuen 1874ko hastapenetan “legitimidadearen” mundua barrutik eta hobeki ezagutzeko.

Tirso Olazabalen gomendioz, gugana Donibanetik etorritako bi legitimistaren itzultzaile ni hautatu. Eta Muezko bilera ezkutura bidali ninduten, Errezuren ondoan, Gesalatzten.

Ulibarritarren jauregiaren aditzea banuen, egia esan. Zazpi Urteetako gerratean Carlos V.a erregeren beraren bizilekua izana baitzen.

Lizarratik ez urrun kokaturik (baina aski urrunsko, halere: bi ordu bide oinez) leku ezin aproposagoa zen halako bilera ezkutu goren horietako bat antolatzeko eta burutzeko.

Errege bera ez omen zen etortzekoa. Eta ez zen azkenean etorri. Lau probintzietako buruzagi militar ezagun batzuk, berriz, bai: hogeita hamar bat, guztira.

Ulibarriren jauregia oso zabala izanik, denok bertan aise kokatzeko arazorik ez genuen izan.

Gauza batek harritu ninduen: Muetzen tamainako herri koxkor batean, nolako eliza eta nolako jauregiak dau-den. Elizaren aldameneko “Kondenea” jauretxeak, esate baterako (XVI. mendekoa, esan didatenez) ez luke parekorik izango Donostia osoan, nire ustez.

Bertakoek “Apesteikua” deitzen dutena ere, dotorea oso, ez da askoz apalagoa; eta bere izenean bertan, apai-zak lehenago ere gaizki bizi izan ez zirela erakusten du.

Azpi-pasabide batetik iritsi ginen bertako eliza karratura. Harri horiz eraikia, antzinatasun kutsu harrigarria du. Eta alboan dorre borobil batek ematen dio babes-a.

Ulibarritarren jauretxe horretaz luzaz behar nuke mintzatu. Baina nik ez dakit gauza handirik gauza horietaz. Atalgaineko harlanduan “1821” data irakur daiteke. Baina zenbait ataletan, behintzat, postura egingo nuke askoz zaharragoa izatea.

Hantxe dauka, hormari hemendik eta handik itsatsita antza, Don Carlos María Isidrok (gure Erregeren aitona) hain maite izan zuen mahats-parra famatua (“la parra de Ulibarri”, omen); eta hain maiz ikuskatzen zuen egutera epela ere hantxe. Estenotz eta Lerate herrietara begira, bost leiho zabal ditu ilaran etxaurre bikainak, hiru solairutan; eta balkoi bakar bat erdian eta denaren gainean.

Nafarroako herri gehien-gehienetan bezala, frontoia dago Muezo kaxkoan, gain-gainean. Eta ondoko zabalunetik Argiñano herria ageri da iparraldean. Eta Biguriatik harat, ekialdean, Esparatz ttontor borobilairia nabarmen-tzen da.

Ni neure bi bidaide frantsesekin, Abartzuzatik eta Arizalatik pasa ondoren, eta Txelemendi eta Istabarrenan aurrera abiaturik, Nobare eta Obantzea utzi behar izan ditut atzean herrian sartzeko.

Eskualde horretantxe hartu omen zuten nafartarrek, oso aspaldian, 921. urtean preseski, sekulako jipioia Abdel-Rahmanen eskutik; Gesalatzi geroztik, zergatik ez dakidan arren, zenbaitek “Val-de-Junquera” deitu diolarik

Hasi aurretik, gure bileran entzundakorik ezertxo ere inori ez salatzea agindu digute. Eta horrelaxe egitea zin egin behar izan dugu.

Biltzarkideen artean oso-oso giro nahasia topatu nuen, kanpotik nekez sumatzekoa. Militar jende hura nazka eginda zegoen osotara, leporaino benetan.

Ulibarri jaunaren zerbitzuko, sei bat sehi eta neskame topatu ditut. Eta harritu egin nau xehetasun batek: denak, gaizki ez banago, inguruko herrietakoak izanik ere, eta neronek propio galdera eginez frogatu dudanez, euskaldunak zirela.

Buru egiten zen etxeko-anderea, bere hirurogeietan, Mari Pui izenekoa,

Jaitzkoa da (“eta ez Salinaskoa”, haserre antzean argitu didanez). Alabak ere euskaraz badaki, baina amari erdaraz ematen dio beti arrapostua. Gainerako neskame guztiek bezalaxe.

Bertako zaldiez, gurdiez eta aziendaz, ardura berezia hartua du Pedro izeneko etxeko-jauinak. Berau Genbekoa jatorriz, eta Zazpi Urteetako beteranoa.

Etxe hartan egon ginen guztien artean, berehala erreparatu nuenez, euskaraz mintzo ziren bakarrak bi guraso ok ziren (hori, beren artean bederen). Gazte guztiak erdaraz, amari edo etxeko-andereari ulertzeko denak gauza izan arren. Eta honek amorrua eman zidan:

“Donostian baino okerrago ote Nafarroan...?”

Bilerako arrangura nagusia, behin eta berriz errepikatua, hauxe: Euskal Herritik kanpora, Kataluniako eskualde

batzuetako inkontruak salbu, ezer ez. “Aquí no se mueve nadie”, errepikatzen zuten denek etsipenez.

“El Cuartel Real”ekooi, esana dudanez, “goikoek” eman ziguten aginduaren funtsa konprenitu nuen bat-batean. “Fuera del País Vasco-Navarro no pasa nada”.

Bakarrik utzi gaituzte, bai. Muetzera joan baino lehenago nik banekien. Baina hango bileraren ondoren, zer erantsiko?

“Nos han dejado solos a los Vasco-Navarros”, bota zuen ozenki, ezagutzen ez nuen arabar batek.

–Kasu, gero, esamesa horiekin! –moztu zuen beste batek–. Non uzten dituzu kastellano leialak?

–Non dira, ordea? Gehiago ikusten ditut nik Gortean eta Zuzendaritzan, larrua arriskatzen den liskar-zelaian baino. Espainiar guztion errege omen da Don Carlos. Baina tronuan atxikitzekotan azala eta odola uzteko prest daudenak... barka, baina gu gara. Euskaldunok, oro har. Bada garaia hau garbi ikusteko eta are garbikiago esateko.

Halako hotza zabaldu zen biltzartuen artean. Gauza horiek ez ziren esan behar.

–Ixo! –moztu zuen brigadier zahar batek–. Espainia eta erlijioa salbatzekotan hasi genuen gerla hau, eta nola hobeki burutuko erabakitzekotan bildu gara hona. Ez ahantz!

–Inoiz baino beharrago dugu orain batasuna –beste batek nabarmenki kezkatua–. Eta ez da memento egokia kezka eta zalantza larri horiek gure artean barreiatzeko.

–Egia du, bai. Nik Kastor Andetxaga zaharraren hitzak entzun nituen joan den udaberrian: “¡Alcémonos contra el horrible liberalismo! ¡Acabemos de una vez por todas con las indisciplinadas y salvajes hordas que inten-

tan hollar nuestra Fe y nuestros hogares...! ¡A las armas, valientes encartados!”...

“Eta ez nuen besterik behar izan mendira joateko. Eta hemen nauzue.

“Don Castor bezalaxe, ni neu ere Enkarterritarra naiz, Karrantza eta Menako bolondresa. Nire Bizkaia Arzentalesen hasten da, ez Gernikan.

–Ni ere bizkaitarra naiz –esan du orduan beste batek, arraposki baina ozenki– eta errespeturik handienaz entzun ditut borrokakidearen hitzak. Eta harira itzuliko naiz berehala.

“Zer esan digu Alfonso Carlos Erregeren anaiak joan den asteko bere bisitaldian? Nik bezain ongi dakizue zuek: Katalunian bertan ere, ez daudela inondik ere hemen ditugun esperantza-giroa eta borroka-nahia.

“Gure artean bizi izan den egunetan, babesturik sentitu dela, lasai ibili dela batera eta bestera, beldurrik gabe ere bai. Gurenda gurea izango dela sinetsita”.

Entzuleria isilik.

–Han, berriz, ezin dela horrelakorik sentitu, eta besterik pentsatzen dela, beti aitortzen ez bada ere. Are gutxiago, jakina, Andaluzian edo Extremaduran.

“Hitz batez, eta zakar mintzatuz: ez dela egia (ez dela egia diot) Don Carlosen atzean Espainia osoa dagoela, ezta laurdena ere.

“Baina, alderantziz, eta hein batean bederen, egia da Euskal Herria dagoela zutik Legitimidadearen eta Don Carlosen alde. Eta egia da Don Carlos Euskal Herriko Errege dela. Eta Euskal Herriaren Errege ere bai, hein bertsuan.

–Nor da horretara mintzo? –galdetu dit Certeau frantsesak.

–Bizkaitar bat –erantzun dio neure ondoan eserita zegoen beterano ilezuri batek–. Jesuita bat ere bada; Ordenatik bota duten arte, alegia. Esaiozu hori frantsesez nire partez.

–Bere ahoskeran eta hizkeran –esan dit Certeau frantsesak– apaiza dirudi, bai. Baina militar huts-hutsa ere bai bere irmotasun harrigarrian.

–Osoki asmatu duzu. Aita Goiriena deritzo. Arratzuarra da, eta oso da maitatua eta errespetatua Bizkaian. Andetxaga baino ikasiago, eta Santakruz baino diziplinatua go, benetako liderra izan liteke gerrillarien artean. Baina goikoek beldurra diote.

–Beste apaiz bat, beraz, Karlos Setimoren inguruan?

–Horrela da, bai. Apaizak ez dira urri gure artean. Baina Aita Goiriena herritik irtendakoa da; eta euskal herri xehearen defentsa du helburu eta ardatz.

–Eta zergatik bota dute Ordenatik?

–Ez niri galda hori. Ez dakit.

Apezgoak eman ohi dituen mailak eta mintzakerak, errespetua sortzen zuten bazterretan.

Eta horretaraz gero, beste leku batean erantzun gogorra, irainak (eta ostikoak ere bai beharbada) gertatuko baziren ere, isiltasuna eta kezka besterik ekarri ez zuten beste hau ere bota zigun:

–Bakarrik utzi gaituzte, bai. Bakarrik utzi gaituzte gu, euskaldunok. Baina hau gordinki aitortzeak sortzen du gugan ikara, eta ez-entzunarena eta ez-ulertuarena egiten dugu.

Eta etenune labur baten ondoren, eta hariari berriro helduz:

–Liberalen Armada, eta Concha, eta Primo de Rivera, eta gainerakoak, ez dira “beltzen” armada, Euskal Herrira



Espainiatik konkista-helburuan bidalitako armada arrotza baizik. Baioneta kastellanorik gabe, sinets nazazue, Don Carlos Bizkaiko Errege litzateke aspaldian, eta Euskal Herri osoko Errege ere bai.

Entzuleen artean, ozenago bilakatu ziren marmarrak Ulibarriren jauregi ederrean, deiadar olatu hazkor bihurtu arte.

–Zazpi Urteetako gerratean bezala –jarraitu zuen– bakarrik utzi gaituzte berriro ere euskaldun karlistok, eta abandonaturik hustu dira erreketan gure semeen zainak.

“Forua guk maite dugu. Guk bakarrik. Ebrotik harat, Forua bost axola. Eta Tradizioa, aberatsei zaie axola, eta beren poltsikoarengatik bakarrik. Guri inporta zaigu Forua, gure Legea delako; eta ez beste inori. Horregatik mugitzen gara gu, eta Ebrotik harunzkoak ez.

“Don Carlos, borrokakideok, gure Errege da dagoneko, eta ez beste inorena. Izan dezagun egia lotsarik gabe aitortzeko adorea. Karlos Setimo Euskal Herriko errege izan daiteke, agian. Espainiakoa, ez.

Eta gure arteko isilpea lodi bihurtua zelarik:

–Jainkoa dagoala zuekaz, lagunok –bota digu memento horretan euskaraz. Eta goiko bere gelara erretiratu da.

Ez dakit nik beste entzuleek zer sentitu ote zuten une hartan.

Nik neuri dagokidana ongi dakit: dardar utzi ninduela, koloka, arnasa bera asaldua.

San Migelen ermitaraino joan nintzen pentsakor. Apurtuta, hobe.

–Zer egingo? –neure artean–. Zer egingo?

Ezer ez zen bazterretan entzuten.

Behor irrintziren bat agian?

## XXI

Oso hotza Lizarrako arrastiria. Oso, gero. Eta gauza bertua nire gela:

—Ongi jantzita oheratu beharko gaur, alajainetan! —neure artean—. Bai horixe! Txapela eta guzti hobe!

Eta gelan sartu, kandela piztu, eta eskutitz bat topatu dut mahaiaren gainean. Bidaltzailearen zertzeladak atzealdean begiratu, eta hauxe irakurri: “P.D. Felipe Arruabarrena // San Bizenteko Parropia // Donostia”.

Zausk bihotzak:

—Ama! Ama hil!

Eta memento hartan ez neukan patxadaz irakurtzen saiatu naiz:

*“Donostia, 1873ko abenduaren 21ean:*

*Agur Joxemai maitea:*

*Ez zekiat ene lerro hauek noiz iritsiko ote diren higanaino. Eguberri egunerako ez, beharbada.*

*Baina etxetik kanpo eta gurasoengandik urruti emango dituan egun bihozkor hauetan, etxekoen berri eman nahi nian. Baita neronen “Eguberri on” zinez desiratu ere.*

*Hire ama ez zegok ongi. Hamabi urtez zaharragoa nauk ni bera baino, badakianez. Eta, hala ere, nik neure 57 urteotan, askoz sendoago sumatzen diat neure burua.*

*Abailduta antzematen diat Ageda. Sendagileek ez ditek garbi hitz egiten. Zehazki zer duen ba ote dakiten ere zalantzan jartzen diat batzuetan. Bestela isilkeria horiek ez nitizkek ulertuko, ez barkatuko.*

*Hire aita, bestalde, oso jota ikusten diat. Sagardiatarrak Donostiara bisitan etortzean, okerrago ere jarri zela esango nikek. Izeba Anastaxi eta Izeba Matilde etorri zituhan lehengoan. Eta nolakoak diren badakik. Ez batere "alaiak", nolabait esateko. Eta susmo txarrez eta aieru ilunez bete gintiztean etxeko guztiok.*

*Isilik egotea, itxuraz behintzat, gauza erraza izan arren, berak ez zituhan isildu: ez aitarean aurrean, ez hire anaia eta arrebaren aurrean ere.*

*Hartzak lasai dena. Zein nahi den ere, Jainkoaren azkeneko erabakia onartzen ikasi behar diagu. Eta eritasunak okerrera egitekotan, neronek jarriko haut jakinaren gainean.*

*Nolanahi ere, eutsi goiari. Ez etsi! Oraindik ama bizi-rik zegok. Eta agian luzerako izango. Ez dezagun azkarregi hiletarik jo.*

*Baina, badaezpada ere, jakinaren gainean jarri nahi hindudan.*

*Santakrutzen azkeneko balentriak oihartzun gaitza izan dik Donostiako beltzen artean. Oso pozik zeudek, jakina. Hik badakikek (uste diat) abenduaren 7ko gertakarien berri, Tolosa inguruan. Alegia, nola aurkeztu zen Berrobin bat-batean gure Don Manuel txoriburua, konpainia batzuk asaldatuz, eta abar.*

Nik neuk, badaezpada ere, hemengo prentsatik moztu dizkiat adierazgarri izan daitezkeen puska horiek; hik hor dituzkean informazio “ofizialekin” kontrastatzeko.

Ongi izan, iloba. Eguberri eta Urteberri on pasa!  
Eta hurrena arte.

*Osaba Felipe”*

Donostiatik Lizarrara iristeko, hilabete ia osoa pasa dik gutun honek? Ongi gabiltzak!

Amaren irudia zetorkidan gogora behin eta berriz. Eta, ahaztekotan, kazeta-mozkinak irakurtzeari ekin nion. Zeren-eta –ni neurekiko zalantzan– hilabeteko etendura luze horretan, ez ote zait ama... hil?

Ezintasunean aurkitu dut neure burua. Ezin besterik jakin, ezin berehala jakin, ezin... ezin... Madarikatua!

Baina, betiko galdera, madarikatua... zer...? nor...?

Eta tema itsaskorra hausteko bederen, irakurtzeari ekin diot. Gogo osoaz paper puska haiek hausnartzeari, ulertzeari, ikasteari, ezkutukoak oro sumatzeari.

Ebakin guztiak erdara hutsez izkiriaturik zeuden. Bakar bat euskaraz: “*Ernai gipuzkoatarrak*” izenekoa, Santakrutzen aldekoa nabarmenki.

Beste honek, berriz, erabat beltzen aldekoa honela zion:

*“San Sebastián, Diciembre de 1873.*

*La llegada imprevista del Cura a Berrobi (en la zona de Tolosa), incumpliendo su promesa de Julio de retirarse definitivamente, y la subsiguiente sublevación en el seno de las tropas carlistas que amenazaban Tolosa; y eso contra el mismísimo General en Jefe carlista D. Antonio Lizarraga, da una idea cabal del grado de descomposición que afecta a los facciosos.*

*Evidentemente, esta acción descabellada del Cura ha supuesto una ayuda inapreciable para las fuerzas republicanas, amenazadas dentro de la villa desde hace semanas por un cerco carlista cada vez más próximo y amenazante.*

*Santacruz trata de justificar su regreso al campo de batalla, diciendo a sus seguidores que ha vuelto para vengar las muertes de Francisco Arbelaiz y Esteban Indart, "sus dos más fieles y eficaces oficiales".*

*Los cuales, sorprendidos en la zona de Zalain (cerca de Vera de Bidasoa) con las armas en la mano, fueron juzgados inmediatamente en Vergara, el pasado Septiembre. Y tras pasar su última noche en la cárcel de Ormaiztegui, fueron pasados por las armas allí mismo, un mes más tarde y con los ojos vendados. Y por orden expresa del General Lizarraga."*

–Hildakoak eta hiltzaileak, denak karlistak –pentsatu nuen.

Hura zirrara! Ez nituen nik ezagutzen. Ez Indart, ez Arbelaiz. Baina batailaren orroa batzuetan Lizarratik beretik entzungarri bilakaturik, kide agertzen zitzaizkidan biok, eta gupidagarri. Eta begietako benda neure aurpegian sumatzen bide nuen tarteka.

–Fusilaturik hil behar luketenek fusilatzen gaituzte!  
–bota omen zuen Indartek oihuka, hiltzerakoan.

Eta amorrazio-kutsua ezin bazterturik, beste orri bitxi bat hautatu nuen mordoska hartan. Eta beste honek bai harritu:

*"¡Cuidado que se necesitan agallas, y poco amor a la pelleja, para venir desde Italia, donde nadie le perseguía, a la calle de Port Neuf, a casa de la famosa Juliana (q.e.p.d.) tan conocida por todos los emigrados carlistas*

*gracias a los servicios que les prestó; y entre esta casa, el palacio de la aristocrática y caritativa Madame du Port (q.e.p.d.) en Ziburu, así como en Biarritz, San Juan de Luz y demás villas cercanas en los palacios y casas del respetable caballero americano señor Urruela, de una familia española que no quiero nombrar, y de varios emigrados carlistas españoles y legitimistas franceses de la frontera (a quienes Dios habrá pagado y pagará cuanto hacían por la buena Causa), burlar la vigilancia de la gendarmería francesa que sabía estaba en esos pueblos y quería prenderlo a toda costa...!*

*¡Cuidado que se necesitan agallas, y poco amor a la pelleja, para salir de Francia desde Ziburu por entre Olhette y Biriatu en esas circunstancias, no pudiendo sufrir lo que en Guipúzcoa estaba sucediendo, con el fin de entrar en España por Lastaola, por la misma línea divisoria entre el ejército carlista y el liberal, para presentarse en Vidania, Villabona, Cizúrquil y Asteasu!*

*¡Cuidado que se necesitan agallas, y poco amor a la pelleja, para emprender todo eso, a pesar de que en Francia estaba decretada su prisión y extradición a España, y aquí su cabeza puesta a precio por el Gobierno liberal, y ordenada su prisión e inmediato fusilamiento por el ejército carlista!*

*Sin embargo, a pesar de esto, burló la vigilancia de la gendarmería, así como la del Gobierno liberal y del ejército carlista, y se presentó entre los batallones guipuzcoanos, arrastrando tras sí a cuantos se propuso; llegando en pocos momentos a tener a sus órdenes respetables fuerzas y a poner en un serio aprieto al General Lizárraga..."*

*–Egia osoa!! –bota nuen neure artean, Santakruz apaizaren aldeko nire jarrera berriro azkartzen zelarik.*

Memento horretan Lizarragaren aldeko beste orri bixi bero bat erori zen nire eskuetara:

*“El General, que residía habitualmente en el barrio de Cizúrquil llamado “Goico-Calea”, había oído misa en la parroquia antes del amanecer, como hacía todos los días.*

*Y fué advertido, con toda gravedad, de que el Cura, el propio Don Manuel, estaba al llegar, e iba a proceder a su propia detención”.*

–¿Es cierto, por consiguiente, que ha vuelto clandestinamente? –galdetu zuen Jeneralak.

–Sí lo es, mi General –erantzun zioten.

–Ya nada importa –esan zuen orduan.

Y acercándose a las compañías sublevadas por Santa Cruz; y dirigiéndose a ellos en vascuence (“euskara trakez”, batzuek zehaztu dutenez), les dijo:

–Zer nahi duzue? Zertara etorri zarete? Zeren bila? Ni hiltzera zatozte? Bada, horrela baldin bada, hementxe nauzue. Tira! Matadme, sí. Zuen Apaizaren agindua hori baldin bada.

–Ez, ez –erantzun zuten mutilek aztoraturik, eta deusik konprenitzen ez zutelarik. Errepublikarrak dira gure etsai bakarrak. Eta beroien kontra sartu ginen bolondres.

Muezko Ulibarritarren jauregiko bileran ezagututako Aita Goirienaz oroitu nintzen. Eta berarekin berriro eta sakonkiago solastatzeko gogoia piztu zitzaidan:

“Zer gertatzen ari da gure herrian? Zer?” Horixe nahi nion galdetu.

Nola lortu, ordea? Aita Goiriena Bizkai aldean mugitzen baitzen eskuarki.

Beste ebakin bat hartu nuen eskutan: “Fusilamiento de Antxusa”. Berri-berria zen gertakaria, irakurri nuenez.



*Antonio Lizarraga Eskirotz jenerala, Zazpi Urteetako gerratean (Lehen Karlistaldian) bolondres ibilia, bigarrenean Gipuzkoako buru izan zen, eta, hortaz, Santakrutzen arerio nagusi ere bai. Iruñean 1817an jaioa, 1877an hil zen Erroman.*

*1873an Ortiz de Urruela karlista buruzagiarekin elkartzekoa zen eta, segurtasun arrazoiengatik, bi neskatila gazte hartu zituen berekin Behobiako Zubiko muga isilpean igarotzeko. Ortiz de Urruelaren bi alabatxoak ziren, hain zuzen; biotan gazteena, Kontxa, Telesforo Monzonen ama izango zena.*



Oiartzuar gaztearen fusilaketa Goiatzen burutu baitzen abenduaren 15ean, Bidani ondoan.

Zehazten zuenez, abenduaren 7an azaldua zen Santakruz apaiza Asteasu beheko plaza. Frantziatik iritsita, beraz, eta egun pare bakar batean 600 gerrillari bildu zituen berriro bere agindupean.

–Ezin sinetsia da! –nioen nik neurekiko. Zer ote du apaizak gazte jendea odola emateraino prest, horren aise aurkitzeko? Eta orainokoa, ez dut sekula erantzun egokirik jaso. Santakruzek erakarri egiten zituen gipuzkoar mutilak. Eta hauek, iskiluak eskutan, edozein sofrikarioen gainetik mendi borroka latzeraino eramaten.

“Antxusa” delakoa, oiartzuarra, bere 22 urteetan hil zuten unean, Lizarragaren aginduz fusilatu zuten.

Zer zen, bada, beraren hobena? Santakruzten mezu bat Asteasu goikoko bere egoitzara Lizarragari berari eraman izana... Aita Makatzaga ere (“Orioko Erretore” famatua) hantxe zegoen lekuko (edo partaide) era berean.

Aurrenik iskilu guztiak Asteasuko eliz atarian paratzeko agindu zioten Antxusari. Eta honek txintxo-txintxo men eginez, eta Aita Makatzagaren aurrean, hantxe jarri zituen den-denak zoruan.

Jeneralak orduan atxilotu egin zuen Pedro Antonio Ezkurretxea “Antxusa” izeneko mezularia, eta Hernio aldera eraman.

Eta Goiatzen zeuden karlista tropak formarazi zituen. Eta etendurarik gabe, eta plazan ilaran zeudelarik, lau tiro bota omen zizkion Antxusari. Oraindik hau ez omen zen hila eta bosgarren bat eman omen zion kapitain gazte bategen belarriaren ondoan.

Bolondresak, ikaraturik, hildakoari begiratu ere ezin.

–¡Vista a la derecha he dicho...!

—Ez zaidak odol isurketa isil hura inoiz ahaztuko —esan zidan bertan egondako batek.

“Beltzen” kontrako borroka korapilotsuan —irakurri nuen— edozer baino lehenago batasuna behar zela azpimarratzen zen. Eta gainerakoa aise konponduko zela.

Eta, “kasurik ez egiteko, arren eta arren, karlisten zatiketa bultzatzen zuen inortxori”.

Ez nituen hauek eta haiek lotzen.

Inguruko baserrietako mutil haiek, ordea, berehala onartu bide zuten argudioa, eta Jeneralaren mezua xuxen ulertu: Don Carlos eta Lizarraga zirela buruzagi bakarrak, eta ez guk oso maite genuen Don Manuel apaiza.

Santakruztek berak ere, jakin genuenez, berehala ulertu bide zuen ez zela 1873ko abendu hura mementorik aproposena halako matxinada zakar bat burutzeko.

Eta bertan behera utzi zuen bere plana. Bere mutilak Lizarragaren agindupean utziz, eta bera mugaz iparraldera aldatuz

Erregeri berari eman zion eskutitzez irizpide-aldaketa guztizko honen berri:

“Señor:

*Cumpliendo con las órdenes de V.M. vivía yo resignado y tranquilo en este hospitalario suelo de Francia, elevando mis votos continuamente al Rey de los Reyes, para que coronase con la victoria sus heroicos esfuerzos y los de su valiente y leal ejército, hasta que V.M. se dignara llamarme otra vez a su real servicio.*

*En esa determinación hubiera yo inquebrantablemente perseverado, si no hubieran venido a lancear mi corazón carlista y vascongado las lágrimas y los crueles padecimientos de mi pobre país, donde se paseaba impune-*

*mente el enemigo llevando tras de sí el incendio, la rapiña y la devastación....*

*Estas escenas de desolación y descontento que de día en día manifestaban más los batallones guipuzcoanos, y principalmente los chicos que sirvieron conmigo, me hicieron creer que prestaría un verdadero servicio a V.M. y a mi país, presentándome allá; como efectivamente me presenté el día 7 de Diciembre último en Asteasu”.*

–Egia zen, beraz!

Hots, oraingoan, bai. Oraingoan Frantziara eta Ameriketara Hernialdeko erretorea betiko joana zela ulertu nuen.

Eta honek nigan utzi zituen zauria eta tristura ez dira sekula ezabatu.

Berriro topatu nuen artean osaba Feliperen eskutitza ohearen gainean:

–Gehiegi. Gehiegi benetan egun bakar baterako –nioen neure kolkorako.

Eta nekearen poderioz loak hartu ninduen. Oinak zinez hormatuta, lanak izan banituen ere.

–Denen artean lortu ditek! Putza!!

## XXII

Apirileko lehenengo egunetan, berriro jaso nuen osaba Feliperen eskutitza. Baita beldur nintzen berria irakurri ere:

*“Hire ama hil egin duk. Pixkanaka-pixkanaka iraungi zaiguk. Gero eta ahulago, eta lehenengo egunean hilik aurkitu genian bere ohean”.*

1874ko apirilaren 4ko data zeraman plauma-goian.

Uste ez nuen lasaitasunez hartu nuen berria. Batere barne-asaldurik gabe; amaren heriotza semearena baino lehenago gertatzea gauza normala omen zenez.

Eta, beraz, “normala” omen zenez, zertan kezkatu edo galdera sakonik egin beharrik ez zegoen. Sentimena, normaltasunaren ohoretan, erabat agorturik.

*“Etxekoen giroaz, zer esango? –jarraitzen zuen–. Ez haut areago tristatu nahi.*

*Aita oso-oso jota topatzen diat, noraezean bezala.*

*Martxel hire anaiak, berriz, ez dik kanpo aldera ezer adierazten, eta ez zekiagu noraino minduta dagoen ere”.*

–Sentitu bai, ziur. Baina kanpora azaldu... lehenago hil. Ezagutzen dut! –nik neure artean.

“Kaxildak, azkenik, txundituta utzi gaitik etxeko guztiok. Hogei urte besterik ez duelarik, sekulako heldutasuna erakutsi dik hire arrebak kinka honetan. Bai ama hila-ren gorpua bildu eta jazterakoan, bai elizkizunak antolatzekoan, bai bertaratutako senitarteko eta adiskideak errezibitzerakoan ere.

Putzu kalean ama eskas gertatzean, bera bihurtu duk —arriba, alegia— gu guztion etxekoandre. Miresgarria!

Donostia aldera hurbiltzerik izango ez duanez, nik uste, neronek eman ditiat hemendik beretik beharrezko urratsak elizkizunak hor ere burutzeko; eta Lizarrako San Pedro parrokiako erretorearekin (Don Ildefonso Etxeberria aspaldidanik ene laguna duk) antolatu diat bederatziturren bat apirilaren 16tik aurrera. Lizarra hiriaren ondoko kaxkoan, hortaz. Ezagutzen duk, jakina.

Joan hadi, otoi, beretara. Bestela bakardade gaitza gertatuko duk mezetan. Pentsa ezak amak bihotzez eskertuko liakeela oroi-ekintza xume horretan parte hartzea.

Eta ez dagoela egoera hauetan gauza tristeagorik, hildako ezezagunekiko urruntasun hotza nabarmentzea baino. Eskarmentua duen apaiza mintzo zaik orain.

Hi ezagututa, parrokiarik egokiena San Pedroren horixe dela iruditu zaidak. Harresi zaharreko La Gallarda atari ederretik ez batere urrun, badakikeanez, eta Puiko Basilika famatua dagoen muinoaren mazelan, badik auzo horrek (neure oroitzapenetan atxiki ditudan irudietan bederen) hik horren maite duan euskal antzinate kutsu apurra.

Don Ildefontsok berak esanda zekiat, bestalde, parrokia horrek arazo ekonomiko larriak dituela aspaldisko honetan. Auzoa hustu egin omen duk, hiriko parrokiarik zaharrena eliztarrik gabe utziz.

—Ongi asmatu dik osabak, bai. Inguru zaharkitu horietan, San Bizente eta Santa Teresa inguruko aldapetan dagoen zahar-giro bertsua antzeman dut. Egia da.

*Geure heinean apur bat laguntzea ez zaiok, hitz batez, gaizki etorriko. Eta honetan ere pentsatu diat.*

*Amaren gorpua nolabait orain hire etxean dagoelarik, ahalkegarri gertatzen zaidak gaurkoan hiri besterik ezer aipatzea.*

*Baina gerra madarikatu honek dakarzkigun berriak gero eta hitsago eta larriago direlarik, zerbait bederen esango diat hemen entzuten dugunaz.*

*Bilbo ondoko sarraskiak, bereziki (joan den otsaileko ez ari nauk) ikaragarriak izan omen dituk.*

*Ollo nafartar —oraindik ere bizirik egun haietan. Gi-zajoa!— buruzagi gorenaren agindupeko 27 batailoiek (Andetxaga bizkaitarrarenak, eta Mendiri eta Lizarraga nafartarrarenak), sekulako erasoak jasan dituk Moriones-en 26 batailoengandik.*

*Gutarrek 600 bat hildako izan dituk, eta beltzek 2.000 baino gehiago. Latza, benetan!*

*Espainia osoak hartu dik ohore-puntutzat Bilbo legetasunaren barruan atxikitzea. Eta hiria arriskutan antzeman duenean, probintzia guztietan bildutako beste 10.000 soldadu gehiago bidali dituk Bizkaira; nola-hala, kosta ahala kostarik, Bilbo “kankailu bandoleroen” setiaketatik jaregiteko.*

*Serantes mendia, Cuesta, Abanto, Putxeta, Somorrostro, Santelizes, Muñeka inguruak, soinez soin amaitu dituk, hilkintza beldurgarritan gorriturik.*

*Askotan hil-beharrak gupida eske begiratzen zion morrosko hiltzaileari, beronek urrikirik gabe labana saihe-tsean sartzen ziolarik.*

*Bilboko bonbaketak, bestalde, ez dituk makalak izan. Egun hauetantxe 300 bat bonba bota omen ditiztek zuriek Bizkaiko hiriburuan; triskantza gaitzak burutuz.*

*Are okerrago: martxoaren 29an (orain dela astebete, hain juxtu) batera gertatu dituk hilik, Bilboko agerrian, Rada eta Ollo nafartar jeneralak.*

*Bigarren honen heriotza, batez ere, oso galera larritzat hartzen ditek denek: bai guk bai giriek.*

*Bego honetan gaurkoa, Joxemai.*

*Agian aurki elkar ikusiko, eta berri pozgarriagorik solastatuko.*

*Arte horretan, eta neure otoitzetan etengabe haudala segurtatuz, besarkada batez hire osaba*

*Felipek”*

Ama hildakoan, sekula sentitu ez nuena sentitu nuen goiz hartan: lurgorrian estalperik batere gabe nentzala. Edo, agian zehazkiago, etsai ezezagunengandik babesten ninduen azkeneko baradera porroskatu zitzaidala.

Eta arimaren zolan nigan zegoen haurra, hilik aurkitu nuen bat-batean; eta helduen mundu aterigabea, umezurtz, neure burua atxeman.

Lanean karraskan murgildu beharrak eraman ninduen bulegora.

Gure inprimategira, eta gure telegrafora bereziki. Telegrama pilotxo bat neukan, ireki zain; eta beste hainbeste batera eta bestera bidali beharrak.

Frantziatikako kazeta mordoska bat ere bai.

“La mort des généraux légitimistes Nicholas Ollo Bidaurreta et Théodore Rada, dit “Radica”, originaires tous les deux de la région de Pampelune –zioen haietako batek letra larritan– augmente les difficultés des carlistes basco-navarrais”.

–Baina –ni erresuminduta– gainerako karlistak zer debru ari dira? zeren zain daude? noiz izango ditugu geure alboan? Gerla hau “basco-navarrais” garenona da, bezaraz?

Berriro zetozkidan arrapaladan Aita Goirienaren esanak.

Baina, horrez gain, baneukan besterik. Baraderarik eza geroari buruz...

Eta bakardadearen tema, jadanik sendo, azkartu egin zen nigan.



## XXIII

1874ko uztailaren 6an V. Gómez Zuzendariak deitu ninduen “El Cuartel Real”eko bulego nagusira:

–Quisiera hablar contigo, Arruabarrena. Pero mejor dentro de un rato. Ven a las once, por ejemplo.

Astelehena zen. Zerua urdin, aratz, sakon: Donostian sekula ikusten ez dugun kolore bikainekoa.

Giroa, bero, beroegi. Donostiar batentzat behintzat.

Egun dirdaitsua zetorren, Nafarroan askotan gertatu ohi diren egun ezinago eder horietakoa.

Lizarrako Foruen enparantzán, Karlos Setimo eta Parmako Margaritaren harrerakoan, aurreko asteazkenean, balkoietan eta leihoetan zintzilikatutako bandera gorri-horriak, eta Nafarroako erreinuaren katedun gorriak, hantxe zeuden oraindik, eskegita, uztailaren leheneko ospakuntza erraldoiaren aztarna.

Don Carlosen egoitza apalean, bereziki, harrigarria zen ikurren eta banderolen koloreen hordialdia. Eta zainketa egiten zuten “gien” eta alabarderoen janzkerak berak dotoreago agertzen ziren egun hartan.

–Oraingoan bai –esan zidan Kaximirok lan-bulegora sartzean–. Oraingoan benetan uxatu ditiagu beltzak: Ebro-raino erretiratu omen dituk korrika eta muturka. Eta Concha jenerala gabe itzuli dituk gainera!

Berau, ekainaren 27an, Murugarren eta Abartzuza arteko Murun gure bolondresak zauriturik, hil egin zen bertan. Liberalen armadak sekulako galerak izan, bai. Eta atzera egin behar izan du errepublikar osteak; bere 50.000 soldaduak, ehunka zaldiak, eta bere 100etik gorako kanoiak arrapaladan Erribera aldera garraiatuz.

–Gure garaitzapek handiena izan omen duk hau aspaldi honetan –argitu zidan Kaximiro Mendia zaldibitar lankideak–. 4.000 giri akabatu diagu hiru egunetan! Bejondeiela!

“Abartzuza inguruetan bele asko jiraka hegaz, omen; eta beltzen gorpu usteldu kiratsa, sarkor. Berriro ere: beajondeiela!

Hizkera gupidagabe horrek higuindu egiten ninduen. Zifra horien atzean, eta irain urrikigabeen gibelean, giza sofrikario latzen prezioa ezkutatzen zelako. Inork ez zuen, halere, pertsonen buruzko xehetasunik batere ematen:

–Tximitxak bezala zapaldu ditiagu! –entzuten nuen–. Berrogeita lau batailoi etorri dituk gugana, gu geu tximitxak bezalaxe zangopetzera.

“Horra hor truke-saria!

“Atzera beltzek egin ditek. Ez guk. Don Carlos konturatu egin duk.

“Eta Muetzen, Mahatsondoaren Jauregian zegoelarik, eta handik beretik, gure buru zegoen Torkuato Mendiri jenerala izendatu dik “Abartzuzako Konde”. Ederki!

“Merezi ere aise merezi zian ohore hori Alloko seme apartak.

Karlistekiko beldurra hedatu zen orduan Espainian barrena. Eta, uztailaren 18an, Madrileko gobernuak “estado de alarma en toda España” aldarrikatu zuen.

Guk, Lizarran, ez genuen “Espainia osorako” erabaki bitxi eta larri hori ulertzen. Oso ongi baikenekien Kataluniako gure egoera oso larria zela. Alfonso Carlos erregeren anaiak berriro zuen eskatua Kataluniatik osotara erretiratzea; eta, bestera ezinean, anaiarengana, Lizarrara biltzea.

Eta beste probintzietan, oro har, eta nolabait esateko, “ezer gertatzen” ez zelako, ezelako erabakirik hartu beharrik ez zegoen. “A cuatro algaradas no se responde con un estado de alarma”...

Manuel Gutiérrez de la Concha jeneralaren heriotzak, artean, sumindu egin zituen errepublikarren buruzagiak.

Ondorioz, giriek, atzera beharretan abandonatu behar izango zituzten eskualdeak eta etxaldeak erabat porroskatzearabaki zuten: uztei eta baserriei su eman, herriak eta auzoak errotik desegin, joaterakoanazienda hil, den-dena funditu.

Hitz batez, txikizioak, han eta hemen, ahalik eta osoenak burutu.

Hori guztia gertatzen hasia zena banekien nik. Bage nekien, hobeki esateko, kazetaritza lana betetzen genuen guztiok. Eta tristura neraman barruan.

Hala ere, eta egia aitortuko badut, ostegunean Iratxeko zelaietan ikusitako parada militarra hunkigarri gertatu zitzaidan. Oinaze goibeletan itotako morrosko sendo haien aurpegi minduetan, aspaldi hartan ez bezala, goiztiri esperantzatsu baten irribarre gozo-eztia hozitzen bide zen, izuti.

Parada ikusgarri hura gutarren azkeneko hatsa ote zen, ala lehen printza, antzeman ezin nezakeen arren.

Uztailaren 2ko goizean, zauritutako boluntarioak bisitatu zituen Carlos VII.ak. Iratxeko alimaleko batimendu hartan, gerla-ospitale bihurtutako monastegiko oheetan, 900 soldadu zeutzan.

Doña Margaritak bezperan (asteazkenean alegia, uztailaren lehenean), Lizarrako plaza oso nekez errege-egoitzaraino gurutzatu ondoren, ikuskatuak zituen jadanik begikotasun handiz gerla-kalteredun haiek. Eta bertan eman zuen gaua, monastegiko lehenengo estaian berak gela bat estreinatuz.

Bertsolariak ez zuen aukera galdu, eta berehala entzun zen batailoietan:

*Ospitalik ospital  
o dabilten oñak!  
Balsamo jariyo txit  
bere esku-mingañak,  
kentzen gozo-gozoro  
oñaze samiñak!  
Zenbat baliyo duan  
gure erregiñak!*

Osteguneko arratsaldeko seietan, Aiegiko etxaldea beherean lekuko, espainiar "Marcha Real"aren lehenengo akordeetan, Lizarratik hara igotako batailoien erregetiar errebista hasi zen.

Carlos eta Margarita errege-erreginen ondoan, begirale artatsu, eta besteak beste, Dorregarai jeneral beteteranoa ezagutu nuen, bere bizar-itxura berezian.

Eta Mendiri buruzagi berria, eta Argonz, eta Ruiz de Larramendi, eta berauen talde gidari militar osoak.

Errege-erreginen ohorezko esku-zartaldia ez bide zen amaitzen, eta malkoak ageri ziren askoren masailetan.

Zaldi ganean zihoan Margarita, txapel txuriz eta amazona beltzez jantzirik. Don Carlosek, berriz, txapel gorria zeraman, eta Kapitain Jeneralaren uniformea; eta, paparrean, urrezko “Toison”a, ohi legez, eta Jurramendiko domina berria.

Banan-banan pasa ziren errege-erreginen aurretik, “desfile” patxadatsu dotorean, eta iskiluz ongi horniturik, Iratxeko zelaira igotako 28 batailoiak.

Ondoren zaldizkoen konpainien txanda izan zen, baita kanoi mordoska batena, ilaran, eta aurrekoei jarraiki.

Monastegitzar karratuaren aurrealdean, letrero erraldoi bat irakurgarri: *Gloria eterna a los héroes de Abárzuza*. Eta elizaren atarian, ezkerretan, gurutze eskerga baten azpian, beste izkirio hau: *¡Viva Cristo Rey...!*

Hots, oroitzapen bizi horiek neure artean edoskitzen nituelarik, Valentín Gómez nagusiaren ahotsa entzun dut:

–Puedes venir ahora, Arruabarrena.

Eta erdaraz ari:

–Albiste garrantzitsuak ditut zuretzat.

“Ez dira oraingoz (“oraingoz”, alegia, bizpahiru astez, eman dezagun) oso barreiatu behar. Baina albistea hau da: bagoazela hemendik Tolosara.

“Etxetik hurbilago egongo zara, beraz. Zer deritzozu?

Hitzik gabe bezala paratu naiz:

–Tolosara... orain? –nik neure arterako—. Zer dela-ta? Abartzuzakoaren ondoren, Tolosara?

Beste zerbait bazegoela iruditzen zitzaidan.

–Zuzendaritza –jarraitu zuen Gómezek–, “El Cuartel Real” osoa, hobeki, bere makineria eta guzti, Tolosara aldatzera deliberatu da. Zergatik zehazki ez dakit: militarrek erabaki bide dute. Beraz, ez galda. Dagoeneko hasia zinen hemengotartzen, seguru aski... eta hanka egin behar!

–Bai. Halaxe da. Lizarra maite dut oso jadanik.

–Nik ere bai, Jose Maria. Baina aginduak bete behar ditugu. Eta Tolosara goaz, hiriburu “foralera”. Kokalekua ere badugu han: Gorosabel 8an. Alegia, jendeak maizago Rondilla kalea deitutakoan. Honen aditzea ba al duzu?

–Bai, horixe! Rondilla kalea... Noski!

Zergatik ote aldaketa hau? –neure artean tematurik—. Egia ote zen, azkenean, Valentín Gómez ere, Karlos Setimoren konfiantza-gizona, “liberalegia” zitzaiela mini-gorteko ultramontano ojalateroei? “Morentingo Agiri” berria zela bide, horrelako zurrumurruak ez baitziren falta!

Agiria kaleratzean, joera horretxetako esamesak azkartu ziren nabarmenki. Esaldi beltz itsusi haiek, batez ere: *“Reconozco, y he reconocido siempre –zioen V. Gómezek Erregeri prestatutako Agirian– que los pueblos tienen derecho a que el Rey les oiga por medio de sus representantes libremente elegidos. Y la voz de los pueblos, cuando la ficción no la desnaturaliza, es el mejor consejero de los Reyes. Quiero, pues, una legítima representación del país en Cortes”*.

Aurrean, hau ez da gutxietsi behar, espainiar “errepublikan” zeukan Don Carlosek; berori, tarteka, eta Pi i Margall-en eraginez, “errepublika federala” ere bihurtzeko abian...

Esan egin behar zerbait Erregek. Esan bederen.

–Hara goaz, bada –egin zuen lotura Gomezek aurrekoarekin—. Zure lana ez da erruz aldatuko: telegrafo-lana, frantses bisitarien itzultzaile, frantses kazeten irakurle...

–Orain arte bezalatsu? –nik galde.

–Hori da. Orain arte bezala. Baina Donostiatik bertago.

–Bai. Jakina.

–Aldaketa hau aldez aurretik ezagutzea komeni zitzai-  
zula iruditu zait.

–Bai, jauna, Eskertzekoa da zure jokabidea. Zinez, jau-  
na, mila esker.

Eta, jarrera hori ikusirik, eta barrenak ausardia eman-  
da, honela mintzatu natzaio:

–Galdera bat ziplo egitea onartuko didazu?

–Noski! Bota lasai!

–Zurrumurru asko dabil gure artean –esan diot–. Olo  
eta Radicaren heriotzen berria segurua delarik, zer dakizu  
zuk Kastor Andetxaga bizkaitar jeneral zaharraren osasu-  
naz? Egia al da hila dela?

–Hila da Andetxaga, bai. Zoritxarrez! Olo hil, eta  
handik hilabete eskaxera, joan den apirilaren 26an, Don  
Kastor beteranoa hil zen. Ilaran galdu ditugu geure buru-  
zagirik maiteenak...

Isilunea gure artean gertatu.

–Ez horrela har, otoi, Jose Maria. Concha beltzen bu-  
ruzagi gorena ere joan den asteen hil da inguru hauetan.

–Bai, bai. Badakit... Eta Andetxaga non hil zen?

–Bere jaioterrian, Enkarterriko lurraldean, Kantabria-  
ko mugan bertan. Talledo auzoan preseski, Muñeka gai-  
nean. Seguru aski ez duzu eskualde hori ezagutzen.

–Ez. Hala da. Giputzok ez ditugu mendebaldeko biz-  
kaitar paraje horiek batere ezagutzen.

–Trueba idazle foruzale ospetsua, Don Antonio izene-  
koa, bazter haietako semea da, hain zuzen. Eta (hau bada-  
kikezu, nik uste) gerra dela-ta, Madrilera joan bide da bel-  
tzengandik ihesi.

–Ez. Ez nekien. Gainera Trueba idazlea, ez dut batere  
ezagutzen. Izena entzuna dut zenbait aldiz. Baina... ezer ez.

–Bada, Galdamesen, Montellano eta Muñeka inguru horretan hil da 26an Andetxaga enkarterritarra. Gure jeneralen dekanoa zen. Bi karlistadetan ausart halakoa. Azala bertan uzteko adinakoa, azkenean ongi agertu denez.

–Gizajoa! –nik–. Egia ez dela esan zidaten lehengoan; eta horregatik galdetu dizut.

–Bada... egia da.

Abartzuzako garaipena benetakoa izan arren, gu karliston deskalabrua ezkutatu ezina zela iruditzen zitzaidan. Baina isildu egiten nintzen.

Zergatik ez genuen aitortzen, adibidez, Somorrostroko batailaren ondoren, Primo de Rivera eta Loma berak larriki gertaturik ere (eta errepublikarrek, berberen aitortenez hau, 2.241 biktima izan arren), Bilboko setiaketa, ororen buru, porrot gaitza izan zela? Eta gure gainbeherakada hortxe hasi zela?

Baina ez nion neure barrena hustu.

Aurpegiak salatu bide ninduen, ordea:

–Eta “Espainia osoan” joan den 18an “estado de alarma” ipintzeaz, zer diozu? Hor duzu neurri egokia.

–Egia –aitortu nion Gómezi.

Urtebetez gerra latz egin ondoren (eta epe hori, Don Carlos Nafarroara pasa zen egunetik hona bakarrik kontatuz), oso aurreratzen ari ginela pentsatzea ez zitzaidan bidezkoa.

Gu “mehatxua” omen ginen Madrileko gobernuarentzat. Hori bai.

Baina “mehatxaturik” egon arren, agintea Madrilek atxikitzen zuen, tinko. Burgos, Cáceres, Zaragoza, Valladolid... Donostia, Iruñea, Bilbo, Bartzelona bera, Madril... beltzen eskuetan zeuden beti.



Guk, berriz, Euskal Herriko herri txikiak atxikitzen genituen. Tolosa forala zen handiena, eta Durango, eta Bergara, eta Markina, eta Etxarri-Aranatz... eta Lizarra. Lizarra bai. Lizarra beti gurea...

Gaizki ikusten nuen egoera, hitz batez. Eta buruzagien artean antzematen nuen hanka-traben eta azpikerien ziz-trinkeriak azkartu egiten zuen ene mesfidantza hazkorra.

Eta fronteetako hilketa basa izugarriek (euskaldun baseritarrek jasanak, oro har, eta ez ojalatero “señoritoek”), zalantzan uzten ninduten:

–Zer da odol-husketa zirrargarri hau?

Ez nuen garbi ikusten.

Hots, arratsean, Comercio kaleko neure etxera bihurtzean, notatxo bat topatu nuen gelan:

*“Kaixo, Putzu!*

*Donostiatik jakinarazi didatenez, Abartzuzako inkontruan hildakoen artean, “Iraxu” gaitzizeneko donostiar gazte bat omen zegok. Hire lagun mina, omen. Beste batean azalduko diat besterik. Gaur-gaurkoz, ezin. Bego hau bere horretan.*

*Besarkada bat.*

*Ez etsi!”*

Sinadurarik ez.

–Iraxu hila!! –neurekiko mintzo.

Borra batez jo banindute bezalaxe hartu nuen berria:

–Ez da posible...!! Plaza Zaharreko Roke Irazu adiskidea, hila?

Putzu kaleko eta Plaza Zaharreko gure haur kontu eta jokoak zetozkidan burura.

Ezin gorroto olatu hura gaindi.

Kalera irten nintzen.

Sargori latza, sapa, lanberoa, nik dakita nola esan? Donostian galerna aurreko orduetan ez bestetan ezagutzen dugun bero itsaskor kiskalgarriaren antzeko zerbait. Ez bestetan egon ohi den lehorra. Urbasa aldetik amilanoa erortzen ikusi nuen.

Norantz jo? Inora ez. Eta neure gelara bildu nintzen berriro:

–Zertan ari haiz, Putzu –neure artean– “El Cuartel Real”eko ojalatero ustelon artean? Halako batez heure buruaz lotsatuko haiz!

Eta bat-batean argi-une bat izan nuen:

–Tolosara esan ditek... Eta Tolosara, zergatik ez joango?

Txorabioak harrapatu ninduen:

–Tolosatik... honi akabera emateko, egokiago... Norabait ihes egin, iskiluak eskutan hartu.. Bai, horixe! Baina ez zioat asmo honetaz inori zipitzik ere esango.

Minutu luzetan egon naiz isilik, ordutan barrena ere bai, nik uste:

–Banoak ni hemendik... Eta ez Tolosaraino bakarrik... *boluntariyoekin* nahi dut eskuz esku mendi-borrokara joan. Ezjakin hutsak izan arren, helburua garbiki antzeman ez arren, bizia arriskatzen ari diren baserritar gizajo horiekin nahi dut nik neure azala arriskatu... Galdu ere bai beharbada!

Odolak behin ere ez bezala zirakidala nabaritu nuen. Lehertu egin behar nuela:

–Koldarra izan nauk Lizarran. Noan mendira orain! Bete dezadan jator Iraxu adiskideak utzitako hutsunea! Eta kitto... Zer gerta ere... zergatik ez?

Neure burua batera harroturik eta gogoturik antzeman nuen:

–Ama hila duk jadanik. Bera hilda, ordea, nork maite hau hi zinez eta minez? Nork bizia bera hiregatik eskaintzeko heinean? Erantzun ezak prestuki!

Puiko basilikako bala-zuloak berriro neure eriez eskuztatzeko behar bitxia piztu da nigan:

–Horren beldurrak berak ez nau aurrerakoan atzeratu-ko –neure artean.

*Sucumbir de un balazo*

*¿y qué?*

*La muerte es lo de menos*

entzun diet askotan, kantari, hemengo karlista erdaldunei.

Egia dutela iruditzen zait gaur.

Tolosara... eta gero, nora? Ez nuen segida batere garbi ikusten. Zenbat astez egongo Rondilla 8ko lantegi berrian?

Ez nekien. Baina Comercio kaleko neure gelara joatean, gauza bat neukan erabakita: Lizarrako bulegoaldia amaituta, Tolosakoa ez zela luzea izango. Ihesa prestatzeko adinakoa bakarrik.

Zer gerta ere, mendira!

“Au maquis!”, Akizeko lehengusuek txantxetan esaten zuten bezala esatekotan.

Horrelako zerbait, bai.

## XXIV

Don Alfonsoren erretiradak ez gintuen sobera harritu. Arrazoi ilunengatik, Frantziara pasa zen uda hasieran.

Lerro artean, dena dela, denok ulertu genuen Katalunian ere beltzak zirela nagusi, eta guk ez genuela batere indarririk. Espainiako probintzia gehienetan bezala.

Hain zuzen ere, gu geu ere Tolosara aldatzeak, susmo batzuk piztu zituen gure artean. Alegia: Lizarra bera ere arriskutan ote zegoen?

Aurreikusia bezala, 1874ko abuztu hasieran ni Tolosara iritsi, eta Rondilla 8ko bulego-lantegira joan nintzen. Sotoko atean, dotore idatzirik, xafla zuri handi bat:

“El Cuartel Real. Redacción. Impresión”.

–Ahora sí que estás cerca de casa –bota zidan Don Valentinek sartzera koan–. No te quejarás.

Eta gure lantegi berria ikustera eramán ninduen.

Nik erdizka baizik ez nituen argitzapen haiek aditu; bertan denbora laburra egingo nuen segurantzian.

–Gaurtxe hasten dugu hemen “El Cuartel Real”en urrats berria...

Eta esandakoaz damaturik antza:

–Barka! Hemen abiatzen dugu “El Cuartel Real”en azkeneko urratsa; garaitzapena baino lehenagokoa, alegia. Gure hurrengo lantegia Madrilen zabalduko baitugu aurki... Ala ez? Ez hau esperantza honek bizkortzen?

–Bai, bai, jakina –baietsi nion erdaraz batere berotasunik gabe, eta esaten nionaz osoki jabetzen ez nintzelarik.

Epelkeria hartan nire barruko asmoak sumatuko ez ote zituen kezka sortu zen nigan.

–Bai, bai –baietsi nuen–. Hemen Donostiatik oso hurbil gaude... Baina Donostia giri ustelen eskuetan dago; eta gaur-gaurkoz ez nau batere kilikatzen.

–Noski! –baietsi zuen Gómezek ozenki.

Baina “El Cuartel Real” uztera deliberatua nintzen, esana dudanez. Eta ene zalantza bakarra hauxe zen: noiz joango? nola aldegingo?

Familiarekin osotara eten ezin, ordea. Partidara nindoala bederen esan behar nien. Eta osaba Feliperi bidali nion gutun bat.

Donostiatik joatean, Tolosako estazioaren ondoan eza gututako jauregi-bulegora jo nuen. Eta jukutria bat baliatuz bertako postabidea erabiltzeko, hauxe adierazi nion:

*“Agur, osaba!*

*Tolosan nauzu jadanik, “El Cuartel Real” ek Tolosan zabaldu berri duen lantegi honetan.*

*Nik boluntarioekin eskuz esku borroka egitea erabaki dut. Euskal Herriko mendietan barrena, eta su-iskiluak neure besoetan harturik. Ez dut “señorito ojalatero” horietakoa izan nahi.*

*Ez zaitez ikara, osaba, halaz ere. Hotzean hartutako erabakia da hau. Nahi duzunean mintzatuko gara zehazkiago.*

*Bai zuregatik, eta baita aita eta anai-arrebengatik ere, buruz buru eta zure bitartez azalpen hauek helaraztea gustatuko litzaidake.*

*Badakizu orain non nagoen. Eta zeuk ikus, beraz, nola eta non elkartuko garen.*

*Aurki arte agian. Zure iloba*

*Joxemai”*

Hots, horrelakorik espero ez nuelarik, berehala jaso nuen erantzuna:

–Jaun batek egiten du hemen zure galdea –esan zidaten irailaren 3an.

Irten naiz, eta...

–Osaba! Osaba Felipe...! Baina... baina... nolatan honen azkar?

Besarkatu egin nau bero-bero:

–Nola habil...? Ez galderarik egin. Ez baitiat erantzungo. Hemen nagok, eta kitto.

Ezin nuen neure ezustea disimulatu:

–Jazkera aldatu gabe hurbildu?

–Are beltzen artean ere, arropa hau oso praktikoa izaten duk beti. Eta zuengana agertzekotan, areago. Pentsa! Eta hi, Joxemai, zer moduz? Hasieratik has gaitezen.

–Ni, ongi. Eta zu?

–Gu apaizok beti ongi. Badakik: “vive como un cura”, eta abar...

Eta barre algara ozena bota zuen. Eta geroxeago:

–Ondo pentsatu al duk pausoa? Gerra hau gogorra duk, gupidagabea, latza. Latza, benetan!

–Bai, bai. Badakit.

–Don Migel Dorronsororen aditzerik ba al duk hik?

–Gipuzkoako Deputatu Nagusiaz mintzo zara?

–Hori duk, bai. Horren inguru-inguruko lagun handi bat bazeukat nik, eta lekutxo bat bilatuko diat nik. Ez arriskutsuegia, agian. Baina...

–Osaba: ez dut ojalateroa izan nahi.

–Ezetz! Lasai! Baina ez hago hi, halere, telegrafotik irten eta balentriaka derrefente hasteko moduan...

–Ez. Hori ere ez. Hasteko, bide erdiko zerbait, hobe. Baina iskilua eskutan, eta bonbak ondoan lehertzen ikusteko modukoa.

–Motel! Lasai!

–Lasai bai, beharbada. Baina borroka egin nahi dut. Dagoeneko jende fin gehiegi ikusi dut gerra madarikatu honetan neure inguruan hiltzen.

Eta, pausa bat eginez:

–Ohar bat, halere, Joxemai. Dorronsoro jauna ez dela batere Santakrutzen aldekoa; eta Lizasoain gomendatzen diadan nire adiskidea ere ez. Kontuz ibiltzeko abisatzen diat.

–Kontutan hartuko dut zure aholkua, osaba. Bego hori.

Urrian barrena praktika militarrik egin genituen Larraitz inguruan. Mina bat nola egin, bolbora nola presta, kanoiaren atalak zein diren, denetatik.

Fusilek ematen duten kontra-kolpe zakarra dela-ta, besaburua oso minberatuta amaitu nituen ariketak. Eta goizero, euri izan zein ateri, egiten genituen mendi-ibilketak direla bide, izterrak eta zangoak ere ez gutxiago.

“Remington” eder bat eman zidaten:

–Hemen daukak, Putzu, hemendik aurrerako heure andregai leial eta leuna izango den hau!

Eta lizunkeria harrigarriaz ferekatu nuen behin eta berri hodi hura goitik behera, eta gero behetik gora are polikiago.

Borrokarako oraindik gordinsko nengoela-ta, Irungo setiaketara bidaliko ote ninduten, ez ninduten, ibili bide ziren zalantzan goikoak. Baina, setioak astebetetz bakarrik iraun ondoren, eta gure mutilek azaroaren 12an, eurijasa etengabea, altxa zutenean, gerorako utzi bide zuen Buruzagitzak nire su-bataioa.

Eta, nik besterik espero nuelarik, Nafarroa aldera bidali ninduten. Ziraukira preseski. Lizarratik ez urrun, hamar bat kilometro ekialderantz.

Guk genituen albisteen arabera, bake osoan zeuden bazter haiek azkeneko aste haietan.

—Berriro Lizarra aldera —esan nuen neurekiko—, hango zerbaitek lur hartan lotu nahi banindu bezala...

Eta hotzikara bortitz batek astindu ninduen.

Iritsi orduko konturatu nintzen, ordea, gerra-hotsak eta liskar-orroak hantxe zeudela, entzungarri, eguratsean txertaturik antza.

Egunero-egunero, fusila bizkar gainea eman; eta Zirauki eta Mañeru herrietako inguruak miatzen genituen xehe-xehe, okin-labeetarako isats landare ihartuak etengabe zapaltzen genituelarik. Eta bidenabar, hurbil zekizkigukeen “giri” ausartegiak kikiltzen eta etsiarazten.

Pixkanaka, horretara, Loiola eta Ibaeta bezain xeheki ezagutu nituen nik abendu hartan Erroiabieta, Iturmendia, Euntzeta, Zelaia, Anitzaldea, Urberoeta, Mendigibelea, Iturrizar, Dorrondoa...

Eskintza eta San Kristobal tontorretan, berriz, Oteitza alderago, ikusi ere egiten genituen garbiki, mendien hegian, Larragatik beltzek gure mugimenduak zaintzera bidalitako tropak.



Mendebalderago, Lorka, Lakar eta Allotz herriak ikusten genituen, ilunabarrekoan nabarmenago; eta beti ere “beltzen” kilikagarri.

Hots, urtea amaitzera zihoalarik, azkar baino azkarra-  
go hedatu zen Ziraukin bezperako berri kezkarria: abenduaren 29an kolpea emana zutela Martinez Campos eta Daban militarrek Saguntón, Valencian, eta erregetza berrezarria zutela (“la Restauración” zioten kazetek).

Alfonso XII.a izendatu zutela errege (Isabel II.aren seme gaztea, alegia); beronek 17 urte besterik ez zuelarik.

–Mi primo Alfonso –erantzun zuen Karlos Setimok Debako bere egoitzaatik–, que pretende ahora ocupar mi trono sin legitimidad alguna, es otro impostor más.

Baina berehala, hemendik eta handik, ohorespen eta menegintza agiriak ugaldtu ziren.

Nik neuk, euskal foruzalea bai, baina oso erregezale ez naizen joxemaritar honek, oso hotz hartzen nituen errege-famili arteko gorabehera horiek. Eta ez nien garrantzi handirik ematen.

Baina gure jendeak, buruzagi gorenak barne, guztiz kezkatuta agertzen ziren Saguntoko kolpearen ondoren.

Bartzelonan barrena Madrilerantz ere bazetorrela jakin genuen, eta hortik Euskal Herrira azalduko zela. Eta, jakina, gugana etortzekotan, oso garbi zegoen Lizarra “liberatzera” joango zela.

Guk bagenekien hau. Eta, oso nabarmenki, ni nengoen Ziraukiren inguruetan, bai bolondresak bai buruzagiak, gero eta urduriago agertzen ziren.

–Lorka erori da beltzen eskuetan –zabaldtu zen gure artean–; eta Lakar arriskutan dugu. Allotz ez oraingoz, begiraleek dioskutenez. Baina Larragatik eta Argako arrotik etorriko dira orain, besteetan bezala. Eta hortxe egin behar

diegu gogor. Bestela, agur Lakar, agur Allotz, agur Villatuerta eta Arandigoien, agur Gorotziain eta Zurukuain, eta agur... agur Lizarra!

Eta dardarizoak hartzen gintuen denok.

Begirale-partida txiki baterako (sei lagun ginen) hautatu ninduten. Eta, ahal bezala, Lakarko inguruak, beti xixpa besaburuan eramaki, egunero xeheki begiratzeko agindu ziguten.

Goiztirian egunero korritzen genituen eskualde hartako muinoak eta pendizak: Pikagaiña, Gatzaga, Mendizorrotz, Azkarro, Los Adobes, Zabalartea, Igaratz, Errekaldea, Lipiturri, Batzarremendi, Itsasia, Osaleta...

Egiarteko eliza erromaniko ederra ere bai (arku lau-koitza eta zutarrri karratuetakoa, une hartan batera Allotzen eta Lakarren parrokia bikuna), pausagune atsegin epelsko; giro hotz, sarkor eta aratz hartan babesgune maite.

1875eko urtarrilaren 23an, batera telegrafoz eta gure soegileen mezuez, beldur ginen berri hitsa etorri zitzaigun. Alfonso XII. erregea, Zaldubatik eta Tuteratik etorri-rik, Nafarroan zegoela jadanik; Joaquín de Jovellar gerra-ministroaren eskutik.

Saguntoko kolpetik ozta-ozta hilabetea igarota, "Norteko" probintzietan ezarri nahi omen zuen, sendo eta zindo, jeneralek emandako aginpide berria.

Hain zuzen, "azkeneko bataila" emateko bezperan, omen, Azkoiengo lautadan (Argako ibarrean) pasa zien errebista tropa liberalei. 60 batailoi, 90 kanoi eta 3.000 zaldi bilduak ziren bertara. Ez baitzen hutsaren hurrena!

Erregearen laguntzaile, girien arteko hiru jeneral ospetsuenak zeuden: Moriones, Despujols eta Primo de Rivera ("Lizarrako tematia"). La Serna jenerala ere, Madril-  
len "Irungo setiaketa-  
ren umandia" bataiatua, Azkoi-  
ena

inguratu zen; Nafarroako gerrate azkengabea behin-betiko amaitzera deliberatua.

Gure aldetik, berriz, Don Carlos gaztea buru, eta bi jeneral heldu eta ospetsu lagun: Joakin Elio Ezpeleta iruin-xemea eta Torkuato Mendiri allotarra. Eta 22 batailoi bakarrik (liberalen heren bat ozta-ozta): 16 euskalerritar eta 6 espainiar. Zifra horiek kontutan hartuta, ulergarriak ziren Alfonso XII.a ume-purtzilaren harrokeriak eta hanpurskeriak; eta ulergarriak ere, nola ez, karlisten arteko kezak eta beldurrak.

Otsailaren 3an, goizeko zazpitan, oraindik osoki argitu gabe eta sekulako hotz zegoelarik, zaldi gainean agertu zitzaigun Don Carlos, borrokarako prest.

Eta zortzi eta erdietan "kontseilua" izan zuen Elio eta Mendiri jeneralekin.

Lakar barruan, gure datu fidagarrien arabera, 6.000 beltz zeuden.

Zuhurtziaren aurka, itxuraz, eta Mendiriren kontra bere erregetza-mailako aginpidea baliatuz, Karlos VII.ak bazkalondoan bertan Lakarri erasotzea erabaki zuen. Zergatik ote bazkal ondoan, eta ez egunsentian? Ez genekien. "Sospresa nahi", omen.

Laurak laurden gutxiagotan, zehazki, mota guztietako tiroak hasi ziren. Lorka herriari bat-batean su emanda, hoge minututan, ketan ezkutaturik egon ondoren, bere arrasorik ere ez. Hondakin batzuk han-hemenka, eta kea zeriela.

Kez oratutako uztai ibiltari zabal batek inguratu zuen Lakar, gero eta bertagotik, eta korapilo eskerga beldurgarria pixkanaka hesten zelarik.

Ni neu Batzarremendi aldean gertatu nintzen, neure burua hobeki gerizatu nahiz lur gorriari erantsia; eta ez nion neure Remingtonari atsedetik batere ematen.

Halako batez, leherketa zakar bat sumatu nuen neure eskuinean, eta lur-parrastada batek neure aurpegiaren kontra jotzen zuela, eta surziloak kukutzen. Bere fusila etengabe desarratzen zuen Txapero nire laguna, bat-batean isil-isilik antzeman nuen, eta geldi-geldirik. Zirrara batek harrapatu ninduen:

–Txapero! Txapero!

Ez zidan deusik erantzun.

Eta nik orduan are sutsuago eutsi nion neure tirokal-diari, kiskali arte berotutako neure Remingtonak ematen zizkidan kolpe bortitzei kasurik egin barik.

–Eutsi mutilok! –entzun nuen orduan–. Eutsi!!

Jarrera lipar batez aldatzekotan, belauniko jarri nintzen.

Eta, orduantxe, bero-puntu zorrotz mingarri bat sentitu nuen ezkerreko izterrean, eta bero kiskalgarria; eta oinaze ziztada urratzaile bat ere bai, puntu berean. Eta garrasi gorgarri bat itzuri zitzaidan barne muinetatik.

Eskua eraman nuen izterrera. Nire galtza bustita zegoen, blai, eta epel oso. Oina ezin mugi nezakeela erreparatu nuen, ezta zipitzik ere.

–Nireak egin dik –pentsatu nuen–. Jo egin naitek putakume horiek.

Eta oinazea azkartzen zelarik, oso garbiki ezagutu nuen korneta-tokea:

–¡A la bayoneta! ¡A la bayoneta!

Tiro hotsak bakandu egin ziren, eta urrundu.

Eta erotuta bezala pasa ziren mutilak nire ezkerretatik eta nire eskuinetatik, maldan gora arnasestuka, baionetak dirdaitsu, Lakarko etxeen aldera ari.

Gero eta bustiago nire galtza, artean; eta gero eta epelago. Gero eta beroago agian. Eta larruari gero eta itsatsiago.

Deituko ote? Nor deituko, ordea? Zertarako?

Eta etsi egin nuen.

–Emak buztina! –esan zidan orduan gazte sendo baktek–. Buztina, bai! Emak! Hemen dauzkak lokatza eta ura!

–Galtzen gainean buztina?

–Ez, motel. Ken galtzak, oinetatik ken! Eta emak buztina azalean!

Sekulako oinazeak gaindituz, botak, galtzerdiak, gorritutako galtza ilunak erantzi nituen.

Berotasuna joan orduan, eta oinazea azkartzen zela nabaritu nuen, eta hotzak hartzen zituela zangoa eta oina. Eta burua galtzen bezala hasten nintzela.

–Nik eramango haut! –esan zidan orduan mutil baktek–. Bizkarrean eramango haut, bai. Hi, lasai!

–Bizkarraren gainean?

–Bai. Gaina ez duk gugandik urruti. Hemen Errekalden gaituk. Herrian gurdiren bat edo topatuko diagu gero, beltzak arrapaladan joan baitira ihesi. Hi hor egon. Nik egingo diat dena.

Nola lortu zuen ez dut ulertzen. Baina bere gainean jarri ninduen.

Zerua gurutzatzen zuten txinpartez eta balez oroitzen naiz. Herri-kaxkora iristean eskuin-eskailera bat atera zuen nonbaitik, eta beraren kontra lotu ninduen soka lodi batez.

Eta berehala, beste mutil gihartsu baten laguntzaz, gurdi kankailu batean paratu ninduen, eskailera eta guzti. Eta Allotz aldera abiatu ginen.

–Hor bazeudek medikuak –esan zidan– eta txukun-txukun sendatuko ditek izterra. Bala bat izterrean? Horretatik inor ez duk hiltzen! Eta bala, gainera, irten egin duk. Suer-tea izan duk!

Burua lehertzekotan puztu zitzaidan. Zauriaren bero kiskalgarriari, hotz hazkor bitxia nagusitu zitzaion.

–Nireak egin dik! –errepikatu nuen.

–Ixo! –zakarki.

“Emak buztina!” entzuten bide nuen etengabe.

Gero loak hartu ninduen, edo lozorro sakonak bederen...

Handik ordutara, eta gau beltza gainean genuelarik, esnatu egin bainintzen. Gazte bizartsu ezagun bat topatu nuen neure aurrean, ohazeruaz bestaldean, niri begira zutik, larderia handiz hau ziostalarik:

–Puedes estar orgulloso, muchacho. También tú podrás decir a los tuyos: soy uno de los veteranos vencedores de Lácar.

Eta gu zaurituon bisitaldiari eutsi zion oheen ilara luzean aurrera.

Non ikusia nuen nik gizon hura? Neke lozorro bitxi hartan ezin nuen igarri.

Memento hartantxe emakume multzo baten ahots mordoia iritsi zen niganaino, oihuka:

–¡Viva el Rey hermoso, y abajo el muete!

Eta handik pixka batera, zaharrago batek lehenengoaren segida hartuz:

–¡Mueran nuestros hijos si es preciso, pero que viva el Rey, y España se salve!

–Errege bera zen, beraz, arestian ikusi dudana! –pentsatu dut neure artean.

Izterrak egundoko mina ematen zidan. Ukitu nahi izan dut. Baina ezin: bendaz estalia neukan lodi-lodi.

–Non nago? –galdetu dut–. Non dago nire fusila? Neure Remingtona berrikusi behar dut!

–Lasai, mutil! Allotzen hago, Lakarren ondoan.

–Lakarren?

–Lakarren, bai. Eta hire fusila jasota zeukaagu. Orain gaua duk, gaueko ordu biak inguru. Eta Don Carlosen bisita izan duk orain dela ordu pare bat.

–Don Carlosena berarena?

–Bai. Zuetaz harro dagoela esaten dik. Bataila miresgarria izan dela. Eta zuen ausardia, aparta.

–Eta nola bukatu zen bataila? Eta noiz baionetazko erasoaldia? Aginte-oihuak entzun nituenean, odola galitzen hasia bainintzen ni lurgorrian...

–Hi, lasai. Bihar azalduko ditek dena. Odolaren isuria, kostata izan bada ere, gelditu egin genian halere. Eta honetxek dik munta orain. Bihar Iratxeko ospitalera igoko haute. Arriskua pasea duk. Zorion, motel! Eta orain, lo!

Eta horrela egiten saiatu nintzen.


Biharamunean, eguerdi irian agian, Iratxeko kanpai-hotsek iratzarri ninduten. Ezkerreko izterra erabat minberaturik erreparatu nuen, eta burua nahasi xamarrik.

–Garaitzapen gaitza izan duk –esan zidan gogotsu zainketa egiten zuen serora xahar batek–. Gerrate honetan lortu dugun garaitzapenik handiena izan omen duk. Ho-geita bost mila soldadu omen zitian hemen Primo de Rivera jeneralak, guri erabateko jipoia ematekotan. Baina hirurehun hildako izan ditiztek bere meneko alfonsinoek, baita seiehun bat zauritu ere.

Ondoko orduetan, sendotu egin ziren lehenengo zantzuz haiek.

–Lakarko kaleetan –entzun dugunez– ezin omen da ibili ere egin. Pasa ahala, bide erdiko gorpuak eta odoleztutako janzkiak dozenaka, mando-gorpu kirats eta eulitsuen artetik, batera eta bestera baztertu gabe.

Gauza bertsua Lorkan.



*Iraxeko monastegian, Lizarra ondoan, ospitalea paratu zuten, karlista zaurituak artatzeko.*



–Ikaragarria izan omen duk –esan dit aldamenean etzanda zegoen nafartarrak. Eta bolondresak erakutsi duten ausardia, neurrigabea. Asturiasko errejimentu-buru egi-ten zuen José Gregory koronel giria, preso altxatu ditek gutarrek.

Iratxen jakin dugunez bi koronel-orde erori ziren gure eskuetan, baita Valentziako kapilau bat, kapitain bat, teniente pare bat, hiruzpalau sarjentu, lau kabo, eta berrehun eta piku soldadu. Zinez, gaitza!

Oteitzatik esan digutenez, bestalde, 98 gurdi igaro ziren handik zauritutako soldaduz beterik. Eta “Plasencia” markako hiru kanoi harrapatu ditugu, baita 2.000 fusil, munizioa eta guzti.

Valentzia eta Asturias izeneko errejimentuak, deusezturik; Alcolea izenekoa, osoki deseginik. Eta Cáceres zeritzona, funditurik.

Are gehiago: Lakarko bataila gertatu zen arratsaldeko hirurak aldean, bertako biztanleek berek argitu digutenez, hantxe zegoen oraindik Alfonso “iheslea”.

Miraria izan omen da bera ez erortzea!

Tarrapataka atera dute handik, txit estualdi larriak pasa ondoren, eta Despujols jeneral liberalaren laguntza osoari esker, Isabel II.aren mutila Artaxonaraino jaregiteko.

Hauetxek ziren Iratxeko ospitalean nik etengabe nerabilzkien ideiak eta irudiak.

Eta izterreko zauriaz pittin bat ahanzten hasi nintzela esango nuke.

## XXV

Iratxeko ospitalean egin nuen egonaldiaz, oso oroitzapen ona atxiki dut. Bost aste luze eman nuen Jurramendiko mazelan, martxoaren erditsura arte.

Hotza izaten zen goizetan, oso; baina zohardia. Eta beraz, eguerdi irirako, epelsko. Eguzkitan bederen.

Guk, zaurituok (hirurehun bat guztira) bertan prestatutako hamalau gelak betetzen genituen, mukurru. Joan-etorri handia genuen egunero, gainera. Zainketa behar genuen bolondresok Iratxetik joan ahala beste hainbeste etortzen baitzen gure ordainetan.

Serorak, nafartarsak oro har, beti gurekin atseginago ezin. Eta erizainak, goitik behera zuriz jantzirik, txapela more, eta honen gainean bitxilore bat, zinez maitagarri.

Garesko bileraren berri zehatza izan genuen.

Alfonso "muete" itsusiaren lehendakaritzapean, eta Primo de Rivera, La Serna, Moriones eta Ruiz Daban jeneralen aurrean burutua, ondorio bakar hau atera omen zuten garbitan: zuhurrena Alfonso XII.a berehala Madrilera bidaltzea zela.

Eta halaxe gertatu zen. 1875eko otsailaren 9an bertan, Castejónen gurutzatu zuen Espainiako erregeak Ebro ibaia; eta Euskal Herriari agur esan zion lehenengo aldiz.

Artean, Ramón Cabrera jeneralaren berri izan genuen. “Zazpi Urteetako Karlistadan” beltzen kontrako saioan buruzagi gupidagabea izan ondoren, beltzen alderdia egin omen zuen bere. Harritzekoa!

Eta, martxoaren 11n, Cabrera deserriturik bizi zen osatuko gelan bertan (Parisko Hotel Mirabeau delakoan, preseski), goreneko bilera bat izan zuen buruzagi “beltz” batzuekin. Eta Akordio bat ere lortu omen zuen: Agiri baten bidez, Madrileko gobernuak euskal Forua errespetatuko zuela aginduko omen zuen.

Baina Esparterok ere, 1839an, Forua legetik at uzteko bezperan, gauza bera agindu zigun euskaldunoi...

Cabrerak, berriz, berak errespetatu ez ezik, omen, “giri-rien” artean errespetarazi ere egingo omen zuen...

Berak bezalaxe jaka aldatu, eta Karlos Setimori bizkarra emateko prest zeuden borrokakideei, hilabeteko epea eskaini zien; iskiluak eman, eta Don Alfonsoren aginduetara jartzeko. Eta (nola ez!) giri-rien bandoa hautatuko zuten ofizioko militarrei, graduak eta hobariak bermatuko zitzaizkiela.

–Marotoren seme borta duk hau! –esan dit eskuineko besoa galdu berria zuen aldameneko bolondres suminduak.

–Hago lasai, Patziku –erantzun diot–. Bakarrik geldituko duk! Traidoreek ez ditek inon populurik erakartzen. Are gutxiago bi sosen dena saltzeko gertu ez dagoen gizakume presturik batere.

–Lehertuko ahal da! –berak.

–Lasai!

Gero isilik egon gara minutu erdi batez edo. Eta gero-ago:

–Eta hire izterra, zertan da? –galdetu dit.

–Bada, herorrek ikusten nauk. Aste honetan, laguntzaile beharrik gabe jaikitzen nauk ohetik. Herren nabilek oraindik, jakina; eta oinazeak zeuzkaat. Hori bai. Baina, tira!

–Hori ez duk ezer, Putzu! Bi besoak osorik atxiki dituk hik. Nik, berriz...

Zauskada latza eman dit orduan barrenak. Eta hitzik batere ez zitzaidala ahoratzen erreparatu dut; eta benetan zer esan ez nekiela.

Isilune trinko hura luzatu egin da horretara, gehiegi luzatu.

Eta Patzikuren ohetik negar zotin ahul mehe bat itzuri dela sumatu dut.

Leihotik, hegoaldera begira, Jurramendiren tontor elurtua ikusi dut. Eta beraren atzean, zerua urdin, dirdaitsu, garden. Orain ikasi dudanez, Nafarroan maiz bezain lilura-garriro gertatzen baita.

Bezperako prentsa banatu digute irakurtzen genekienoi... zenbaiti, beraz. Besteei, goraki irakurtzen genizkien artikulu edo berri batzuk. Denak ez, noski. Gu irakurleon mende bizi ziren gizajoak!

“La guerra ha terminado ya en el Centro y en Cataluña”, irakurri diet kezkatu-rik. “A partir de ahora todos los efectivos del Ejército de la Nación se concentrarán en la región vasco-navarra”...

Zer pentsatu behar dute entzule mindu hauek...? Nor ote zen horretara mintzo? Domingo Moriones jeneralaren hitzak zirela argitu diet entzuleei. “Berak ba omen daki,

irakurri dut, inork baino hobeki, hori esanez zertaz ari den”.

Eta, berehalaxe, zalantza une labur bat izan ondoren, kezka harrak hartu nau:

–Baina... nola iritsi da guganaino Bilboko egunkari ustel hori? Nola daiteke etsaiaren ahotsa Iratxeko *boluntariyo* zaurituon eskuetara ere iristea? Nolatan? Nork bilatzen du hemen, gure artean, gure jendeak etsitzea? Nork zabaldu dio atea?

–Frontean ez-ezik, hemen ere baditugu traidoreak!  
–esan dut ahotsik gabe neure kolkorako.

Eta geroago etsipen-bala batek korritu du ene gorputza:

–Salduta gaude goitik ete behetik.

Beste aldizkari bat hartu dut orduan eskuetan, Madrilkoa itxuraz. Modu berean mintzo, ia-ia hitz berberetz: “Todos unidos a la conquista del Norte ingrato”.

–Non dira, edo zeren zain daude, Extremadurako eta Leóngo gure lagunak?

Gu eskergabe? Norekiko? Baina ni hemen... herren... ibiltzeko ere ezinduta ia-ia! Eta Patziku maingu, eta Plaza Zaharreko Iraxu maitea, lur azpian... Eta, eta...

Gorrotoak, herrak, higuinak, osoki hartzen nindutela erreparatu dut.

Eta kiskaltzen ninduen paper irakurketari eutsi diot: “Pero esta vez no atacaremos hasta que no tengamos plena garantía de éxito. Nada de un nuevo Lúcar. Si es preciso esperar, esperaremos. ¡Pero venceremos!”...

Ez nekien zergatik. Baina ez nuen batere gogorik “El Cuartel Real”en lantegira itzultzeko. Ez Lizarrakora, eta ez Tolosako batera eta ez bestera: ez Rondilla 8kora, ez San Frantzisko 3kora. Gero eta arrotzago zitzaidan giro “ofizial” hura.

Baserrietako bolondresen artean ez zitzaidan hori gertatzen. Baina buruzagien artean, gero eta nabarmenkiago.

Era berean, Iratxeko ospitalera iristen zitzaizkigun telegramak, aldizkari “legitimistak”, txostenak, liburuak, arrotz. Tolosan bezala, eta aurreko asteetan Lizarran bezalaxe. Gero eta arrotzago antzematen.

Eta deplauki aitortu nion hau, gutunez, Donostiako osaba Feliperi. Ez inolaz ere txoko eroso bat edo bilatze-kotan. Hori ez. Baina bai... nire berri berak bederen jakin zezan.

1875eko ekainaren hasieran, horrela, nire gutunaren ondorioz agian, proposamen interesgarri bat egin zidaten Rondilla 8tik. “El Cuartel Real”eko bulegoetan beretan ez, baina nik neure begiez ikusitako gertakarien berri zehatza emateko aukera jarriko zutela nire eskuetan. “Kazetari lana” burutzeko, hitz batez.

Oraindik ere herren xamar nenbilenez, hau ere oso kontutan hartuko zutela esan zidaten. Baina gerokoan ere, neure apurra eman behar nuela “Jainkoaren eta Espainiaren onetan”.

Eta San Pedro egunean, gaizki ez banago, txapel zuria zeraman ofizial baten bitartez, agindu hau eman zidaten: ni berehala Gernikara azaltzeko. “Sekula ahantziko ez nuen gertakari bat” uztailaren 3an gertatzekotan zegoela; eta Bizkaiko huri santura hurbiltzekotan prest egoteko.

Izkribuaren tankera gogortxoia zen: gerlan geundela, ia-ia izterraz sendaturik nengoenez, besterik gabe men egitea zegokidala. Kanpotar mordo bat etortzekoa zela, eta beranduenik ostegunean han egoteko.

Eta ostegunean (uztailaren lehenean, alegia) Gernikara iritsi nintzen. Carlos Zazpigarrenak bigarren aldiz egin

nahi zuen euskal Foruaren zina. Baina honetakoan, zuhaizpean eta behar bezain handiro.

Han bertan jakingo omen nuen nik zein handiki edo kazetari lagunduko, eta bera non topatuko.

Ostiral eguerdian, Muxika herrian bazkaldu nuen, Gernika ondoan. Han Bizkaiko batzarkideekin nengoen, Erregeren zain.

Bildosola deputatu nagusia mintzatu zitzaigun herriko etxeko areto nagusian. Aurreko urteetan “La Esperanza” karlista aldizkariko zuzendari izana, itzal handiko gizona zen Bildosola hau; eta berak hartua zuen bere gain Erregeri biharamunean emango zitzaion Agirirako sinadurak bertan biltzea.

Don Carlos bera arrastirian iristekoa zen Gernikara; eta Muxikatik gurutzatuko zuen kaleko apaindura ugarie-tan zen ageri.

Valentín Gómez neure nagusiak agurtu ninduen orduan. Izterra zer moduz neukan galdetu zidan has aitzin. Eta segituan berarekin etorritako bi frantses aurkeztu zizkidan: Monsieur Roger eta Monsieur Caussade, biok adinez helduak eta bizartsu xamar; Gernikako ospakuntza ikusteko propio etorriak.

–Frantsesa nekez ahaztuko nik! –pentsatu nuen neure artean.

Biharamuneko ordutegia azaldu zigun hiruroi, ekitaldia Gernikako Juntetxean egunsentian bertan hasiko zela azpimarratuz. Gau guztia genuela, beraz, ordura arteko gertakariak eta gorabeherak nik berei azaltzeko.

Lakarko batailan bala batek izterrean zauritu ninduela entzutean, sekulako espantuak egin zituzten biek; eta zauria erakutsiko ote nien galdetu zidaten.

—Pas ici du moins, je vous prie! —esan nien. Eta muzin jarrita ere, baketan utzi ninduten alde horretatik.

Bordeleko kazetariak zirela jakin nuen (“des légitemistes à part entière”, zehaztu zidatenez). Noski!

Bi zalditako gurdi dotore batean eraman gintuzten Gernikara.

Han gau txarra pasa nuen. Min biziagoa ematen zidan ezustean izterreko zauriak, bezperan eta aurreko eguntan baino. Igurtzi egin nuen larrua bixi-bixi zauriaren ondoan, eta oinazea ematu egiten zela iruditu zitzaidan, eta sobera herren egin gabe ibil nintekeela.

Balkoi guzti-guztietan ziren ageri, zintzilikatutako bandera gorri-horiak; eta Juntetxerako aldapa eta eskailetan, eta gauza bera hiriguneko kaleetan ere, jendetza gaitza bildurik, Erregeren zain.

Eta puntuzkoen ilara Batzar-Etxerantza abiatu da poliki-poliki.

Haritzondo sakratuaren azpiko altzo batean, harri gorriaren gainean eraikia, aldare gisako jartoki bat ezarri zuten, eta beronen aurrean Erregek erabili behar zuen damaskozko tronu apala.

Eskuin aldean, berriz, ohorezko leku batean, Don Juan de Borbón lodia, Erregeren aita, ozta-ozta ibiltzeko gai. Carlos Bosgarrenaren semeaz ari naiz orain, jakina; “gera-inginari gaitza” omen denaz. Eta, bere ondoan, Bardiako Kondea.

Beheraxeago, aldarera begira, eta lehendabiziko ilartan, espainiar Korrejidorea eseri da, eta agintari militarak, eta apezpikuak eta kalonjeak, eta abade gorenak, eta deputatuak oro. Eta, atzerago, Bizkaiko herrietako berrehun alkate apalak, askotan musuak beltzaran, eta eskuak zaintsu.



Besaulki berezian jarrita, eta eskutan urrez brodatutako zutoihal zuria zeramalarik, Bizkaiko Sindiko jauna agertu da; oihalean bi irudi ageri: probintziaren armarría, bata; eta Ama Birjina Orbangabea, bestea.

Atabalak eta tronpetak jotzen hasi dira, eta itxaferoak goraka abiatu. Eta kanoi dunbada burrunbatsuak parajeetan entzun, eta elizetako kanpaien hots errepikakorra hedatu.

Eta Don Carlos agertu zaigu une horretan, eta bere tronura hurbildu. Bateratsu Lugoko Don Juan Manuel Carlon kalonje agurgarria ere bertaratu da, kapilauez inguraturik.

Goizeko hamarretan meza hasi da, eta Sagaraketa geroxeago mamitu. Eta orduan Karlos Zazpigarrena bere tronutik jaitsi, eta eskutan Hostia bedeinkatua zeraman kalonje meza-erralearen aurrean jarri da belauniko; eta frantses doinu nabarmenez, hitz hauek esan ditu Erregek:

*“Hoy postrado ante el Dios de los cielos, y en presencia de todos los vizcaínos, juro ser el centinela avanzado de vuestras queridas libertades; y corresponder con toda la efusión de mi alma a vuestros sacrificios, con un pacto sagrado que ya sólo la muerte podrá quebrantar..*

*Juro por Dios y esta Santa Hostia consagrada, guardar, hacer guardar, observar, cumplir y ejecutar inviolablemente los fueros, libertades, franquicias, privilegios, exenciones, prerrogativas, buenos usos y costumbres que ha tenido, y tiene, este Muy Noble y Muy Leal Señorío de Vizcaya”.*

Ostearen orroak gorgarri bihurtu dira.

Orduan Sindikoa mintzatu da:

—He ahí el pacto solemne y sagrado de nuestro Rey y Señor con el pueblo vascón.

Berriro herria orroka.

Eta isilpea eskatu ondoren, Bizkaiaren zutoihala hartu, eta hiru aldiz ilaran altxatuz, eta hiru aldeetara txandaka begiratzuz, ondoko hitz hauetxek esan ditu ozenki eta pausatuki:

–Oíd... oíd... oíd... Vizcaya... Vizcaya... Vizcaya... por el Rey Don Carlos, séptimo de este nombre, Señor de Vizcaya y Rey de las Españas, nuestro Señor: que viva y reine, con gloriosos triunfos, dilatados y felices años...

–C'est quoi ce petit drapeau blanc? –galdetu dit Causadek isil-isilka.

–Ez dakit zehazki –erantzun diot frantsesez ahapeka–. Baina Bizkaiaren bandera zaharra bezalako zerbait dela esan daiteke. Ce que vous appelez en français un étendard.

Batzar Etxean eta Gernika osoan ezertxo ere ez zen entzuten.

Korrejidoreak hartu du hitza orduan, eta galdera hau ozenki egin:

–Pueblo vizcaíno: ¿Juras pleito-homenaje al Rey Carlos VII, Señor de Vizcaya y Rey de las Españas?

Eta batzartutako guztiek erantzun dute ahobatez: “Si”.

Orduan hitzaldi labur bat bota die Erregek gaztelaniaz buruzagi politiko, eliz agintari, Probintzi Guraso eta Bizkaiko alkateei.

Eta, amaitzerakoan, amnistia osoa eman die dekretuz Bizkaiko preso politiko guztiei.

–Il a amnistié les prisonniers politiques? –galdetu diate bi frantsesek.

–Hori da, bai.

Harritu egin dira nire bidaideak:

–Hemengo hau kuartelik gabeko gerla zantarra, osoa eta gupidagabea dela esana ziguten Bordelen. Eta hau entzunda, ez dakigu zer pentsa.

–Nik ere ez, askotan –erantzun diet.

–Zatoz hona –esan dit orduan Valentín Gómezek, mintzakide zituen bi jaun ezezagunengandik aldeginenez eta niri besotik helduz–: Aquí le presento al Excmo. Señor D. Luis Elio Ezpeleta, de Pamplona; Rector hoy (desde hace un año) de la Universidad de Oñate.

Gizon heldu bat neukan neure aurrean, bere hirurogeitaka urteetan, nik uste; baina oraindik gordin eta zalu.


Ohituta nago ni, egia esan, “El Cuartel Real”eko bulegoetan gradu horretakoak gurutzatzen. Baina ojalateroak izaten dira askotan. Harroxko, baina hutsal.

Errektoreak, ordea, zirrara berezia egin zidan. Joakin Elio jeneral-buru zaharraren anaia gazteago honek, beste ezpal batekoa ematen zuen. Militarra izateaz gain, Zuzenbide Kanonikoan ere doktore, ospetsua zen Don Luis. Eta irribarre laño batez agurtu nau Valentin Gómez zuzendaria ni berari aurkeztean.

Datorren urrian Unibertsitateko bigarren ikastaroari hasiera eman baino lehenago, Oñatiko Unibertsitateari buruzko artikulu pare bat argitara nahi lukeela esan dio Gómezek. Eta ni bertako kazetaria nintzenenez, agian Oñatira bidaliko ninduela datu bila, eta han ibilitako jendearekin mintzatzeraz.

Oso pozik lagunduko nauela erantzun du Elio jaunak, laguntzaile zeukan Arregi izeneko gaztea ere niri aurkeztuz:

–Honetxek erakutsiko dizkizu xeheki Oñatiko gora-beherak. Conoce aquello mejor que yo. Es de Zubillaga, a unos pocos kilómetros de la Universidad.



*Oñatiko Unibertsitateak aurrera eraman zuen bere irakats-lana Bigarren Karlistaldian (eta gauza bera Lehenengoan).*

–Bai horixe –erantzun du Arregik–. Pozik erakutsiko dizkiot herria eta Unibertsitateko batimenduak.

Eta Eliok agur esan digu, eta joan egin da.

Gerlaren gorabeherak ikusita, etorkizun txarra sumatzen zitzaion “Sancti Spiritus” eliz unibertsitate famatuari. Beltzen gorrotoa, batetik, jakina, ikasgu “sektarioa” omen zelako. Eta ikasleen eskasia, bestetik; ikasle-jendea, oro har, bere adinarengatik, gerlan zegoelako.

Baina bai Carlos VII.ak, iazko urriaren 5ean kurtso-zabalketan bere buruaz parte hartuz; eta bai Zazpi Urteetako gerratean beronen aitona zen Carlos María Isidro, 1836an bir-zabaldu zuenean (ordurako jadanik hetsita baitzegoen Madrileko gobernuaren aginduz), Oñatiko Unibertsitate Katolikoa karlistek zabaldu zuten bi aldiz.

Oñatiko Unibertsitatea liberalek hetsi zuten 1839an, gerraren amaieran. Hau behintzat banekien, Putzu kalean osaba Feliperi berari entzunik. Baina besterik asko ez.

Irakurri berria nuen, era berean (Lizarrako bulegoan irakurria, egia esan) iazko urriaren Erret Agindu berezi batez, Oñati Euskal Herriko Unibertsitate-Eskualdeburua bihurtu zuela Don Carlosek (“cabeza del Distrito Universitario Vasco-Navarro” zioen dekretuak, zehazki).

Hona hemen hasiera:

*“Art. 1.–Las cuatro Provincias Vasco-Navarras formarán, para los fines académicos, un Distrito Universitario, de que será centro y cabeza la antigua Universidad de Oñate, restablecida por R.O. de 12 de Febrero último con los Estudios de Filosofía o Segunda Enseñanza, y las Facultades Mayores de Teología, Cánones y Jurisprudencia...”*

*... Real de Estella 21 de Octubre de 1874”.*

Aurtengo ikasturte-zabalkundera joatekoa nintzen ni, bestalde, 1874ko urriaren hasieran; Valentín Gómezek berak azaldu zidanez.

Baina uda hartantxe aldatu berriak ginen gu Tolosara, makineria eta guzti, agian irakurtzen nauena gogoratzen datekeenez. Nik neuk... aski neukan udazken hastapen hartan, Lakar baino lehenago, zaldiz txukun ibiltzen ikas-tea, eta Larraitz inguru ederretan... neure Remington hoz-tza tentuz ferekatzea eta epeltzea.

Banekien, azkenik, osaba Feliperi entzunik, Zazpi Urteetako gerratean, gure txanpondegia ere Oñatin zegoela; Lazarraga Dorrearen inguruan, omen.

Eta, aurreko gerratekoan, "La Gaceta Oficial" izenaz argitaratu zen egunkaria ere, hantxe nonbait inprentatzen zela entzuna nuen. Oñatin bertan, omen.

Eta hura guztia, eta bertako jauregi ederrak, bertatik ezagutzeko gogo bizia nuen aspaldidanik.

Oñatirako proposamenak, beraz, pozkarioz bete ninduen.

Hots, arrastiri hartan, Gernika osoa bizi zen ezin azalduzko pozkariotan.

Eta ni neure bi lagunekin, Gernikako karlista familia batek propio gure zerbitzutan eskainitako gelara joan nintzen, Juntetxetik oso hurbil.

Burua erabat nahasirik etzan naiz, egia esan.

Baina pozez gainezka ere bai.

## XXVI

Abuztu erditsuan, eta aurreikusi bezala, bisitaldi labur bat egin nuen Oñati aldera lau egunez.

Hiria eta inguruak ezagutu nituen. Putreatxeraino igo ere bai, Aloñamendin. Eta Gesaltza, eta San Elias kobazuloa, eta Arantzazu eta bertako imajina gurgarria. Elizaren atzealdetik gora joanda, berriz, Iturrigorriko iturbegi herdoil bitxitik edan nuen. Eta, beste batez, eta goiz berean, hegoaldetik igo, eta Aitzabal eta Beillotsa gailurrak zapaldu nituen.

Hunkitu egin ninduten mehatxuz oratutako harkaitz gorri haiek.

Eta ez gutxiago, baina beste modu batera, mazeletan eta *selaixetan* beren harrarte karetsu txuriak erakusten zizutzen baserri zabal aberatsek.

Ordura arte ez nuen horrelakorik Euskal Herrian eza-gutu.

Baina Oñati herriak berak utzi ninduen erabat zurtuta.

Lazarraga dorrea eta alboko gure Txanpondegia ikusi nituen, noski. Agian haietxek izango baitziren nire lantegiak. Baita inprimategia ere, zazpi urteetan bezala.

Udana beherean, begietsi nuen Bidaurretako jauregi idor karratua. Eta “Sancti Spiritus” eliz unibertsitate zaharra, arrats epel batean ezagutua: aurrealdeko imajina ugariak eta dorre bikoitzak, bi estaitako klaustro balkoidun ederra, dena iruditu zitzaidan zoragarri.

Eta neure lehenengo bisitaldia txunditurik amaitzean, eskuin aldera jo nuen, aldapan gora, San Martin kapera-raino. Eta maldan gorako zuhaitz ilara bikoitz hura, ilunabar argitasun barean ikustean, bihotzean sartu zitzaidan.

Zenbait urte lehenago (eta orduko hartan ere arrastiri malenkoniatsu batean gertatu zitzaidan), Bixenta berehala ikusteko lilura gordean joan nintzen haraino; Loiola auzoko etxe apalen errainua, Urumea ibaiko uretan geldo, barne muinetaraino sartu zitzaidan bezalaxe. Alegia: sekula ez ahazteko heinean.

–Zertan ote da bera? –bururatu zitzaidan bat-batean–. Zertan ote da Bixenta? –ausartu nintzen, izena ere ahoskatuz.

Unibertsitateko klaustro eta pasabide zabaletan, uda garai hartan, ikaslerik ez, espero nuenez. Eta irakaslerik ere ez, jakina.

Bakea eta isilune trinkoa nagusi.

–Datorren hilean berriro itzuli beharko –pentsatu nuen–. Pozik itzuliko, gainera.

Oñatiko jauretze ederrak, kopuru gaitzean pilaturik iruditu zitzaizkidan, zein baino zein ederragoak. Eta barrera inarrosi zidaten, hunkitu egin ninduten. Eta bertako kalearte mehar isilek harrigarriro zauskatu.

Eta han bizi izandako jaun-andereak, dotorezia, jakinduria eta mota guztietako arrakasta maila iriskaitz hartan ohiturik, beste gradu bateko umandiak bailiran antzeman



nituen. Gure ziztrinkerietatik at eta gorago kokatutako aitonseme bikain, bekaizkeria ezkutu baina biziaz.

Entzuna nuen Donostian, bai, “una villa de señores” zela. Eta baiespen hura egia hutsa besterik ez zela ukitu bide nuen neure eskuez Oñatin pasatako egun llabur eta gogoangarri haietan.

Eta denak utzita, murru, kale eta plaza eder haien artean bizitzeak, ibiltzeak eta aditzeak, eta geroenean ere ingurune miresgarri hartan hil beharrak berak, jadanik berarekin behar adinako saria bazutela iruditu zitzaidan.

Nolabait gizonak, tristuraz beterik bai, baina konpliturik, mundu honetan espero dezakeen ordaina, bere osoan, Oñatin berreskuratua zukeela. Eta hiltzea bera han eder gerta zitekeela.

–Barne oinaze hau gaindituko badut –otu zitzaidan– berriro etorri beharko dut.

\* \* \*

Trenbidearen eta Rondilla kalearen arteko kaleska es-tu kaskarreko nire gelatxo iluna, are ziztrinago iruditu zitzaidan Oñatitik itzulerakoan. Zer egingo, ordea?

Udazkena gertu, eta egunak azkar laburtzen ari zirelarik, gutuna jaso nuen Donostiatik..

*Donostia, 1875ko uztailaren 12an*

–Bi hilabete ia-ia Donostiatik Tolosaraino bidaian –esan nion neure buruari... Ongi jaiioak gaude!

*“Kaixo, iloba!*

*Berri txar bat ematekotan bidaltzen dizkiat lerro hauek: osaba Praixku hil duk joan den astean.*

*Ez zuan zaharra (niri bederen, gaur egun, 67 urtekoa ez zaidak inondik ere zahartzaroko adina iruditzen). Bai-*

na hil egin duk Préchacqen, Landetan, hik ongi ezagutu huen etxetzar huts hartan.

*Bakar-bakarrik hil duk. Lagun bakarrak: baratzean dexente goseturik, omen, atxikitzen omen zituen dozena pare antzara.*

*Gernikako Zinaren albiste onak hil bide dik. Gure Don Carlos Bizkaiko alkateen aurrean zeremonia ikusgari hartan nola errezebitu eta ohoratu zuten ikastean, bu-larraren erdian oinaze bizi-bizia jarri bide zitzaion bat-batean; eta bertan zerraldo erori, eta bertan berehala hil.*

*Gizajoak ez zian, azkenean, Juntetxeko ospaketa bere begiaz ikusi. Baina hogeita hemezortzi urtez deserrian zain egon ondoren, Bizkaiko hiriburu sakratuan zer gertatu zen adierazi ziotenean, hil egin zen.*

*Zer moduz izterrekoa? Hirekin Iratxen egondako nafartar baten bidez jakin diat dena: Lorkakoa eta gainera-koa.*

*Zauri ondoa, sendatua; edo sendatzen hasia bederen?*

*Lasai hartu orain boladatxo batez. Hobe duk kontuz ibiltzea, gero bizi guztirako herren gelditzea baino.*

*Hire anaia eta arreba, ongi. Aita, berriz, oso jota normalean. Hire ama hilez geroztik, ez dik burua altxa. Eta hire zauriarena, hobe beharrez, ez zieat esan. Hobe horrela oraingoz, nik uste.*

*Donostiako giroa, berriz, gaixtatua, txarra. Gipuzkoan barreneko errepedeez beltzak batere ez fidaturik, gero eta tropa eta material gehiago iristen duk hona itsasoz; gero hemendik bestetara banatzekotan.*

*Donostiako kaian ikusi diagu, horretara, eta besteak beste, soldadu arrotzez mukurru, liberalen ontzirik famatuenak: "Progreso", "Alfonso el Católico", "Princesa"...*

*Nolanahi ere, beldur handia zegok bazterretan. Irungoaren ondoren, Donostiakoa izango omen duk txanda. Inguruko mendiak oro okupatu ditiztek: Mendizorrotz, Arratzain, Buruntza, Santiago-mendi. Eta Gipuzkoako hiriburuaren bonbaketa eta setiaketa, ez bide dituk luzatuko.*

*Onerako balitz bederen...*

*Berriro idatziko diat. Eta Tolosara egingo, jakina. Norra, bestela?*

*Besarkada handi bat.*

*Osaba Felipe”*

Neronen etorkizunaren iragarpena bailitzan, sekulako barne zartakoa egin dit osaba Praixkuren heriotzaren berriak.

Azkenean Oriora inoiz itzuli ez-eta, Gernikako ospakuntzan sumatu duen garaitzapenaren zantzuak hil du! Hori marka! Eta nik neuk ere akabera mota bera izango ote dudan kezka asaldatu nau bortizki. Eta barrena nahasi egin zait:

–Ez! Horrelakorik ez, otoi! –itzuri zait ozenki, Tolosako nire gelan, atzealdetik, trenaren zaratak nire oihua itotzen zuelarik.

Biharamunean Rondilla kale oso-osea ia kurrutu eta, txabola ilara itsusiaz bestaldean Zerkausia ezkerretan utziz, neure bulegora joan naiz: “Ezkurdi-enea” deritzoten etxera, San Frantzisko kaleko 3an, komentuekiko aurrez aurre. Eta lehenengo estaian txartel bat eman didate:

“Arruabarrena: prepárese para salir mañana hacia Usúrbil. Allí le indicarán más detalles. La Dirección estima que es preciso que se instale allí para seguir de cerca los acontecimientos que se avecinan. –Capitán Aguinalde”.

Eta beherean, letra handi dotoretan: D.P.R.

Zurumurruen egiaztapena zen hau. Alegia: hastera zihoala Donostiaren setiaketa.

Alde batetik (nola ez?) poztu egin ninduen berri honen. Giriei min emateko behar gorria sentitzen nuelako.

Izterra ere ongi samar neukan; eguraldia aldatzeko bezperetan, ia-ia ibiltzea bera ezintzeko moduan, hanka osoa guztiz minbera jartzen zitzaidan arren.

Baina, bestetik, nola poztuko ni, donostiar koxkero belaxka hau, Donostiaren setiaketa; eta beharbada... birrintzeaz?

“Hernani, esa heroica Zaragoza vascongada, amenazada ahora por los gárrulos carcas”... Honela zioten beltzen kronikariek. Eta erabat xehatuta zegoela irakurtzen genuen. Beraz...

Hernanin izana nintzen, hain zuzen ere, aurreko egunetan. Eta ikuskari hura hitsa zen, eta bihotza estutzen zuen. Plazatik beherakoan, Urumea kalean barrena joaki, etxe guzti-guztiak deseginik.

Gainerako kaleetan ere, suteen ondorioz, etxaurreak belzturik; eta ateak eta leihoak (alferrik eta berandu) adreiluz hormaturik eta itsuskiro kukuturik.

Eta zangak, han eta hemen, gorpu kiratsez higuinagari, eta hondakinez mukurru.

Hernanin bestalde, Donostian bezalaxe, kanpai-hotsez iragartzen omen dute begiraleek, desarraren tximista ikusi ahala, bizpahiru segundoko aurrerapenez, Santa Barbara eta Artolatik granadak herrirantz noiz irten diren. Ez baitu beta handirik ematen nonbait korrika gerizatzeko...

Azaldu digutenez, azkeneko hilabete hauetan eguneko berrogeita hamar bonba bota dituzte gutarrek Hernani gainera, laurogei bat lagun hilez, eta ehun eta berrogei bat etxe porroskatuz.

Horrelako zerbait ote zen Donostiak espero zezakeena? Ez nuke nahi!

Sei bat mila bonba urte erdi bakar batean! Eta 1.500 soldadu “zaindari”, denden “bisitari”, eta hondakinen barreiatzaile...

Eta zertarako aipatu Irungo setiaketa?

Putzu kaleko etxekoez oroitzen nintzen, eta dardarak hartzen ninduen.

Gerlaren bilakaera zela bide, Zuzendaritzak ez ninduen azkenean Oñatira berriro bidali.

Bergarara bai, abenduaren 2an, Artilleria-Eskolaren estreinaketara, Don Carlos bera bertan zegoelarik.

Eta 1875ko Santomasetan (txistorrik gabe emana, ondikotz!) Donostiatik etorritako mezulari baten bidez izan nuen berri fidagarririk.

Eta sekreturik handienez, datu hauek bildu nituen.

Alde batetik, eta gu “akabatzekotan”, Alfonso XII.aren armada “alfonsinoak” indar hauek zeuzkala “Nortean”, baitailarako prest: 131 infanteri batailoi, 11 zaldieri errejimentu, eta 174 kanoi; gehi gaztelu eta gotorlekuetakoak. Guztira, 170.000 soldadu. “Venidos de fuera –irakurri nuen gure basa-orri batean– a hollar un suelo que ningún ejército logró jamás ocupar”.

Guk, berriz, kontra egiteko, indar hauek genituen: 48 infanteri batailoi, 3 zaldieri errejimentu, eta 2 ingeniari batailoi; gehi 1.200 zaldi eta 85 kanoi. Guztira: 35.000 bolondres.

“Todo el Reino a liberar el Norte ingrato”, zioten guri.

Laurdena ere ez ginen gu.

Eta hotzikara bortitzak hartzen gintuen gu, karlistok, egia gordinaren ikastea. Barru-barrutik adierazten zidan

zerbaitek, bertako traidoreek deiturik, aurki itoko gintuela odoletan oste erdaldun arrotz batek.

Beltzek berek argitzen ziguten egoera, gainera: “No nos engañemos: para imponer el orden en la díscola región de los curicas de pistolón al cinto, sólo podemos contar en el fondo con las bayonetas castellanas”.

Guk geure zilborra besterik ez omen dugu begiratzten. Eta lelo bera entzuten eta irakurtzen genuen han eta hemen: “los vasco-navarros son exclusivistas. Solo ven sus fueros, su idioma, superior a todos los demás, su tierra. No podemos ni debemos tratarlos sino por lo que son y como merecen: un país atrasado, extranjero y hostil”.

Edo beste panfleto hartakoa: “desde pequeñitos han mamado, en las rodillas de sus madres, un apoyo ciego y fanático a la divisa: Dios, Patria, Rey”.

Gure buruzagi argia den Migel Dorronsoro ataundarrak (“la primera figura de Guipúzcoa”, Don Manuelek esan ohi zuenez), argiro salatu du Madrileko gobernuaren “política invasora” delakoa.

Eta, aurrez aurre, beltzen arteko Lorenzo Arrieta Maskarua (Bizkaiko Korrejidoreak) ezin garbikiago sumatu du, ene uste apalaz, borroka honen gakoa; eta Espainiarrentzat datxekion arriskua. Oihu adierazgarri zehatz honekin amaitu baitzuen bere azkeneko hitzaldia: “¡Vivan los fueros vascongados en medio de la integridad nacional!”.

Lehertzekotan neukan burua; eta izterra minberago, lehenengo egunetan bezain gaizki.

Eguberrira arte, nolanahi ere, ez nintzen ni Tolosatik erruz mugitu.

Eta hori dela bide, Santa Maria elizan bertan, gure kazeta-zuzendaritzak propio ni neu itzultzaile gisa hautatua, gerra osoan barrena, agian, Foru-hiriburuan ospatutako

elizkizun guztien arteko garrantzitsuena ikusteko parada izan nuen. Gure Armadaburu izandako Joakin Elio Ezpeleta jeneralarenaz ari naiz.

Pauen hil zen berau 1876ko urtarrilaren 25ean; Berrauteko Konde eta bere koinatuaren jauregian.

Tolosan ere, hilaren 29an, beste elizkizun ospetsu bat antolatu zen; eliz atarian DPR hiru letra erraldoiak ipini zituztelarik.

Eta Karlos Setimo bera azaldu zen bertara, ospakizuneko buru eginez, bere alboan Don Luis Maria Elio, hildakoaren anaia eta Oñatiko Unibertsitateko Errektorea zeukalarik.

Hantxe egon ziren, era berean, Valdespina markes-jenerala, Lizarraga, Iparragirre, Egaña eta Berriz jeneralak; baita beste militar buru goren mordo bat.

Hots, egun berean, larunbatean hasi zen, urtarrilaren 29an preseski, Mendizorrozko gudaldia, Antiguan. Hila-betetan barrena Armada liberalak, hiritik mugitu ezinik egon ondoren, bat-batean setialdiari akabera ematea erabaki zuen.

Eta Zelaiiaundi baserrira bidali ninduten ni lekuko, Arratzainen ondoan, hurbildik gertakarien berri ematera.

Jakin nuenez ehunka soldadu irten ziren gauez gure bila Puio aldetik, Amaran, Oriamendirantz. Beste hiru bat mila gehiago, Antiguatik, Artutxerrekara; beste lau bat mila, Añorgatik eta Teresategi inguratuz, Bidarte eta Artola aldera. Eta beste hiru bat mila, Kalbariotik, Barkaiztegira eta Mendizorrotz aldera. Ni nengoen ingurura zetozen, hitz batez, Morales jeneral beltzaren manupean.

Arratzaingo gotorlekutik, etengabe astintzen zuten Donostia gure bateriek (1977 bonba aurreko urtean, omen). Putzu kaleaz hegoalderako auzo berriko etxe dotoreak jo-

tzen genituen bereziki: Hernani kalekoak, Gipuzkoa plazakoak, Libertatearen Etorbidekoak, baita gerla hasi artean Urumearen ertzeraino eraikitakoak ere.

Eta beltzak leporaino zeuden.

Donostiako prentsa beltzak berak aitortzen zuenez, esate baterako, aurreko asteko urtarrilaren 24an bakarrik, 60 kanoikada jasan zituzten donostiarrek; eta Donostiako teilatuak, zinez, erraustuta zeuden. Eta beretan bizi ziren bizilagunak, halabeharrez, lehenengo estaietara aldatuak ziren: bai Parte Zaharrean, bai Putzu kaletik Etorbideraino eraiki berria zen auzoan.

Bai Mendizorrotzen eta bai Arratzainen (Donostiako mendebaldean elkarren pareko bizki agertzen diren bi tontor txorrotxetan), Artikula baserriaren gainean, Withworth kanoi burrunbatsuz osatutako bateria gogor bat zegoen.

Neure aurre-aurrean nekusan, eta Udarregi bertsolariaz oroitzen nintzen etengabe. Lurrezko parapeto lau-koitz berria ere hantxe bainekuan, neronen aurre-aurrean, jaurtikitako granaden irteera Gazteluko kanpaiaz abisatzerakoan, traba larri bihurtuta.

Egioleta bietatik ekialdera, berriz, zelaigunean, Donostiako beltzek etenik gabe madarikatzen zuten baserri apal famatu bat zegoen: Menta Zikiñ. Txalin eta Bordatxo ttonttorren arteko lepoan kokatua, jotake nire jaioterria zartarazten eta birrintzen zuen, eta donostiarrak ikaratzen.

Baina nik neuk ere, Zelaiaundin, sekulako beldurra pasa nuen. Bi aldeetara baitzihoazen bonbat eta tiro andanak.

Egun haietantxe, hain zuzen, donostiarron festa nagusiaren ospaketa betean (urtarrilaren 20an, alegia), ni nengoen inguru hartatixe botatuko granada batek zauritu bide zuen larriki (berehala gure arteraino zabaldu zenez) bere



etxean bertan, arratsaldeko ordu biak aldean, nik bistaz bederen ezagutzen nuen donostiar bertsolari famatu bat: “Moko” gaitzizenezko gure “Bilintx” kokotz gabea.

Handik behera, berriz, nik izenez behintzat ezagutzen nuen Ariztegieta jauregia ikus nezakeen, alkatearena omen; eta beherago Iribar baserria, Igara errota; eta Ibaeta alderago, eta Ebroren ondoan, Zapatari etxea.

Mingarri zitzaidan gazte denboran bake-paraje izandako muino eta zelai leun haiek, orain balen zitzukada giro odoltsuan topatzea.

Gure bolondresek harrigarrizko ausardiaz eraso zieten tropa liberalei, baionetaz; eta hauek, ondoko egunetan aitortutako hitzak orain nik erabiliz, “fueron abrumados por una espantosa sensación de pavor”.

Eta beltzek, horretara, ahal bezala jo zuten Erauntzeta eta Ariztondotik ihesi, Igeldo aldera; eta handik gero Antiguara eta hiri-zaharrera.

Alde guztietatik albiste ikaragarriak zetozen elkar-gainka (“noticias horribles” zioen Donostiako prensa beltzak).

Eta, itxura zenez, Mendizorrotzen izan genuen 1876 urte hitsean geure garaitzapenik garbienetako bat.

Baina beltzak ez zeuden geldi.

Arratzaindik egiten genituen desarrei erantzunez, Donostiatikako granadak ere etengabe lehertzen ziren gure inguruan.

Eta, halako batez, arratsalde batez, nigandik berrogei metrora, Artikula baserritik begira zegoen gure boluntario bat harrapatu du granada batek. Eta txikitu egin du, xehatu, odoletan blaitu.

–Ai! Ai ene! –deiararaka etsian ari gizajoa.

Balen ziztuak nire gainetik dena betetzen zuelarik, eta arriskuaz ahantzirik, hurbildu egin natzaio:

–Ene...!! Hil nazazue, arren!! –berak orroka.

Odol istila zeukan inguruan, eta bi hankak itxuraz izterretik behera falta.

–Hago pixka batean! –esan diot, besterik bururatu ez zitzaidalarik–. Oraintxe bilatuko diat erizain bat!

–Ez, motell... ez... ez dik balio... Nireak egin dik!

Eta harrigarrizko orroaz arnasa oso sakonki behin bakarrik hartu ondoren, pausatu egin zen.

Oihu egin didate Artikulatik:

–Uztak hori baketan! Sar hadi hona! Azkar, bai...! Babesera, bai.

Ez nekien, zinez, zer egiten nuen ere, eta soin osoa neukan dardar; eta kolpatutako izterra, berriro ere erabat minberatuta.

Eta lepoa bustita.

–Goazemak gu azkar beherantz –esan dit mutil batek–. Hemen egotea alferrik duk. Arrisku huts-hutsa. Tira! Abia!

Egioletara iritsi naiz hiru lagunekin. Gero, beti alda-pan behera, Menta Zikinera, Maskulaitzera, eta berandua-go Txikierridira. Eta gero, Usurbildik, Andatzako mazelaraino; eta nondik nora ez dakidala, Aiaraino.

Birrintuta, arnasestuka nenbilen, ezertarako indarrik gabe, izoztuta gainera.

Buruko mina, jasangaitz. Ezin...! Eta lepoa ere, sorbaldan...

–Otoi! –egin dut garrasi–. Neure Remingtona berrikusi nahi dut. Erakuts azkar!

Baserri batean salda beroa eman digute lauroi, edo bostoi, ez dakit zenbat ginen. Eta zuzpertz egin gara. Eta neke hutsaz lozorro sakonean gelditu ere bai.

Ezin lasai lorik egin, ordea. Behin eta berriz, asalduz beterik, bala txistuak entzuten nituen neure gainean. Eta beldur gaitzak hartzen. Tiro batez joko ninduten segurantzian, itzarri egiten nintzen. Baina kiratsaren sarkorrek berak geldotzen ninduen, soraiotzen, sortzen...

Eta Artikula eta Menta Zikinen inguruetan zegoen gorpu-sunda itogarriak higuigarri egiten zidan arnasa hartu beharra.

–Haize fina, otoi! –eskatu nion halako batez neure borroka lagun bati–. Remingtona eman...! Txapero, Txapero...! Remingtona!!

–Irristatu egin hintzen horma-gune ezin labanago batean. Eta iskilua galdu. Baina neronek jaso nian, eta hemen daukak. Lasai! Lo egik orain!

Eta halaxe gertatu zen. Lokartu egin bainintzen azkenean...

Biharamunean, edo handik hiru egunera, esnatu bezala egin nintzen mundura:

–Atzo –entzun nuen– ordu bietan, Donostian sartu zuan Alfonso XII.a.

Indarraldi bat egin nuen neure kamainan zutitzekotan. Alferrik, ordea. Ezin. Leher eginda nengoen:

–Non nago...? Lakarren ote?

–Frantzian. Frantzian hago, motel. Ainhoan... En France, oui!

–Frantzian?

–Ainhoan, bai. Hiretzat amaitua duk gerra.

Ez nekien ametsetan ari ote nintzenetz. Nolatan iritsi ote nintzen haraino? Nork lagunduta? Non ziren ene bide-lagunak?

–Hi, lasai –entzun nuen berriz–. Gaur igandea duk, otsailaren 20a... Don Carlos bera ere muga aldean zegok atzodanik. Eta aurki izango diagu hemen. Frantzian, alegia...

“Nafartarrek eta baskongadoek abandonaturik –jarraitu zuen, hasperen adierazgarri bat egin ondoren– Don Carlosek zer debru egin ote dezake hemen? Zer da frantsesek “cause navarraise” deitu izan duten gerla hau, “vasco-navarro”rik gabe? Zer egingo du Karlos Setimok mendi hauetan gu gabe...? Nik esango diat zer.

Eta ahotsa goratuz: “poto!!”.

Nor ote zen horretara mintzo zitzaidana? Ezaguna nuen, nik uste. Nor ote, ordea?

Lokamutsek ninderamaten basaki... Mendizorrotzen eta Arratzaingo lubakien inguruan, gorritz tindatu ziren belazeak. Eta ustel kirats itogarria itzuri zen luzaz, oso luzaz...

Tolosara itzuli nintzen.

Kaserna kaleko izkinan, eta frantziskotarren komentu aurreko etxean, bai goiko estaian, bai beherekoan, sekulako poza zegoen nire lankideen artean ni iritsi nintzen egunean. Etsialdi etsian luzaroan bizi izan ondoren, bizkorgarri gertatu ziren gure artean Mendizorrozko gatazkaren emaitzak.

Baina hozitutako esperantza izpi hura, berehala ihartu zen.

Alfonso XII.a gaztetxoa (19 urte doi-doia egun haie-tan) Donostian zegoela jakin genuen. “Gertakari garrantzitsu baten zain”, omen. Eta beltzek sekulako harrera egin ziotela otsailaren 22an, paradak eta guzti.

Hiru urte hartan ikusten ez nuen Hernani kalean, bi garaitzapen-arku eraiki omen zituzten beltzek, dotore oso, 14 metro gora. “Gotiko” plegukoa da bata, eta “erromatar” plegukoa bestea. Zortzi pilare borobilen gainean pausatua; eta, ororen gailen, bi armari: Gipuzkoarena eta Donostiarena.

Apaingarri gisa, azkenik, lore-sorta batzuk, arku gainetatik zintzilik. Eta, oinarrian, gorri eta hori, espainiar kolore nazionalak, mukurru.

Eta letrero adierazgarri hauek. Alderdi batean. “A S.M. el Rey: Quesada, Martínez Campos”. Eta bestean hiru hitz hauek: “Viva el Ejército”.

Hernani kaleko balkoietan, bandera espainolak barra-barra. Eta hiriko kontsulado guztietan, zeinek bere ikurra, agirian.

Hamabi eta erdietan Alfonso XII.a Hernanitik irterakoan, Donostiako golkoan ainguratutako gerlaontziek eta Damen Bateriakoez hogeikanoikada bota omen zituzten.

Eta handik ordubetera, ordu bata eta erdietan juxtu, Alfonso XII.a iritsi zen.

Orpoz orpo Etxague jeneral giria (donostiarra, jakina denez), eta Moriones, Quesada, La Serna, eta beste militar pila bat: jeneral, brigadier, komandante, kapitain eta abar luze bat, erregearen ondotik.

Hernani kalea kurritu ondoren, Santa Maria eliza aldera abiatu da segizioa Kale Nagusitik, han, aurreko hila-beteetan lortutako garaitzapenak eskertzekotan, Te Deum ospetsu bat burutuko zelarik.

Loreak jaurti eta usoak jaregin egin dituzte puntuzkoen andereek.

Elizarainoko bide guztian, etengabeko eskuzartak eskaini dizkiote donostiarrek eta gerturatutako bisitariak Don Alfonsori: “¡Viva el Rey! ¡Viva el joven Monarca, llamado a renovar glorias de los Alfonsos, héroes de la Reconquista y de la Unidad de la Nación!”.

Eta, benetan, neure jaioterriaz lotsatu naiz. Lotsatu baino areago esango nuke, bihotzondoraino mindu, zornatu, goragaletu.

Zeren-eta, zer zor diote, bada, Euskal Herriko foruek Alfonso XII.ari, edo Isabel beronen amari, eta gainerako askaziei? Zer egin dute guriak gu euskaldunon alde?

Erantzun biezadate.

Baina alferrik egiten nion galdera hori neure buruari. Erantzuna, nabarmen baitzegoen: ezer ez. Eta kontra, al-diz, erruz. Ahal izan zuten guztia.

Nire herrikideak, hala ere, trumilka irten bide zaizkie txalo jotzera...

\* \* \*

Nola iritsi ote ginen horraino?

Otsailaren 14an, asteleheneko egunsenti hotzean, biler berezia izan genuen Tolosan “El Cuartel Real”eko bulegoetan. Izena eman ez zuen koronel hura, gu lankide guztiok goiko estaiko bulego nagusian bildu ondoren, sekula baino garbikiago mintzatu zitzaigun: “De nada serviría que nos engañemos unos a otros”, hasi zuen bere hitzaldia.

Eta, beti erdaraz ari, honela jarraitu zuen: “Atzoko bileran Don Carlosen Buruzagitzak hau erabaki du: Tolosa ez dela jadanik gune segurua; eta zuhurragoa dela gaur

berton denok, beharrezkoena geurekin hartuz, Lesaka aldera joatea.

“Oraintxe, ateri dagoela-ta, bidetxidoretatik abiatuko gara harantz; eta nekez ibiltzen direnentzat (arnasa hartu nuen isilka!) gurdi batzuk baditugu, eta mando mordo bat, haraino iristeko.

Eta 23an, gu agurtzerakoan, hauxe esan zuen ahal izan zuen bezain ozenki: “¡Viva el Rey! ¡Vivan los voluntarios!”.

Lankide guztiok ulertu genuen mezu isila: gerra galdu dugu.

Lesakatik Zugarramurdira, eta Dantxariara, eta Ainhoara, eta Frantziara... eta kitto! Eta ni –pentsatu nuen neure artean– kinka zail honetan, eta hanka nagi motel honekin... Futxo!!

Kaserna nahasi bat ematen zuen Lesakak. Berriak jasotzen genituen han, hori bai. Gehienetan... ez telegrafoz.

Dena ez zen gezurra. Zauritutakoen ilara kexati etengabeak ez ziren amaitzen; ia-ia soka azkengabe bakarra osatuko bailuten.

Bagenekien ere aste hartan Tolosaraino hurbildua zela Don Carlos, zaldiz, elurpean zeuden mendietan barrena. Eta alferrik saiatua zela boluntario-jendea bizkortzen.

Orokorra zen etsipena.

Eta ostiralean, bost batailoiez inguraturik, Karlos Setimok berak egin zuen alde Tolosatik.

Beasaingo Kontseiluak, Valdespina jauzkorra bera buru zelarik, ezer onik ez zuen ekarri.

Okerrena, ez militarri beharbada, baina bai psikologikoki segurantzia osoaz, Jurramendiren erorketa izan zen.

Zenbait egunez egia latza disimulu alferretan guk pasa ondoren, eta hilketa larriagoak ekiditekotan, Erregeren

beraren aginduz, otsailaren 19an, kaleetan antzeman ezinezko isilpe eta bakardade osotan, Lizarra bera erori zen liberalen eskuetan. Hura tristura bazterretan!

Hamaikagarren saioan, lortua zuen Primo de Rivera jeneralak gure gorte-hiriaz jabetzea.

–Gureak egin dik –pentsatu genuen denok–. Lizarra galduta, zer ari gara gu hemen?

Gipuzkoar, arabar eta bizkaitar batailoiek, nirekin aburukide antza, goitik iristen zitzaizkien aginduei jaramonik ez eginez, etsitzea erabaki zuten.

Eta igandeaz geroztik batez ere, ilaran hasi ziren konpainiak beren burua desegiten; eta boluntarioak ahal zuten moduan eta bidetik desagertzen, eta Frantziarekiko muga gurutzaten.

Nafartarrek egun pare batez eutsi zioten oraindik, baina asteazkenerako pota egin zuten.

Elizondo-Aldude gurdibidea, beraz, ehunka bolondresen hautatutako etorbide jendetsu bihurtu zen.

Dorregarai jenerala, bere aldetik, Dantxariatik pasa bide zen Ainhoara 20an.

Argonz, Karasa, Iturmendi, Valdespina bera, iparraldera pasa ziren aste hartan, nondik ez genekiela.

Ainhoako jendea kale bakar miresgarrian paratu zen guri begira. Eta asko eta asko, negarrez ari.

–Gureak erretiratu egin dituk –esan zidan kapitain beterano batek, hor nonbait beste batean gurutzatua–. Ez ditek inolaz ere bigarren “besarkadarik” sumatu nahi inguruan. Horregatik, Luzaiden Antonio Lizarraga jeneralaz gain, hamabi batailoi zeudean, azkeneko erabakiak jaso zain: 6 kastillano, 2 kantabriar, 3 valentziar, eta asturiar bakar bat. Guztira: 12 batailoi. Horra hor Luzaiden zegoena.

“Zer deritzok? –galdetu zidan.



–Ez dakit ba.

–Alerik ez euskaldunik!! –ozenkiago–. Berantegi konturatuak, zoritxarrez –erantsi zuelarik.

Ez nuen ulertzen. Hobeki esan: sumatzen nuena ezin sinets nezakeen.

–Eta Don Carlos? –galdetu dit frantsesez baionar bateg.

–Paso!! –erantzun diot garratz, barrenak hala agindurik.

Biharamunean, Carlos Zazpigarrenak muga gurutzatu baino lehenago, bere burukideak aurrean zituelarik, eta zaldi gainera itzegorik, hitz hauetxek esan omen zizkien azken albisteen zain zeuden hamabi batailoi erdaldunei:

“¡Voluntarios!

*Las últimas operaciones militares nos han obligado a evacuar pueblos y posiciones importantes de estas provincias. Desbordados por el número, no habéis podido hacer más que repetir y multiplicar las pruebas admirables de vuestro valor. Pero os amo demasiado para permitir que se vierta inútilmente ni una gota de vuestra sangre. He resuelto, por consiguiente, suspender la lucha. En nuestra historia inmortal quedarán inscritos con letras deslumbradoras los nombres de nuestras victorias. Mi orgullo de español se acrecienta con el espectáculo de vuestro valor”...*

–Hitz hutsak! –neure artean.

Biharamunean, otsailaren 28, astehelenean, oso goiz jaiki omen zen Don Carlos; eta berehalatik formarazi zituen batailoiok Luzaideko errepideaz bi aldeetan. Berak Arnegiko zubia pasa omen zuen, muga gurutzatuz.

–¡Volveré! –esan omen zuen ozenki zubiaz beste alderditik.

Baina, euskaldun bolondresik gehienek bezala, nik ez nuen, muga-marra igarotzean, neure iskilua puskatu; edo, hisiz, lurrera bota.

Nik ezkutatu egin nuen lurpean, Ainhoa eta Sara arteko arroka batean, inork ere sekula jakingo ez duen zoko batean.

—Noizbait bila etorriko naiz. Eta arrotzak ezpataz edo iskilimotzaz hilko. Zin dagit! —esan nuen ahapeka.

Baionako kaleetan deserritu mordoa zebilen, batera eta bestera; erdi biluzik askotan, hotza eta etsipena gainditu nahiz beti, erabat mozkortuta. Eta ume-mokoak bezalaxe, negar-zotinka espaloietan, inolaz ere ezin kontsolaturik.

Neure bizi-aro bat pasea zitzaidala ulertu nuen garbiki. Eta mendeku egarriak hartu ninduela ez dut ukatuko. Hortxe daukat gaur ere, borbor irakinean.

Baina, zernahitarako ere, denbora apur bat pasatzen utzi beharra konprenitu nuen; eta, nolazpait bederen, barne patxada berreskuratu gabe, zentzugabekeria litzatekeela nik neure hartan erabakirik batere hartzea.

Hots, kezka hartan nentzalarik, Baionako “Comité d’aide aux Réfugiés Espagnols” delakoaren bitartez, Duha lejitimista baxenabartarrak gogo onez eskaini zizkidan Orbe karrikako bere etxean ohea eta mantenua, eta tratu ezin lañoagoa eman zidan.

“Baiona Ttipian” kokatu nintzen horretara, hotzaldi betean, eta noiz arte ez nekielarik.

—Vous parlez remarquablement le français —esaten zidan etxeko andereak.

Ortzaiztarsa izanik, euskaraz berak bazekikeen, ziur; baina gure hizkuntzaz mintzatzeko gauza zela baiesteko

modurik gabe aldegin nuen etxe hartatik. Lehenago hil, itxuraz, bere euskaltasuna ezertan agertzen utzi baino.

Prentsa ere bazegoen etxe hartan, Bordelekoa. Xentimorik ere ez neukan, eta egunkari hura oparia bailitzan hartzen nuen goizero.

Hantxe ikasi nuen, adibidez, Gobernu Liberalak Oñatiko Unibertsitatea hestea erabaki zuela; eta arkupe, klausuro eta gela eder haietan soldaduak ostatatzea erabaki zuela; dena hondatzeko arrisku nabarmenez futiturik. “La permanencia de las tropas en la Universidad redundaba en beneficio del pueblo, por el dinero que pueden dejar, y de esa forma remediar en algo el perjuicio causado por el cierre de la Universidad” esan omen zuten.

“Astoak” omen ginen gu; eta beltzak, berriz, “ilustratuak”. Baina Madinabeitia alkate liberalak tropak klausuroan segitzea nahiago zuen...

Ez nuen ezer ere ulertzen.

Nik, bestalde, frantsesez banekienez, hizkuntzaren eragozpena gabe bila nezakeen neure bidea.

Zer egingo, ordea, inguratzen ninduten baserritar analabeto haiek? Patu latza zetorkien.

Kaleetako ikuspenak, bestalde, nardatu egiten ninduen. Hura bai deskalabrua! Eta prentsa bidez ikasten nuena ere, ez txikiagoa.

Ezer ez irakurtzea, ezer ez entzutea. Inorekin ez mintzatzea. Deserritutako karlistekin, oso bereziki, harremanik batere ez izatea.

Horra hor erabaki nuena. Arnasa berreskuratzekotan, isilpe apur bat aurrenik. Apur bat baino gehixeago, hobe.

Horretara, 1876ko uztailean gertatutako euskal foruen ezeztapena, legezkoa, 1839koaren bidetik mamitutakoa,

askoz ere beranduago ikasi nuen. Ez dut esango noiz. Berandu oso, benetan.

Amaitua zen bizia enetzat.

Eta isilaldi guztizko horretan pasa nuen urte madarikatu hura.

Duhautarrei esker mantenuz bizirik. Bai. Inoiz ez diet laguntza hura aski eskertuko.

Baina, funtsean, etorkizunerako gogorik batere gabe, zinez hila.

## XXVII

1877ko otsailaren hasieran, urtebete eskax errefuxiatu gisa Lapurdin bizi nintzelarik, gure laguntzako “Comité” delakoaren bitartez, gutun bat ekarri zidan Hibarboure gazteak. Alegia, egun osoa bulego kaxkar hartan ematen zuen baionar gazteak.

–Donostiatik iritsi zaizu –argitu zidan.

Ikusi orduko ezagutu nuen osaba Feliperen letra.

*“Donostian, 1877ko urtarrilaren 12a*

*Agur Joxemai:*

*Orain dela hilabete batzuk ez zekiat non habilen, eta bizi ote haizenik ere ez, egia esan. Aspaldisko honetan ez diguk kasurik egin; eta nora jo ez nekian.*

*Nola hago, has aitzin?*

*Hi jota ibiltzeak, edo ezertarako gogorik gabe egoteak, ez nindikek batere harrituko. Horrelaxe gaudek-eta gutar guztiok.*

*Kostata, Baiona alde horretan deserrituen aldeko Batzorde bat edo badagoela jakin diat; eta berorren bitartez saiatuko nauk gutun hau helarazten.*

*Oso berri txarra zeukaat hiretzat gaurkoan...*

–Bazekiat zer den –pentsatu dut; barne-astindua nola-hala menderatzen saiatu naizelarik.

*Hire aita hil egin duk joan den hilaren 9an, bere 56 urteetan. Ez zekiagu zertaz, eta osagileek berek ere ez, ene ustez.*

*Gero eta eroriago topatzen nian nik aspaldi honetan. Hire amaren heriotza ez dik gainditu. Denda bera ere, urtetan bere arretagune izana, erabat zeukaan hire anaia-  
ren eta arrebaren eskuetan utzia; eta ez zuan bertara azaldu ere egiten.*

*Tristura eskergak eraman bide dik beste mundura.*

*Badakik ni neu hire aita baino bost urte zaharragoa naizena. Eta honi dagozkion gogoetek, apaiz izan zein prakadun, inarrosi egiten ditiztek denak, eta gure oinarririk berak dardarazten. Eta niri ere astindu gaitza eman zidak.*

*Elkartu egin behar genikek, Joxemai. Hik esan noiz eta non, eta bertara azalduko nauk.*

*Besteak beste, testamentuaren (eta beroni dagozkion paperen) irakurketa elkarrekin egiteko.*

*Putzu kaleko denda, bere osoan (ez zekiat nik, bide-nabar, hori oso erabaki zuhurra izan den), Martxel eta Kaxilda hire bi anai-arrebei utzi ziek, baita berak bizi diren etxebizitza ere. Alogeran dauzazuen bigarren estaia, Martxeli zegokiok; eta goikoa bi anai-arrebei.*

*Kaxilda, gainera, mutil batekin ibiltzen duk serio-itxuran aspaldisko honetan, eta honek gauzak zaildu egingo ditik... Bego!*

*Hirugarrena, goikoa, hik hemendik aldeginenez geroztik hutsik gelditu zena, hiretzat utzi dik. Eta hor daukak, beraz, hi itzuli zain. Noiz hori? Geroak erranen.*

Martínez Campos jeneralak hemengo agintea hartu zuenez geroztik, oso giro pozointsua zegok "facciosoen" kontra. Beltzak goitik behera jabetu dituk den-denaz; eta, nola-hala, ustez bakarrik askotan, "faccioaren" alde agertutako guztien kontra, egurra banatu ditek galanki: deportazio, gartzela, konfiskazio, eta beste.

Etzak, beraz, pentsa —oraingoz bederen— Donostiara goxo-goxoan itzultzerik izango duanik.

Iazko uztailaren 21az geroztik, bestalde, eta badakiaenez, Foruaren ezeztapenaren ondorioz, bai zergak bai soldadutza, hemen ere "berdinduak" izan dituk "gainerako probintzia espainolekin".

Bai hire aitak, bai beste hamaika beteranok ere, tris-tura osoaz jasan ditiztek gertakari hauek. Osasuna bera arriskatzeko heineraino; baita galtzeraino ere.

Diru-txanponetan ere, kondairan lehenengo aldiz, Nafarroako armarrria ezarri ditek orain sosaren atzealdean.

Baina bego hori.

Hire aitaren gomuta-meza batzuk hor, Baionan alegia, eskaintzea bidezko iruditzen zaidak; eta beharrezko ere bai. Non hagoen jakin arte, halere, ezin urratsik baterre eman.

Zirudien baino maiteago hinduan aitak. Etzak ahantz, beraz. Hemen bazegok beraren fotoren bat; eta heure gelan eskegi nahi baduk, hurrengoan bidaliko diat.

Ez etsi. Jainkoak bere bideak eta misterioak ditik. Onar ditzagun gogo onez; eta erruz ordainduko ziguk beste munduan, baita honetan bertan ere kinka gaiztoak gainditzen lagunduko.

Besarkada bero bat. Eta higandiko berrien zain gelditzen naizelarik.

Osaba Felipe"

Oso pentsakor gelditu nintzen. Mutu. Eta Duhau jaunak berehala igarri zidan:

–Alors... de mauvaises nouvelles d’Espagne, n’est-ce pas?

–Oui. Mon père est mort.

Neroni ere gertatu zitzaidan ezinago zakar esaldia.

Doluminak etorri ziren orduan, arrapaladan, elkar-gainka, espantuka, faltsu.

–Merci, oui –erantzun nion.

Eta kalera irten nintzen. Eta katedrala eskuineko kaxkoan utzita, bertara igo gabe Errobi ibaiaren aldera jo nuen.

Baiona Ttipiko Galuperieko arkupe ilara, Errobiz bestaldean, inoiz baino ilunago eta beltzago agertzen zitzaidan.

Dubourdieu kaitik behera hurbildu nintzen Mayou zubira.

Dena zegoen hetsita: sotoak, dendak, lantegiak, ontzi-gordailuak.

Azkenean, Errobi gaineko zubia igarota, Reduit plazara agertu nintzen; eta aurrez aurre, bare, Aturri zabala topatu nuen neure aurrean.

Ura geldi, isuririk batere gabea (ez gorantz ez behe-rantz), itsaso betearen tenorea orduantxe balitz bezala.

Iparraldetik zetorren haizeak, ia-ia min egiten zidan masailetan, eta kale artera itzuli nintzen ihesi. Orbe neure karrika estuan, aire finik ez bederen.

–Neure gelara baino lehenago, gora igoko ote; eta aitaren aldeko otoitz ezkuturen bat egitera katedralean sartuko? –nirekiko.

“Lehenengo aldiz elizan sartuko? Eta otoitza, noiztanik ez egina?



Montaut plazarako bidean, klaustroaren ondotik sarri pasea banintzen ere...

-Zertarako, ordea, belauniko jarriko? -nik neure buruari mintzo-. Zertarako, bai?

Ezertan sinesten ez nuela erreparatu bainuen garbiki...

Eta, egia esango badut... tristuraz erreparatu.

## XXVIII

1877ko urte bukaera, hitsa izan zen enetzat.

Eta hilabete koloregabe haietaz zerbait bederen kontatzeko esango balidate, egundoko lanak izango nituzke ezer funtsezkorik asmatzeko.

Baionako karriketari barrena ibili ohi nintzen, isilik, bakarrik beti, gora eta behera, osotara asper eginda.

Dendetako erakusleihen askotan (gehienetan, esango nuke), beti ere, uste dudanez, apaingarri berak topatzen nituen asteetan eta hilabeteetan barrena. Zapi berak, mantelina berak, ontzi berak, tresna berak, erretratu edo margo berak, hauts geruza berberarekin.

Dena aldakaitz agertzen zela erreparatu nuen. Ezertxo ere ez zela aldatzen, ezta atzealdeko dendan ezkututzen bide zen atsoaren etsipena disimulatzeko ere.

Hura bai aspertu beharra nirea!

Karriketako denda-jabeek biharamunerako ezertxo ere espero ez balute bezala, leku guztietan aurkitu uste nuen nik zahar kutsu bera. Eta geldikeria berbera orotan.

Gauza bera biharamunean, eta biharamunagoan, eta hurrengo egunetan eta asteetan...

Malenkonia eta bakardade hazkor haietan, Baiona maitatzen hasi nintzen. Ez baionesak, agian; ez bainituen eza-gutu ere egiten. Baina Baiona bai.

Eta leiho ilara luzeak erreparatu nituen, sargori egunetako ilunabar freskoetan maitagarriago; eta arbelezko teilatuak.

Baionako katedraleko kanpandorre bikoitza lagun isil, Errobiko hegian gora ibiltzen nintzen.

Batzuetan, nik aitortuko nukeen baino maizago, Uru-mearen irudiek astintzen ninduten neure barne oinarrieta-raino.

Halako batez, ordea, 1878ko apirilaren hasieran, etsipenaren zolarik sakonenean norarik gabe nentzala, goiz batez Errobiko hegian gorantz nindoalarik, haize-bala epel bizkorgarriek iratzarri ninduten.

Zerua hori eta distiratsu agertzen zen Hiriburu eta Mi-lafranga aldera; eta, atzean, urrun oso, Ahuñemendiko mendikatea sumatzen zen.

–Bizirik hago Joxemai –esan diot neure buruari.

Eta entzungarri ez zen hitzik gabeko gogoetaz bat, aspaldi honetan ez sentitua, ziztada zorrotza nabaritu dut ezkerreko izterrean.

–Don Carlos...! Kaka putza...!

Eta Joxe Mari Iparragirrek, berriro ere Ameriketara ihesi joaterakoan, kantatu zuenaz oroitu nintzen:

*Zoaz Don Carlos Zazpigarrena  
urrun bai gure lurretik,  
ez dezu utzi guretzat pena  
eta tristura besterik.*

*Lutoz, negarrez ama gaixoak  
ai!! ezin kontsolaturik,  
ez degu nai ez geiago ikusi  
zorigaiztoko gerrarik.*

Bakarrik mintzo nintzen Errobiren ertzean. Eta ez bide zituen inork nire zantarkeriak entzun...

–Hobe horrela? –galdetu dut neure artean–. Agian ez...! Ala... “beharbada” esan beharko? Zergatik gure porrota ezkutatuko? Noiz arte disimulatuko?

Gero eta maizago egiten nion galdera bera neure buruari. Baina ez nion galdera mordo hori bera inori egiten. Ez bainuen inor ere gurutzatzen. Nahi ere ez, gainera.

Eta Duhau jaunarekin... eguraldiaz bakarrik mintzatzea onena... “au sujet de la pluie et du beau temps” esan ohi zuen berak. Pertsona prestua bai, bera. Noski! Ni baino hobe, segurki. Baina gainerantzean? Zertaz solastatuko? Jai!

Bi urte hartan bizi nintzen jadanik Orbe karrikako etxe hartan; eta sekula ez genuen ukitu ere egin Baionara eramane ninduen arazoa. Iruzkinik batere ez! Ez nuen uleretzen. Karlisteri laguntzeko prest baitzegoen bera. Ni neu lekuko.

Baina “Bonjour, Monsieur!”, berak.

Eta “Bonjour vous aussi!”, nik erantzun. Eta kitto.

\* \* \*

Baina apirileko goiz epel hartan, eta hego-haizeak ene aurpegia leun-leun ferekatzen zuelarik, gauza harrigarri bat gertatu zitzaidan.

Banindoan ni egunero bezala, Orbe karrikatik etxe aldera. Eta handixe behin eta berriz pasata ez erreparaturik

ere, bat-batean, Orbe karrikako 20an zegoen letreroaz jabetu nintzen lehenengo aldiz: *Foré et Lasserre –Impri-merie.*

Hara!

Tenk egin dut, eta bertan zurtuta gelditu: “To! Hori duk hire bidea, Joxemai! Nola ez haiz lehenago konturatu?”.

Osaba Feliperi bidali nion segituan eskutitz labur bat Baionarako hitzordua eskatuz.

Handik egun gutxira, apirilaren 25ean, gaizki ez bano, elkartu egin ginen osaba-ilobak katedralaren aurreko apirikuan, Zubi-Berriaren kaleburuan. Aspaldisko hartan ikusi gabe egon ondoren, pozkariotan agurtu genuen elkar. Pozik nengoen ni, zinez; eta bera ere bai, nabarmenki. Beraren kuttuna nintzela sinesteko moduko baskada eman zidan.

–Harira joango naiz, osaba Felipe.

Eta, ez bat eta ez bi, azken egun haietan mamitutako neure plana azaldu nion. Alegia, Baionan inprimategi bat zabaltzea: *Putzu Moldiztegia.*

Inprimategi apala izango zen, jakina. Langile bakar bat bertan ari izango: Joxe Maria Arruabarrena donostiar deserritua...

–Zerbaitetarako balioko didate, horretara, “El Cuartel Real”en inprimaketan emandako urteek...

–Telegrafoa eta guzti jarri behar duk?

–Oraingoz –erantzun nion– inprimaketa hutsezko lanak egiteko asmoa dut. Gero ikusiko. Orain, dena dela, lantegia apailatzeko urrats honetan, badakikezu zertan lagun nazakezun...

–Noski! Hiri dagokiana ematea besterik ez duk izango. Heurea izango duk, bai. Lasai! Hurrengoan ekarriko

diat Donostiatik, eta liberatan ekarriko. Prest, hitz batez. Zenbat behar huke?

—Oraindik ez dakit. Prezioez, eta Baionan bertan eros daitekeenaz, jakinaren gainean jarri eta berehalaxe zehaztuko dizut.

—Ongi duk, Joxemai. Baina, honetaraz gero, ohar bat. Nahi baldin baduk, bazeukaat nik Donibaneko taldera, are Don Tirsorengana beragana, iristeko modua. Don Carlosen aldeko prentsa eta liburuak argitaratzeko era bilatuko nitek. Gerra galdu diagu, bai; baina borrokari eutsi beharko zioagu, honetara edo hartara.

—Mila esker, osaba, nitaz kezkatzeagatik. Baina, barka nire garrazkeria: inola ere ez!

—Zer duk, bada?

—Ez eta ez. Ok eginda nago, erabat. Bi urte honetan ez dut karlista buruzagirik batere ikusi. Don Tirso Olazabal zertan ari den ez dakit, eta ez zait axola. Donibane Lohitzunen ez naiz behin ere izan...

—Et, et, et! Baina zer darabilk?

—Aski izan da dena. Kokoteraino nago, eta ez dut inor ikusteko gogorik. Eta Don Carlosen jarraitzaileen alde lanik egiteko ere ez. Ordaindurik ere ez...

—Zer derasak, mutil?

—Entzun duzuna. Ez dut deusik jakin nahi. Bi gerra odoltsu, mingarri, eta... alferrik galduak gainera... Eta bide okerretik saiatuak.

—Bide okerretik?

—Bai. Zeharo oker ibili gara.

—Bego, bada, Joxemai. Beste batean hitz egingo diagu politikaz.

–Hori da. Beste batean... agian! Orain, dena dela, sosa behar nuke erosketak eta abar egiteko. Honetarako deitu zaitut, egia esan.

–Jakina!

Bigarren eskuko minerba txiki bat lortu nuen, merke, Baiona Ttipian. Moldiztegiarentzako tokia ere bai: txoko itsusi bat “Euskaldunen karrikan”, Errobiren ondoan. Hain zuzen, arte hartan bizi izandako Orbe karrikaren inguruan.

Etxebizitza xixtrin bat aurkitu nuen, bestalde, Upaginen karrikan (frantsesez “rue des Tonneliers” deitzen duten horretan), Errobi ibaiaz bestaldean. Gelatxo ilun bat eta sukaldea, bigarren estaian; eta komuna eskaileran, gainerako maizterrekin amankomunean. Hotza batzuetan, alajainkoa!

Esker onez (baina hotz antzean, egia aitortzeko) agurtu nituen bi urtez bizilekua eta mantenua doan eman zizkidaten Duhau jaun-andereak. Eta Upaginen karrikako etxe zahar hartan neure burua berrantolatzen hasi nintzen.

Etxekanderea (Madame Barthes, sotoan irakur zitekeenenez) alarguna zen, eta bere hirurogeietan zegoen. Edo gehiagotan, agian. Ezin esan. Donostian banintz, emakume “koplosa” zela esango nuke. Dena espantu! Hobe hala, agian, nire hartarako, erretxin horietakoa izatea baino.

Aldaketak eta arazoak, gerra garaikoekin konparatuta, txikiak izan baziren ere, zerbait izan ziren, eta espero ez nuen aldetik gertatu zitzaizkidan.

Bakarrik bizi nintzenez, esate baterako... sukaldari ere bihurtu behar izan nuen!

Hots, benetan, nik ez nekien garai hartan porrusalda eta arrautza prejituaq maneatzan besterik. Eta horiek ere... hor nonbait. Bego!

Janarien erosketaz ere, hizkuntz arazorik gabe moldatu arren, galduta. Putzu kalean amak egiten zituen horiek guztiak (ama gaixoak!). Hiru urte luzez, segidan, gerrakotan, sukaldaritzatik at egona. Eta gero Orbe karrikan ere, Duhau anderea arduratzen zelarik...

Hitz batez, nik neure 28 urteak bete behar nituen unean, janari-erosketak, petrolioa, xaboia, pospoloak, eta abar, erosi beharretan ezinago trakets eta baldar, "leku berean batera denak egitea onena", pentsatu nuen. Eta arropa-garbiketak ere, ahalean, bertago eta xinpleago, eta hobe.

Mandatuak erraztu nahiz, beraz, Baionako azokara jotzen hastea erabaki nuen, Errobi ibaiaren ondokora.

Eta aski azkar "jarri" nintzen.

Esnea eta barazkiak beti leku berean eta pertsona berari erostea bururatu zitzaidan. Horrela giza harremanak irekitzekotan.

Saltzailerik gehienak euskaldunak izanik, bestalde, hango euskara ikasteko aukera izango nuela iruditu zitzaidan. Ez zuten Baiona inguruko "frantses eskualdunek" gure euskara bera egiten: hau gauza nabarmena zen. Eta ikasi egin nahi nuen... "poxiño bat bederen".

Eta pixkanaka, eta ez oso epe luzean, hango *eskuarra usatu* nintzen.

Hots, hau ere inondik espero ez nuelarik, azokan hasi zen preseski nire biziera errotik aldatzen.

Egunero-egunero agurtu, zirto bat edo beste zirikatu nahian bota, eta konfiantza apur bat hartu nuen neure esnezalearekin. Goizero, bere astotxo hartu, barazkiz eta esnez zamatu, eta nonbaitetik Baionara etortzen zela erreparatu nuen. Elkarrizketei adi, Garazi zeritzola ikasi nuen. Eta gerora Garazi Almandotz zela bere deitura osoa.



–Orain badakit; Garazi. Izen polita!

Irribarre egin zidan:

–Ni Garazi, bai. Eta zuk, nola duzu izena?

–Nik Joxemai, Jose Mari Arruabarrena.

–“Koxemai” erran duzu?

–Nik “Joxemai” esan dut, “jotaz”.

–Nik ez dut soinu hori erraiten ahal... Hota, Grota...

Ezin! –eta barrez hasi zen.

–Esan, ba, Koxemai. Aski zait.

–Zu españula zira, ez da? –jarraitu zuen.

–Ni euskalduna naiz. Eta zu ere bai.

–Bai. Baina ni frantsesa –errepikatu zidan irribarre gaixto batez– eta zu españula. Purra!

Eta barre algarak ezkututzen saiatu zen. Baina alferrik, eta niretzat hobe. Bere edertasuna mukurru isurtzen baitzitzaion masailetan behera.

–Ni espagnol purra? –nik harriduraz erantzun–. Purra ni? Zuk ez dituzu espagnol “purrak” ezagutzen. Guk euskara eta Foruak ditugu. Berek ez bata ez bestea.

Egia esan, ez dakit zergatik ez nuen hura deplauki onartu, eta kitto. Ez, hala ere. Eta ordura arte ez nintzen konturatu. Zergatik “bai, baina ez” bitxi hura?

Osaba Felipez oroitu nintzen. Espainolak baldin bagara, esan ohi zuen, ez gara hala ere “allende el Ebro”ko espainolak bezalakoxeak. Espainolak bai. Baina... desberdinak.

“Hau saltsa!”, pentsatu nuen lotsaturik.

Karlista nintzela aitortu nion, eta gerra eginda nengoela. Baina zauriarena aipatzen ez nintzen ausartu. Lekuatik edo? Oso goian bainean... Zozoa ni!

Donostiakoa nintzela esan nion.

–Donostirikoa? –galdetu zidan, zirto bila, ene ustez.

–Donostirikua, ez –nik arrapostu–. “Donostiyakua” esan dizut nik. Eta zu, nongoa?

–Ni sortzez zuberotarra, baina Milafrangan bizi naiz, osaba-izebekin. Herri hori non den badakizu?

–Ez oso zehazki, egia esan –aitortu nion.

–Baiona eta Uztaritze artean dago “Villefranque”.

–Ahantz ezazu “Villefranque” frantsesaire itsusi hori, otoi; eta atxik euskal Milafrangari.

Eta barrenak hala eskaturik, edota txoroaldiak, ez dakit ongi, ausartu egin natzaio:

–Halako batean zure herrira joango naiz, Milafrangara. Erakutsiko al didazu non bizi zaren?

Isildu egin zen lipar batez begiak bilduta. Eta geroxe-ago, izuti:

–Bai... Espero dut ez zaidala damutuko!

–Ez horixe, Garazi!

Horretara, abutzuko arratsalde bikain horietako batean, Baionako azokan finkatu genuen biharamuneko hitzordua. Eta Milafrangaraino joan nintzen, oinez, Errobi-  
ren ibar-eskuinetik.

–Ez ezkerreko aldetik joan –gaztigatu zidan Garazik–, Milafrangan ez baitago zubirik; eta Uztaritzearaino itzuli beharko zenuke, gero handik gibelera egiteko.

–Ongi da. Kontuan hartuko dut zuk esandakoa.

–Bertako parropiaren aurrean elkartzea izango da errazena –proposatu zidan–. Eliza zuria da, Lapurdiko beste asko bezalakoa. Kaxko baten gainean dago, eta aise atxemanen duzu. Gero handik nire etxearen ingurura joanen gara. Nahi baduzu.

–“Etxe ingurura” diozu?

–Bai. Zu *españula zira*; eta, enkas, ene osaba-izebek ni zurekin ez ikustea iruditzen zait bidezkoena. Oraingoz, bederen!

–Hori ere badugu?

–Nire ahaideak karlisten aldekoak dira osoki. Baina beldurriak ere bai. Oso.

–Ederki, Garazi. Lasai. Nik zurekin egon nahi dut.

Eta “zurekin” hori esaterakoan, barrena nahasi egiten zitzaidala erreparatu nuen.

\* \* \*

Eta halaxe izan zen.

Larunbat arratsalde batez, jai-giroan sumatzen nuen han urruti neure Donostia kandeletan, ospaketa hits eta eroan. Abuztuaren 31n donostiarrok zertaz pozturik ez baitaukagu.

Baina 1878ko abuztuaren 31 hura desberdina zen.

Milafrangako kaxko gainera igo nintzen, eta hantxe zegoen zain Garazi. Gona urdin batez jantzirik, batera zabal eta luzea, bluxa zuria zeraman, gerrian estu-estu bildurik, eta buruan zapi zuri bat. Eta inoiz baino ederragoa iruditu zitzaidan.

Argin karrikatik behera abiatu ginen Errobi ibairuntz, Poyloa atzean utziz. Iparraldetik, ibaiko urei jarraiki, Hiriburuko eta Baionako etxe batzuk ikusten genituen.

Eta mendebalderantz, ibaiaz bestaldean, Herauritz auzoa eta Basusarriko baserri batzuk.

–Hor, ezkerretan –esan zidan orduan Garazik–, ibaia-  
ren hegian, antzinako portuaren arrastoak daude, baita  
“Borda-Naza” izeneko baserria ere... Herauritz pean  
–azaldu zidan gero–, “Portu-berri” auzoa dago... Eta

Baiona aldera, “Xaldu-enea” tartean agertzen zaigularik, “Larraldea” jauregi ederra, gailen... Ondoan, baina erabat porroskatuta, “Miotz”ko jauregi zaharra, beraren honda-kinak hobe...

Memento horretan etenune bitxi bat sumatu nuen, eta haria galdua nuela erreparatu.

–Aditzen nuzia?

–Bai, bai... Noski!

Ez zen egia. Nolatan ez dakidala, Loiolan nengoela iruditzen zitzaidan. Muino leun haien atzean, Baiona ez, eta Donostia besterik ez zegoela... Eta Garazi galant eder hura, Bixentaren ordezeko huts-hutsa zela. Kondaira bera eta bi ingurune antzeko haietan, neure barruan mamitzen ari balitz bezala.

Eta asalduak hartu nau goitik behera, eta zauskada bortitz batez dardaratu.

Orduantxe entzun dut berriro Garaziren galdera, eta neronen erantzuna eman:

–Bai, bai. Noski!

–Ez dakit ba nik –erantzun dit uzkur–. At zeunden, urrun...

–Ez, ez... edo... bai, egia esan.

Ilunabarra gainean genuen. Bazetorren, polliki-polliki. Eta zerua gero eta gorriskago, tarteka haize balek gure aurpegiak ferekatzen zituztelarik.

–Barka nazazu –aitortu diot–. Gerrako gertakariak ez dira aise ahanzten; eta orain dela bi urte eta erdi gurutzatu nuen nik muga. Barka. At nengoen. Egia duzu.

Aurpegia ere aldatu zaio, eta gaztaro lore paregabe hura, pittin bat ximeldu.

–Ez dakit gerla zer den. Baina sumatu egiten dut.

Eta mintzagaia aldatu nahiz:

–Ederra Errobi hau, ez dea? –galdegin dit.

–Oso ederra. Benetan... Baina... ez zu bezain...

Izutu egin naiz. Nondik nora esaldi hura?

–Eta giro bare honetan –eutsi diot esanari– are ederra-  
goa. Eta zure baserria, non da? Horretara etorri naiz...

Hurbildu egin zait. Eta ia-ia bere bular ausartaz uki-  
tzen ninduelarik, eskuaz adierazi dit lekua:

–Ikusten duzia –galdetu dit– eskuin alde horretan, La-  
rraldea gaztelua? “Arlasea”tik behera, “Bellegarde”ra do-  
an bide horretan behera, hortxe... berehala... Ikusten du-  
zia, hor, baserri zuri txapal bat... “Errekagaina”. Horixe  
duzu. Lau behi ageri dira hor, etxearen aurreko pentzean  
jaten ari...

Aurkitzen saiatu nintzen, baina asmatu ezin.

Hurbildu egin da orduan nigana; eta nire burua bere  
bi esku hozkirrien artean hartuz, xuxen begiratzen lagun-  
du dit:

–Hantxe: Arlaseako bidegurutzearen ondo-ondoan, hi-  
rugarren baserria. Ikusten duzia orain?

Odola asaldatu zait osotara.

–*Itsua zirea? Zozo hori...!*

Eta burua libro utzi dit.

Hura tristura!

–Ezetz, Garazi. Ez dudala ikusten... ez dudala orain-  
dik konprenitu “Errekagaina” hori non den... Jarri egidazu  
burua berriz behar bezala.

Txantxetan ari nintzela ulertu dit, eta bere eskuak nire  
aurpegian nahi nituela:

–Futxo...! Bada, orain, ezer ez! Non bizi naizen jakin  
gabe geldituko zara!.

Mementoa iritsia zela iruditu zait. Eta beraren burua  
oraingoan nik neure bi eskuen artean maitasunez hartuz,

bukaerarik ez bide zuen musu leun luzea eman diot ezpainetan.

Hitzik gabe gelditu gara biok, "Errekagaina"ren aldera begira agian.

—Etxera oraintxe joatea izanen da zuhurrena, nik uste —esan du orduan.

Eta Argin karrikarantz abiatu gara; handik gero Hiriburua aldera jotzeko.

—Adio, Garazi —esan diot bidegurutzean.

—Ez adiorik —berak—. Bihar artio.

—Musurik gabe elkar agurtuko, Garazi? Ez duta merezi?

—Beldur naiz.

—Zeren beldur?

—Ez adiorik, Koxemai.

\* \* \*

Ondoko egunetan, azokan ikusi ohi nuen Garazi, goizetan neure erosketak egiterakoan.

Baina bera, irudipena, uzkur xamar. Bakarrik gertatzen ginen mementoetan ere, ez zidan niri hurbiltzeko paradarik edo aitzakiarik batere bilatzen. Eta etsita nenbilen, zertan desegoki jokatu ote nuen zalantzan. Musuarena gaizki hartua ote?

Eta egun batez, azokan aurkitu nuen goiz haietako batean, proposamen hau egin nion:

—Zer iruditzen zaizu, Garazi, datorren igandean eguna elkarrekin Miarritzen pasatzea?

Txistua irentsi beharra nabaritu nuen. "Españul" batekin gurasoei nirekin azaltzea horren gogorra zitzaiela ikusirik, Miarritzekoa bururatu zitzaidan. Han ez gintuzkeen

inork erreparatuko, eta ez Garazi eta ez ni ezagutuko. Eta trenez joateko aukera bagenuen.

–Nahi duzia egia aitortzea? –galdetu zidan.

–Bota!

–Ez naizela Miarritzen sekula izan.

–Ez da posible! –nik.

–Posible da. Bai. “Señorito” herria omen dela Miarritze: dena errege, erregina, printzes, jauregi... Zertara joanen hara baserritar xume hau?

Zerua zabaldu zitzaidan.

–Zozokeriak! Bertatik ezagutu ditut nik Lizarran gerakoan, eta benetan... jende xumeak nahiago ditut askotan; eta maiteago... beti.

Eta uste ez nuenean, Garaziren ezpainak nituen neureen gainean.

–Elkarrekin ezagutuko dugu. Ni neu ere, iaz behin han izan banintzen ere, ezin baitezaket esan Miarritze ezagutzen dudanik.

Etxera orduko, zerua ilun zegoen.

Baina Upaginen karrika argigabe narratsa, distira hutsa zitzaidan gau miresgarri hartan.

## XXIX

Irailaren 15ean, igandea, ezin ederrago argitu du egunak.

Epelegi, beharbada.

Hego-haize balek areagotu egiten zuten giroaren xarma; eta koloreen ñabardurak, normalean baino ugariago biderkatzen, eta liluragarriago azalarazten.

–Tamalgarria litzateke –esan dut neurekiko– gaur, hain zuzen, Garazirekin Miarritzera joatekotan nagoen honetan, eguraldia hondatzea. Agian ez!

Bazkalondoko hiruretan elkartzekotan hitzartuak geunden Baionako geltokiaren aurrean. Urduri nengoen, eta goizegi azaldu nintzen Aturriz bestaldeko batimendutzarrera.

Baina Garazik ez zuen huts egin.

Urduri oso, aitortu beharko. Bost urte hartan dastatua ez nuen ezinegon bitxiak harrapatu ninduen, eta esku-egarri antzean agurtu nuen Garazi, beraren biak neuretan estu-estu hartuz.

–Kontuz! Min egiten didazu! –esan zidan.

–Barka, Garazi!



Neure eskuak berarenak baino askoz ere hotzago zeudela erreparatu nuen. Garaziren begiak, berriz, gogoan atxiki nituen irudietan baino aise berdeago; eta begirada, ezinago leuna. Miarritzerako moduan jantzia, nik uste, buruko ile-mototsa borobil eta tente, belarri lotsorak ilearen azpitik ageri.

Trenak, Aturriren eta Errobiren gainetik pasa ondoren, eta beronen ertzetik kilometro pare bat kurritu ondoren, oso denbora laburrean bete zuen Miarritzerainoko tartea: hamar bat kilometrokoa, omen.

Ez dakit zer esaten ote nion nik Garaziri; baina etengabe barre egiten zuen; eta algara alai haietan niri erakarriago gertatzen.

Brindos-ko aintzira eskuin aldetik begiztatu eta berehala, Herausterri auzora iritsi ginen: “Biarritz-la-Négresse”.

–Hori bitxikeria! –esan zidan Garazik, beraren hatsa, kilikagarri horren bertatik, aditzen nuelarik–. Nor ote zen neskaxa beltz hori? Edo... andere zaharra, kasu!

Ez nekiela erantzun nion.

Geltokitik irtetea, zalgurdi mordo bat topatu genuen, zain (bertakoeak “karroza” esaten dietela ikasi dut hemen); Miarritze aldera bidaiariekin abiatzeko prest.

“Pribatuak” ziren gehienak (denak beharbada!); eta helburu zeuzkaten ostatu dotoreen izenak agertzen zituzten harro: *Grand Hôtel*, *Hôtel des Ambassadeurs*, *Hôtel de France*, *Hôtel de Paris*, *Hôtel des Princes*, *Hôtel de l'Europe*, *Maison Monhau*, *Hôtel Dumont*... Desberdin xamarra bere eitean, eta dotoeagoa agian, izen famatu hau urrezko letratan zeramana: *Casino Bellevue – Biarritz*.

Lasai asko igo ziren denak nor bere *karrozara*; anitz sehi, neskame eta zerbitzarik lagunduta.

Bai jaunak, eta bai andereak ere, oso dotoreak eta an-purusak ziren, bai beren soinekoetan, bai beren hizkera ozenean ere. Obedituak izaten ohitutako jendeak, nabar-menki.

–Harroputz okaztagarriak –esan zidan Garazik.

–Egia duzu, bai.

Zilindro txapal eta arrosen kopuru gaitzak (kartoizkoak edo?) harritu ninduen. Dozenaka zetozen, eta dozenaka zalgurdi zamatzen.

Zilindro bitxi haietako batean, ondotik pasatzean, “Chapeaux Saint-Maur – Paris” hitzak irakurri nituen di-simuluaz: andere-kapelu apain harrosko deigarri horieta-koak, nonbait.

Maleta zurrinak eta metalezko kutxa distirantak, be-rriz, oso-oso astunak aise suma zitekeenez, mordoka abia-tu ziren horrela zalgurdietan, Miarritzera ari, zaldietako txilin-koilareek airea kariloi-hotsez betetzen zutelarik.

–Achetez “La Gazette de Biarritz”! –entzun nuen or-duan, saltzaile haietako bat nire ondo-ondoan oihuka ari.

–Erosi egingo dugu, Garazi. Horrela hemen zer dago-en eta zer ez dagoen jakingo dugu.

Eta irakurtzen hasi nintzaion: *Gazette illustrée de Biarritz; journal politique, littéraire et mondain.*

–Bapo! Miarriztarrak ez dira makalak, alajainkoa!

Eta handik pixka batera, aurreraxeago:

–Si vous aimez la Valse et la Mazurka, ce soir grand Concert devant le Casino...

–Oraindik ez baita handikien udatea amaitu! –pentsa-tu nuen.

–Musika izango dugu arratsean, Garazi. Goiko kaxko-an, Bellevue-ko plazan. Joango al gara, Garazi?

–Zendako ez?

–Noski! Hara joango gara! Bai horixe! Baina orain goazen hirira, eta... euria hasi baino lehenago.

–Zozo hori! –esan dit Garazik, higuin muzin bat eginenez–. Agian ez!

Guri begira lotsarik gabe lipar batez egon ondoren, gizaseme heldu bat hurbildu zaigu losintxatan:

–Voici un gentil cacolet pour les amoureux! Allez! Je vous amène jusqu’au centre de Biarritz pour trois francs. Pas cher!

–Nahi duzia, Garazi, kakoletan joan?

–Tira, tira! Pentsatu ere ez!

Begirada tristeko zaldi argalaren gainean, orekan emana, bi kartolak osatzen zuten kakoleta, erosoki bikote bat esertzeko atonduak.

–Asto gainean gaur ere? Bo, bo...

–Ez duzu astoa, Garazi. Zaldia dela.

–Badakit, bai. Baina... tira, tira! Zamariak hurbil ez dituzten jauntxoek zozokeriak dira hauek. Ezetz! Ez naitzela kakoletan joanen!

–Bego, beraz. Baina Miarritze urrunsko dago –errepi-katu nion–. Ordu erdi bat bai, oinez.

–Eta zergatik ez oinez joanen? Ibiltzeko bikain dago. Abia gaitezen!

Bidean abiatu orduko, ordea, lehenengo hautakizuna: aldapan gora Miarritze hirirantz joango? Ala Mouriscot lakutxoaren ondotik, Ilbarritza aurrenik; eta gero handik, itsas hegitik, hiri barnera?

Lakua bertatik ikusi nahi lukeela esan du Garazik. Eta horrela joatea erabaki dugu. Xabiagatik Mouriscotera, beraz, han beherean lakutxoa utziz; eta berehala Ilbarritzeko gaztelu famatua, eta inguruko bere hamalau xaletak, lu-

rrazpitik gazteluarekin ezkutuki lotuak, omen. Dena itsasora begira, eta tontortxo bitxi hartan kokaturik.

–Hortxe bizi duzu Albert de l'Épée-ko baroi aberatsa –argitu nion Garaziri–. Beti ere musika giroan murgiltzeko desiran bizi omen da: “Du Wagner sur fond de vagues de tempête... Voilà le sommet!”, esan ohi omen du Baroi melomano handi-gurakoak.

–Mentsa duzu baroia! Niri beldurra emanen lidake kaxko bakarti horretan urte osoan barrena bizitzeak. Eta berari ez?

Eta egia aitortzekotan, gaurko itsaso haserrearen orroak behintzat ez zuen inor hondartza alde basa hartara hurbiltzera bultzatzen. Ezta itsasozale porrokatua naizen donostiar hau ere.

Baina, neure barne zolan, ez dakit nik guztiz egokia ote denetz jarri dioten txoro-fama. Zeren, aldamenean, hondartza berean, “My Lady” deitutako Miss Aylesbury markesa ere bizi baita. “Kasta bertsukoak biak” diote bi-dartarrek.

Bi ero, hortaz, eta ez bat. Gutxienez.

Malkorpean Pernautongo hondartza basatia utziz, goiko galtzaratik hurbildu ginen Miarritzeko hirigunera; eta “Grand Hôtel” eta Udal-Kasinoaren artetik pasa ginen gero hondartza hegiraino.

Hondarraren beraren gainean eraikia, eta bi kupa ekialdetarren arteko arku-ilara luzearen atzean, zintzilikatutako mainu arropoz bestaldera, kabina mordo bat. Eta baita, hondarraren heineraino ere aise jaisteko, hiru harmailadi dotore.

Hantxe geneukan, geure aurrean, “Les Bains Napoléon” izeneko batimendu entzutetsua. Alimalekoa, zinez, bere neurrietan.

Iparraldera begiraturaz, Eugénie enperadoresak bere kuttuntzat zeukan “Villa Eugénie” jauregi txapal eta gorrizuria ageri zen; txilarrak ia guztiz estaltzen zuen hondar ezponda baten gainean. Bi solairutan zazpina leiho neoklasikoz osatua, belarrik gabeko hondar muinoan altxaturik, paraje idorretako lore bakarti agertzen zitzaigun.

—Hor bizi zena, beraz, Montijoko Eugénie andaluziar ospetsua?

—Hortxe, bai. Eta hura bai bikote bitxia!

Bere korsikar jatorria salatuz, *Fatte, ma fatte presto* errepikatzen omen zuen bibote gaitzeko Enperadoreak. Eta *No siempre prehto* erantzuten omen zion granadatarrak Bonapartetarrari.

Hortxe sortu bide zen, amodio gazteen garaian, Eugeniak Napoleon III. arengandik izan zuen Louis seme bakarra.

Parisko Gorteko Handikien aholkuz, “Prince Impérial” bataiatu zuten. Baina ez da luzaz bizi izan. Dirudieenez, eta aise uler daitekeenez, ama etsipen osoan utzi baitu Afrikan hil-berri den printze gazte inperialak.

Tebako kondesa zenak, bestalde, bere dinastiaren segida ikusita, oso pozik hartzen baitzuen Frantziaren kondairan ongi sustraituta utziko zuen Erreginaren gradu berria...

Eta horretan ginela, etendura bat egin nuen:

—Montijoko anderea, jatorriz eta sentimenduz, karlista da. Ba al zenekien?

—Ez, ez nekien.

—Eta Guzmandarren bere familiak, bera oraindik neskatila gaxtea zelarik, Zazpi Urteetako gerlaren ondoren ekarri zuela Miarritzera lehenengo aldiz? Bada, itxura denez, orduantxe sortu zen berarengan Miarritzekiko jaiera.

—Ez horixe. Ez nekien, ez. Ezjakin hutsa nauzu.

—Ba nik, Donostian, haur ttipi-ttipia nintzenean, urrutitik ikusi nituen biok, musika bandek erregekiro errezebituak. Oraindik ongi xamar oroitzen naiz.

—Hori xantza zurea! Eta orain, “Villa Eugénie” horretan bizi dea?

Napoléon III.a, gure gerla madarikatua hasterakoan hil zela esan nion, Frantziako Batzar Nagusiak tronutik bota ondoren. Eta, ustez, alarguna Ingalaterran bizi dela.

—“Villa Eugénie” ezin bikainago hori, berriz, hamaika harrera eta bilera sonaturen gertaleku izan ondoren, aurki salduko omen da...

Aurpegia ilundu egin bide zitzaion Garaziri:

—Ez dut emakume hori ezagutzen. Baina gupida bezalako zerbait sortzen du nigan. Ez dakit zer esan.

—Tira, Garazi! Itxura leunen atzean, eta kaleratutako ipuinen atzean, piztia galanta eta larderiakoia, omen.

“Azkeneko urte hauetan, senarra, eta Eugenia Napoleon baino askoz ere gazteago izanik (areago omen zirudien beraren alaba, emaztea baino), “Eugenia la española” hartu bide zituen erremalak bere eskuetan alor batzuetan, batere ahalkerik gabe. Eta berak agintzen bide zuen irmo Parisko Gortean. Gupida, beraz, zergatik? Utikan! Karlista naiz, baina erregezalea ez.

Harridura muzin bat sumatu dut Garaziren aurpegian.

Jauregi zuri-gorriaz haratago, iparralderantz joaki, itsas labarrean dorre borobil lerdin bat zegoen gailen (berrogeitaka metro gora, gerora jakingo nuenez); eta muturrean farola bat. Miarritzeko itsasargia.

—Eta hori dea Milafrangatik ñir-ñirka ikusten duguna?

—Horixe, bai. Geroxeago piztuko dute. Ikusiko.

Hondartzan jende pila zegoen; geldirik batzuk, pasieran beste asko.

Inor ez mainu arropan, gaizki ez banago. Ez mainua aurki hartzekotan; eta ez mainua hartu berritan. Osasunaren aldetik, berantegi omen arrastiri garaian. Osteek bazkal aurrean hartu ohi zuten zehazki neurtutako bustialdia.

Kale janzkeran, emakume asko eta asko, hamaika koloretako guardasolak eskutan zeramatzatelarik; eta hondar gogor eta bustiko alderdian plaia nabartuz, alfer itxuran denak: gizasemeak eta andereak, umeak eta inudeak.

Atzealdeko ezpondan, berriz, belar izpi bakanen arri-muan, beste lagun mordo bat geldi; berauek ere norarik gabeko begira funsgabeen. Zutik batzuk, lastozko kape-luak buruetan. Aulkitan eserita ere bai beste multzo bat. “Dolce far niente” delakoan ezertan ari ez zirelarik.

“Villa Eugénie”ren inguruetan, ezer ez. Jauregiaren aurrealdean, hiru uhartetxo, hiru harkaitz hobe: *Roche Plate*, *Roche Ronde* eta *La Frégate*. Eugénieren gustuko izendapenak bai. Baina... “l’Impératrice n’est plus là. Vous comprenez? On est devenu des orphelins”.

Izan, Miarritze ez zen jadanik, “Belle Epoque”ko Kantauriko Oostende hura.

—Zer deritzozu, Garazi? Miarritze ikusia duzu orain-goan.

—Zer deritzodan?

Eta gogoetan apur batez luzatu ondoren:

—Paraje idorra iruditzen zait; eta jauntxo-aldra horiek... asper itxura dutela. Hitz batez: Milafrangako inguruak nahiago: teilatu trianguluaire erpin eta bakarreko eliza zahar hura, inguruan milafrangarrek bakarrik ezagutu zituzten herrikide xumeen oroitarri borobilak... Jende prestua!

“Aldapan gorako bidesketan, berriz, zenbait baserri, igandekari erabiltzen den frontoia, Larraldeko gatzarrietan, beherean, langile xume batzuk lanean, Errobiko urak

beti ere xuxmurruan itsasorat ari... Zertarako espanturik eta handi-mandirik? Ez ditugu behar.

Iruzkina lotsagabe honek txundituta utzi ninduen.

Nahasia zegoen itsasoa. Itsas hegiko aparrezko marretan, tiraina antzematen zen. Iraileko garaian Donostian ere antzematen dugun bezala.

–Eguraldi eder honek ez du luzaz iraungo, Garazi. Zergatik ez gara, luzatu gabe, horrantz abiatzen? Biok elkarrekin ikustea gustatuko litzaidake.

Eta azkon bat zeukan zurezko letrero bat erakutsi nion: “*Vers le Rocher de la Vierge. Aller-retour: 30 minutes*”.

Bertako talaia inguratuz hurbildu ginen. Olatuek oso gogor jotzen zuten, eta apar xirimolak oso goraino eguratsa hezetasunez eta kresal-usainez betetzen. Ama Birjinaren imajina bera ere, burdinazko zubiaz bestaldean, bitsezko lanbrotan agertzen zen tarteka.

–Beldurgarri dago, Koxemai –bere aurpegi bustia ia-ia neureaz ukituz, eta bere mokanesaz lehortzen zuelarik.

–Ezin gaur bertaraino joan, ez. Zoritxarrez!

–Hobe hola, bai. Ez nintzateke ausartuko ere. Ni ez naiz batere itsastarra. *Konprenitzen duzia?*

Kostaldea ozta-ozta sumà zitekeen, tarteka, olatu mehatxatzaileez haruntzago.

–Eta orain, beste galdera bat egitea barkatuko didazu? Zuk dena baitakizu... Noizez geroztik dago hor imajina hori?

–Jakintsuarena eta abar, otoi! Oraintsu arte ez nekien hori ere –erantzun nion deplauki–. Baina lehengo egunean, hona etorriko ginela alde zurretik igarri banu bezalaxe, liburu batean irakurri nuen. Imajina, zubitxo, tunela, ez dira oso aspaldikoak.



“Imajina orain dela 16 urte ezarri omen zuten Kukur-lon uharte-arroka honetxen gainean. Eta geroztik hortxe dago, beraz, tinko. Lanak burutzerakoan zulatu zuten har-kaitz honetxen tontorrean. Eta hortxe gainditu du makina bat ekaitz.

“Geure eskuinean dugun ‘Roche Percée’aren ondoko Gamarraitzeko bideska xarmant hori ere, garai berekoa da. Txoko exkutu hauek... maiteminduen paradisua!

Haria galdua bide zuen Garazik:

–Eta gure gain-gainean ditugun horma arrasto zahar horiek zer dira?

–Atzodanik dakit...! Bene-benetan. Oso oso aspaldikoak omen dira. Ferragusen gazteluaren hondakinak omen dira, eta XIII. mendekoak. Miarritzeko arrastorik zaharrenak, beraz, zalantzarik batere gabe. Baina erraustu egin nahi dituztela diote.

–Bada, penagarria litzateke!

Gure aurrexean lehertu den olatutzar batek, harrapatu egin gaitu ia-ia.

–Goazen atzerago...! Kontu asko dakizu, Koxemai. Erruz ikasi dut zurekin arratsalde honetan. Benetan!

Eta, zoriondu nahiz agian, eskua estutu dit bereetan:

–Hemendik hamar bat kilometrora dagoen herri batekoa izan arren, deusik ez nekien gauza horietaz.

–Bada, esana dizut... Neronek ere ez! Atzo jakin nituen denak. Ez nizun hau aitortu behar, zozo honek; eta horretara zure aurrean... dotoreago agertu.

“Baina... lehengoan zuri esan ahal izateko ikasi ditudala aitortzen dizut, jator eta tolesturarik gabe. Zure ondoan ezagutu ditut inguru hauek. Eta horrek du munta niretzat. Zure ondoan ikusi ditudala, eta itsaso bortitzak de-

na astintzen zuen arratsalde epel batez. Ez zait sekula ahaztuko.

–Niri ere ez. Zinez! Aparta izan da arratsaldea.

Eta lepoaren atzetik nik Garazi helduta, sekula amaitu behar ez zukeen musu bat eman nion. Neure ahoaren gainean neukan berarena:

–Ezpain zoragarri horiek... gazi-gazi dauzkazu gaur, Garazi; arrunt heze. Bitxi da. Itsas kutsua darizu.

–Eta hori txarra dea?

–Txarra hori? Hezetasun hozkirri honetan, inoiz baino kilikagarriago zaude.

Hori entzutean irribarre egin zuen, izuti.

–Han, urruti hartan –esan nion orduan, bideskan gelditurik, eta mendebaldera biok begira–, gaur ongi bereizten ez den eskualde hartan, Donostia dago. Eta ni hantxe bizi naiz... Edo...

–Zer duzu?

–Ezer ez.

–Zer duzu?

–Ez dakidala noiz ikusiko dudan berriz. Hantxe bizi izan naiz gaur arte, hori bai. Baina gaur... Baionan bizi naiz!

Isilik egon ginen memento batez.

–Donostia ikusten dea, beraz?

–Ez. Gaur ez. Jaizkibel sumatzen dut, ilunago. Eta Matxitxakoko lumaturra ere bai, atzerago; luze-luzea itsasoan barrena... Badakidalako sumatzen ditut... Baina gaur Igeldo, Urgull, Ulia, ez dira ageri. Beste batean erakutsiko dizkizut.

–Pena da.

–Nik ere ez dut Donostia ikusten. Ez pentsa. Baina ikusi nahiak... sumatzera eramaten nau. Edo hori sinestera bederen...

–Hotzak nago, Koxemai.

Gainean neraman txamarra eskaini nion:

–Iraileko arratsaldeak labur, eta ilunabarrak hozkirri, omen.

–Egia da. Txamarra hau (zure usaintxo berezia daraman txamarra hau, gainera!) –irriño batez– niri utzita, hoztu egingo zara orain. Kasu!

Seguruago sentitu naiz:

–Ez nago hotzak. Ez naiz batere hozpera izan. Eta gaur, eta horiek entzunda... are gutxiago. Lasai. Zure ondoan ni hoztuko?

–Ibili egingo gara, nahi baduzu.

–Bai. Goazen fite-fite.

Eta besotik tiraka, ni eramateko keinua egin zuen. Port-Vieux-ren gainean, elkargainka gisa pilaturik, etxetxo txuriak agertzen ziren gure aurrean; gehien-gehiene-tan leihoak berde.

Geure barruak berotzekotan, olana lodi batek babes-ten zuen hondartza txikiaren gaineko kafetegian txokolate bana hartzea proposatu diot:

–Eskonfarik gabe, zoritxarrez! –nik.

–“Zer” gabe esan duzu? Askonfa zer?

–Ezer ez. Zozokeria bat izan da. Ez gaude Donostian.

Propio egur puska ezalitateko bidetxidoretan gora eta behera, talaia inguratuz joan gara hiribarne aldera.

Lehendabizi Basta arroka pasa dugu. Eta aurrerago, Gamarritez harago, “Grande Plage” delakora iritsi gara. Hondartzaren gainean, eskuin aldean genuen berriro “Bains Napoléon” izeneko mainu-etxetzarra.

Itsas faroa; dorrea, alegia, zuria, borobila, lerdena, hasia zen jadanik bere errainu jirakor bikuna bazterretara hedatzen.

–Hara ere joan nahi nukeen, ba –esan du Garazik–. “Chambre d’Amour” delako hori, oso leku polita omen da. Baina berandutu egin zaigu.

–Berandu? –galdetu dut, erantzuna nahi ez banuen ere–. Ez dut uste. Gehien-gehienez hogei minututan egon gaitezke han. Egunargiz.

–Uste duzia?

–Ziur! Oso nekatuta ez bazaude behintzat.

–Nekatuta ni ez. Baina...

Eguzkiak bere azkeneko izpiak helarazten zizkigun, egunaren amaierari datxekion malenkoni une iheskorrean. Eta itsasargitikako dirdirek aldizka argitzen zituzten Miarritzeko etxeak... Arrobiko farolak ere Donostiako etxe berriak pirrintaka argitzen dituen bezalaxe.

Baina Donostia behin eta berriz aipatu-behar horretan aspergarri eta temati ager beldurrez, ez diot esan.

Labarretik goiko zelairaino zetorkigun itsas orroa, gero eta burrunbatsuagoa zen.

Xibertatik aitzina, berriz, gero eta ikuskaitzago, Capbretongo farolak egiten zigun keinu urrunean. Oraino haratago, Landetako hondartza azkengabea, gero eta nekezago ikus genezakeen.

Eseri egin ginen lurrean dorre zuriaren inguruko belazean. Beherean, itsasoa gero eta ilunago agertzen.

Itsas orro trinko kezkarri hartan, ez genuen txintik ateratzen: ez berak, ez nik.

–Hortxe, Garazi, behere horretan, “La Chambre d’Amour” famatu hori dago. Ezagutzen al duzu izendapen harrigarri horren istoria?

Ez zekiela, eta bazuela aspaldidanik izen bitxi horren gakoa ezagutzeko gogoia.

–Ba, begira... laburki azaltzen saiatuko natzaizu.

“Orain dela urte asko, orai dela *anitz urte* (zuk esaten duzun bezala esatekotan), zu eta ni bezalako bi ‘amoros’ etorri omen ziren behin hondartza honetara.

“Beren amodioan beste denaz ahazturik, labar honetako haitzulo luze sakon batean sartu omen ziren; gero eta barrurago, gero eta urrutirago. Artean gora egin zuen itsasoak, eta kobazulorako sarbidea kukutu. Irten ezin.

“Eta bertan ito omen ziren maiteminak jotako neska-mutilak”...

–Egia dea? –berak niri galde.

–Ez dakit. Baina horixe esaten du Miarritzeko istorio famatu horrek. Eta horretan funtsatzen da “Amorosen Ganberaren” izen bitxi hori.

Pentsakor geratu zen Garazi.

–Polita da istorioa. Oso polita!

Eskua hartu nion. Izoztuta zeukan.

–Garazi: maite zaitut.

Ez zidan ezertxo ere erantzun. Baina handik pixka batera, galdera hau egin zidan:

–Zer ordu ote da, Koxemai?

Haga luze baten muturrean gar urdin iraunkor bat zerraman zaindari batek, banan-banan piztu zituen inguruetako farolak oro.

–Zer axola? Ez dakit.

–Ez, ez. Osotara ilundu da. Zer ordu ote da? Ez gaude gu arestian azaldu duzun haitzulo berean... baina... antzera! Bi txoro gu ere! Berandutu eginen zaigula iruditzen zait.

–Berdin da hori, Garazi. Gaurko egun hau... desberdina da!

–Berdin ez da. Eta, gainera, Herausterriko geltokiraino joan behar dugu aurrenik. Pentsa! Goazen fite!

Eta abiatu egin ginen.

Eta berehala, antzina “Errotaldea” omen zeritzon “Côte de l’Impératrice” delakoaren ondotik pasatzerakoan, lehenengo tanto lodiak erori dira. Eta oso azkar, erauntsi gaitza mamitu. Eta, konturatu orduko, gu biok, blai.

–Ce n’est pas la peine d’aller jusqu’à la Gare de la Nègresse –esan digute Miarritzen–. Oh, les amoureux! –irribarre gaiztoz–. Que c’est beau l’amour!

–Futxo! –bota dio Garazik–. Aski da!

Erabat kezkatuta zegoen:

–Zer eginen orain? Zer kontatuko diet nik etxekoei...?

Jakina: zu bakarrik bizi zara. Ni ez. Eta Baionaraino joanda ere, Milafrangara gero, nola? Oinez? Gurdiz? Karrosaz? Milafrangara joateko...? Otoi! *Baño* ere ez dugu atxemanen!

Euria erruz ari zuen gainera, atertu gabe.

–Nirekin gelditu beharko duzu, Garazi... –nik eztenka nahian.

–Ez dut batere gogorik txantxetarako. Ez dakit zer asmatuko dudan... badakizu? Beraz, otoi, ixo!

–Vous trouverez bien une chambre du côté du Port-Vieux –esan digu andere batek, gure egoera berehalaxe ulertuta.

–Ez dugu ezer ere afalduko, hor nonbait?

–Ez!!

Golkotxora iritsi orduko, gaua zen. Eta euri jakas ez zuen atertzen. Hain zuzen, urrunean trumoia jotzen hasia zela zirudien.

–Deux chambres à un lit, s’il vous plait? –galdetu du Garazik.

–Deux?

–Deux chambres à un lit, oui!

Haserre antzean erantzun dio Garazik, eta nabarmenki kezkatuta.

Begirada adierazgarri batez ikertu gaitu orduan ostalariak goitik behera.

Garaziren motots harro borobila, lehenago tente ego-na, blai bustita, desitxuratuta zetzan buruan; eta lepoaren gaineko ttonttor xarmangarri izandako hura, narrastuta agertzen.

Eta, ostalariak berak lagunduta, nor bere gelara joan gara; elkarren ondoko gela banatarra.

Ezin nuen hura sinetsi.

Garaziren ezinegona ulertzen nuen. Jakina.

Baina “gure lehenengo gaua” era hartara pasa beharra... ez nuen onartzen. Barregarri ikusten nuen neure burua:

–Ez dik hau inortxok ere sinetsiko!

Eta haren atean jo dut neure eri-punttez, polliki-polliki; inortxok ere ez entzuteko moduan.

–Ireki atea, Garazi –ahapeka.

Erantzunik ez. Berriro jo dut isil-isilik:

–Entzuten duzu, Garazi?

Erantzunik ez. Itsas orroa bakarrik.

Porrot hura irentsi nahi ez. Baina... zer egingo?

Hots, korridore ilun hartan zer ari ote nintzen ezin disimulaturik, eta esperantzarik gabe etsitzen hasia nintzelarik, atea zabaldu da:

–Ez nizun borta zabaldu behar... Pasa! Isilik!

Arratsaldean jantzita zeraman gona ilun lodi zabala, blai, erantzita zeukan, eta gako batetik zintzilik. Barruko gona larrosa, berriz, jantzita.

–Zer nahi duzu orain? Istilu galantean sartu nauzu!  
*Etxetik kasatuko nu aitak.* Ene! Eta dena...

–Dena, zer?

–Dena zozokeria bategatik.

Petrolioizko lanpari eztarria mintzeko adinako kiratsa zerion.

Ohean eseri gara bi-biok. Bere eskuak neuretan hartu ditut:

–Garazi: lehen, itsas labarraren gaineko zelaitxoan esan dizudana, egia hutsa da. Tematuta naukazu erabat... Maite zaitut.

Itsas orroak ez bestek urratzen zuen isilunea, mingarri zitzaidan.

–Zer diozu, Garazi?

–Nik... nik ere *maite zitut*, Koxemai. Horrela ez balitz, ez nintzen gaur zurekin Miarritzera etorriko; eta are guxtiago ordu honetan borta hori zabalduko.

Bat-batean, ohe gainean elkarren ondoan etzanda geundela erreparatu dut, eta odolak beldurtzeko moduan zirakidala. Eta musu ilara amaigabe hark besterik eskatzen zuela. Eta neure ezkerreko eskua, gona larrosaren baradera arina gainditurik, erdi aldera eraman dudala.

Ikusten ez nuen Garaziren galtzañoa ezinago leuna iruditu zait, labaina; eta beroa, oso beroa.

–Hola ez! –entzun diot orduan arrangura doinu etsian–. Hola ez, otoi!

Eta nire eskua handik bereaz bultzatuz, urruntzen saiatzen ari zela:

–Zergatik ez? –nik.

–Gero zer?



Uhin hormatu batek harrapatu du ene gorputz osoa, eta aurrerago joateko gogoia eta gaitasuna bera ezabatu ditu bat-batean.

—Joan zaitez, Koxemai, zeure gelara... Hobe izanen dugu. *Zoazi, otoi!*

Eta masailan eman dit haur-musu xalo bat, laburra, lizunik gabea:

—Hori gabe ere, izanen dut nik bihar, eta ondoko egunotan, katramila frango. Barka, Koxemai... Baina, gau on! Ez nion ezertxo ere erantzun, eta joan egin nintzen.

Ez nuen minutu batez ere lo egin gau guztian. Itas orroa entzuten nuen etengabe.

—Hau marka! —neurekiko—. Irudi berak, zotin berak, erregu berak, neure oroimenean behin eta berriz errepikatzen... eta “hola ez!!” hits hura, gailen. Ezezko borobila...! Hura bai gau luzea...!

... Hots, egunsentia leihotik sumatzen hasten zelarik... neure barruan ere halako goiztiri berri bat zabaltzen zela nabaritu nuen:

—“Gero, zer?”... Egia du Garazik! Eta ni txotxoloa besterik ez!

Eta gizaseme heldu bati dagokion erabaki sendoa hartzeko beharra sentitu nuen.

“Hola ez!” idor krudel hark eraman ninduen zentzatu beharrera. Hauxe zen egia. Ene aitak berak, nik orain dudan adin honetarako, bere hautu nagusia egina baitzuen.

Gaurtxe amaitu zait gaztaroa. Gaurtxe, “Port Vieux”ko ostatu apal horretan suntsitu da Putzu gaztea.

Eta aurrerakoan, bai Garazi eta bai neure burua, beste modu batera begiratzeko unea iritsia zitzaidala ulertu nuen.

## XXX

1879ko maiatzaren 21ean ezkondu ginen, eguratsa lore urrinez eta txori-txioz mukurru agertzen zen larunbat dirdaitsu batean.

“Fakzioko” zerrendetan 1876an nire izena agerturik, Donostia aldera azaltzea arrisku larria izango zela sinetsi nuen. Eta Landetan hila zen osaba Praixku bihurtu zen ene tema iraunkorra: “ni neu ere horrela hilko naiz beharbada, atzerrian, Donostiara berriro ezin itzulita”...

Eta Eskualdunen karrikako ene “Moldiztegia” itxuroso joan arren, esku artean orduantxe ahalik eta dirurik gehiena biltzea zuhurrena izango zelakoan; eta, ezinbestean ere, egia esan, neure bizimodua errotik aldatzera deliberaturik, Martxel neure anaiarekin konpondu nituen Putzu kaleko neure partearen salmentaren gorabeherak.

Eta osaba Felipe tarteko eta lekuko eginez, Donostiari agur esatea erabaki nuen. Etsipenez, bai. Baina irmoki.

Eta Baionako gela apurraren ordeztu eta ordainez, etxebizitza txukun bat erosteko hautua egin nuen.

Harresirik gabeko Donostia gora zihoan ziztu bizian. “Bulebar” berri zabala askoz ere kilikagarriagoa zen gure

hautzaroko Putzu kale hertsu zaharra baino. Eta Putzu kaleko seiko goiko gure pisua saltzeko, hitz batez, eta ondoko asteetan jakin nuenez, ez zen arazorik batere egon. “Podían haber perdido más” esan omen zioten osabari.

Etxe hartan aurrerakoan, ordea, eta ene erruaz, senitartekoa ez zen (eta nik sekula ikusia ez nuen) Segoviako jauntxo liberal bat sartu zitzaigula gogoratzea... hori bai... hori oso mingarri zitzaidan, bekatu larria agian.

Arruabarrenatarren etxean, hemendik aurrera, neronen etxebizitzan eta neronen erruaz, gurasoengandik jasotako mundu txiki hartan, aurrerakoan... Munilla izeneko erdaldun arrotz hura biziko zela pentsatzeak, eta Munilla izeneko neskatilak eta mutikoak haziko zirela han, eskailera berean, soto berean... eta neronen etxeko atean nik inoiz jotzekotan, agian, nork daki... jo eta...

Buruko mina ematen zidan burutazio mingots honek. Hauxe da egia. Eta damua sentitzen hasi nintzen; gero eta maizago, gero eta biziagoa.

Baina gure amak berak esan ohi zuen bezala: “Damua garaiz!”. Berantegi.

Eta aurrera ez bestera begiratzea erabaki nuen.

Aldatu egin nahi nuen dena, eten egin nahi nuen, berriro hasi. Eta gerlako gertakari hitsak eta tristeak oro, atzean utzi. Eta gero, azpian. Eta gero azpi horren azpian. Eta gero (agian bai!) osotara ahortzi, ehortzi, ezabatu.

Baiona Ttipian erosi nuen etxebizitza bat. Itsas Etorbidean, hegi-hegian, Aturri ibaiaren ibar ezkerrean, hirugarren solairu batean.

Ezkerretan Santizpirituko zubi luzeaz bestaldean, baina ia-ia aurrez aurreraino, oso ongi ikus nezakeen “gure” etxetik trenaren geltoki luzea. Eta beronen gibelean, eta

gain-gainean ere bai, muinoaren ttonttorrean, Gaztelu-Kaserna zaharra.

Mendebalak jotzen zuenean, kresalaren gazia usain nezakeen. Hori uste nuen bederen...

Eta gure eztei-bidaian Cauterets herrira joatea erabaki genuen. Garazik ba omen zuen txikitandik Ahuñemendi-ko mendi garaiak, eta urte osoan barrena elurpean egon ohi diren gailurrak, bertatik ezagutzeko gogo bizia.

Cauterets-eraino bereraino trenbiderik oraindik ez zegoela-ta, trenez Lurderaino joatea erabaki genuen; eta, handik gero, Argelès eta Pierrefittetik, lau zaldi pertxeroik tiratzen zituzten “oso karroza dotore eta erosotan” (propagandak azaltzen zuenez), Cauterets-eraino iritsi.

Eguraldiaz ez kezkatzeko segurtatu ziguten: inguruko gailurrak zuri topatuko genituela, hori bai. Baina Cauterets bera ezetz: hozkirri bai, goizetan batez ere; baina eguerdirako, epel.

Eta horrelaxe abiatu ginen Baionatik, bi astetan gure arimek eta gure gorputzek (hauek eta haiek batera, ongi esan dut), goiz eta arratsalde, irribarre leun egiten zigutelarik, eta ezagutzen ez genituen atsegin erogarrien zantziek esna ere amets eragiten zigutela.

Gutziz famatuak ziren ordurako bai Lurde eta bai Massabielleko harpe miraritsua. Beilari fededunen multzo gaitzak etengabe pilatzen ziren inguruko belazeetan; eta “Ave, Ave, Ave Maria” lelo errepikakorrek taigabe urratzen zituzten mendi mazeletan luzatzen ziren laino txaplatak.

Ez nuen nik batere gogorik Lurden gelditzeko. Baina Garazik, bai. Eta ezkonberri izateak, eta hogeitau urte hartan Soubirous-ko Bernadettek bildutako ospeak, ez zidaten posible egiten, Cauterets-erako bidean, egun batez bede-

ren, han gelditu eta harpe sakratuan kandela eskutan meza bat behintzat ez entzutea.

Eta halaxe egin genuen. Ama Birjina zuri-urdinaren imajina koxkor bat ere, nola ez, bertan bedeinkaturik, handik ekarriz; eta hortxe, Aturrira begira dagoen gelan oso maiz piztuta atxikitzen genituen bi kandelen artean paratuz.

Bederatzi gau pasa genituen Cauteretsen. Eta bederatzi egunotan zehar uxolen burrunba etengabe hura entzun ondoren (eta bederatzi gauetan zehar ere bai; leihoak zabalik egiten baikenuen lo, hotzari jaramonik ez eginik), Cauteretstik etorrira ere, hilabetetan entzun nuen nik ur-burrunba bera.

Alimaleko gailur malkartsu haiek, herrira lerratzeko abian itxuraz, neure barne zolan iltzaturik eraman nituen.

Etxe eta artegi guztietako estalgarri ageri ziren arbel beltzaireek are kutsu tristeagoa ere eransten zioten eskualdeari.

Goizero-goizero, gure zinen lekuko isila izandako ohetik nekez hastanduz, mando aldreï eta gurdiei uko egiten genien. Eta Larraillère-rantz abiatzen ginen oinez, txoko ospeletatik gora.

Polliki-polliki igotzen ginen, Garaziren hatsa neure ondo-ondoan aditzen nuelarik; eta uxolen orroa hazkorrak inguratzen gintuen bitartean.

Geroago, eguerdi irian, *Hôtel du Gave* -ra iritsi eta berehala, bazkaldu egiten genuen ostatuan bertan. Gero losusta luzea, bi-biok berriro zeharo bat eginik. Itzuliño bat egin herriko kaleetatik, Caesar enperadorea mainatu omen zen iturriraino hurbildu, Kasinoan sartu-irtena egin agian, galeriako kafeetako andere dotoreei xeletan begiratu, eta

afaltzera... Eta gelara berriro berehala, inolako alferkeriarik gabe.

Latapie Etorbide Nagusiko ostatu ilara apainek, bati-menduak oro urdinska eta berdintsu, Miarritze gogorarazi zidaten. Eta Larraillèreko geltokiaren aurreko burdinazko arkupeek ere, kioskoa inguratzen zutenek, alde asko eta askotatik, Herausterriko tren geltoki berria ekartzen zidaten gogora.

Orotan aurki baitzitezkeen burdinazko zutabe bertsuak, eta gapiario eta zintzilikario metaliko molde berak.

Donostiako geltoki berria bera ere, egia esan, Urumeaz bestaldekoa, ez zen arrunt desberdina. Den-dena "Second Empire" plegukoa, omen... Moda beti nagusi.

Baina geure harira bihurtuz, Cauteretsen pasatako egunak lantsuak zirenik ezin esan. Azaldua dudanez.

Gauak, berriz... lantsuago: lorik egin ezin!

Beste egun batean, eguna "txango" berezi bat egiteko baliatu behar genuela-ta, lau lagunentzako gurdi batean igo ginen Pont d'Espagneraino malkar beldurgarritan gora. Eta hantxe, bi uxol urtsu eta orrotsu elkartzen diren zubi-gunean, pasa genuen ordu pare gogoangarri bat.

\* \* \*

Egunak joan ziren, arrabotsik gabe. Eta hilabeteak. Eta negua ere bai.

Ez nekien orduan (baina orain bai) arrangurarik-ez huraxe dela zoriona. Garaziren begietan murgiltzen nintzen jator, tolesturarik gabe, inolako ezkutukeriarik gabe; umeak bere amaren begirada bilatzen eta aurkitzen duen bezalaxe.

Baina 1881eko martxo aldean, eguerdietako argitasunean udaberriaren zantzuak sumatzen hasi nintzenean, ilundu egin zen Garaziren zerua; eta, ondorioz, nirea ere bai, eta uste baino azkarkiago.

Hilekoa eten gabe bi urte osoak iraganak zirelarik, medikutara joatea erabaki genuen. Baionako Dr. Dupont ginekologoa hautatu genuen kontsultarako. Eta beraren erantzunak ez zuen zalantzarako xirrikiturik utzi: “Désolé, Madame: vous n’aurez jamais d’enfant”.

Egia aitortzekotan, ez nuen nik garai hartan aita izateko batere joranik. Ez nuen uste, behintzat.

Baina Garaziren ezinak piztu zuen nire nahikundea; eta iratzarritako desira, tema gotor bihurtu zen nigan. Zer esanik ez Garazirengan.

Askotan, ilunabarrean etxetik jaitsi, eta Aturri ertzetik pasean ibiltzerakoan, umeak jostari topatzen genituen, ama gazteen eskutik edo inude janzkerako emakumeen besotan.

Eta lehenengo aldiz erreparatu nuen (nahiz lehenago ere agian gauza bera askotan gertatua izan): Garazi begira gelditzen zitzaiela, eta leunki mintzatzen; eta haur korrikalari haiek, xeru-xeru, barre algaratan hurbiltzen zitzaiela.

Garazik ez zuen deusik esaten. Jakina. Eta nik ere ez. Baina, etxerakoan, elkarrizketarik gabe izaten genuen afa-ria.

Horregatik, apika, eta 1881eko udatik aurrera batez ere, arratsaldeak “Munho-buruia”nean lasai ematekotan, Milafrangara joaten hasi ginen. Errobi barearen ertzetik oinez askotan. Garaziren senitarteko lapurtarrak ere etor-zen ziren normalean; eta gure mahaikide izaten.

Baionako kaskoinkeriez aspertuta, oso pozik joaten nintzen ni Errobi arroko baserritarren arteko bazkari haie-tara. Igandeetan Milafrangara joateko joera, horrela, az-kartu egin zen gure artean.

Baiona-Kanbo trenbide berria “berehala” zabalduko omen zen albistea hedatu zen bazterretan. Milafrangar guztientzat berri ona baitzen, eta guretzat ere bai; Garazi-ren aita, hezueriak azkarki jota, gero eta nekezago ibil-tzen baitzen. Eta Garaziren aitak, azoka egunean behin-tzat, *atsolutuki* baitzuen Baionara nahi.

Hots, Behereartako geltokia aurki prestatu eta irekiko zelakoan, beti aiduru egoten ginen, eta berantetsita ere bai batzuetan.

Garazik, berriz, gero eta maizago aipatzen zituen Zu-beroako bere oroitzapenak. Bere herrira (*Gotáñera*, ale-gia) izuli nahi zuela bide.

Amak partikulazki (Hoki Arhanegoiti bere sortzezko izen-deiturak aipatzekotan), aspaldisko hartan *eñhéric* ze-bilela-ta, bizitzeari eutsiko bazion, eta galdutako indarrak berreskuratuko, maite zituen jendeen hurbiltasuna behar omen zuen. Eta Garazi bere *alhába bakhótxarena* bereziki.

Amak Garazi Gotainen nahi zuen. Eta Garazik berak ere, Zuberoatik gaztetan joana izan arren, erraietan zera-man Gotaineren oroitzapena.

Halako batez, eta Garazik propio eskaturik, ni neu ha-ra joateko eskatu zidan:

—Oraindik ez zara sekula izan nire etxean. Zergatik?  
Urruntasunarena aitzakia hutsa zitzaion.

Eta neure bizieran lehenengo aldiz Mauleraino joan nintzen; eta handik gero, zaldi-karrozaz, minutu batzue-tan, Gotaineraino.



Arhanegoititarren "Arhane" sortetxea ezagutu nuen horrela. Arbelezko teilatuz estalia, elizaren ondo-ondoan dago, aurrealdean harri mokorrez gogortutako zelai-gunetxo baten atzean. Aldamenean dorre gisako etxe kapare bat dago, harri ilun beltzairez eraikia.

Elizak harritu ninduen hasteko. Zuberoan askotan gertatzen omen den bezala, Gotaineko eliz dorrea ere hirukuna da; eta erdikoaren azpian, kokaleku edo babesgune bat dauka; eta bertan kanpai handi bat.

Elizaren inguruan, Milafrangan bezalatsu, kanposantu apalean eta kanpandorre txapal triangeluarraren begipean, herrikoen hilarri mordo bat: Recalt, Casemayou, Duhurburu, Etchegoyhen, Salles, Daguerre irakurri nituen; atzean zegozkiekeen aurpegiak eta ahotsak ezagutzen ez nituelarik.

Urdinarbe eta Muskildi aldean, nolabait azaltzeko, jauregi itxurako etxe zabal bat zegoen; eta, Maule aldera begiratuz, Ühatzandiren artoa ezkerretan utziz, gainalde borobileko frontoi bat, horma bakarrekoa.

Elizaren zoruaren heina iristeko, bost harmaila. Eta aurrean, garaiak hosto gabetua, zuhaitz sendo bat.

Lats urri batek atariaren aurretik bere zurrumurru etenkorra entzunarazi nahian. Eta bake giroa, bake txundigarria, beste mundu batekoa agian. Gotaineko bazter galdu hartan denboraren isuria zinez hormatu bailitzan.

Elizaren hormari itsatsita, kanpandorrera igotzen zen egurrezko eskailera ikusi nuen, zurezko estaldura batez babestua. Eta eliza osoki inguratuz, gapirioak, habeak eta latak ageri, egurrezko aterpearen euskarri. Denen gainean, piramide gisako ganga harro bat.

Gorako karrika harritsuan, berriz, zenbait etxe eder. Harria berez iluna, eta denen gaina beti ere eta salbuespe-

nik gabe arbelezkoa izaki, etxarte ilun beltzairiak misterio kutsua hartzen zuen herri isilean.

—*Hében bízi düzü gure áita* —esan dit orduan Garazik, bere eri-puntez herrixkaren kaxko murrizta seinalatzen zidalarik.

Eta bat-batean bere leinu jatorri ezkutuak ukiturik antza, barkamendu eskatu dit: *Phárka, Koxemai!*

Eta “Arhane” bere familiaren sortetxeraino eraman nau, isisilik. Eta han bere aita eta amari agur eragin dit.

Bat-batean nekez ulertzen nuen Garaziren hizkera. Ustekabean, barru-barrutik, beste emakume bat nagusitu bali-tzaio bezala.

Harrituta nengoen. Inguru hartan, euskal eta nafar haurtzaro guztiak baino lehenago suntsitutako beste Euskal Herri zahar bat piztuta antzeman uste nuen.

Ahulegia, beharbada. Donostiakoa baino aise galkorragoa, batera xingleago eta sakonagoa, batera arrotza eta barne muinetakoa. Beste mundu baten azken lekuko isilagan.

Eta harrigarriro hunkitua nengoela sentitu nuen, eta nigan zerbait hautsia eta berpiztua hazten zela.

Hiru lagun bizi ziren orduan Arhane etxean: Battitta Ameztoi jauna, batetik, abel-tratularia eta Garaziren aita; eta Hoki Arhanegoiti anderea, bestetik, Garaziren ama, eta bertako alaba.

Eta, hirugarrenik, “osaba Claude” maisturu zaharra, orduan bere hirurogeietan. Bere izen ofizialaz Claude Arhanegoiti; oraindik zalu. Gu hara joan ginen egun hartan, hantxe zegoen. Ez baitzen beti kasua; osaba batera eta bestera ibili ohi zelako zurgin lanetan; elizaz eliza batik bat.

Berriki hila zen bestalde Eñaut Arhanegoiti, etxeko hirugarren senidea, 36 urtez Arrokiagako erretora izan

ondoren. Eta bere liburutegi ugaria (apezgo urte luzeetan han eta hemen bildua) Arhane bere sortetxera eramatea agindu zuen bere testamentuan.

Eta hantxe zegoen bai liburu pila, eta kazeta ez gutxi, neronen begiez ikusi ahal izan nuenez. Baina hamaika apaletan hautsetan itsustuak eta ahantziak.

–Ez dakit zer ez nukeen nik emango hori guztia eskuartean izateko –bota nuen.

–Bada, erraza duk –esan zidan aitagarrebak–. Etor-tzea daukak. Garaziren etxea duk hau; eta hirea ere bai, beraz. Badakik.

–*Ber gairá erraiten deiat nik ere* –erantsi zuen Amaginarrebak sukaldetik. Eta bihotzez erantsi zuen. Horrela Garazi ikusteko esperantza handitzen baitzitzaion.

\* \* \*

“Urteak joan, urteak jin”, banatu egin behar izan genituen geure bisitaldiak. Normalean, eta honegatik edo hartatik Baionan bertan gelditzen ez ginenetan, txandaka egiten genituen geure bidaiak: batean Milafrangako Munhoburiara hurbiltzen ginen, eta bestean Gotaineko Arhanera.

Horrela pasatzen genituen igandeetan, bi gauza egiten nituen nik.

Bata, bazkალაurreetan, mendi aldetik ibilketa galantak egin. Eta bestea, zendutako osaba Eñaut ezezagunak utzitako liburuetan murgildu, eta sekulako irakurraldiak burutu. Zer ez dudan nik Gotaineko etxe hartan ikasi!

Liburutan jantzi bakarrik ez, gainera.

Han nengoen egun haietako batean, osaba Claude *maisturia* gertatu zen gurekin. Garai hartan, Hauzeko elizako zureria ari omen zen zaharberitzen eta txukuntzen.

Hots, bazkaritan geundela, hiru urte luzez, Hendaiako *Abadia* gazteluan lan egin zuela kontatu zigun; karlistada hasi baino lehentxeago. 1869an, uste zuenez.

Eta zurtuta utzi gintuen. Astronomilari eta etnologilari ospetsua zen Abadia jaunak, Karlos Setimoren alde lepo-hezurretaraino sartuta, eta Tirso Olazabalekin eskuz esku, 20.000 fusiletako gordelekutzat utzi zuen bere jau-regia. Ezin sinetsia!

–Iskiluak hantxe pilatzen zituzten, eta Espainiara pasatzeko pardeletan prestatzen. Gero “Alar” ontzia inguratzen zen Lohia hondartzara, gazteluaren aurreko arroketan; eta han zamatzen zuten, gauez, neronek ikusi nuenez.

“Nik neuk, beste zuberotar guztiak bezala, ahobatez esaten zuten, sarrera berezia geneukan gazteluan. Hitz batzuk zubereraz Abadia jaunari esan, eta besterik gabe, atea zabalik. “Alar” ontzi kontrabandistaren berri nik izateak, beraz, ez zuen gure jauna batere kezkatu.

Abadia andereak ere bazekien gaueko gorabehera haien berri. Eta, ontzia zamatzerakoan, hain zuzen, piano jotzeari ematen zion; eta horretara gomitatuak ez ziren Lohiako joko ezkutuez jabetzen...

Iskiluak Hendaiatik joan ziren horretara Hondarribira; eta handik Oiartzura eta Lesakara...

Eta nik orduan ezer jakin ez!

–Ez didak esango honen berririk ez heukanik! –esan zidan Arhanegoiti maisturuak, eztenka nahian ere bai, ene ustez–. Alta, eta dakidanez, gerlan ari izana haiz hi urte horietan, baita zaurituta gertatu ere...

–*Etzakizün deusik, osaba* –moztu zuen Garazik.

Interesgarri iruditu zitzaidan istorio hura, eta berriro ere odola irakiten hasten zitzaidala erreparatu nuen:

–Beste euskaldun jator bat borrokan sartua. Aberatsa, jakintsua eta ausarta kasu honetan, eta Parisen bertan errespetatua... Baina... zertarako? Zeren alde eta noren zerbitzutan ari izana?

“Un autre légitimiste français impliqué” prentsa titulua sumatzen nuen jadanik ezer irakurri baino lehenago. Nik beste honetara aurkeztuko nukeena: “Bi puntuzko ondasuntsu, Bidasoaz bi aldeetan mugakide, hendaiarra bata eta irundarra bestea, arma kontrabandotan ari Madrileko gobernua uzkaitezketan”. Baina:

–Ez, Putzu. Ez! –esan nion brauki neure buruari–. Inoiz ez, Putzu! Otoi! Aski izan duk!

Eta ezkerreko izterreko orbaina ukitu nuen, berriro minduta:

–Oraindik ere, oraindik bai, trumoi bezperetan, hama-bi urte joan ondoren ere, nabarmenki minbera. Edo, oraingoan bezala, zerbaitek ene barnea hunkitzen duenean.

Eta oinazeak aspaldian bezala hartzen ninduelarik, ozta-ozta lortu nuen neure madarikazioa osaba Claudek ez entzutea:

–Don Carlos... putza...! Euskaldun borrokakide giza-joak... Gorte arrotz baten txotxongilo!

\* \* \*

Baina 1886 inguruan, Zuberoarako geure bidaiei utzi behar izan genien. Garazi nekatu egiten zen guztiz. Eta ez zen gauza ordura arteko martxari eusteko. Milafrangara joatea, jakina, errazago zitzaigun. Baina Garazik Arhane maite zuen. Eta Munhoburuia, berriz, beti ere arrotz atxematen.

Areago Hoki ene amaginarreba 1887ko urte amaieran hil zenez geroztik. Ameztoi jaunak, ene aitaginarrebak, harrera ezin hobea egiten zidan Arhane enean; eta, oso maiz biok bakarrik eta buruz buru egoten ginenez geroztik, areago.

Oso ongi moldatzen ginen biok. Egia esan.

Ni baino 26 urte zaharragoa zen bera. Baina adinen diferentzia maila horretakoa denean, beste tratu-molde bat sortzen da, sendoagoa, ene ustez.

Zendutako osaba Eñaut apaizaren liburutegian murgiltzen nintzen ni. Eta ganduak mendi mazeletan luzakor bilakatzen ziren arratsaldeetan, kanpoaldeko bake hezeak blaitzen ninduen ni, eta soraiotzen, eta bake malenkonia-tsu beraz kutsatzen.

Miaketa haietako batean ezagutu nuen nik horrela, eta besteak beste, Agosti Xaho zuberotarraren “Voyage en Navarre pendant l’insurrection des Basques” liburu ezin mamitsuagoa.

—Hauxe bilatzen nian nik aspaldidanik —pentsatu nuen—. Hauxe! Euskal Herria bai. Baina errepublikan; eta erregerik eta gorte arrotzik gabe. Eta hemengo euskaldunak eta han-goak, denon etxearen defentsan anaiturik.

Xahozale atxeman nuen neure burua. Bera ere, aurreko gerlakoan (orain dela mende erditsu bat!), Karlos Setimoren aitonaren aldeko bolondresekin kokatu baitzen, bere iskiluak eta guzti. Ni bezalaxe, beraz!

Baina matxinatutako nafartarrak zituen hark gogoan eta lehiakide. Ez Madrileko edo Veneziako korteliant aspertuak. Eta ez Alfonsoren ez Carlosen jauntxorik Euskal Herriko agintean jartzeko asmo erorik.

Txundituta utzi ninduen hitz batez, eta neure izatearen hondoraino astindurik. Bestek ere sumatua zuen, ikusi

nuenez, nik baino aise lehenago, Euskal Herriaren jaregintza ez zela tronu arrotz baten gorabeheretan erabakiko.

Eta aurkikunde honen ondorioak ez dira oraindik nigan ahitu.

Hango *üskara* entzuteagatik ere, bestalde, Donostian azkeneko boladan baino maizago joaten nintzen mezarara Gotainen.

Aita Haranederren prediku oparoak entzuten nituen pozkariotan, ni fededuna gaur izan ez arren. Baina ene euskal belarria piztu egiten zen, eta neure etsipen osoaren amaia sumatzen nuen.

Agian bai!

Baina ondoko asteetan gauzatu zen gertakari latzak dena dardarazi zuen.

## XXXI

Gero eta ahulago antzematen nuen nik Garazi. Gero eta jangartsuago, gero eta isilago ere bai.

Beraren eztulaldiak, itobeharrez ezintasunean oratuak, gero eta beldurgarriago zitzaizkidan.

Eta 1891ko urtarrilaren 10ean, goiz hotz batez, Aturri ibaia ozta-ozta ikus zitekeelarik, hil egin zen.

Gainbeheraldi luze tristagarri hartan nik deusik ezin eginik, umezurtz sentitu nintzen zinez. Eta sekula baino jasangaitzago bihurtu zitzaidan urtarrila. Barne hutsunetik ihes egin nahiz, oso goiz joaten nintzen Eskualdunen karrikako moldiztegira. Eta ahantzi-behar eta ezin hartan, bihotz osoaz murgiltzen nintzen neure lanean.

Hobekuntza tekniko batzuk ere saiatu nituen, fotograbatua barne. Eta nire inprimakinak gero eta itxura hobean lortzen nituen.

Baina etxera joan eta, Aturri gaineko gandu luzakorretako bakardade hartan, ezin etsi.

Gero eta bertagotik entzuten bide nituen aurrealdeko trenen txistukada zorrotz eta etsiak; eta gero eta bukagaitzago antzematen.



—Berrogeita bat urte besterik ez dituk —nioen neure artean—. Zer egingo duk munduan hemendik aurrera?

Ez nekien.

Hala ere, udaberriarekin batera iritsi zen bizi-nahia. Eta, epeltasuna lagun, bizkortu egin nintzen; eta funtsezko erabaki bat hartu nuen: “Donostiara!”.

Hamabost urte joanak ziren gerratea amaitu zenez geroztik. Eta arriskurik gabe etxeraino hurbil nintekeela iruditu zitzaidan.

Itzulera horrek, dena dela, halako kezka edo zalantza sortzen zuen nigan.

Baina Baionan egotea ere, oro har, inor gurutzatu gabe, eta inorako eta ezertarako gogorik gabe, zentzugabekeria zitzaidan.

Eta ekainean, Sanjuanetako ospaketak baino zenbait egun lehenago, Hendaia-Irun mugan Espainiarako trenea hartu, eta Donostiarantz abiatu nintzen.

Barne estualdiak gainditzen ninduela egin nituen hogeik kilometroak, eta geltokien ilara amaitzen ez bide zelarik. Eta Donostiara iristean, Urumea gurutzatu eta Putzu kalera hurbildu nintzen.

Banekien jakina, umetango “La Baratza” belazea, Lehorreko Atea eta Plaza Zaharreko Lehoia desagertuak zirela. Nola ez? Beren itxura berrian ikusiak nituen inguru horiek gerlara joan baino lehenago. Neure gela, bide bereetik, Putzu kalean ez baina Bulebarrean zegoela banekien jakin. Noski! Etxetik alde egitean horrelaxe zegoen eta.

Baina murrutzar luzea, eta arrain usaineko putzua, eta kasernaren ondo-ondoan burdinazko lehoia (etengabe ahotik ura zeriola!) etxe ondoan ez aurkitzeak, harritu egin ninduen. Tristatu agian, edo horrelako zerbait....

Gure dendara sartu naiz, horretara, eta labore eta pensu usain bera aditu:

–Hauxe bai –pentsatu dut.

–Kaixo Joxemai! –bota dit orduan ozenki, aspaldidantik gurutzatzen ez nuen Tomax Soroeta nire koinatuak; Kaxilda arrebaren gizonak, alegia–. Hau sospresa, motel! Motel! Nola ez diguk aurretik kasu egin?

–Bada... herorrek esan duk. Sospresa! Sospresa nahi nizuen eman.

–Eta... egia esan –baina hitzak aurkitzen ez zituela– nola habil, gizon! Ongi hago, itxura onean. Nik neuk berdin harrapatzen haut... Garaziren galeraz ohitzen hasi?

Eta esaldi horrek zauskada latza eman dit bere luzera osoan.

Eta ez diot ezer erantzun. Zer esango?

Kaxildaren galde egin diot:

–Orain ez zegok hemen; baina geroxeago ikusiko duk. Arrastiri aurreko ordu epel hauetan (eta ama prestu bati dagokionez!) hiru umeak Santa Maria elizaren ondoko eskolan jaso; eta, pitin bat ibilita, hondartza aldera joan ohi duk ilundu arte.

“Areago, gaur bezala, azkeneko eskola-egunak direnean...

“Ilobak, gainera, eta gaizki ez banago, ez dituk oraindik ezagutzen. Ez da hala? Mutil bat, Tomax, ene izenki-dea, bere bederatzi urteetan; eta bi neskak: Jexuxa, zaharrena, hamar urte; eta Brijida, zazpi.

–Horrela duk, bai. Ez ditiat ezagutzen.

–Oso zalapartari zeudek; Jexuxa batez ere. Eta tarteka, artatzea lantsu gertatzen. Baina maitagarriak dituk. Ni behintzat oso pozik nagok. Aldatu egin ditek etxea, eta

geronen biziera eta jarrera ere bai. Eta aberastu egin gaitiztek, eta sentiberago egin.

“Baina hemengoak gure, zertan hago hi? Zer egin nahi duk? Zer asmotan etorri haiz?”

–Oraindik ez zekiat. Hain zuzen, giro berri hau dastatzera etorri nauk. Eta oraingoan, hiruzpalau egun besterik ez diat hemen egingo.

–Joxemai: faborez! mesedez! Guregatik egon hadi hemen nahi duan denbora guztian. Hau hire etxea izan duk... eta duk orain ere!

–Mila esker, benetan.

–Ez duk lehengo gure etxea, jakina. Baina Munilla jauna... badakik. Ez duk donostiarra. Gizon prestua duk, isila. Emaztea duk, beharbada, “garbosoegi”, nolazpait esateko. Baina hirugarren solairuan bizi denez, ez zegok berarekin harreman esturik. Eta arazorik ere ez.

–Eta... Martxel? Ez baitut ikusten!

–Ez al dakik? Martxel Mutrikura joan duk bizitzera. Arrantzaleentzako sare, eskalapoi, xira eta abarren salmentan saiatzen duk sozio batekin; eta pozik bizi omen duk itsas giro horretan.

Kontuak egin ditut berriro isil-isilik: 1873 / 1891:

–Hemezortzi urte joan dituk, Joxemai –esan diot neure buruari–. Hemezortzi. Zer nahi duk, beraz, gertatzea?

Eta Putzu kaleko gure denda erakutsi dit.

–Berdintsu?

–Tira! Denda... antzera. Baina bulebar anpurus hau...

–Hi joaterakoan ere, gaizki ez banago, honelatsu zegoan. Ez al haiz gogoratzen?

Lipar batez pentsakor gelditu naiz:

–Bai. Horrelatsu zegoan... Baina nik...

–Hik, zer?

–Ez, ez. Ezer ez.

Etxe aurreko harresi zahar itsusiaz oroitzen nintzela esan behar niokeen. Baina ez diot ezer esan.

–Joan hadi heure kasa itzuli bat egitera. Eta gero, afal-tzerakoan, Kaxilda eta haurrak aurrean ditugularik, lasaia-go mintzatuko gaituk.

–Hori egingo diat, bai –erantzun diot–. Eta osaba Felipe ikustera ere hurbilduko nauk San Bizenteraino.

–Horixe! Osaba hortxe zegok, bai, tinko. Hogeitaka urte honetan ez duk mugitu. Parrokia berean zegok beti, eta hortxe aurkituko duk.

–Nola dago osasunez? –galdetu diot.

–Gutziz ongi. Harritzekoa duk. Zenbat urte ditu?

–Egon...! Bada... 75 ditik orain.

–Bada, buruz pixkor eta soinez zalu. Ahuntzaz esaten dena badakik; eta, bera ere, igeldoarra izanik, astean behin bederen, herriraino joaten duk oinez. Eta abiada onean. Badakik: bera ez omen duk donostiarra, igeldoarra baizik...

–Bai, bai. Bazekiat. Askotan entzun izan zioat.

Kalera irteterakoan, sekulako dendatzar berri bat topatu dut Esnategi kaleko izkinan: “Abalia y Sagastume — Ultramarinos y comestibles finos”.

Eta, osaba Feliperengana joan baino lehenago, Kolko-raino hurbildu behar nuela pentsatu dut.

Hura aldaketa!

Plaza Zaharretik irtenda, eskuinetara begiratu, eta sekulako batimendu dotorea topatu dut, txapal eta luzea, Igeldoko harri horiz eraikia. Erdian bi dorretxo lerdan. Donostiari bere gradua emango omen dion “Gran Casino” izenekoa.

Haratago, Loretope aldera, joandakoan abiatua zen beste kasino bat: Matheu-Baldakoa, bere arbelezko teilatuarekin. Eta honen eta Urumearen artean, beste kasino bat: Indorena, Gipuzkoako plazaz bestaldean. Ozta-ozta oroitzen nintzen hauetaz, nahiz joan aurretik, nahitaez, biok ikusiak izan. Arrastorik ez, ordea, neure oroimenean.

–Dotore zaudete –esan diot koinatuari–. Donostia Kasino eskerga besterik ez izango ala?

–Gehi Hernani kalekoa... Erre egin zena: “Kursaal”. Eta abar...

–Alajainkoa!

–Eta, zer nahi duk egitea? Miarritze hartu diagu eredu!

Ez diot ezer ere erantzun. Baina nazka olatu bat sentitu dut, nigan hazten ari.

Loretope-gaineko dorretxoaren eta eliza zaharraren arrastorik ez; eta ondoko “Bikariyo-etxea” apal luzeskarenik ere ez.

Berorien ordeaz, alimaleko tunela zulaturik; eta, ondolan, egundoko lanetan ari, Maria Cristina Espainiako “Reina Regentea” eraikitzen hasia zen jauregi berriaren lehengo hormatzarrak ageri.

Saldias arroka gainean, bestalde, bat-batean konturatu naizenez, kare-fabrikatza ketsua ere desagertua.

–Hau ez duk! –aitortu diot behin eta berriz barru-barrutik neure buruari.

Ondarretako atzealdean, berriz, “Arroka” bi baserriak ia-ia ezkutatuz, sekulako etxetzar bat topatu dut; murrutzar altu luze batez inguratua. Era beronen erdi-erdian gailen, halako estalpe geometriko bat.

–Gartzela berria duk –azaldu dit osaba Felipek arrastoriko gure elkarketa bero mamitsuan–. Bestea, zaharra,

San Telmo ondokoa, desagertu egingo duk aurki; eta prezoz hustuta zegok jadanik. Ez duk erreparatu?

—Ez. Putzu eta Esnategi kaleetatik etorri naiz; “barrutik” nolabait esateko. Eta atzeko inguruak ez ditut ikusi.

—Ba, dagoeneko, presoak Ondarretan zeudek. Ez San Telmoren atzeko zoko hartan. Gogoratzen haiz? Eta tranbian joan zitekek, gainera, Benta Berriraino, Lizarriturri jaunaren fabrika pareraino.

—Alajainkoa! Tranbian?

—Gaur-gaurkoz, zaldi-tranbia duk (kristauak eraman behar direnean); eta mando-tranbia, jeneroa besterik eraman behar ez denean. Bi zamarik tiratzen ditek, eta Plaza Zaharrean egiten dik bira, Hernani kale berrian barrena abiatzeko.

“Baina, kasu!: elektrikoa izango omen duk aurki. Miramar bere jauregi berriaren alderdi hartan, erreginak tranbia elektrikoa nahiago omen dik, aziendak zikinduko duen sistema baino... Donostia oso aurreratua zegok. Zer uste huen ba?

Etorbiderainoko auzo berrian barrena ibili naiz arratsaldean. Eta San Martin auzoa bera ere, zahartuta, zabartuta ere bai, “ukitua” atxeman dut. Gaztañagaren jauregia ere, agur!

—Hau ez duk hura —errepikatzen nion neure buruari.

\* \* \*

Eta, biharamunean, inori inolaz ere hizño bat esango ez niokeen leku bateraino joan naiz: Loiolaraino.

Ez neraman “Joakiñene” rako inolako esperantzarik. Baina...

Bihotza lehertzeaz, haraino iritsi naiz. Eta neure oroi-tzapen ezkutueta etxazpi berean, taberna bera topatu dut. Izena aldatua, ordea: "Bar Anchón".

Neure barne-asaldua ahal bezala disimulatuz, sartu egin naiz bertara:

–Aizu: Bixenta... Bixenta Galdona... ezagutzen duzu? Hemen egiten zuen lan orain dela... urte mordoxka bat!

–Bai, ezagutu bai, noski –erantzun dit gizon sendo bategen-. Baina hura... aspaldian joan zen hemendik!

“Aztarna behintzat bazegok!”, neure artean.

–Iruñera esposatu zen Bixenta, eta han bizi dela uste dut –erantsi du.

–Eta noiz hori?

–Zehatz ez dakit. Baina orain dela hamabost bat urte. Barnea gero eta larriago.

–Nor zara zu? –galdetu dit orduan tabernariak.

–Aspaldiko lagun bat. Donostiarra.

–Bada, hara –jarraitu du-, helbidea ez dakit nik orain. Baina galdetu egingo dut auzoan, nahi baduzu, eta...

–Ez, ez, ez! Laga, otoi! Ez dut behar. Bizi ote zen bederen jakin nahi nuen. Eta hori badakit orain.

Eta irten egin naiz tabernatik.

–Zertarako Bixentaren bizia nik orain korapilatuko eta pozoituko? –neure artean. Pozkarioz ikusiko nukeen, hori bai. Areago neure honetan. Baina ezetz esan nion neure burutazioari. Eta geroztik ez naiz Loiolara itzuli, eta ez itzuliko ere.

Urumea ibaia bare-bare zegoen; eta, aspaldiko denboretan bezalaxe, gabarra bat ikusi nuen. Eta legarrez zama-tzen zuen gizon bakar bat gainean, arrastiri isileko bakar-dadean lanean ari.

–Bixenta! Bixenta Galdona...! –neure artean ari. Beharbada oker hautatu nuen neure patua. Beharbada nire jokabideaz merezi ez bezala sofriarazi nuen... Baina, nolana ere, orain... berantegi.

Dukeen bakea behintzat ez diot nik neure urrutimina goxatzekotan lardaskatuko.

Bakea bederen, Bixenta!

Zer hoberik, bestalde, egun hartako ilunabar eztiaren oroitzapen paregabea neure barne muinetan, ezkutu-ezkutuan, bere hartan betiko atxikitzea baino?



## XXXII

Goizeko zazpiak. Lanerako jaitsia zen Tomax ordurako.

–Bi-biok gosalduko diagu elkarrekin, Joxemai –esan dit Kaxilda arrebak.

Oso gau txarra pasa nuen; eta deplauki aitortu diot. Baina beronek hori eta gehiago sumatu zuen nire itxuran:

–Aurpegi eskasa daukak, Joxemai. Oso. Betzulo nabarmenak dituk.

–Bai –nik–. Ziur.

–Munillaren umeen negar-saio bukagaitzek esnaturik edo?

–Ez, ez. Umeak? Ez diton berek ezeren errurik.

–Zerk, beraz?

–Dena dun... Dena, bai... Hemezortzi urte joan ditun. Eta nik, ondo dakin hau, beti zeukanat “filosofia” merketan “errebelatzeko” joera hori...

–Hori bakarrik?

–Jakina –ni sasi-irmotasunean ari–. Besterik ez zegon, ez.

Ez baitzen egia. Zeren, egia esan, zer daukat nik Donostian gaur egun, bertan atxiki nazakeenik? Donostian ni arrotz... Ezin sinetsia.

Eta, kafesnearekin batera, eguneko prentsa eskuratu dit Kaxildak:

–Hau ez duk osoki hire gustukoa. Bazekiat. Eta gurekoa ere ez, bidenabar. Baina *La Voz de Guipúzcoa* errepublikanoa jasaterik ez zegok; eta *El Fuerista* delako hau erosten diagu aspaldisko honetan.

Eta irakurtzeari ekin diot:

*El Fuerista: periódico católico.* Helbidea: *San Marcial 34, beh.*

–Gaur, bestalde, gai bakarra zeukaagu Donostian, Joxemai: Lizarriturri, bai; Lizarriturri, ez. Lasai letu. Eta hori ere nahi ez baduk, ezer ez. Egun hauetan bakantzetan hago Donostian. Eta kitto! Ez al da hori?

–Bai horixe!

Eta bakarrik utzi nau.

Hots, ganean, eta idazpuru gisa, ohar hau topatu dut: *Con censura eclesiástica.* Eta, beheraxeago, letra larritan, goiburu hirukoitz hau: *¡Cristo vence! ¡Cristo reina! ¡Cristo impera!*

Aurrerago, eta hiru hizkuntzatan segidan, egunkaria-  
ren ideia nagusia, itxuraz: *Si Deus pro nobis, quis contra nos? // Jaungoikoa gure alde izan ezker, ¿nor gure kontra? // Si Dios por nosotros, ¿quién contra nosotros?*

“Alajainkoa! Hori duk hori!”, neure artean.

Nolanahi ere, eta eliza kutsu horrez gain, lehenengo orrialdetik beretik, foruzaletasuna nabarmen ageri zela iruditu zait: “(necesidad de curar) las heridas abiertas en el corazón vascongado con la ley abolitoria de los fueros” irakur baitzitekeen...

Eta nik, hemendik eta handik karlismo borobil eta ofizialaz aseturik, ezari-ezarian, Foruaren eta euskararen de-

fentsa soiletan baineuzkan kokaturik neure bihotza eta neure adimendua; eta ez besterik ezertan.

Eta, hain zuzen ere, eta bide beretik, hauxe jakin behar nuen: bi xede nagusi horietaz, Madrilen Erret aginduz izendatu berria zen Manuel Lizarriturri Etxarri jauna, zer? Alegia, zertan edo nola kokatzen zen?

Eta gogoz irakurri nituen kazetan zetozen azalpenak: “El señor Lizarriturri –zioten– ha declarado que él es de San Sebastián, que aquí ha nacido, que aquí tiene todas sus afecciones, que se halla completamente identificado con el pueblo. Y que se propone prescindir de las diferencias políticas; adoptando como triple divisa de su gestión: imparcialidad, pronta resolución de los asuntos, y observancia de la ley”.

Jela baino hotzago utzi ninduten, ordea, argitzapen horiek. *Kharrúa* baino hotzago, esango zukeen Claude Arhanegoiti ene gotaindar koinatuak.

Madriletik etorritako izendapena, legeztatua bide zen: “A última hora recibíamos la noticia de que ha sido nombrado Alcalde de San Sebastián el Señor Lizarriturri”.

Baina saltsaren gakoa beste albiste honetan bilatu behar zen: “¿Es o no cierto que el Sr. Lizarriturri es francés?”.

Kalera jaitsi, eta *La Voz de Guipúzcoa* erosi nuen. Madrileko Parlamentuko bileraren berri zehatza ematen zuen.

Gogorkien eraso zutenen artean, Fermin Calbetón Blanchon jauntxo donostiarra gailen: “Yo, como fuerista liberal que soy, amo y quiero los Fueros. Pero en concordancia siempre con la idea superior del Estado... Y Lizarriturri no puede ni debe ser alcalde de San Sebastián; porque Lizarriturri, ese industrial felibre galo-español, no es español; sino que es francés. Y un francés no puede

ser concejal ni alcalde de ninguna población española, según el código fundamental que nos rige”.

Higuina gora zetorren nigan. Eta 1891ko uztaileko ondoko egunetan, eztabaida hura ez zen batere leundu. Nik gero eta nazkatuago jarraitzen nituen gorabehera negargarri haiek: “Nosotros sostenemos que Lizariturry ha sido francés o español según las circunstancias”...

Areago, irakurri nuenez: “¿cómo, siendo español, inscribió (en 1885) en el Consulado de Francia a un hijo suyo, varón, como hijo de francés?”... Hura eskandalua Donostiako puntuzkoen artean!

Hots, prentsak berak ondoko aleetan emandako datuen arabera, lege-egoera hau omen zen: “Lizariturry, Manuel, né à Saint-Sébastien en 1842; fils de Jean, né à Saint Jean de Luz; et de Cécile Echary, domiciliée à Saint Sébastien”...

Eta ikertzaileek aurkitu zutenez, hau bide zioen Errejistroak: “Mr. Lizariturry était inscrit sur les tableaux de recensement de la Ville de Saint-Jean-de-Luz sous le numéro 25. Il a été exonéré du service militaire”.

Horra hor bekatu barkagaitzak: Lizariturriren aita donibandarra zela, batetik; lapurtarra. Frantsesa, beraz. Eta, horrez gain, ez zuela soldaduzkarik egin!

Surtara horrelako piztia ustela!

Baina, gauzak horrela, zer izan ote zitekeen nire herri- de jauntxo haien iritziz, nire Garazi gaixoa? Frantsesa...? Ez adarra jo, bederen! –nioen nik neure artean–. Eta Milafrangako eta Gotaineko nire ahaideak ere, zer? “Gabatxoak” berak ere? Futxo!! Eta Calbetón zer da? Nondik etorri da?

Baina, egon: “No sabemos –irakurri nuen beste batean– si el señor Lizariturry será francés, pero estamos convencidos de que merecería serlo. Es de lo más afrancesado que puede encontrarse en la población”. Nork hala?

*El Fuerista-k berak!*

Leporaino nengoen, nazkak gaindituta.

Eta orduan *El Fuerista-k* oso maiz berrargitaratzen zuen otoitza topatu nuen aurreko plauman: *Oración por el XIII Centenario de la Unidad Católica de España*. Eta ohartxo hau segidan: *La institución masónica no puede ni debe existir en un Estado Católico*.

Euskaraz izkiriaturako lerroren bat bederen ote zeterren bilatzen nuen egunero, eta alferrik bilatzen.

Baina uztailaren 19an, eta Donostiatik betiko aldegitoko erabakia hartua neukalarik, poesia hau aurkitu nuen, neure deliberoaren sendogarri:

Loyolará

*Guazen, bai, euskaldunac*

*Loyola ederrera,*

*Aita San Ignaziyo*

*jayo zan echera;*

*esker milla biotzez*

*jaunari ematera,*

*bear ditugun on danac*

*anthen escatzera.*

Kalera irten nintzen. Eta, aurre-aurrean, Ondarreta ezkutatzen zidalarik, bi dorretako Gran Casino berria, hori bezain eskerga, berraurkitu nuen.

Gizaseme eta emakume apainak ilaran hurbiltzen ziren beren gogaikeria hilgarria handi-mandikeriatan estaltzen alferrik saiatzera.

—Lapurtzulo dotore galanta, hi!

Eta uste baino askoz ere tristura txikiagoaz, agur esan nion Donostiari, eta betiko.

## XXXIII

Negua hitsa izan zen enetzat.

Donostiarik gabeko bizimodu berria moldatzen saiatu nintzen. Eta, hein batean bederen, lortu egin nuela esango nuke. Eguberri eguna izan zen latzena, zalantzarik gabe. Baina Gotainen Arhanegoititarrek eskaini zidaten egonaldian, eta festetako giro ximple harrigarri hartan murgildurik, goxatu egin zen nire barnea.

Baionako etxea gertatzen zitzaidan jasangaitz.

Aturri zabalak nik nahi baino maizago hartzen zuen malenkoni kutsu kutsakorra. Eta geltokiko trenen txistukadak, balkoiko ateak ongi hetsita ere, gero eta zorrotzago eta bihotz-erdiragarriago iristen zitzaizkidan. Han bai barkadadea doilor gailentzen!

1892ko abuztuko egunak, ondikotz, llaburtzen nabarmenki hasiak zirelarik, Donostiatikako gutun bat jaso nuen. Letraren tankera ikusita, zalantzarik ez: osaba Feliperengandik zetorren.

—Zer ote?

Zabaldu, eta datari erreparatu diot aurrenik: abuztuaren 14koa.

*“Kaixo iloba maite hori:*

*Datorren igandean “Abraham” Pastoralara, Antoine Abbadie jaunaren eraginez, eta ohituratik at, Donibane Lohitzunen taularatuko dela jakin diagu hemen.*

*Eta bai ni neroni, eta bai Donostiako bi gazte euskaltzale (“bi bizkaitar” esateko erregutu zidatek, donostiarrak izan arren), horra joatekotan gaudek. Horrelako aukera galtzerik ez baitugu. Berak bero-bero zeudek. Baina ni neu areago.*

*Pastoralara Donibaneko frontoian jokatuko denez, onena bertan elkartzea izango duk, ene ustez. Ez gaituk, hitz batez, Baionaraino hurbilduko.*

*Aurki arte.*

*Osaba Felipe”*

Eta badirudi ni ez nintzela jabetu; baina orain arte Ahuñemendiaz hegoaldean soilki ospatu ohi ziren “euskal festak”, gaur egun Bidasoaz honanzko alde honetan ere itsasten hasiak direla.

Hendaiako Abadia Urrustoiko irlandar-zuberotar jaun jakintsu eta aberatsak sustatzen zituen, baita osoki berak ordaintzen ere.

–Eguraldia lagun, ikusgarria izango da –pentsatu nuen–. Eta abuztuan zergatik giroa narrastuko? Agian ez!

Hots, bezperako larunbatean, eta egun osoan neure moldiztegira azaldu ere egin ez nintzela, eta arrastiri epel bikaina mamitzen hasiz zihoalarik, ohiko tren-txistukada luze tristagarriak astindu ninduen Aturriz bestaldetik.

Handik minutu batzuetara etxeko aldaba jo zuten.

Atea ireki, eta hura sospresa:

–*Gai hun, Koxemai! Heben gütiük!*

Aitaginarreba zen, osaba Claude *maistüriak* lagunduta.

Pastoralean mintzatzaile izan ez arren, multxo bat omen zetorren ikusle Gotainetik, dantzari bikain bat barne.

*Aiháltü* gabe zetoze la argitu didate berehala; eta Baionan nonbait zer janik aurkituko genuen segurantzian, kalera irtetea proposatu.

Biharamunean, abuztuaren 21ean, igandekari, trenez joan gara Donibanera.

Dotore apainduta zegoen plaza.

Baina gu frontoira ere hurbildu gara; Pastoralak han jotzekoa baitzen.

Txistulariak eta gaiteroak entzuten ziren karriketetan, eta txapelak gorri eta galtzak zuri jantzitako dantzariak ere bai, erruz, han-hemenka ibiltari.

Mezatarak joan gara hiru gotaintarrok. Elissague jaun erretoarak hitz politikak izan ditu, euskara ederrez, eta euskararen eta tradizioaren alde mintzo. Eta bazkalondora arte agurtu dugu festa.

Hots, berehala, eta elizatik karrikara irten orduko, osaba Felipe eta bere bi giputz "bizkaitarrak" erreparatu ditugu; nork bere euskal bandera "bizkaitar" berria eskutan harroko zeramatelarik.

Seiok elkarrekin bazkalduko genuela erabaki, eta hala egin dugu. Eta handik Herriko Etxerantz abiatu gara.

Udalbatza bere osoan agertu da horretara, hiruretan, eguzki galdatan, Goihenetxe alkatea buru, eta bere kontseilari guztiek inguratuta. Eta eliza aldera abiatu dira denak ilara koloretsuan, txistua eta gaita etengabe lagun, orpo orpo zazpi euskal probintzien banderen ondotik.

Azken batek hesten zuen segizioa, letra gorritz prestatutako izkirio bakar honekin: *Zazpiak Bat*.

Jaun erretoarak zortzi banderak bedeinkatu ditu. Eta eliz atarian, Andoaindik etorritako dantza taldeak (hamabi-



-hamalau urteko muttiko gaztez osatua) ederki dantzatu du ohorezko *Aurrekua*. Eta gero, luze xamar, *Pasena*, *Erreberentzia*, *Ezpata -dantza*, *Brokel-dantza* eta *Makil-dantza*.

Orduan Donostiako Antonio Arzak poetaren txanda izan da:

*Donostiatik nator  
gaur Donibanera,  
lendabizi eskerrak  
hemen ematera;  
ta gero, bihotzetik,  
oihu egitera:  
“Anai jaio giñan ta  
anai hilko gera!”*

–Ezagutzen duka? –galdetu didate neure gotaintarrek.

–Ez diat uste –erantzun diet–. Ni baino gazteagoa da, eta ni aspaldisko joan ninduan Donostiatik!

–Hik ez –moztu du osaba Felipek–. Baina nik bai. Orain bera duk “Euskal Erria” aldizkariaren zuzendaria. Hire jaiotetxearen ondoko “Pepe” Manterola zena hil ondoren, berak hartu dik segida. Eta lan gaitza egiten dik euskararen alde.

Gero Goihenetxe Doktore eta alkatea mintzatu zaigu euskaraz:

–Eskerrak bihurtzen diozkat guzien izenean Murde Abbadieri. Berrogei urte huntan berak begiratzen baitu ne-hork baino hobeki Eskualdunen eskualduntasuna... Berak piztu du gugan geure etorkiaren harrotasuna. ‘*Cantaber nunqua victus*’ zioten aurreko mendeetakoek, *ezin garaitua da Eskualduna*.

“Nahi ginuke ikusi, egun hemen Donibanen egiten duguna egiten, urte guzietan, Eskualdun herririk handiengana; Eskualdunak elgarren ganat bilduz.

“Eskualdun besta handi hauk ederki iragan dire, gure bihotzetan uzten dutelarik oroitzapen bat ezin ahantzizkoa. Eta ahotsa goitituz: “Biba Eskual Herria!”

–Barkamendu orai, otoi –esan du orduan Gohiene-tzek–. Je vais adresser quelques mots en français à notre éminent Mr. d’Abbadie, qui nous honore avec sa présence.

“Grace à vous, Monsieur, notre peuple, aujourd’hui si petit sur cette terre d’Europe, sera peut-être appelé un jour à jouer un grand rôle dans le monde, s’il sait conserver ses qualités natives, son autonomie, son caractère... Cet amour national existe chez nous jusque chez le plus humble de nos paysans...

Eta amaitzean berriz: “Biba Eskual Herria!”

Eta ezin ozenago “Gernikako Arbola” lehertu da mila eztarritan.

Lizarriturriren kontuez oroitu naiz memento horretan, eta Fermin Calbetónez, eta gainerako donoxtiar herriki-deez. Eta goragalea sentitu dut. Goragalea, bai.

Entzuleok hunkituak ginen, eta ni neu ere bai. Oso.

Gero pilota-partida izan da: “eskualdun frantsesek”, “euskaldun espāñulen kontra”... Eta “frantsesek” irabazi dutenez, gu “espāñulok” trixte. Noski!

Baina ni, eta gu, eta bertara hurbildutako oste gaitz hura, Pastoralala hasi zain ginen.

Egundoko segizioak jarraituta (hamabost bat lagun, gutxienez), jaun zahar sendo bat agertu da frontoira. Bere laurogei urteetan bai, nik uste: “Txalo bero bat orain Murde Abbadia agurgarriarendako”, eskatu dute ozenki

oholtzatik. Eta entzuleria osoa batera zutiturik, txalo zarta bukaezina eskaini dio.

Berriro, “lehen pheredikiaren khantorea” hasi aitzin, “Aurrekua” eman dute beraren ohoretan. Baina oraingotan Zuberoatik propio pastoralarekin etorritako xirulak eta ttuntunak jorik, eta pastoral-taldeko dantzari ezinago ari-nek miresgarriri dantzaturik.

Abbadia Urrustoiko jaun gorena loriatua zen.

Oholtzako lau kantoietan, arkabuzero bana, zuri-urdi-nez jantzirik. Eta orduan Pastoralaren aurkezpena egin du kantari nagusiak, “lehen pheredikia” delakoa, launa aha-paldi oholtzaren kantoietan emanez; eta beti ere makilakadak ibil-pausoen gidari, tonu biko melopea berean ari:

*Agur zier, jente hunak,  
salduan beitzide jinik  
hebe guri behatzera  
hala nola aitzinetik.*

–Zer esan du? –galdetu dit osabak–. Ez dut ezertxo ere konprenitu!

–Nola ez? Bai, bai, osaba. Faborez! Hainbestearainokoa ez da!

–Zer, beraz?

–“Agur zuei, jende onak, / multzo gaitzean etorri baitzarete / hona gu entzutera, / aspaldiko denboretan bezalaxe...” Edo horrelako zerbait...

Eta berehala, bere makilatzarraz bere esanak markatzen zituelarik, kantari eutsi dio:

*Bethi begira dezagün  
jei zaharren amodiua,  
hola eginen beitügü  
Üskal Herriaren gerua.*

Tarteka esatariak isildu, eta dantzariak heldu. Oso modu berezi eta harrigarrian. Eta oso-oso aspaldiko oihartzunak hezurretaraino sartzen zitzaizkidala.

Geroago mutiko gaxte bat jarri da oholtzan belauniko, eta, eresi ezinago hunkigarri eta triste batez errepikan, behin eta berriro honetara kantatu du:

*Adoratzen zütiüt Jauna,  
zeliüko eregia;  
zeliaren lüraren eta  
gaiza ororen kreazalia.*

Amaitu ez ahal du, bularraren erdian oinaze bitxi bat agertu zait. Baina berehala joan zait, eta ahantzi ere egin dut. Beharrik! Zer izan ote da? Ez dakit.

Barne muinetaraino nengoen inarrosita. Hori bai.

Behin eta berriz tartekatu dira musika-saioak, bertako koro harrigarriek ezinago hobeki emanak.

Pastorala luzea izan da, oso luzea. Baina ez naiz bate-re aspertu. Nire osaba eta bi “bizkaitarrak”, berriz, dexente, nik uste. Ez baitzuten gauza handirik ulertzen. Abbadie zaharra, berriz, eta bere multzoa, hantxe egon dira tinko, bukatu arte. Hendaiako jakintsuak ongi ulertzen baitu euskara; zuberera delarik, batez ere, esan didatenez. Ama zuberotarra izanik, sinesgarria baita.

Amaitzean Antonio Arzak Alberdi donostiarra hurbildu zaio On Felipe Arruabarrena ene osabari. Laguna zuen, ikusi dudanez. Eta Pastoralaren *errejentarekin* hitz egin nahi zuela esan dio. Arzak ni baino zenbait urte gazteagoa dela ikusi dut.

–Bai, bai. Noski! Baina nik neronek –erantsi du osabak– ez dut beti hemengoen hizkera konprenitzen. Baina lasai.

Eta niri begiratu dit:

–Nik ez beti. Baina Koxemai ene iloba honek, bai. Etorri, beraz.

Bera baino gazteago zen gazte batekin hurbildu zaigu Arzak hura:

–Honek ere interes handia du –esan digu– azalpenak entzuteko.

–Tira, bada. Datorrela bera ere! Noski!

–“Euskal Erria” gure errebistako kidea da. Bergararra da. Baina aspaldi honetan, eta gerla amaitu ondoren Telesforo bere aitarekin zenbait urtez Ziburun egon ondoren, hortxe Urdazubi ibaiaren ertzean, orain Donibane Lohitzunen bizi da. Bizente Monzon Lardizabal deritzo, eta idazle eta musikaria da.

Ez nituen nik ezagutzen. Ez bata ez bestea. Osabak bat bai: Arzak donostiarra.

Ez dira biak bakarrik etorri:

–Honek ere –bere ondoan zeukan emakume dotore eta gona luze distiranteko gazte bati besotik helduz– interesa du. Eta nik neuk ere interes berbera dut, berak ere entzun ditzan azalpenak, hain zuzen. Karlistada dela-ta, ez da Euskal Herrian jaio; Sevillan baizik. Kontxa Ortiz de Urruela du izena. Aitaren aditzea ba al duzu?

–On Isidro? Nola ez? –erantzun du osabak ahotsa aldaturik–. Santakruz apaiz famatuaren lagun mina! Jaungoiko maitea! Nola ez? Nork ez du gu karliston artean berorren aitaren aditzerik?

Lagunarte hartan, asalaturik ikusten nuen osaba neure bizieran lehenengo aldiz. Eta gotaindar senitartekoak, areago. Mutu, laborri.

–Ederra izan da –esan du orduan Bizente Monzonek–. Grezia zaharreko teatroa gogorarazi dit erabat.

–Erabat –erantsi du Arzakek. Harrigarria da, miresgarria, Euskal Herriaren pitxietako bat, dudarik gabe. Nik ere ez nuen gaur arte pastoralik ikusi.

–Honekin bakarrik –erantsi du bergarar gazteak– bagenuke aski Euskal Herriaz harro egoteko.

*Errejentak* isilik entzun ditu solasak oro. Eta zubere-raz mintzatzen hasi denean, nigana itzuli dira denen begiradak:

–Zer esan du?

–Ohoragarri zaiola gradu honetako gipuzkoarrak pastoralara ikustera etorri izana.

–Bihotzez *eskerrik hanitx!* –errepikatu du behin eta berriz. Eta joan egin da.

–Goazen orain dantza egitera –esan didate Gotaineko bi gaztek–. Orain irabazi egin behar dugu ohorezko dantzaldia. Hator fite, Koxemai –errepikatu didate gotaindarrek, bai zaharrek bai gazteek: “*aigü!*”

Eta, besotik helduz, ia-ia arrastaka eraman naute aurrera.

–Baina nik ez zekiat dantza hori! –esan diet erreguka.

–Tita, tira! *Aigü gurekilan!*

Ezin ezezkoan egon. Eta irten egin naiz.

Eta dantzan hasi naiz, batera, bestera, batera, bestera... Benetako dantza ez zen hura. Baina... luzeegi... luzeegi...!

–Ezin diat! –bota diet estututa–. *Eñherik nüzie!*

Gotaindarrek ez naute sinetsi. Eta segitzeko agindu didate.

Taupadak harrigarriro neure barrua kolpatzen sentitu ditut:

–Otoi...! Ezin dut...!

Arnasa ezin har. Oinaze bizi-bizia bularraren erdian:

–Otoi...! Otoi, Claude...! Erraiezu... *Akitia nüzü*, erabat. Joan nazazie etxerat!

Erori egin naiz.

–Zer duk, Koxemai?

–*Eñherik nük...! Eñherik...!*

\* \* \*

Esnatu naizenean, Baionako neure etxean nengoen. Ondoan neuzkan osaba Felipe, Battitta aitaginarreba, eta Claude maistüria, beronen anaia.

–Medikuak ikusi hau arestian. Eta pasea dela erran dik. Baina heure burua zaindu egin behar duala bolada batez. Egunero oinez ibilaldi luzea egitea komeni zaiala. Eta lantokira oraingoz ez joateko.

–Zer izan da, beraz?

–Ez zekiagu. Hi, lasai, dena dela –esan du osaba Felipek–. Orain lo egin zak lasai. Ez duk ezer gertatu. Eta hori duk garrantzitsuena.

Aturriz bestaldeko trenaren txistua entzun dut, luze, zorrotz.

–Ametsa izan dea Donibanekoa? Ametsa ote bularreko oinazearena, eta ondoriozko ito-beharra? Ala, benetan gertatuak biak?

## XXXIV

Jadanik esana dudanez, Lapurdi aldean emandako hoge urte hartan, ez nuen nik deserritutako karlistekin harreman jarraiturik izan.

Noiztenka albistetxo bat hemendik edo handik iristen zen ene belarrietara. Baina, funtsean, hutsaren hurrena.

Tirso Olazabalgoaren inguruan Donibane Lohitzunen nola-hala irauten zuen karlista talde organizatuaren berri zehatzik ez nuen izaten, beraz. Eta frantses prentsa “légitimiste” izenekoak zinez irentsi ezinik, ezer gutxi nekien Don Carlosen inguruaz

Nocedal aita-semeen “desbideraketaz” ere, gutxitxo. Ez nuen ezer jakin nahi, egia esan.

1892-1893 negua, horregatik, desberdina izan zela esan behar dut.

Parmako Margarita, “Iratxeko Aingerua”, aurreko udan Genovan bihotzeko larria jasan ondoren, zeharo sendatu ez, eta urtarrilaren 27an hil egin baitzen Via-reggion, Italiako kostaldean, Toskanan.

Elvira alaba gaztea zeukan une hartan bere ondoan. Baita Espartza intendentea ere, eta Eusebio Zubizarreta



politikaria, eta gure Iparragirre jeneral leial zaharra, perlesiak jota ia-ia erabat ezindurik.

Margarita Erregina biziki maitatua zen karlista bolondresen artean; eta berorren heriotzak gerlan jardundako soldadu-ohien oroimenak astindu zituen.

Halarik ere, ez zen gertakari hori denetan larriena izan. Jarraitu zitzaizkion esamesak baizik.

Alegia, alargundu ordukoxe hedatu baitzen bazterretan beste emakume batek hartu zuela Margaritaren lekua Don Carlosen bihotzean. Eta Berthe de Rohan izeneko andere hau (oso ederra, famak zioenez) bera baino askoz gazteagoa zela, kaxkarina arrunt, eta denaz gain... frantsesa!

Zurumurruak berehala gorpuztu ziren eta gauzatu. Eta ondoko udaberrian, apirilaren 28an zehazki, esposatu egin ziren Schoemborg Kardinalaren kaperan, Praham, Don Carlos eta Berthe ezkontideak.

Don Jaimek (bere 24 urteetan orduan, Bertheek 34 baizik ez zuelarik) hautsi egin zuen bere aitarekin, ezkontza hura karlista guztiekiko traizio hutsa zelakoan. Eta Berthe amaizunaren arrotasun politiko osoa azalaraziz, Veneziako kanalen ertzeko Loredan famili jauregi ederretik aldegin zuen.

Deitoragarria zen, guztiz, hori bai, barkaezina beharbada, bi gerla doilorretan barrena (hirutan Kataluniako "Les Matiners" delakoa kontatuz gero) euskaldunok eta atzeritik etorritako "legitimistek" isuritako odola eta pairatutako sofrimendu gaitzak horren aise, pertsona baten ahuleziagatik, besterik gabe, erre kara botatzea.

Erregezalekeria hauek gero eta irenskaitzago zitzaizkidan. Karlismoaren altxorra salbatuko bazen, ene ustez, erregetza utzi behar zen alboan. Baina hau aipatzea bera

ere hoben ezin larriagoa zen karlisten artean. Aurrenik... erregea!

Eta Don Jaime gazteak, horren jakitun, eta Errusiako gerlan azala arriskatu eta bere ausardia agerian utzi ondoren, bere burua eskaini zuen “kausarentzat”. Alegia, karlismoaren erremalak bere besoetan hartzeko prest agertzeko.

Jadanik pasea zen Printzea 1892ko udan Ahuñemendiko mugaz hegoaldera; eta, isilpean, Donostiaraino eta Gernikaraino joana. Nik Donibanen Abraham pastorala ikusten nuen garaian, hain zuzen.

Baina oraingoan larriagoa zen egoera.

Euskal Herriko karlistek arraildurarik gabeko gidaritza irmoa eskatzen zuten; foruen eta tradizioaren berrezarpenean, eta liberalak nagusitu baino lehenagoko egitura batugabe eta “errejionalaren” gainean eraikia.

Tirso Olazabalgo irundar beterano eta aberats entzute-tsuak eman zuen aurrerako pausoa; eta, integristen zatiketa kaltegarria ezezereztaturik, karlismoa barrutik berreraikitzeke helburua bultzatzekotan bere ahalmen guztia eskainia zen. Ez baitzen hutsaren hurrena!

Hau guztia, eta beste gauza asko, jakin nuen Baionan 1894ko maiatzean; osaba Felipek bidalitako bi gaztek (bata bederen apaiza zela egingo nuke postura) Baionan bisitatu nindutenean.

Donostiako tirokaldiaren berri zuzen eta zehatza izan nuen horrela. “Gernikako Arbola” kantuaaren kontrako debekuaren ondorioz, abuztuaren 27an “Avenida” betean, Sagasta Madrileko gobernuburua zegoen Hotel de Londres dotorearen aurrean gertatutakoa.

Bata, bizkaitarra nabarmenki hizkerari zegokionez (bere euskarak zalantzarik gabe salatzen baizuen), “bizkaita-

rra” ere bazen (sabindarra politikaz, alegia). Eta “Euskal Herria Espainiatik eta Frantziatik osotara bereizi arte”, eta gu euskaldunok geure gain jarriko ez garen bitartean, jai izango genuela errepikatzen zuen etengabe.

Besteak, berriz, apaiza zela igarri nionak, isilpean etorria zela-ta, bere zertzeladak ez zizkidan eman nahi izan. Karlista amorratua zen, hori bai, benetakoa; eta nafartarra. Goñi ingurukoa agian.

Iazko udaberrian Nafarroa Gamazoren kontra nola altxatu zen azaltzen zuelarik, ileak laztu arte berotzen gintuen:

–Nafarroa osoa baturik ikusi genuen, bai, Nafarroa *osoa*, Goizuetatik Fiteroraino, zutik!! –azpimarratzen zuen garrasika–. Eta ez genuen aukera hura behar bezala baliatu!

“Oraingoan Don Carlosek emakume bategatik utzi gaituenez –errepikatzen zuen oso haserre– Don Jaime semeak hartuko du tradizioaren eta usadio zaharren bandera sakratua. Eta bandera horren atzean, zazpi probintzien eta erlijioaren eskubideen defentsan, Karlos Setimok halako batez soldadu fin izan gintuen bezala, Don Jaimek ere soldadu fin izango gaitu bere zerbitzuko.

Bi bisitarion ikusaldi hura, dena dela, bitxia izan zen. Zergatik ez ote zen osaba bera Baionara etorri? Egia da bazituela orduan 78 urte. Baina nik sendo topatu nuen orain dela urte pare bat, Donibanen pastorelekoan azkeneko aldiz elkar gurutzatu genuenean.

Eta nire susmoak funtsatu egin zirela erreparatu nuen ondoko egunetan.

1894ko maiatzaren 28an etxera azaldu zitzaidan osaba Felipe:

–Hurrengoan –esan zidan– nora deitu azaltzen badi-  
dak (bulegoren bat, dendaren bat, nik dakita?) aldez au-  
rretik egingo diat kasu. Moderno izan behar diagu, Joxe-  
mai! Eta ni naizen zahar honek ematen diat aholku hau...

Nirekin izuli-mitzuli denborarik galdu beharrik ez zeu-  
kala, eta “harira” joan da zuzenean:

–Foruen kausa oso memento larriak ari duk pasatzen  
–esan zidan–. Gamazadaz geroztik, alde batetik, egun haue-  
tantxe urtea betetzen delarik, eta kolpe itsusia gertatuz ge-  
roztik, espainol guztiok legearen aurrean “berdintzeko” ai-  
tzakian, bi gerrateen ondoko porroten ondoren salbatu ahal  
izan genuena bera ere erauzi nahi ditek Madrilen.

“Hemen, gure ustez, argi eta garbi ‘España Foral’ de-  
lakoaren alde hitz egin duen bakarra, Don Jaime izan duk.  
Horregatik gaituk gaur jaimistak.

“Nire biloba izan litekek Don Jaime hori. Bazekiat.  
Hi heu baino hogeitaz urte gazteagoa duk Don Carlosen se-  
mea. Bazekiat.

“Baina itxura ona hartzen zioat nik; eta aita bezain  
ausarta duk. Eta larderiaren ukitua ere badik. Buruzagi  
izan zitekek”.

Pausa bat egin du orduan. Eta geroxeago:

–Nik ongi zekiat hi lehengoa ez haizena; eta argudio  
politiko hutsengatik, ezezkoa emango hidakeena. Baze-  
kiat hori, Joxemai. Eta... bihotzeko arazotxoak direla-ta,  
ez haut ezertara behartu nahi. Esan beharrik ere ez zegok.

Barneak zauskada eman dit:

–Bihotzekoa izan zen beraz nirea –pentsatu dut, hi-  
tzik esan ez dudan arren.

Eta isilune bitxi bat sortu da osaba-iloben artean.

–Bada... hara... bai... Bihotza *izandu* zuan egun harta-  
koa. Baina ez batere larria, sendagileek esan didatenez.

Ez hadi kezka, arren! “Seinaletxo” bat, medikuen hizkeran. Biziera lasaia eginez gero, gehiegi ez jan eta ez edatekotan, eta egunero ordubetez oinez abiada zaluan ibiliz gero eta abar, problemarik berriro izango ez duala esan zidatek. Ez dela larria izan. Bene-benetan.

Berriak, egia esan, aldez aurretik suma nezakeena baino askoz gutxiago kezkatu ninduen.

–Lasai, Joxemai! –esan dit osabak–. Hik baino 34 urte gehiago zeukaat nik; eta espero diat, hala ere, oraingoz Goiko Jaunak beregana ez deitzea... Hi ume-purtzila haiz ene ondoan!

–Tira, ba, osaba. Segi! Zer proposatu behar zenidan?

–Mesede txiki bat, arriskurik batere gabea. Baina mesede handia ere bai, gure honetan.

–Osasunak, zerorrek esan duzunez, ez nau balentria demasetara bultzatzen; eta karlismoarekiko nire atxikimendu zaharrak ere ez. Ikusitakoak ikusita, higitu egin zait lilura hura.

–Bazekiat. Baina *egintzak* niregatik.

–Tira ba. Aurrera. Bota!

–Aurrera egingo badut, gauza bat agindu behar didak: ez dioala inori ezertxo ere esango.

–Aginduta dago, osaba.

–Hortaz, hasi egingo nauk kontatzen.

Eseri egin ginen biok, balkoitik Aturri ibaira geundela:

–Datorren astean, Don Jaime bera etorriko duk Euskal Herrira eta Espainiara. Bigarren aldiz heldu duk, beraz. Baina oraingoa oso desberdina duk egoera. Frantses poliziak Frantziatik bota nahi dik Margarita zenaren semea; eta, harrapatuz gero, egin egingo likek. Isilpe osoa, beraz, ezinbestezkoa duk.

–Baina osaba... ni ez naiz jadanik karlista. Ez dakit zer naizen. Baina karlista ez.

–“Bizkaitarra” edo?

–Ez dakit. Bizkaitarra agian, Sabino Aranaren mutila... Baliteke. Baina “bizkaitarren” helburuak ez ditut ongi ezagutzen...

–Bego hori horretan gaurkoz, Joxemai. Beste batean mintzatuko gaituk lasai. Nik mesede bat eskatu nahi diat orain. Egik niregatik. Ni zaharra nauk. Aurki hilko nauk. Eta emaidak gaur azkeneko pox hori behintzat!

Ahotsa eten egiten zitzaiola erreparatu dut.

–Tira, bada. Zuregatik onartuko dut, osaba. Baina ez Don Carlosengatik, ez orain indarrean bide datorren Don Jaimerengatik ere. Zer nahi zenuke nigandik?

–Hona hemen. Muga pasa artean, eta enkas (seguru aski ez baita ezer gertatuko), Don Jaimereren ondotik ongi iritsi dela segurtatu eta abisatzea nahi diat. Besterik ez. Ez duk, beraz, heure burua inon salatu behar, eta ez horrelakorik ezer. Bera Gipuzkoara ongi iritsi dela guri segurtatuz gero, eta albiste hori segituan jakinaraziz gero, eta Printzea Espainian eta bide segurutik abiatu dela guk jakinez gero, heure lana, kito. Hi Baionara, ni Donostiara. Eta besterik ez.

–Eta nola jakingo nik?

–Operazioa hau duk: Hendaian (eta muga pasatzera-koan, beraz) Tomas Ortiz izeneko jaun heldu batek hartuko dik Madrilerako trenan (T.O., kasu! T.O.)... Pasaian, berri-ri, hire adineko bi jaun gazte egongo dituk beraren zain, eta sud-expresoaren zain, beraz. Biok ezagutzen dituk hik, nolazpait bederen. Trenera sartuko han; Pasaian, alegia, Donostia aldera, eta Madrilerantz abiatuko.

Eta poltsikotik foto batzuk ezkutuka atereaz, erakutsi egin dizkit:

–Zaharrena den hau, trenaren barruan etorriko dena, Tomás Ortiz izenekoa (T.O., baina izen faltsua, noski!), bere berrogeita hamar urteetan. Ez duk, izan, paperetan agertzen den “Tomás Ortiz” delako hori, Tirso de Olazabal baizik. Gogoan atxik. Biok “T.O.”. Hemen daukak fotoa.

–Alajainkoa! Ezagutzen dut, bai. Ezagutu... alegia, badakidala itxura hori norena den. Nola ez?

Barrena etenean neukan.

–Eta orain, beste biak; Tomas Ortiz delakoa trenean “aurkituko” dutenak. Lehenengoa hau duk...

Eta fotoa erakutsi zidan.

–Alajainkoa! –nik, zurtuta.

–Julio Urkijo Ibarra zeritzok, bilbotarra. Tirso Olazabalen Vizenta izeneko alabarekin aurki (datorren irailean, omen) Donibanen ezkontzekoa. Gizon jakintsua, aberatsa. Eta nik ez nekiena: Don Carlosen eta Santakrutzen jarraitzailea izan ondoren, gaur Don Jaimereren alde borrokakide sutsu bihurtua.

–Txit ongi oroitzen naiz beraz, bai. Donibaneko festetan ikusi nuen, Pastoralekoan, bai. Ziur! Gizon isila ematen du.

–Badakik, Joxemai. Gizon jakintsuak, isilak izaten. Euskaltzalea duk, oso, gainera. Baina euskaraz ez zekik.

–Hain zuzen! Horregatik ez zuen ezer esaten, beharbada, errejentarekin, gotaintarrekin eta bergarar haiekin mintzatzen ari nintzenean...

–Balitekek, bai.

–Alajainkoa!! –irten zait berriro ozenki.

–Uztak baketan Jainkoa, otoi!

–Saiatuko naiz, osaba. Baina, hirugarrena?

–Hirugarrena, Urkijorekin kotxez etorriko dena (seguru asko “De Dion Bouton” gasolin-berebil berri horietako batean etortzekoa; baina hau ez ditek segurtatu)... ongi entzun orain... “Juan de Battenberg” jauna bere paperetan... “J.B.”... Jaime de Borbón bera duk. Don Carlosen seme eta erregegaia! Espainian sartu baino lehenago, gau bat Larrun mendiko tontorrean eman nahi omen dik, aterperik batere gabe, indarrak horrela hartzeko nonbait, eguratsa bizkorgarri. Larrundik jaitsi, eta Pasai aldera kotxez!

–Don Jaime isilpean ari? Alajainkoa!

–Berrero Jainkoa aiputan?

–Barka, osaba! Arranopola!!

–Horrela hobe, bai. Euskal Herrian oso ezagunak dituk biok, eta zuhurrena inon ez gelditzea dela erabaki omen ditek. Eta Burgosaino ez omen dituk trenetik ezertarako jaitsiko. Handik gero Valladolidera joango omen dituk, eta Madrilera, eta Covadongara, eta abar. Don Jaimek blai jarri nahi omen dik bere burua espainiartasunez.

–Ulergarria.

–Azkeneko ohartxo bat bakarrik bukatzeko. Frantses poliziak bidaia honen susmoak ba omen dituela; eta ezertxo ere ez esatea dela beharrezkoena. Egun hauetan Azkainerako errepidean Don Tirsok daukan “Chanienea” jauregi urdinska zabalean ostatatu duk isilpean Printze gaztea. Hain zuzen handixek abiatuko omen duk, berebilez, Don Julio gazteak lagunduta, Pasai aldera. Dena ulertu?

Dardar nengoen. Etsita ninduen karlismoak. Dudarik ez. Baina mixterio giro horretan ibilki, eta polizia atzetik (honetan, lehengo lepotik burua, Don Carlos hogeitau urte lehenago ibili zen bezalaxe); eta gradu horretako buruzagi eta handiki jendeak arrisku horietan eta mentura giro horretan ibiltzeko prest zeudela ikusteak, bada, egia aitortu-



ko dut: erakarri egiten ninduen. Karlismoan poesia atxeman uste nuen, mukurru. Don Carlos, Don Isidro Ortiz de Urruela, Don Manuel Santakruz apaiza... poesia zegoen horien bizimoduetan. Zalantzarik ez...

–Euskaldun karlisten artean bazegok kasta! –pentsatu nuen harro.

Gure bidaiariak, Lurdetik pasa ondoren, uztailaren hasierako egunetan iritsi ziren Donibanera. Berehalaxe, Madrilen eskabide hertsu gogorra, Parisko Enbaxadaren bitartez bideraturik, eta uztailaren 22an Don Jaimek Frantziatik ihes egin behar izan zuen.

Bera ere, aita bezala, “persona non grata” Frantzian!

Oinaze bitxiak nabaritu nituen bularraren erdian eta ezkerreko izterrean. Txikiak, nolana ere.

–Alferrik duk. Ez haiz lehengoa! –pentsatu nuen.

Eta istilu haietan mugitzeko gauza ez nintzela sinetsi nuen.

Argi eta garbi aitortu beharko hurrengoan osaba Feli-peri.

Hau ere: aginduta!

## XXXV

Lana utzi behar izan nuen. Berehala nekatzen nintzen, berehala edozein lekutan loak hartzen, berehala unaturik.

—Atsedena hartu behar duzu —esaten zidan sendagileak.

Baina lo luzaz eginda ere, eta losustak gero eta maizago eta luzeago eginagatik, beti ere logaleak egoten nintzen. Logura, eta etzateko irrikan.

Eskualdunen karrikako neure moldiztegia saltzea erabaki; eta horixe egin nuen.

Georges Lahitte izeneko kaskoin batek erosi zidan. Eta birbataiatu egin zuen hasteko: “Imprimerie le Progrès”.

Bapo! Ez nintzen sekula ere hara azaldu.

Egunak luze bihurtu ziren enetzat. Eta Aturriko hegietako bake gandutsua, gero eta pisuago. Ezin han etsi. Etxeko bakardadea jasanezina zitzaidan. Baina kalera irtenda ere, zer? Nekatu egiten nintzen, eta etxera behar! Etxen zer egingo, ordea?

Eta orduantxe errepikatzen ziren trenen txistukada luzakor haiek; beti ez bada ere, asko eta askotan, nire ustez behintzat, ilunabarreko argitasunean hedatuak.

Eta Baionatik alde egin behar nuela ikusi nuen.

Donostiara, pentsatu ere ez. Noski. Nire Donostia suntsitua baitzen osoki.

Milafrangara, berriz, Garazi gabe, zertarako? Erokeria litzateke.

Eta argi printza batek ukitu ninduen halako batez: Gotainera!

Claude Arhanegoiti *mahasturu* zaharrak, beti hartu izan ninduen han hitz onez; eta Battitta aitagarrebak ere, emaztea eta *alhaba bakhotxa* biak hilda, argi eta garbi esan zidan:

—Hi haiz orain Garazi maitearekin dudan lotura bakarra. Hi ikusita, biok ikusten bide zaituztet batera, elkarturik barre algaraz, esperantzak oraindik higitu gabetanik. Besterik zer espero dezaket jadanik oroitzapen eder haiek baino?

Xiberutartu egin naiz, bestalde, hein batez bederen. Eta, besterik ezean, Gotainen dut gaur neure habia.

Argi eta garbi proposatu nion halako batez aitagarrebari Gotaineko “Arhane” etxera ni erretiratzea. Eta pozkariotan hartu zuen burutazioa:

—*Augi fite*, Koxemai! Han baketan biziko gaituk hirurok. Hirurok ez, gainera. Osaba Eñaut apez zenduarekin neskame izandako Giselle mendikotarsa ere, oso pozik egonen baita gu hiruron zerbitzutan: zahar bat, edo biga, edo hirur horretara, zer liferentzia?, pentsatuko dik

Baina, Gotainera baino lehenago, azkeneko gutxia gisa, Donibanera egin nuen bisita. Olazabaldarren jauregia berrikusi nahi nuen, Azkaineko bide ertzekoa. Eta hara joan nintzen trenez arratsalde batez.

Alimaleko jauregia topatu nuen, hein batez berriturik. Hiru solairu, lau leiho nagusi eta balkoi bana solairu ba-

koitzean. Eta sarrera nagusian, hamar mailatako eskailera zabal dotore bat, jauregiaren heinera igotzeko. Goi-goian, berriz, teilatuaren azpialdean, zortzi medailoi. Baxu-erliebetan gainaldean ageri, eta etxe guztia inguratuz.

Eta hiru lerrotan idatzirik, hiru silaba hauek: UR / QUI / JO. Eta beste inguru batean, kantoi batean gailen, bi izen hauek soilki: *Julio – Bixenta*.

Eta izkribu guztien bilduma gisa Olazabali suhi gazteak erositako etxean ezarritakoa: *Urkixo Baita – 1896garren urtean*. Bere horretantxe, bai; eta euskaraz.

Pentsakor utzi ninduen bisitak. Oso pentsakor.

Zeren-eta, esaten nuen nik neure artean, zerk bultzatu ote zituen Urkijo, eta Urruela, eta Bizente Monzon, eta Abadia jakintsua, eta Makatzaga eta Santakruz apaizak, eta Andetxaga enkarterritarra, eta Elio anaiak, eta beste ehun mila euskal herritar, bizia behin eta berriz emateraino? Zerk funtsatu zituen Lakar-en eta bestetango odol-zelai mingarrietan hil ziren bolondres gizajoen indar harri-garriak?

Oraindik ez dakit.

Baina ez erantzun, otoi, Borbón y Austria-Este leinukoek gurean agintzea izan zela berorien helburua eta bidea! Ez baitut inolaz ere sinesten, eta ez baitut inoiz ere horrelakorik sinetsi.

Areago, ezin baita hori sinetsi.

Baina Nafarroak eta Euskal Herri ia osoak sinetsi zuten karlismoan.

Zergatik ote? Zergatik sinetsi nuen neronek ere?

\* \* \*

Gotainen nekatuta bizi izan nintzen. Hauxe da dator-  
kidan hitz egoki bakarra.

Elizan ere (eta hauxe bai niretzat mingarria!), eskaile-  
retan gora igo ezin; eta beherean gelditu behar izaten  
nuen mezatakoan... andere eta atso guztiekin baturik, eta  
mutilak eta gizasemeak oro (ni ezik) goiko balkoi-erdi  
hartan kokaturik erreparatzen nituelarik...

Gotainen nengoela jakin nuen, pozarren, 1897 urtean,  
Canovas del Castillo anti-euskaldun amorratu nazkagarria  
Arrasaten hil zutela.

–Euskal Herriaren ohorea salbu –pentsatu nuen.

Arhane-eneko poz iturri bakarra, han eman nuen urte  
pare hits hartan, osaba Eñaut apaiz-ohiaren liburutegian  
murgiltzea izan zen. Hantxe irakurri nuen nik, burutik bu-  
ru, nik uste, Agosti Xaho zuberotarraren obra. Eta ez “Vi-  
site en Navarre pendant l’insurrection des Basques” fa-  
matua bakarrik.


“Ariel” aldizkariko artikulua ere, erokeria batzuk  
salbu, urrezkoak izan zitzaizkidan.; eta den-denak irakurri  
nituen.

Harako bidean, eta Xalbaterretik, eta Sangladiako do-  
rretzar karratuaren ondotik azkeneko aldiz hurbildu nin-  
tzen egunean, Ozagaine ondotik Ahuñemendiko kate osoa  
ageri zen, urrunean, elurrak lerro luze zuria bihurturik; eta  
arteko muinoak urdindurik tartekatzen zitzaizkidalarik.

Eta zerua, gainean, berun aire, argi oso. Bitxia!

Berriro ere mendi kate eder hura handik eta argitasun  
hartan ez nuela ikusiko sentitu nuen azkarki; eta, belazeaz  
bestaldean, Ezpilda, Etxarri, Tabaila, Uzkañe ñimiñoa,  
ez nituela berriro neure ondoan dastatuko:

–Bazekiat, bai. Azkeneko aldia duk hau.... Zer egingo?



*Gotaine-Irabarneko eliza hirukuna.*

Gotainerakoan, eliza hirukunak errezebitu ninduen, isilean. Eta pareta borobileko frontoiak. Eta, eskuinean, latsaz bestaldean, herriko etxe urdinskek, otsaileko arrastiri hartan bestetan baino askoz beltzaireago... Elizaren aurreko hilarriek ere, harrera berezia egiten zidatela iruditu zitzaidan.

–Horra hor nire azkeneko Aberria –pentsatu nuen neurere artean.

Latsaren xuxmur izuti etengabea ari, Arhane etxeraino hurbildu nintzen.

Osabak eta aitagarrebak lagundu zidaten etxe barruko eskailera igotzen. Ni neroni ez bainintzen gauza. Eta Giselle neskatoak kamamila bero bat ekarri zidan ohera.

–*Eskerrik hanitx!* –esan nion ahots mehe-mehe batez. Eta berak irriño batez erantzun zidan.

Eta lotan gelditu nintzen.

Biharamunean Maxkaradaren xirula hotsak esnatu ninduen.

Xirula hotsa zen, bai. Ihautekoa.

–Ireki leihoa! –eskatu nion Giselleri–. Irek, otoi!

–Jauna! *Gaian elhür egin dizü!* *Eta hoztüzü.*

–Irek leihoa, otoi –agindu nuen–. Xirula entzun nahi dut... Bestela Urgullgo kornetak eta Lakarko tronpetak nagusitzen dira nigan. Irek, otoi!

Eta ireki egin zuen.

–Hori nahi nuen, bai... Mila esker, neskato... Xirula soinu ezti xorrotx hori nahi nuen... Orain, badantzut... Eta lasai hil naiteke...

–Ixo! Otoi! –esan zuen Gisellek.

Eta egia zen. Xirula entzuten nuen, Gotainera hurbiltzen ari. Gero eta hurbilago... gero eta hurbilago...

–*Hoztüzü, jauna... Zerratü behar dizüt!*

–Ez hets, otoi! –nik.

–*Dena düzü elhürretan, eta latsa karrantatürik düzü.*

–Berdin da. Nik xirula eta ttuntuna nahi ditut entzun.

Ireki.

Eta entzun egin nituen, bai, xirulak. Pixkanaka-pixkanaka Irabarnetik Idauze eta Mendikota aldera urruntzen ari.

–Ez hets leihoa, otoi –errepikatzen nuen neure ahuldadetik–. Xirula entzun nahi dut hilaginean...

–Ez dut hetsiko –Gisellek–. Baina aitaren eta koinatuaren bila noa oraintxe Maulera.

–Ez dizu balio.

Izugarrizko hotzak hartu zuen ene gorputza. Izugarria! Dardar jarri zitzaidan soin osoa; eta behatzak, erhi punttak, ezkerreko eskuarenak batez ere, minbera ere jarri zitzaizkidan.

Baina hotzarekin batera, bakea, bake hazkorra nigan.

Iraungiz joan zen xirula soinua, gero eta urrunago, gero eta ahulago.

–Ireki leihoa, otoi! Haizea falta zait... Ezin arnasa har. Eta xirula isildu zen, isildu...

Gero eta isilago ari, gero eta urrunago, gero eta etenago, gero eta entzungaitzago...

Erabat Gotaineko isilean suntsitu zen arte.